

2020-2024 EGITASMOA



URKULLU
LEHENDAKARI

EUSKADI ZUTIK

aterako gara!!



EAJ-PNV.EUS



The background features a series of parallel diagonal lines. The top-left and bottom-left corners are filled with a pattern of red and green lines. The rest of the page is white, with a grey diagonal line separating the colored areas from the rest of the page.

AURKIBIDEA

1. SARRERA	4
2. ENPLEGUA	34
3. INDUSTRIA ETA NAZIOARTEKOTZEA	50
4. BERRIKUNTZA ETA EKINTZAILAZA	72
5. GARRAIO ETA MUGIKORTASUN IRAUNKORRA	88
6. ELIKADURA, BASO SEKTOREA ETA LANDA GARAPENA	96
7. TURISMOA	106
8. MERKATARITZA ETA OSTALARITZA / KONTSUMOA	114
9. HEZKUNTZA	130
10. LANBIDE HEZIKETA	142
11. UNIBERTSITATEAK ETA IKERKETA	162
12. OSASUNA	174
13. GIZARTE INKLUSIOA / GIZARTE ZERBITZUAK	192
14. ETXEBIZITZA	212
15. GAZTERIA / KIROLA	226
16. GENERO-BERDINTASUNA	250
17. ADINEKOAK	258
18. FAMILIAK ETA HAURRAK	272
19. KULTURA / EUSKARA	284
20. SEGURTASUNA / JUSTIZIA	308
21. BIZIKIDETZA ETA GIZA ESKUBIDEAK	328
22. IMMIGRAZIOA / ANIZTASUNA	340
23. GARAPENERAKO LANKIDETZA	348
24. ESTRATEGIA ENERGETIKOA	356
25. KLIMAREN ALDEKO EKINTZA	364
26. INGURUMEN ESTRATEGIA / BIODIBERTSITATEA	372
27. EKONOMIA ZIRKULARRA	380
28. EUSKAL EUROESKUALDEA	388
29. EUSKADI-BASQUE COUNTRY	396
30. KUDEAKETA GARDEN ETA ARDURATSUA	406
31. AUTOGOBERNUA	420

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

- **SARRERA:** EUSKADI, MUNDURA IREKITAKO HERRIA

- **NAHIA:** NAHI DUGUN EUSKADI


- **SUSTRAIAK:** GURE SUSTRAIAK

- **ADARRAK:** LAU ARDATZ NAGUSI

- **HELBURUAK:** 15 HERRI HELBURU

- **ERRONKAK:** LEGEGINTZALDIKO 30 ERRONKA

- **ARLOAK:** 30 JARDUERA EREMU





SARRERA

EUSKADI, MUNDURA IREKITAKO HERRIA

■ **IDENTITATE PROPIOA, ERALDATZEN DAGOEN MUNDUAN**

■ **HIRU TRANTSIZIO GLOBAL**

- TRANTSIZIO TEKNOLOGIKO DIGITALA
- TRANTSIZIO ENERGETIKO INGURUMENEKOA
- GIZARTE ETA OSASUN TRANTSIZIOA

■ **BOST HERRI KONPROMISO**

- KONPROMISOA ENPLEGUAREKIN
- KONPROMISOA BERRIKUNTZAREKIN
- KONPROMISOA KLIMAREKIN
- KONPROMISOA GAZTEDIAREKIN
- KONPROMISOA OSASUNAREKIN

■ **GIZA ESKUBIDEETAN OINARRITUTAKO ZEHAR ARDATZA DUEN PROGRAMA ETA NAZIO BATUEN GARAPEN IRAUNKORREKO HELBURUEKIN (GIH) LERROKATUA**

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

IDENTITATE PROPIOA, ERALDATZEN DAGOEN MUNDUAN.

Munduaren konplexutasuna, izaera dinamikoa eta aldakorra aitortzea, eta zenbait krisi eta eraldaketa aurreikusezinak izatea, nahitaezko premisa dira etorkizunari aurre egiteko. Aldaketa da seguru bakarra. Prest egon behar dugu jokaleku berrietara etengabe egokitzeko.

Adibiderik onena izan berri dugun koronabirus krisia dugu, Euskadin eragin berezia izan duen pandemia global hau.

Orain dela hilabete batzuk, ezerk ez zuen iragartzen gaixotasun infekzioso honek milioika pertsonaren ekonomia eta osasun funtsak nahastuko zituenik.

Aurretiaz aurreikusi gabeko egoera berri batera bizkortasunez egokitzeko gai dela frogatu du euskal gizarteak. Emaitzak mingarriak dira, gaixotu eta hildako pertsonengatik ez ezik, enpleguaren eta ekonomiaren eremuan ere bai, bereziki enpresa txiki eta ertainetan eta pertsona autonomoengan.

Euskadin talka neurriak hartu ditugu, eta horiei esker berehalako arriskuari aurre egin ahal izan diogu. Osasun krisiari aurre egin diogu, eta, likideziako eta lan malgutasuneko neurriei esker, enpleguan eta enpresetan izan litzakeen eragin gogorrenak ezitu ditugu.

Euskadi eragin larria jasanda geratu da alde emozional, sozial eta ekonomikotik. EAJk uste du egoera honetatik indartsu jaikitzeke unea heldu dela. Ez da erraza izango, baina beste une batzuetan ere frogatu dugu egoera zailtan dugula geure onera etortzeko eta elkarrekin lan egiteko gaitasuna.

Berriro abiatzeko unea da. Herria berriro zutik.

Ekonomia bultzatzeko eta enplegurako ohiz kanpoko programa bat garatzeko unea heldu da, berriro jaikitzen lagundu diezagun. Iñigo Urkullu lehendakariak 2020-2024 aldirako Enpleguaren eta Suspertze Ekonomikoaren Estrategia planteatu du.

EAJtik geurea egiten dugu Lehendakariaren planteamendua, Herri programa bat abiarazteko, hiru lurralde historikoetako foru aldundiekin elkarlanean eta tokiko erakundeen partaidetzara irekita. Hazkundearen bidea berreskuratzen eta gure langabezia tasa berriro % 10en azpitik jartzen lagunduko digun Programa.

Ohiz kanpoko programa hori jarduera ardatz osagarri bitan egituratuta dago. Txanpon beraren alde bi. Helburu komuna enplegua sortzea eta dagoen enplegua mantendu eta hobetzeko ekonomia suspertzea da.

I. ARDATZA: ENPLEGUA SORTZEKO PROGRAMA.

Ardatz honetan enplegua sortzea zuzenean bultzatzeko neurriak abiaraziko dira sei arlotan jardunaz:

- 1) Ekintzazailtza, mikroETEak eta autonomoak.
- 2) Enplegurako prestakuntza.
- 3) Lan munduratzea. Tokiko eta eskualdeko enplegu planak.
- 4) Sektore publikoa berritzea. Lan eskaintza publikoak.
- 5) Renove: Hiriberritzea eta eraikin publikoak zaharberitzea.
- 6) Gazteen enplegua.

II. ARDATZA: EKONOMIA SUSPERTZEKO PROGRAMA.

Enplegua sustatzeko zuzeneko neurrien osagarri, Ekonomia Suspertzeko Programa handi bat garatzeak dauden lanpostuak mantentzen eta lanpostu horien kalitatea hobetzen lagunduko du. Bigarren jarduera ardatz hori sei arlotan egituratuko da:

- 1) Azpiegitura publikoen programa estrategikoa.
- 2) Berrikuntza eta teknologia garapena indartzea.
- 3) Trantsizio energetikoa eta ingurumena sustatzea.
- 4) Industria, nazioartekotzea eta zerbitzu aurreratua bultzatzea.
- 5) Tokiko elikagai industria garatzea.
- 6) Tokiko ekonomia sendotzea. Merkataritza, ostalaritza eta turismo eta kultura industria.

Ekonomia suspertzeko programa hauen bitartez, inbertsio publikoa eta inbertsio pribatua suspertuko da ekonomiaren goraldia ahalbidetzeko eta enplegua finkatu eta hobetzeko.

Enplegua berriro da gure erronka handia, EAJk planteatzen duen lehentasuna.

Datorren legegintza aldi honetan langabezia tasa % 10en azpitik jartzea da guztion helburu eta erronka.

EUSKADI, MUNDURA IREKITAKO HERRIA

Herri honek historian zehar aurre egin behar izan dio mundu konplexu eta etengabe eraldatzen ari den batera etengabe egokitzeko erronkari. Euskal Herriak beti izan du delibero demokratikoa mundu global batean bere lekua izateko. Esperientziak erakusten digunez, gutxienez hiru dira hori lortzeko oinarrizko baldintzak: identitate propioa, esfortzu etengabea eta gizarte kohesioa.

Gure identitatea babestea. Ezinbesteko faktore bat da ezagutzaren eta aitortzaren subjektu izateko, identifikatua izateko: Euskadi-Basque Country. Identitatea eta autogobernua funtsezko elementuak dira entitate nazional propioa eta munduan ezagutzeko modukoa izateko. Identitatea eta autogobernua dira, halaber, gure aurretik joan direnen ibilbideari garrantzia emateko aukera ematen diguten giltzarriak. Apaltasun ezaugarri bat da gogoratzea mundua ez dela hasi gure belaunaldiarekin, baizik eta gure aurrekoek eraikitakoaren zordun garela. Herri gisa gure burua aitortzea –gure identitatea eta gure autogobernua– gu mundura proiektatzeko eta gure arbasoei diegun errespetua adierazteko modu bat da.

Tropeleko buruan egoteko lan egitea. Aurrerabidearen metodoa nazioarteko itunaren lehentasunezko agenden garapeneko lehen lerroan egotea da. Hori lanarekin, esfortzuarekin eta egiten dugun guztiaren bikaintasunarekin baino ez da lortzen. Ezin dugu bidea egin herri marka soil batekin. Bikaintasunezko eduki bat ere beharrezkoa da. Barrurako ibili dabilen eta kanporako eman ematen duen herri bat izaten jarraitu behar da. Edozein eremutan mundu hobea egiten laguntzen duen herri bat. Autoeskakizun handia eta etengabeko hobekuntza arlo guztietan. Bertan gozo geratzearen justu kontrakoa. Gaur egun tropeleko buruan egotearen lan egitea konpromiso sakon eta berritzaile bat norbereganatzea da, barne eta kanpo konpromisoa, giza garapen iraunkorrean. Gure potentzialtasun guztia eta gure gizarte guztia aktibatzea dakar, horrek “auzolana” esan nahi du.

Gizarte kohesio eta oreka. Euskal Herria ezerk bereizi badu, gizarte kohesio eta orekaren erreferentzia izatea izan da. Gurago dugu elkarrekin aurrera egitea urrunago heltzeko. Gizarte sozialki orekatu bat gizatiarragoa da, eta lehiakorragoa ere bai. Herri bat gara, gure pluraltasuna beti aitortu eta errespetatu duguna. Gai izan gara gurean gizarteratu diren kanpotarrei besoak zabalik abegi egiteko. Bere pluraltasunean aberatsa den gizarte bat, kidetasun sentimenduak elkartzen duena.

Euskadi aitzindaria izan da pertsona behartsuenen aldeko gizarte politikak bultzatzen., Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde egiten. Sexu, kultura eta gizarte aniztasuna onartzen eta babesten. Hau ere gure indargunea da.

EAJk euskal herritarrei eskaintzen dien hauteskunde programak hiru abiapuntu hauek bereganatzen ditu: gure euskal identitatea babestu (IZAN); tropeleko buruan egoteko lan egin (BIZI); eta gizarte orekatu eta sozialki justu batean aurrera egin (ELKARREKIN BIZI). Munduan bide egiteko hiru giltzarri, eta, nola lortu nahi dugun, konpromiso bat.

Aldaketa eta trantsizio globaletara beti egokitu behar izan dugun herri bat gara. Koronabirusaren krisiak azaleratzen ari ziren munduko hiru joera azeleratu ditu. Historiaren trena galdu behar ez badugu, erreakzionatzera eta bizkor egokitzera behartzen gaituzten hiru trantsizio. Ez dago denbora galtzerik. Hau da EAJk mahairatzen duen proposamena. Jaiki eta bizkor jokatu behar dugu besteak baino lehenago egokitzeko hiru trantsizio handitara: trantsizio teknologiko digitala; trantsizio energetiko ingurumenekoa eta gizarte eta osasun trantsizioa.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

HIRU TRANTSIZIO GLOBAL NAGUSI. ERALDATZEN DAGOEN MUNDUA.

EAJren hauteskunde eta gobernu programak 2030ko munduan eta 2030eko Euskadin jartzen du begirada. Etorkizun horretan hiru trantsizio handi ditugu arrakastaz aurre egiteko: teknologiko digitala, energetiko ingurumenekoa eta gizarte eta osasunarena.

1. TRANTSIZIO TEKNOLOGIKO DIGITALA

Iraultza digitala aurrekaririk gabeko lastertasunez ari da aldatzen ezagutzen genuen mundua. Internetek eta teknologia digitalek aldatu egin dute enpresek diharduten era, edo pertonek konektatzen diren, informazioa trukatzeko duten edo sektore publiko eta pribatuarekin interakzioa duten modua. Hori guztia, konektatutako gailuak gero eta gehiago diarelako eta datuen eraman-ekarria gero eta handiagoa delako. Digitalizazioa hazkuntzaren, berrikuntzaren eta gure enpresa jardueraren berrien iturri garrantzitsua bihurtu da.

Eraldaketa digital hori baldintza bat da ekonomia modernoak oparoak izan daitezen. Ekonomiaren ia sektore guztiei eragiten die: garraioari, energiari, industriari, osasunari, nekazaritzako elikadurari, telekomunikazioei eta finantza zerbitzuei.

Adimen artifiziala eta teknologia berriak erantsi eta aplikatzea, hala nola zibersegurtasuna, gauzen Internet, 5G edo big data, trantsizio digital honen berehalako ibilbidearen adierazle dira. Horrek guztiak pertsonen eguneroko bizitzaren taxutzean, gizartearen eta giza harremanen martxan eta produktibitatean, enpleguan, negozio ereduetan

edo zerbitzu publikoetan eragiten jarraituko du.

Trantsizio hau ez da arrisku, mehatxu eta abusurik gabekoa. Nazioarteko lankidetzaren ezinbestekoa da erregela komunak ezartzeko. Esparru bat, giza eskubideak babesteko, abusua borrokatzeko eta giza duintasunaren neurriko ekonomia digitala eta global bat sostengatzeko. Unibertso digitalaren mundu gobernantza baterako EBren politikei eta programei eta Nazio Batuen Konpromisoei jarraitzen die Eusko Jaurlaritzak, eta horretan sakontzeko hautua egiten du EAJK.

Hala eta guztiz ere, trantsizio teknologiko digitala eta bere eraginak abagune bat dira Euskadirentzat. Gizarte aurreratua izan eta teknologia horiek erabili ahal izateaz gain, urrats bat gehiago eman eta gure Herria eraldaketa prozesu global honetan lehentasunezko eragile bihurtzera jo behar dugu. Trantsizio digitala eta berrikuntza teknologikoa gai da distantzia eta hesi fisikoak gainditu eta Herri txiki bati aukera emateko munduko itunean rol garrantzitsua har dezan. Kontua ez da tamaina talentua baizik.

EAJren proiektuak talentuan eta pertsonetan jartzen du trantsizio digitalaren erdigunea. Horra hor erronka berritzailea. Konpromisoa digitalizazioaren konpromisoa bultzatzea da, hartara iristeko arrakalak guztiz eta aukeren potentzial hori pertsona eta antolakunde kopururik handienara helitzea bilatuz; batez ere, enpresa ertain eta txikietara.

EAJK ekonomia digitalaren taxutzean rol aktiboa bultzatuko du Eusko Jaurlaritzatik. Industria eta zerbitzu publikoak digitalizatzea, azpiegituretan eta zerbitzu digitaletan inbertitzea, ikerketa eta berrikuntza proiektuak, zibersegurtasuna eta enpresa teknologiko berriak sortu eta haztea bultzatuko du.

2. TRANTSIZIO ENERGETIKO INGURUMENEOA

Klima aldaketaren erronkaren aurrean, Euskadik bere bilakaera egin eta osatuko du ekoizpen eta gizarte eredu ardurakide baterantz, Nazio Batuen konpromisoen eta Europar Batasunaren ildotik.

Berotze globala eragiten duten berotegi efektuko gasen emisioa modu progresiboan gutxitzeak 2050eko mugan karbonoan neutroa den euskal ekonomia bat izatera zuzendutako aldi bereko zenbait eraldaketa eskatzen ditu.

Lehenengo eta behin, energia sistema karbonogabetzea efizientzia handituz, jatorri berriztagarri eta banatuko energia sorkuntza ugalduz eta elektrifikazioaren bidez.

Bigarrenik, mugikortasunak modu progresiboan baztertuko du erregai fosilekiko gaur egun dugun mendekotasun handi-handia eta aniztasun teknologikoa hobetsiko du, lehentasuna ematez motorizazio elektrikoari eta jatorri garbiei, airearen kalitatea hobetze aldera eta klimari ahalik eta gutxien eragiteari begira.

Hirugarrenik, bizitegi sektoreak kontsumo ia deusezerantz joko du etxebizitza zaharberritzea eskala handian bultzatuz, euren energia propioa eta neutroa sortzen duten

energia kontsumo efizienteko etxebizitzak lortu arte.

Hondakin kantitatea gutxituko da eta berrerrabiltzea izango da lehentasuna emango zaion tratamendua; ezinezkoa bada, birziklatuz; eta, azkenik, balioztatuz, zero hondakin aprobeixatu gabe izanik helburua.

Politika sektorial guztiek barneratuko dituzte ingurumen kostuak eta lehentasuna emango diote ingurune fisiko eta giza ingurune kalitatezkoegi laguntzea lur, aire eta ur garbiaz, etengabe hobetzen egon behar duen bioaniztasunaz eta ingurumeneko baliabideak lurberako beste leku batzuekin eta gure geure ondorengoekin solidarioki erabiliaz, datozen belaunaldiei aurkitu genuena baino herri hobea utzi ahal diezaiegun.

EAJk programan bereganatzen dituen konpromisoen esparruan ideia zentral bat da nagusi: Eusko Jaurlaritza aitzindaria izango da, bideratu egingo du eta sustatu eraldaketa energetikoa eta ekologikoa gobernantza egoki baten eta administrazio eredugarri baten bidez, lurralde eta toki administrazioekin eta nazioarteko sareekin elkarlanean. Eraginkortasunagatik eta sinetsita gaudelako, eragile ekonomiko eta sozialekin itunduta jardungo da. Berrikuntzari bul-

tzada ematea konstantea izango da. Euskal herritarrak aro aldaketa honen partaide eta motor izango dira, informazio egokia eta parte hartze aktiboa izango baitute.

EAJk konpromisoa hartzen du 2020tik 2030era bitarteko hamarkada ekologiarren hamarkada izan dadin. Gobernu ekintza guztiek izango dute ikuspegi ekologikoaren zehar dimentsio bat. Trantsizio ekologiko eta ingurumenekoa giza aurrerabide eta garapen iraunkorraren abagune handi bat da, eta euskal gizarte horren aurrean kokatuta dago. Gainera etorkizunarekiko eta gazte-diarekiko konpromiso irmo bat da.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

3. GIZARTE ETA OSASUN TRANTSIZIOA

Gure gizartea ibili dabil, hamarkadaz hamarkada eta are mendez mende gorde ditugun balio tradizionalen lotutako eredu batetik, maila guztietan fisionomia eta osaera berri batek markaturik eraldatzen ari den gizarte baterantz. Historiako etapa berri batean kokatuko gaituen gizarte eta osasun trantsizio bati egin behar diogu aurre. Erronka berriak. Balio berriak. Lehentasun berriak. Trantsizio hau erreferentziatzeko bost elementuk markatzen dute: osasun segurtasunak, jaiotza tasa jaisteak, emakumearen rol berriak, migrazioak eta gizarte balio berriak.

■ **Osasun segurtasuna.** Covid-19aren krisiak agerian utzi du osasun segurtasunaren eskaera sozialari erantzuna ematearen garrantzia.

Gizarteak pandemia honen aurrean edo bihar-etzi etor daitezkeen aurrean osasun babesa hobetzeko eskatzen die herri administrazioei.

EAJ lehentasunezko eskari sozial horretaz jabetuta dago. Gure konpromisoa osasun sistema publikoa indartzea da, oraingo koronabirus pandemia berriro ager daitekeelako kontrola, jarraipena eta babesa bermatzeko. Horretarako, indartu egingo ditugu lehen arretako zerbitzuak, kasu berrien detekzio goiztiarra, hedatzea eta kutsatzea saihesteko kontrola; eta ospitaleetako ZIUKo oheetan, giza eta osasun baliabideetan eta norbera babesteko ekipamenduetan behar besteko erantzuna ere bai.

Hori da gure berehalako lehentasuna, arrisku hori ezereztan edo moteltzen duen txerto bat aurkitu bitartean. Koronabirusaren krisiak argi utzi digu munduko biztanleria etorkizunean osasun gora-beheren mendean egongo dela. Euskal

osasun publikoaren lege bat onartuko dugu, izan litezkeen pandemia globaleko kasu berrietatik babestu eta gorde gaitzan.

■ **Jaiotza tasaren jaiotsiera.** Amatasun adinaren igoerak eta bizi itxaropen handiak gainbehera demografikoa deskribatzen dute, hots, euskal gizartearen desafio nagusietako bat. Abagunetzat har daiteke. EAJk erakundearteko shock plan bat bultzatuko du demografiaren erronkari aurre egiteko, eta lehentasuna emango die gazteen emantzipazioa, familia eta ume izate ardurakidea laguntzeko politikei.

■ **Emakumearen rol berria.** Beste behin ere krisiak emakume aurpegia du. Langile, zaintzaile, ama, hezitzaile... emakumeak krisiaren txarrena jasan du, eta dagoen desberdintasuna berriro azaleratu da. Sinetsita gaude emakumea gizartean dagokion funtsezko protagonismoa izatera deituta dagoela. Genero berdintasuna, burutu ez den eta atzeraezina den birbilakaera bat da. Berdintasunerantz, aniztasunerantz, gardentasunerantz edo elkartasunerantz gizarte trantsizioa egitea aukera ederra da. Trantsizio hori indartzeko, EAJk sakontasunik handiena emango dio bere politika guztietan Giza Eskubideetan, Berdintasunean eta Politiken Koherentzian Oinarritutako Ikuspegiari.

■ **Migratzea.**

Migrazioa errealitate atzeraezina da munduan, Europan eta Euskadin. Alde anitz ditu. Bat, immigrazioaren beharra lan merkatuari erantzuteko eta ongizate estatua sostengatzeko. Bi, beste herrialde

batzuetatik heltzen diren pertsonen eta familien harrera eta integrazioa. Hiru, diskurtso populistak, arrazistak eta eskuin muturrekoak, immigrantearekiko beldurra eta gorrotoa bultzatzen dutenak, agertu izana. Lau, gure gizartearen elkartasun ahalmena eta balio etikoak. EAJren proiektua arlo honetan harrera, inklusioa eta aniztasunaren elkarbizitzarako kudeaketa positibo bat deliberatuki sustatzera bideratuko da.

■ **Gizarte balio berriak.**

Balioen goraldi indartsua bizi dugu, hala, berdintasuna, aniztasuna, gardentasuna, elkartasuna eta giza eskubideen defentsa. Balio horien goraldia kontraesanez lagunduta dator, eta indibidualismoaren eta elkartasunaren arteko norgehiagoka global eta lokalean laburbil daitezke. Adierazpide ugari ditu: “segurtasuna bakarrik ala segurtasuna eta askatasuna”; “eskubideak bakarrik ala eskubideak eta betebeharrak”; “eskaria bakarrik, mugei begiratu gabe, ala eskaria konpromisoarekin eta mugen kontzientziarekin”, “partikularraren defentsa bakarrik ala ondasun komunaren defentsa ere bai”; “lokalismoa, protekzionismoa eta aldebakartasuna bakarrik ala, batez ere, elkarriketa, elkarlana eta multilateralitasuna”. EAJren konpromisoa agerian geratzen da borondate argia duelako ondasun komunaren eta elkartasunaren defentsan, eskubide eta betebeharren orekan oinarrituta, gizarte politikak erantzukizunez sostengatzeko.

Euskadi prest dago hiru trantsizio handi hauei aurre egiteko. Gure jarraibideak dira gure nortasuna (identitatea eta autogobernua) babestea, tropeleko buruan egoteko lan egitea eta aurrera egitea, inor atzean utzi gabe.

Erreferentzia bat eta konpromiso bat daukagu: Nazio Batuen Garapen Iraunkorreko Helburuen 2030erako Agenda. Hori da gure esparru globala giza garapen iraunkorraren ereduan ardaztutako gure politikak kokatzeko.

Aldi berean proiektu guztiz Europazalea aldeztu dugu, Europa sortu zeneko balioen eta printzipioen humanismoa eta izaera soziala berreskuratzen duen Europa, gaur egun Europar Batasunak dituen erronka garrantzitsuei aurre egiteko.

Parametro multzo horretan kokatzen dugu eraiki nahi dugun Euskadi, 2030eko Euskadi. EAJk errealitatearen konplexutasuna aurrez hartzen du eta uko egiten dio irtenbide sinplistik eskaintzeari, edo helmugatzat paradisu utopikoak agintzeari. Bidea konplexua da eta zailtasunez beteta dago.

Irizpidea lan egitea da, errealismoz eta arduraz. Bidea ez da erraza; baina dagoeneko egin dugun ibilbidearen erakusgarria daukagu.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

BOST HERRI KONPROMISO ESTRATEGIKO

EAJren hauteskunde programa honek 15 Herri helburu, 30 erronka eta 1.097 ekinbide konkretu ditu datorren legegintzaldira begira. Datorren hamarkada honetan gure gizartearen ibilbidea markatuko duten bost Herri konpromiso estrategiko planteatzen ditugu. Denek dute lotura puntu erronka global handi bat: “enplegua”.

1. KONPROMISOA ENPLEGUAREKIN.

Lehenik eta behin, datorren legegintzaldirako enpleguarekiko konpromiso bat planteatzen dugu. Euskal herri erakunde guztien konpromiso bat, galdutako lanpostuak berreskuratzeko, daudenak finkatzeko eta lanpostuen kalitatea hobetzeko.

Programa horren helburu nagusia langabezia-tasa % 10etik behera kokatzea da. Horretarako, EAJ-PNVk bi jarduera-ardatz nagusitan estrategia integral bat garatzea planteatzen du.

I. Enplegua, eta

II. Ekonomia iraunkorra.

Enpleguaren ardatzean, EAJk pertsonen lan munduratzeko eta enplegarritasuna

hobetzean eragin zuzena duten arlo eta programa guztietan jardutea planteatzen du. Autoenpleguari eta enpresa berriak sortzeko laguntzeko programak, ekintzailera estrategia global batean eta Euskadi osorako leihatila bakarrean egituratuta. Enplegurako prestakuntza programak. Tokiko eta eskualdeko enplegu planak sendotzea. Egoera ahulean dauden pertsonak lan munduratzeko berariazko programak. Enplegu publikoa sortu eta berritzea. Renove eta zaharberritze programak, eraikuntza sektorean bereziki eragingo dutenak. Gazteen enplegurako shock plan bat.

Suspertze ekonomikoaren eta iraunkortasunaren ardatzean, EAJk trantsizio energetikoa eta ingurumenekoa bultzatuko

du bereziki, “Europa Green Deal” eredu hartuta. I+G hautua areagotuko dugu, eta konpromisoa hartzen dugu urtero ikerketarako aurrekontu publikoetan % 6 igotzeko. Nazioartekotzea eta industria aurreratua eta adimentsua sustatuko ditugu, zerbitzu aurreratuak eta enplegurari lotutako industria sortzaileak erantsiaz. Elikagai industria eta bertoko ekoizle txikiak laguntza garatuko dugu. Gure herri eta hirien ekonomia indarberrituko dugu merkataritza, autonomoi, ostalaritzako sektoreei eta turismo eta kultura industriei lagunduz, lanpostu-sortzaile baitira.

2. KONPROMISOA BERRIKUNTZAREKIN

Trantsizio teknologiko-digitalerako erantzuna Zientziaren, Teknologiaren eta Berrikuntzaren aldeko Herri Hitzarmen estrategiko bat da.

Gure etorkizunaren giltzarria berrikuntza da. Berrikuntza oinarria da, eta horren gainean zertatik BIZIKO garen galderari erantzun behar diogu.

Gure konpromisoa Euskadiren espezializazio adimentsuan oinarritutako berrikuntza estrategia bat onartzea da. Gure Herriko zientzia, enpresa, teknologia eta gizarte komunitatearekin egindako Hitzarmen handi

batean oinarritutako estrategia bat. Helburu argi batekin: 2030ean Euskadi berrikuntzan liderra den eskualdea izan dadin lortzea.

Horretarako, gure hautua hiru lehentasun estrategikok osatzen dute:

- Industria adimentsua
- Osasun pertsonalizatua
- Energia garbia

Lau aukera eremu:

- Elikadura osasungarria
- Ekoberrikuntza

- Hiri iraunkorrak
- Kultura eta sorkuntza industriak

2020-2030 hamarkadan 20.000 milioi euroko inbertsio publiko-pribatu bateratua bultzatuko dugu I+G arloan.

Helburu horrekin, gure konpromiso publikoa da hamarkada honetan Eusko Jaurlaritzaren I+G arloko inbertsioak urtean % 6 handitzea.

3. KONPROMISOA KLIMAREKIN

Gure etxea planeta da. Hamarkada hau ekologiaren hamarkada bihurtzearen aldeko hautua egiten du EAJK. Gure erantzukizuna, eta bereziki gaztediarena, belaunaldi honetan eta datozen belaunaldietan “nola BIZI nahi dugun” diseinatzea eta idaztea da. Ezin dugu huts egin.

Datorren hamarkada honetako trantsizio energetiko ingurumenekoaren aurrean, EAJK proposatzen du Klimaren aldeko “Basque Green Deal” Hitzarmen handiarekin erantzutea.

Hitzarmen hau ekintza konkretuetan oinarrituta eta 5 jarduera arlotan artikulatuta dago, hauek dira:

- **A. Mugikortasun eta garraio iraunkorra**
- **B. Energia berriztagarrietan oinarritutako estrategia energetikoa**
- **C. Klima aldaketaren aurkako borroka**
- **D. Ingurumen estrategia eta bioaniztasunaren defentsa**

■ **E. Ekonomia zirkularren aldeko hautua**

Hitzarmen honek hazkuntza ekonomikoa eta ingurumenaren babesa batuko ditu, eta baliabideen erabileratik bereizitako ekonomia lehiakorreko euskal gizarte ekitatezko eta oparo bat bultzatuko du, eta 2050ean berotegi efektuko gasen emisio positiborik gabe. Elementu nagusi bat herritarrek parte hartzea eta administrazio publikoarekin, gizarte zibilarekin eta sektore ekonomikoekin elkarlanean aritzea da. Erantzun politikoa osasunerako, bizi kalitaterako, erresilientziarako eta lehiakortasunerako onurak maximizatzen saiatuko da.

“Basque Green” horrek klimaren aldeko ekintzak eranstu ditu ekonomia garbi eta zirkular bat bultzatzeko eta klima aldaketa gelditzeko, bioaniztasun galera iraultzeko eta kutsadura gutxitzeko. Ekonomiaren sektore guztiak hartzen ditu, bereziki garraioa, industria, energia, eraikinak eta nekazaritza.

Konpromiso honek duen helburu globala “Euskadi 2050ean klimarako neutroa izatera iristea” da. Horretarako berariazko hiru erronka ezartzen dira 2025 urterako:

- a) Berotegi efektuko gasen emisioa % 30 murriztea,
- b) Energia berriztagarriak azken energia kontsumoaren % 20 izan daitezen lortzea,
- c) Euskadi Europako lehen lau herrialdeen artean kokatzea efizientzia energetikoan.

“Basque Green” 2030erako Basque Country Agendaren zati bat da, eta Nazio Batuen Garapen Iraunkorreko Helburuen parte bat, bai eta Europako Itun Berdeak markatutako lehentasunetakoa ere. EAJK Itun honetan jasotako ekintzak garatzeko behar diren finantza tresnak eta inbertsio iraunkorren plana zehaztuko ditu 2020an zehar.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

4. KONPROMISOA GAZTEDIAREKIN

Shock plan bat gazteen emantzipazioari laguntzeko, erronka demografikoari aurre egite aldera.

Gure gizarteak aurrean duen erronka nagusietako bat demografiarena da. Hori azaltzen duten funtsezko faktoreetako batzuek zerikusia dute gazteek bizitza proiektu beregain bat hasteko, familia proiektu bat hasteko edo nahi duten seme-alaba kopurua edukitzeko izaten dituzten zailtasunekin. Horrek guztiak, jakina, jaiotza tasaren jai-tsieran edo ama izateko adinaren gerorape-nean eragiten du.

EAJren hautua Eusko Jaurlaritzatik Hitzarmen zabal bat bultzatzea da gazteen emantzipazioari laguntzeko eta familiako bizi proiektu beregain bati hasiera ematea errazteko.

Konpromiso horri erantzuteko, datorren legegintzaldian estrategia honen lehen fasea garatuko dugu, gazteak, familia eta umeak

izatea lagunduz erronka demografikoari erantzun ahal izateko.

Lehen fase hau edo legegintzaldiko shock plana lau ardatz nagusitan egituratuko da:

- **A. Gazteen enplegua.** Gure konpromisoa 30.000 gazteri berariazko shock plan baten bitartez lehen lan esperientzia eskaintzea da. Enplegu egonkor eta kalitatezko baterantz oinarria izango den lan esperientzia bat.
- **B. Gazteen etxebizitza plana.** Gazteei alokairuko etxebizitza bat prezio merkean eskaini ahal izateko ekinbideak eta programak garatuko ditugu.
- **C. Laguntza familiari eta umeak izateari.** Umeak izateak dituen hesi ekonomikoak gutxituko ditugu. Horretarako, areagotu egingo dira seme-alabak izateagatiko laguntza ekonomikoak eta erraztu egingo da familia bizitza eta lan bizitza uztartzea.

- **D. Uztartze programak bultzatzea.**

- Aitatasun/amatasun baimen berdin eta eskualdaezinak sustatuko ditugu

- Zaintzen ardurakidetasun kultura berri bat indartuko dugu.

- Haur eskolen eta 0 eta 3 urte bitarteko ume eskolen zerbitzuak eskainiko ditugu, eskatzen diren postuen % 100i erantzuteko.

- Enpresen barruan gizarte eta lan akordio bat bultzatuko dugu, ordutegia malgutzeko eta lan bizitza eta familia bizitza uztartzeko.

5. KONPROMISOA OSASUNAREKIN

Jasan berri dugun koronabirusaren krisiak frogatu egin du euskal osasun sistemaren eta bere profesionalen gaitasuna pandemia global honi aurre egiteko. Euskadik osasun kolapsoa saihestu du eta gainera ospitaleratutako pertsonei bermez erantzun die. Azken bosturtekoetan osasun publikoan egin dugun inbertsioak lehenengoetarikoa jarri gaitu biztanleko osasun gastu publikoan, eta eraginkortasuna erakutsi du.

Mundua osasun eta gizarte trantsizio berri batean dabil. Koronabirusa bezalako krisiak jasaten jarraituko dugu txerto eraginkor bat aplikatzen ez den bitartean. Gainera, pandemia gehiagoren arriskua agerian izaten jarraituko dugu. EAJk badaki arrisku hauei bermeekin aurre egiteko eta gure osasun publikoa inbertsioekin hobetzen jarraitzeko eskatzen duela gizarteak gero eta gehiago.

Koronabirusaren esperientziak erakutsi digu oinarri bikaina dugula gure osasun publikoan, eta oraindik hobetzen jarraitu dezakegula ere erakutsi digu.

Gure konpromisoa gure osasun publikoa arrisku berriei aurre egiteko sendotzea eta hobetzea da.

Horretarako, osasun publikoaren lege bat onartuko dugu, beharrezkoak diren alerta eta esku-hartze neurriak ezarriko dituen, biztanleria guztiaren osasunak dituen mehatxuei aurrea hartzeko, mehatxu horiek kontrolatzeko eta konponbidea emateko, bereziki bizi izan ditugun osasun larrialdiko egoeretan. Lege horrek, gainera, osasun babeserako ekipamenduetan gutxieneko segurtasun erreserbak ezarriko ditu, eta euskal osasun sisteman epidemiologiako pertsonala ugarituko du.

Osakidetza langile egitura indartuko da 4.000 pertsona gehiago sartuz lan eskaintza publikoen bitartez. Lehen mailako arreta indarberrituko da 400 fakultatibo lanpostu gehiago langilez hornituz eta erizainak ugalduz, eta ahalegin hori biztanleriari arreta hobe egitera bideratuko da bai gaixotasunen jarraipenean bai koronabirusa bezala izan litezkeen gaixotasunen kasu berriak identifikatzen, bilatzen, jarraipena egiten eta kontrolatzen.

Bultzada handi honen hirugarren zutabea, osasun sistemaren eta Euskadiko zientzia eta teknologia sistemaren eta enpresa sis-

temaren arteko elkarlan esparru egonkor bat ezartzea izango da. Pandemiak erakutsi digu autohorniketa ziurtatzeko gai izan behar dugula osasun zerbitzu eta ekipamendu estrategikoetan. Jokaleku berri honek ikerketa eta garapen teknologikoko proiektu multzo bat garatzea eskatzen du, bai eta erosketa publiko berritzaileak egitea ere, bertoko enpresa ehuna parte hartzea bultzatuz. Azkenik, euskal kluster biosanitarioa, Basque Health Cluster, indartzea planteatzen dugu, osasun arloari lotutako ekoizpen ehuna garatzeko eta gure erantzun ahalmena areagotzeko, euskal osasun ekosisteman ez ezik, estatukoan eta Europakoan.

Euskadi osasun ikerketaren Europako erakargune bilakaraztea, osasun ekipamendu eta zerbitzu batzuetan ekoizpen erreferentzia bihurtzea eta gaixotasun infekziosoen zaintza, prebentzioaz eta kontrolaz arduratzen den Europako Task Force gorputzean guztiz sartuta egotea.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

GIZA ESKUBIDEETAN OINARRITUTAKO ZEHAR ARDATZA DUEN PROGRAMA ETA NAZIO BATUEN GARAPEN IRAUNKORREKO HELBURUEKIN (GIH) LERROKATUTAKOA.

Gure programak zeharka zerikusia du giza eskubideetan oinarritutako ikuspegiarekin, eta ikuspegi hori Eusko Jaurlaritzaren ekimen guztian modu globalizatzailean proiektatzen da Jaurlaritzako sailen artean. Lotura horrek garrantzi handiagoa hartzen du, handiagoa izaterik badago, covid-19 pandemiak sektore hauskorrenetan eta egoera ahulenean daudenengan izan dituen ondorioak ikusita.

Giza eskubideen eta elkartasun, berdintasun eta inklusio balioen defentsa eta sustapena egiteko erabaki honek argi jarraitzen du hazkuntza adimentsu, iraunkor eta integratzaile baterako Europaren Europa 2020 strategiaren ildoak, eta 2030 Agendaren Garapen Iraunkorreko Helburuena, horiekin konpromisoa hartuta baitago EAJ bere jarduera programa guztian.

Euskadik erreferentzia eredu izaten jarraitu nahi du, nola estaturik gabeko nazioek, pertsonengandik hurren dauden estatua baino lurralde eremu txikiagoko erakundeek, Garapen Iraunkorreko Helburuak lortzeko euren “harri koskorra” ekar dezaketen eta ekarri behar duten.

Ikuspegi horretatik, gure gizarte konpromisoa datorren legegintzaldirako lau ardatzetan egituratzen da Nazio Batuen Garapen Iraunkorreko Helburuekin zuzen lerrokatuta.

■ Lehen ardatza “Enplegua eta hazkuntza” da, eta Nazio Batuen **Oparotasun** helburuen ildotik doa. Zenbait helburu, jarduera eremu eta erronka jasotzen ditu, Berrikuntzaren eta Enpleguaren palanken gainean artikulatuta, erantzuna ematen baitiote gizartearen itaun honi: nola berreskuratuko dugun enplegua eta suspertuko dugun hazkuntza ekonomikoa. Azken batean: “**zertatik BIZIKO garen**”.

■ Bigarren ardatza “giza garapena” da, eta “**pertsonak**” eta “**bakea**” jardungaiekin zerikusi zuzena duten helburuekin lerrokatzen da. **Berdintasuna** palankatzen hartuta egituratzen diren programa, helburu eta erronka guztiak jasotzen ditu, hau da, osasun, gaztedi, hezkuntza, adinako, familia, segurtasun, eta elkarbizitza eta giza eskubideen arloak jorratzen ditu.

Gizarteak eskatzen duen **ELKARREKIN BIZI** beharrari erantzuten diote, “**nola BIZI nahi dugun euskal gizartearen ELKARREKIN**”.

■ Hirugarren ardatza “Ingurumen iraunkortasuna” da, zuzen lerrokatuta gure **planeta** zaintzera orientaturiko Garapen Iraunkorreko Helburuekin.

Ardatz honetan klima aldaketaren aurkako borroka, bioaniztasunaren defentsa, energia garbi eta berriztagarrietarantzko trantsizioa, mugikortasun eta garraio iraunkorra edo ekonomia zirkularraren hautua jorratzen dituzten konpromiso, erronka eta ekinbideak jasotzen dira.

■ “**Nola BIZI nahi dugun**” galderari erantzuten diote. “**Nola BIZI nahi dugun**”, hau da, planetari kalterik egin gabe eta etorkizuneko belaunaldientzat gordeaz.

■ Azkenik, laugarren ardatza “**autogobernua**” da, hau da, gure identitatea eta gure autogobernua mundu globalean berrestea. Bere baitan itxia ez den identitatea, baizik eta mundura irekia, solidarioa, gure izaeraren berezko ezaugarriak dituen eta geure baliabideak herritarren alde modu eraginkorrean eta gardentasunez kudeatzeko gure eraren ezaugarriak dituena.

Ardatz hau zuzenean dago erlazioan Nortasunarekin eta Lankidetzaren solidarioarekin.

Ardatz honek, aurreko guztiekin batera, IZAN izateko borondateari erantzuten dio, “**nola IZAN nahi dugun**” euskaldun.



NAHIA

NAHI DUGUN EUSKADI

-
- BERE IDENTITATEA BERMATZEKO GAI DEN HERRI BAT ETA MUNDURA IREKIA: “IZAN”
 - MUNDU GLOBALEAN ABERASTASUNA ENPLEGUA ETA IRAUNKORTASUNA SORTZEKO GAI DEN HERRI BAT: “BIZI”
 - PERTSONEN GARAPEN OSOA ETA OSASUNA ETA GIZARTE OREKA BERMATZEKO GAI DEN HERRI BAT: “ELKARREKIN BIZI”

“Sustraiak eta Adarrak”



SUSTRAIAK

GURE SUSTRAIAK

-
- **“AUZOLANA” – COLABORACIÓN**
 - **“ELKARTASUNA” – SOLIDARIDAD**
 - **“EGOKITZAPENA” – ADAPTACIÓN**
 - **“IREKIERA” – APERTURA**
 - **“EKIMENA” – ESFUERZO**
 - **“EUSKERA” – EUSKERA**
 - **“BURUJABETZA” – AUTOGOBIERNO**



ADARRAK

LAU ARDATZ NAGUSI

-
- ENPLEGUA ETA HAZKUNTZA: “OPAROTASUNA”
 - GIZA GARAPENA: “PERTSONAK”
 - IRAUNKORTASUNA: “PLANETA”
 - BURUJABETZA: “NORTASUNA”



HELBURUAK

15 HERRI HELBURU 2025 ERAKO

ARDATZAK	HERRI HELBURUAK 2025ERAKO
I. ARDATZA. Enplegua eta hazkuntza. OPAROTASUNA (Zertatik BIZI)	1. LANPOSTUAK BERRESKURATU. LANGABEZIA BERRIRO % 10EN AZPITIK JARRI
	2. ERRENTA BIZTANLEKO. TOP EUROPAKO 8 HERRIALDEAK
	3. I+G EUROPAKO BATEZBESTEKOAREN GAINETIK
	4. % 100 NAZIOARTEKO GARDENTASUNA
II. ARDATZA. Giza garapena PERTSONAK (ELKARREKIN BIZI berdintasunean)	5. TOP 10 MUNDUAN GIZA GARAPENAREN INDIZEA
	6. GIZARTE DESBERDINTASUN GUTXIENEN EUROPAKO 5 HERRIALDEEN ARTEAN
	7. TOP GENERO BERDINTASUN HANDIENEN EUROPAKO 6 HERRIALDEAK
	8. POBREZIA TASAK % 9 BAINO GUTXIAGO
	9. ESKOLA UZTEA % 8 BAINO GUTXIAGO
	10. BATEZ BESTEKO BIZI ITXAROPENA 85 URTERAINO IGOTZEA
	11. JAIOTZA TASA % 15 IGOTZEA
III. ARDATZA. Iraunkortasuna PLANETA (Nola BIZI)	12. BEROTEGI EFETUKO GASEN EMISIOA 2005EKOAREN ALDEAN % 30 MURRIZTEA
	13. AZKEN ENERGIA KONTSUMOAN % 20 ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
IV. ARDATZA. Burujabetza NORTASUNA (IZAN, Euskal identitatea)	14. 25 URTE BAINO GUTXIAGOKO BIZTANLEEN % 90 EUSKALDUNA
	15. BURUJABETZA GEHIAGO ETA HOBEA. ESTATUS POLITIKO BERRIA



ERRONKAK

30 ERRONKA BEREZI

30 ARLO	LEGEGINTZALDIKO ERRONKA BEREZIAK
I. ENPLEGUA ETA HAZKUNTZA (OPAROTASUNA)	
1. Enplegua	2025ean milioi bat pertsona landun lortzea
2. Industria eta nazioartekotzea	Industria eta zerbitzu aurreratuak, BPGd-aren % 40 baino gehiago
3. Berrikuntza eta ekintzailtza	Euskadi Europako berrikuntza gunea bilakarazi
4. Garraio eta mugikortasun iraunkorra	Bidaia- eta salgaien burdinbidezko garraio tasa % 20 igo
5. Elikadura, baso sektorea eta landa garapena	Nekazaritza ekologikoaren ekoizpena 7.500 hektarearaino handitzea
6. Turismoa	6,5 milioi turistaren ostatu-gauak lortzea
7. Merkataritza eta ostalaritza / Kontsumoa	Merkataritzan eta ostalaritzan lanpostu guztiak berreskuratzea
II. GIZA GARAPENA (PERTSONAK)	
8. Hezkuntza	Ikastetxe guztietarako digitalizazio plana
9. Lanbide heziketa	Ikasleen % 60ek industria-arloan lanbide-heziketa duala egindezaten lortzea
10. Unibertsitateak eta ikerketa	Unibertsitate sistemaren bikaintasunean aurrera egin: 400 ikerbasque ikertzaile, 5.500 argitalpen zientifiko eta 500 doktore tesi
11. Osasuna	Osakidetzako pertsonala berri enplegu publikoaren eskaintzako 4.000 lanpostu berriekin
12. Gizarte zerbitzuak / Gizarte inklusioa	DBE jasotzen duten pertsona enplegarrien lan-munduratzeko hitzarmenak % 20 gehitu
13. Etxebizitza	10.000 etxebizitza berri alokairuan merkatura ateratzea sustatu
14. Gaztedia / Kirola	Gazteak emantzipatzeko batez besteko adina 28 urtera jaitsi
15. Genero berdintasuna	Emakumeen aurkako indarkeriaren arretarako eta prebentziorako Eusko Jaurlaritzaren inbertsioa % 30 handitu
16. Adinekoak	Telelaguntza zerbitzuak 80 urte baino gehiagoko biztanleen % 100i helarazi
17. Familia eta haurrak	Seme-alabak dituzten familiei laguntza ekonomikoak handitu
18. Kultura / Euskara	"Euskadi Sortzaile" Europako erreferentzia marka bihurtu
19. Segurtasuna / Justizia	Kriminalitate tasa 1.000 biztanleko 40 arau hauste penal baino gutxiago, Europako txikienetakoa
20. Bizikidetzeta eta giza eskubideak	Giza Eskubideen prestakuntza programa 15 eta 20 urte bitarteko 50.000 ikasleri helarazi
21. Immigrazioa / Aniztasuna	Udal eta eskualde zerbitzuetan populazio immigrantearen gutxienez % 60ri harrera bermatu
22. Garapenerako Lankidetzeta	Euskadi Lankidetzan gehien inbertitzen duten Europako 10 eskualdeen artean kokatu, biztanleka deszentralizatuta
III. INGURUMEN IRAUNKORTASUNA (PLANETA)	
23. Estrategia energetikoa	Euskadi Europako efizientzia energetiko handieneko lehen lau herrialdeen artean kokatu
24. Klimaren aldeko ekintza	Zuhaizti azalerari 10.000 hektarea gehitu eta urtean 25.000 tona CO2 xurgatu
25. Ingurumen estrategia / Bioaniztasuna	Gure ibaietako uraren % 70 kalitate onekoa edo onargarrikoa izatea lortu
26. Ekonomia zirkularra	Hondakinen % 60 baino gehiago birziklatu
IV. BURUJABETZA IREKIA (NORTASUNA)	
27. Euskal euroeskualdea	Euskadi-Nafarroa-Akitalia eremuan 150 lankidetzeta proiektu bultzatu
28. Euskadi-Basque Country	2.500 Euskadi Basque Country nazioartekotze ekintza egin
29. Kudeaketa garden eta arduratsua	Martxan jarri "Administrazioaren leihatila bakarra"
30. Burujabetza	Gemikako Estatutuan aitortutako burujabetza osatu. Etorbizunerako Estatus Politiko berria Euskadirentzat



ARLOAK

30 JARDUERA ERE

I ENPLEGUA ETA HAZKUNTZA (OPAROTASUNA)	II GIZA GARAPENA (PERTSONAK)
1. Enplegua	8. Hezkuntza
2. Industria eta nazioartekotzea	9. Lanbide heziketa
3. Berrikuntza eta ekintzailletza	10. Unibertsitateak eta ikerketa
4. Garraio eta mugikortasun iraunkorra	11. Osasuna
5. Elikadura, baso sektorea eta landa garapena	12. Gizarte inklusioa / Gizarte zerbitzuak
6. Turismoa	13. Etxebizitza
7. Merkataritza eta ostalaritza / Kontsumoa	14. Gaztedia / Kirola
	15. Genero berdintasuna
	16. Adinekoak
	17. Familiak eta haurrak
	18. Kultura / Euskara
	19. Segurtasuna / Justizia
	20. Bizikidetzeta eta giza eskubideak
	21. Inmigración / Diversidad
	22. Immigrazioa / Aniztasuna
III INGURUMEN IRAUNKORTASUNA (PLANETA)	IV AUTOGOBIERNO ABIERTO (PERSONALIDAD)
23. Estrategia energetikoa	27. Euskal euroeskualdea
24. Klimaren aldeko ekintza	28. Euskadi-Basque Country
25. Ingurumen estrategia / Bioaniztasuna	29. Kudeaketa garden eta arduratsua
26. Ekonomia zirkularra	30. Burujabetza



KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

30 JARDUERA EREMU

	KONPROMISOAK	EKINBIDEAK
I ENPLEGUA ETA HAZKUNTZA (OPAROTASUNA)		
1. ENPLEGUA	13	55
2. INDUSTRIA ETA NAZIOARTEKOTZEA	19	34
3. BERRIKUNTZA ETA EKINTZAILTZEA	11	50
4. GARRAIO ETA MUGIKORTASUN IRAUNKORRA	5	28
5. ELIKADURA, BASO SEKTOREA ETA LANDA GARAPENA	5	26
6. TURISMOA	5	32
7. MERKATARITZA ETA OSTALARITZA / KONTSUMOA	11	41
	69	266
II GIZA GARAPENA (PERTSONAK)		
8. HEZKUNTZA	6	47
9. LANBIDE HEZIKETA	15	73
10. UNIBERTSITATEAK ETA IKERKETA	8	41
11. OSASUNA	5	39
12. GIZARTE ZERBITZUAK / GIZARTE INKLUSIOA	13	54
13. ETXEBIZITZA	8	33
14. GAZTEDIA / KIROLA	15	58
15. GENERO BERDINTASUNA	5	31
16. ADINEKOAK	7	32
17. FAMILIA ETA HAURRAK	8	30
18. KULTURA / EUSKARA	16	72
19. SEGURTASUNA / JUSTIZIA	16	64
20. BIZIKIDETZA ETA GIZA ESKUBIDEAK	9	25
21. IMMIGRAZIOA / ANIZTASUNA	3	29
22. GARAPENERAKO LANKIDETZA	6	18
	139	653
III INGURUMEN IRAUNKORTASUNA (PLANETA)		
23. ESTRATEGIA ENERGETIKOA	6	27
24. KLIMAREN ALDEKO EKINTZA	5	24
25. INGURUMEN ESTRATEGIA / BIOANIZTASUNA	6	26
26. EKONOMIA ZIRKULARRA	5	25
	22	102
IV BURUJABETZA IREKIA (NORTASUNA)		
27. EUSKAL EUROESKUALDEA	6	16
28. EUSKADI-BASQUE COUNTRY	5	15
29. KUDEAKETA GARDEN ETA ARDURATSUA	10	36
30. BURUJABETZA	2	2
	23	69
GUZTIRA	253	1.097

ENPLEGUA

MILIOI BAT PERTSONA
LANDUN LORTZEA
2025EAN



KALITATEZKO ENPLEGUA, BIZI PROIEKTUAREN ARDATZ ESTRUKTURALA.

- Enpleguak EAJren lehentasun politiko, sozial eta instituzionala izaten jarraitzen du. Langabeziaren adierazleek hobera egin zuten amaitu den legegintzaldian covid-19k sortutako osasun krisia heldu arte. Euskadik langabezia tasa % 10en azpira jaitea lortu zuen, baina pandemiak igotzeko mehatxua dakar, euskal gizartearentzat onartezina den mailaraino. Hobetu dugu, baina ez da nahikoa. Galdutako lanpostuak berreskuratu behar ditugu eta Europaren batezbestekora hurbildu, bai langabezia indizeetan bai enpleguaren kalitatean. Aurre egin behar diegun erronkei erantzuna emateko garatutako ekimenak indartzea da gure konpromisoa: lanpostuak berreskuratzea, lan prekaritatea gutxitzea, emakumeak jarduera ekonomikoan gehiago sartzea, bereziki industriari eta zerbitzu aurreratuetan; gazteak lan munduan txertatzea eta iraupen luzeko langabeei arreta berezia ematea. Azken batean, Euskadik erronka kolektibo bat du: Lanpostu kopurua handitzea eta kalitatea hobetzea, 2025ean milioi bat pertsona landun lortu arte.
- Kalitatezko enpleguak hazkuntza ekonomiko sendoa mantentzea eskatzen du. Enplegu politikek eta ekonomia suspertzeko politikek batera joan behar dute estrategia berean. Aldi berean, hazkuntza ekonomikoari enpleguaren hobekuntzak lagundu behar dio, soldata hobeak dituzten lanpostuak ez ezik egonkortasun handiagoa, lanaldien partzialtasun urriagoa eta kontratuen aldirakotasun txikiagoa dutenak ere bai. Enpleguaren kalitate hobearen enplegatuen prestakuntza hobeari eta enpresa enplegatzaileen lehiakortasun handiaren ondorio zuzena da. EAJk erronka global hori aldeztu du, Jaurlaritza bakarrik inplikatu ez duena, izan ere gizarte osoa zirikatu duen desafio bat da.
- Euskadiko enplegu politika publikoak EAJren bilbe instituzionala eratzen duten erakunde guztien arteko elkarlana eta koordinazioa eskatzen du, eta horien eta enplegu arloan diharduten eragileen artekoa ere bai. EAJtik Euskal Enplegu Sistema finkatzea bultzatuko dugu, osoa eta sarekoa, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuari hura hezurramitzen leku nagusia emanez. Lan bateratua eginez gure jardueren eraginkortasuna eta eraginkortasun bermeratua ahal izango ditugu.
- Globalizazioaren, automatizazioaren eta robotizazioaren ondorioz profil eta kompetentzia berriak agertu izanak gaitasun egokiak eskatzen dizkie eskatzaileei, eta, batez ere, jardunean ari diren langileak birziklatzeko eta berregokitzeko etengabeko esfortzua eskatzen dute. Jokaleku honi erantzuteak Lanbide enplegu zerbitzu publikoa birdefinitu beharra dakar, eraginkortasuna hobetzeko bai prestakuntzan bai lan munduan txertatzen. EAJk enplegu zerbitzu publiko modernoa eta bizkorra planteatu du, desafio berriei erantzun berriak emango dizkiena.
- Populazio aktiboari zerbitzu osoak eta pertsonalizatuak eskaintzeko konpromisoa hartzen dugu lan munduan sartu, jarraitu eta aurrera egiten laguntzeko. Enpresekiko harremanak eta enprestartako zerbitzuak indartuko ditugu euren lehiakortasuna hobetzen eta enplegu aukera handiagoak sortzen laguntzeko.
- Trantsizio teknologiko eta digitalaren ondorioz aldaketan azeleratuta gertatzen diren ingurune global honetan, prestakuntza eta birkualifikazioa tresna estrategikoak dira enpresen lehiakortasuna sendotzeko eta enplegatuen ibilbide profesionala garatzeko. Trantsizio honek minimizatu behar ditugun mehatxuak eragiten ditu eta aprobetxatu ditzakegun aukerak sortzen ditu. Lanbide berrien eta behar produktiboen jokalekuan gaude, erantzuna eman behar baitiegu.
- Prestakuntza funtsezko politika bat da, bai lanpostua lortzeko, bai lanpostua mantentzeko. Horregatik, EAJren helburua Euskadi proiektu berritzaile berrien erakargune bilakartzea da, bai prestakuntzan eta ikaskuntzan, bai enplegu sorreran.
- Euskadi inklusio eta elkartasun gizarte bat da. Erreferentzia gara desgaitasuna duten pertsonak eta gizarte bazterkerian jausteko arriskua dutenak gizartratzen eta lan munduratu. Egoera ahulenean dauden pertsonak lan munduratzeko programak indartuko ditugu, gizarte politikarik onena enplegu politika delako.
- Lan bitartekaritza eginkizunak eta enplegu politika aktiboen kudeaketa funtzioak langabeziaren aurkako babes sistema ekonomikoaren kudeaketarekin osatu behar dira. Enplegu politika aktiboek eta politika pasiboek jarduera batasun bat osatu behar dutela aldeztu du EAJk, eraginkortasun izango badira. Ildo horretan, lehentasuna du Gizarte Segurantzaren erregimen ekonomikoaren kudeaketarako baliabideak edukitzeak; horregatik, Gernikako Estatutuan jasotzen den moduan transferentzia gauzatzeko eskakizuna egiten dugu.
- EAJn gure konpromisoari eusten diogu elkarriketa eta negoziazio etengabea bultzatzeko eragile ekonomiko eta sozialaren artean, lan harremanen euskal sistema indartuz eta Lan Harremanen Euskal Kontseilua eta Elkarriketa Sozialaren Mahaia sendotuz. Erakunde horiekin elkarlanean, lan baldintzen ikuskapen eta kontrol funtzioak sendotuko ditugu, iruzurra desagerrarazteko eta enpleguaren kalitatea hobetzeko, arreta berezia jarriz gizon eta emakumeen arteko soldata arrakala txikitzen.
- Enpresek elkarlanean proiektu pilotuak aztertu eta ezarriko ditugu erantzuna emateko, lan egiten duten arren, euren bizi proiektua duintasunez garatzeko egoeran ez dauden pertsonen. Horri dagokionez, EAJtik bizitzeko soldata –Living Wage– jartzea sustatuko dugu, enpresen gizarte erantzukizun korporatiboa betetze aldera, Europako beste eskualde batzuetan aplikatzen den antzera.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

01. KONPROMISOA

ENPLEGUAREN ETA SUSPERTZE EKONOMIKOAREN ESTRATEGIA GLOBALA MARTXAN JARTZEA.

EKINBIDEAK

01 — Enpleguaren eta Indarberritze Ekonomikoaren Estrategia onartzea, 9.300 milioi euroko aurrekontu publikoaz zuzkituta.

EAJk mahairatzen duen estrategia global honen helburua legegintzaldian 150.000 lanpostu berri sortzen laguntzea da, covid-19ak sortutako osasun krisiaren aurretik zegoen langabezia tasaren maila berreskuratze aldera. Helburu hori betetzeko, enpleguarekin zerikusi zuzena duten programez gain, ekonomiaren dinamizazioari eta lehiakortasunari laguntzen dioten neurriak sustatuko dira, bereziki kontuan hartuz berrikuntzaren arloa, trantsizio energetiko eta ingurumenekoa, industria eta zerbitzu aurreratuak, nazioartekotzea, elikagaien industria, merkataritza, turismoaren eta kulturaren industria, eta inbertsio publikoen ohiz kanpoko programa bat.

02 — Estrategia globalaren esparruan, Enplegu Plan Berezia jarriko da martxan 2030erako Euskal Enplegu Estrategiaren eta Europako Estrategiaren ildotik.

Planak 1.500 milioi euroko aurrekontua izango du, sei jarduera ardatz nagusitan egituratuta: ETEentzako eta tokiko ekonomia garapenerako laguntzak; autoenplegua eta ekintzailtza sustatzea; pertsona langabeen enplegurako prestakuntza eta pertsona landunen etengabeko birziklatze eta egokitzapena; tokiko eta eskualdeko enplegu planak sendotzea, bereziki egoerarik ahulenean dauden eskualdeetan; Renove enplegu programa intentsiboak, bereziki eraikuntzaren arloan; eta gazteen enplegua sustatzeko berariazko shock plan bat.

03 — Gazteen enplegu plana.

Berariazko shock plan bat gauzatuko da 30.000 gazterik lehen lan esperientzia errazteko. EAJk proposatutako planak 150 milioi euroko gutxieneko aurrekontu zuzkidura edukiko du ekintza hauek sustatzeko:

- Enplegu publikoa berritzeko programak, pertsona gazteengan bereziki eraginez.
- Hezkuntza mundutik lan mundura trantsizioa egiteko programak.
- Bazterkeria arriskuan dauden gazteen inklusio globala.
- Ekintzailtzari eta mikroenpresak eta gazteen autoenplegua sortzeari laguntza ematea.
- Tokiko eta eskualdeko enplegu planetan gazteak kontratatzea, bereziki egoerarik ahulenean dauden eskualdeetan.
- Txanda kontratua eta gazteak itzultzeko programak sustatzea.
- Kontratatzeko konpromisoa duten prestakuntza bekak.
- Gazteen enplegua aktibatzea goraka doazen sektoreetan: ingurumenarekin zerikusia duten jarduerak; sorkuntza eta kulturgintza industriak; mendeko pertsonen arreta; digitalizazioa eta enpresarako zerbitzu aurreratuak; eta energia garbiak eta berriztagarriak.

02. KONPROMISOA

ZAILTASUN HANDIENAK DITUZTEN PERTSONAK LAN MUNDURATZEA SUSTATU ETA HAIK LANPOSTUA LORTZEA ERRAZTU.

EKINBIDEAK

01

140 milioi euro erabiltzea tokiko eta eskualdeko enplegu planetarako, bereziki egoerarik ahulenean dauden eskualdeetan baliatzeko, gizarte bazterkerian jausteko arriskuan dauden pertsoneri, gazteei, 45 urtetik gorakoei eta iraupen luzeko langabeei orientatuta.

02

Gizarte zerbitzuekin elkarlana areagotzea baztertuta edo baztertzeko arriskuan dauden taldeak artatzeko, sistema bien esku hartze koordinatua ahalbidetzeko lan merkatuan txertatzea sustatzeko helburuz.

03

Enpresak inplikatu pertsona langabeen gizarteratze eta lan-munduratzeko proiektuetan, bereziki egoerarik ahulenean daudenenetan. EAJk planteatzen duena da egoerarik ahulenean dauden eskualdeetako enpresekin proiektu pilotuak egitea eta Lanbiden dauden kontrataziorako laguntzen berri ematea, talde horien lanaz besteko praktikak sustatze aldera.

04

Talde behartsuenak lan munduan txertatzeko bidea den aldetik hirugarren sektorearekin elkarlanean aritzea. Lan munduratzeko enpresek sektorean dituzten lanpostuak zeharo areagotu ahal izateko plan berezi bat bultzatuko dugu, inklusiozko enplegua mantentzen eta ohiko lan merkatuan txertatzeko ahalmena izaten erakutsi duen potentzialtasuna eta eraginkortasuna ikusita.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

03. KONPROMISOA

LANGABEZIAREN KUDEAKETATIK “ENPLEGURAKO KUDEAKETARA” ALDATZEA.

EAJtik konpromisoa hartzen dugu Lanbide berri bata garatzeko, merkatura orientatuago eta enpresetan eta pertsonengan zentratuago. Hori guztia euren enplegagarritasuna handitzeko eta enplegua mantentzen laguntzeko. Horretarako, ekinbide hauek planteatzen ditugu:

EKINBIDEAK

01

Arreta eta esku hartze pertsonalizatuaren eredua martxan jartzea bizkortzea, lan munduratzeko ibilbide pertsonalak garatuz.

02

Lanbiden izena emandako pertsoneri tutore bana ematea. Pertsona garatzen eta autokonfiantza eraikitzen lagunduko duten entrenamendu teknika berriak erabiliko dira, coaching teknikez baliatuz.

03

Ekoizpen ehunarekiko harremana bultzatzea, enpresen beharrak aurreikusteko modua emango duten prospekzio mekanismo bateratuak erabiliz, eta lan-eskatzailleak enpresen oraingo eta geroko lan eskaintzetara egokitzeko eta prestatzeko programa bateratuak diseinatzea. Era berean, hitzarmen bateratuak egingo dira enpresekin, prestatutako pertsonak lan munduan txertatzeko.

04

Lanbide konpetentzien eta lanpostuen etorkizuneko eskarien behatoki bata martxan jartzea, ikasketak aukeratzean errazago orientatzeko. Behatokiak hezkuntza sistemarekin lotuta egingo du bere lana, eta gazteei eta euren familiei helburu profesionala aukeratzen lagunduko dieten eduki profesionalak kontuan hartuko ditu. Eduki digital horiek enpresetako lanbideen bideoak eta autodiagnostikatzeko tresnak edukiko dituzte, gaitasun eta trebetasun pertsonalak identifikatu ahal izateko eta etorkizuneko lan eskarietara egokitzeko.

05

Proiektu berritzaileak, malguak eta prestakuntza arloan epe laburrean emaitzak ematen dituztenak sustatzea. Prestakuntzatik enplegurako ezagutzaren kudeaketara aldatu behar da, pertsonak etengabe gaituz.

06

Pertsona, prestakuntza prozesuaren erdigunean ipini, "prestakuntza kontua" deritzon tresna sortuz, neurriko prestakuntza ibilbideak errazago diseinatzeko.

07

Enplegurako prestakuntza sistema oso bat garatu, teknologia digital berrietan oinarrituta, langileen enplegarritasun eta garapen pertsonal eta profesionalerako tresnatako balio dezaten.

08

Foru aldundiekin elkarlanean, etengabeko prestakuntza egiten duten ETEen kopurua handitzeko zerga pizgarriak aplikatzearen bideragarritasuna aztertuko du EAJk. Gure helburua da 400 euskal ETE gehiagok langilearen etengabeko prestakuntza, birziklatze eta egokitzapen programak egin ditzatela.

09

Orientazio, prestakuntza eta bitartekaritzako eskualdeko jarduera osoak sustatzea, oraingo eta geroko enplegu eskariak eta enplegu eskaintzak batu eta koordinatu ditzaten. Ekinbide hau inguruko enpresekin eta lanbide heziketako ikastetxeekin elkarlanean egingo da.

10

Internet bidezko orientazio eta prestakuntza zerbitzuak garatzea pertsona guztiengana heltzeko 24 orduz 365 egunetan.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

04. KONPROMISOA

ENPLEGU POLITIKA GAINERAKO SUSTAPEN EKONOMIKO, HEZKUNTZA ETA GIZARTE-ZERBITZU POLITIKEKIN ELKARLANEAN GARATU.

EKINBIDEAK

01

EAJk enplegu politiketako elkarlanezko gobernantza eredu bat abiaraztea mahairatzen du. Eredu berri honek enplegu iraunkorra sortzeko elkarlana eta ahalegina erakunde maila guztietan areagotzea dakar, herri erakundeek euren artean eta antolakunde pribatuekin itunak eginez.

02

Hezkuntza Sailarekin elkarlanean, Euskadin enplegurako Lanbide Heziketa ereduak garatu eta ezarri, 30/2015 Legearen arabera. Lege horretako Hamabigarren Xedapen Gehigarriak enplegurako lanbide heziketa sistema propio, eraginkor eta efiziente bat, industria adimentsuaren trantsizio teknologiko eta digitalaren ingurune berria lan merkatuak aurrean dituen erronka bereziei erantzuna emango diena, eraikitzeko potentzialtasunak ditu, eta potentzialtasun horiek aprobetxatzea da EAJren konpromisoa.

03

Proiektu berritzaileen erakargune bat martxan jartzea.

Helburu honekin, ekonomia sustatzeko programak euren teknologia zentroekin eta BICekin, Hezkuntzakoak euren LH ikastetxeekin eta unibertsitateekin, eta enplegu programak pertsonal hautaketa, kontratazio eta etengabeko prestakuntzarako dituzten laguntzekin modu koordinatuan jorratuko dituzten "neurriko" berariazko proiektuak artikulatuko dira.

04

Enpresetako langileei zailtasun egoeretan lagundu. Horretarako, EAJk enplegu erregulazioko espedientea jasaten duten enpresekin berariazko elkarlan hitzarmenak formalizatzea proposatzen du, eraginpeko langileak birkualifikatzeko.

05. KONPROMISOA EKINTZAILETZA SUSTATU.

EKINBIDEAK

— EAJren konpromisoa legegintzaldi honetan, Lanbideren bitartez, 4.000 enpresa berri eta 5.500 lanpostu berri sortzea da. Horretarako, besteak beste, ekintza eta programa hauek garatuko dira:

- 01 ■ “Ekintzailertzan ikasi” programa, beste gizarte-eragile batzuekin elkarlanean ikastetxeetan, ikasleengan sormen eta ekintzailertasun espiritua suspertzeko helburuz.
- Lan munduan sartzeko zailtasun bereziak dituzten talde espezifikoetako pertsoneri laguntasuna eman, mikroenpresak sortzen laguntzeko, edo euren autoenplegua bultzatu, euren proiektuak martxan jartzerakoan hasierako aholkularitza, mikrokredituak eta laguntzak emanez. Helburua da 400 mikroenpresa abiaraztea.
- Autoenplegu eta mikroenpresa sorrera sustatzea, bereziki “silver economy”, “ingurumen” eta “zerbitzu digitalen” arloetan enplegu aztarnategi berriak diren jardueretan, ohiko laguntza programetan baino % 20 gehiagoko diskriminazio positiboko laguntzekin.

02 — Lanbidetik programa berri bat martxan jartzea, pertsona autonomoei, ETEei eta mikroenpresei euren negozioen finkatze eta hazte proiektuetan laguntzeko, inbertsioari, berrikuntzari eta euren ekoizkinak merkaturatzeari laguntzak emanez. Helburua urtean 100 proiektu berri finkatu eta garatzen laguntzea da.

03 — EAJk pertsona ekintzaileei laguntzea bultzatuko du udalen, eskualdeko garapen agentzien eta Dema, Gazte Enpresa, Behargintza eta abarren bitartez, hitzarmen espezifikoak formalizatuz, erakunde horiekin elkarlanean urtean 1.000 mikroenpresa baino gehiagori laguntza ematea helburu hartuta.

04 — Ekintzailertzaaren hautua indartu, enpleguaren eta jarduera ekonomikoaren sorgailu gisa. Ahalegin hori dauden erakunde eta enpresa sozialetan bultzatuko da bereziki, horien baitatik 200 enpresa berri sortzeko helburuz.

05 — Enpresarien antolakundeekin elkarlanean arituz, oinordetza bidean dauden enpresak identifikatu, jardueraren jarraipena errazteko eta enplegua bermatzeko.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

06. KONPROMISOA ENPLEGUAREN KALITATEA HOBETU.

EKINBIDEAK

01

Elkarrizketa eta negoziazio etengabea bultzatu eragile ekonomiko eta sozialen artean, lan harremanen euskal sistema indartuz eta Elkarrizketa Sozialaren Mahaiko lantaldeak sendotuz.

02

Erantzukizun sozial korporatiboaren filosofia gisa bizi soldata bat jartzeko konpromisoa hartzen dute 25 euskal enpresarekin elkarlan hitzarmenak egin. EAJK mahairatutako proiektu pilotu hau ebaluatu egingo da beste enpresa eta sektore batzuetan hedatzea planteatzeko eta ziurtagiri instituzional batekin konpromisoa aitortzeko.

03

Kanpoko talentua eta profesionalak itzultzeko eta erakartzeko politika ahalbidetu, enpresa ehunarekin batera garatutako berariazko programa baten bidez.

04

Laneko segurtasuna eta osasuna bermatzera zuzendutako neurriak indartzea, laneko istripuen tasa 2020ko abiaburuko egoeratik % 30 murrizteko.

05

Emakumeek jasaten duten soldata arrakala txikitzera zuzendutako ekinbideak indartu, hitzarmen kolektiboetan berdintasun planen ezarpena eta lan eta familia bizitzak uztartzeko berariazko neurriak sartuz.

06

Lan baldintzak ondo aplikatzen direla jagon, eta ikuskapen eta kontsulta funtzioen bidez iruzurrari aurre egin. Ikuskapen plan berezi bat jarriko da martxan, ezarritako lanaldiak zuzen betetzen direla bermatzeko eta behin-behinekotasunaren eta partzialtasunaren iruzurrari aurre egiteko.

07

EAJK, eragile sindikalekin eta enpresekin elkarlanean, enpleguaren behin-behinekotasuna eta lanaldien partzialtasuna murrizteko shock plan bat abiaraztea planteatzen du.

07. KONPROMISOA

EUSKAL ENPLEGU SISTEMA OSO ETA KOORDINATU BAT BULTZATU, ERAGINKORTASUNA HANDITZEKO.

EKINBIDEAK

- **01** EAJk enplegurako gobernantza eredu oso eta koordinatu berri bat bultzatzea planteatzen du, Euskal Enplegu Sistemaren legearen bitartez. Helburua da Lanbidek euskal enplegu sistemako eragile guztien koordinazioa gidatzea. Horrela, bikoiztasunak ezabatuko dira, ekintzak ordenatuko dira eta Euskadin eskaintzen diren enplegu zerbitzuen eraginkortasuna eta efizientzia bermatuko da.

- **02** “Lanbide hedatua” ezarri, lurraldean dagoeneko badauden sare formal eta informalekiko elkarlana sustatuz. Helburua da eskualde mailako programa eta zerbitzu prestaziorako elkarlan eredu berri bat martxan jartzea, pertsoneri eta enpresei eskaintzen zaien balioa handitzeko eta, aldi berean, elkarlan horien ezarpena eta kudeaketa sinplifikatzeko. Lehen proiektu pilotu bat garatuko da Debabarrena edo Oiartzualdea eskualdean, gero Euskadiko beste eskualdeetara hedatzeko.

- **03** Foru aldundiekin elkarlanean, tokiko eta eskualdeko garapen agentziak indartu, Lanbideren jarduerari eta eskualdeko ekonomia garapenari laguntzeko eragile gisa. Horretarako, proiektu pilotu bat egingo da Ezkerraldean, lehentasunezko arretagune gisa, ebaluatzeko eta, kasua bada, gero elkarlan sistema hau hedatzeko.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

08. KONPROMISOA

ENPLEGU POLITIKA PASIBOEN KUDEAKETA OSOA, GIZARTE SEGURANTZAREN ERREGIMEN EKONOMIKOA ETA LANGABEZIAREN AURKAKO BABES EKONOMIKOAREN SISTEMA BARNE.

EKINBIDEAK

01

EAJk lehentasuna ematen dio langabeziaren aurkako babes ekonomikoaren sistemaren kudeaketa eskualdatzeko eskakizuna egitea Espainiako estatuari.

02

Gernikako Autonomia Estatuaren arabera, Euskadik Gizarte Segurantzaren erregimen ekonomikoaren kudeaketa bereganatzeko aurreikusitako itunak negoziatzeko proposamen bat planteatu Estatuari.

09. KONPROMISOA

GIZARTE EKONOMIAREN ROLA INDARTU, GEURE EHUN EKONOMIKOAREN IDENTITATE IKUR BEREZIA BAITA.

EKINBIDEAK

01

EAJk 2019an onartutako Euskadiko kooperatiba lege berria arautegi bidez garatzea proposatzen du.

— Dauden gizarte ekonomiako enpresei garatzen laguntzea. Helburu honekin 20 milioi euro baino gehiago erabiliko dira gizarte ekonomiako enpresa gehiago eta hobeak sustatzen. Ekintza eta laguntza hauek sendotuko dira:

- Gizarte ekonomikako enpresetara bazkideak sartzea.
- Enpresen tamaina handitzea

02

- Gizarte ekonomiako enpresen artean elkar-lankidetzak sustatzea
- Sektorean asoziazionismoa bultzatzea
- Enpresa kudeaketa eta plangintza hobetzeko laguntza teknikoa
- Gizarte ekonomiari eta bere balioei buruzko prestakuntzarako, dibulgaziorako eta sentsibilizaziorako laguntzak

— ■ Gobernu ona eta gizarte erantzukizun korporatiboa sustatu.

03

— Enpresen ikerketa eta berrikuntza proiektuak sustatu, bai teknologikoak bai teknologikoak ez direnak, gizarte ekonomiako enpresetan. Horretarako, EAJk Lanbide Heziketako eskolekin, zentro teknologikoekin eta kalitate agentziekin eta transferentzia teknologikokoekin elkarrekiko harremana bultzatuko du. Jabetza industrial eta marka eta diseinu industrialen Europako erregistroa dinamizatzea ere planteatzen da.

04

— Gizarte ekonomiako enpresak kanpo merkatuetara iristea sustatzera bideratutako proiektu indibidual eta lankidetzazkoak martxan jartzea bultzatu, Euskadi-Basque Country markapean.

05

— Gizarte ekonomiako enpresak sortzeko berariazko programak. Gizarte ekonomiaren eredupean eraturako enpresa berrien ereduari eta kulturari erantzuten dioten enpresak BIND programan sartzea.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

10. KONPROMISOA

GIZARTE ELKARRIZKETA ETA LAN HARREMANEN ESPARRU AUTONOMOA BULTZATU.

EKINBIDEAK

- **01** EAJk joan den legegintzaldian martxan jarritako Gizarte Elkarrizketako Hiruko Mahaia garatzea planteatzen du. Lan egonkortasunaren eta enpresa lehiakortasunaren aldeko neurriak hartu; soldata arrakalaren murrizketa; lan eta familia bizitza uztartzea; ordutegi malgutasuna eta merkatuaren beharretara egokitzea; laneko behin-behinekotasuna murriztu; nahi ez den partzialtasuna gutxitu, langileen prestakuntza etengabea indartu, eta bai lantokian bai in itinere laneko segurtasun eta osasuna hobetzeko neurriak hartu.

- **02** EAJk lan harremanen euskal esparruaren tresna propioak bultzatu nahi ditu, hau da, Ekonomia eta Gizarte Kontseilua, Lan Harremanen Kontseilua eta enpresa munduarekin eta lan munduarekin erlazionatutako politika publikoak planifikatzeko eta garatzeko eragile ekonomiko eta sozialen partaidetza hobetzera bideratutako tresna guztiak. Adibidez, Lanbideri buruz eta Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluari buruz ari gara, garrantzi bereziko bi aipatzearren.

11. KONPROMISOA

EUSKAL ENPRESAN ENPRESAKO KULTURA BERRI BAT ETA INKLUSIOZKO PARTAIDETZA EREDU BERRI BAT GARATZEA.

EKINBIDEAK

- EAJk Eusko Legebiltzarrean 2018ko irailaren 27an Legebiltzarreko talde guztiek aho batez onartutako Legez besteko Proposamenari erantzun eraginkorra ematea proposatzen du, inklusio eta partaidetzazko enpresa eredian aurrera egiteko.

01

Horretarako, 2021-2024 ekintza plana landuko da, besteak beste, politika hauek jorratzeko: euskal enpresen gardentasunean eta komunikazio politikan jokabiderik onenak zehaztea eta horien zabalkundea egitea; langileek enpresen emaitzetan parte hartzeko sistemak suspertu; pizgarri fiskal eta ekonomikoak langileak enpresaren kapitalean sartzea errazteko; enpresa partaidetuen erregistro bat sortzea; inklusiozko eta partaidetzazko ereduaren ebaluazio eredia; enpresa partaidetuen ezagutza eta prestigioa.

- EAJk Oñatiko Deklarazioaren garapen eta aplikazio praktikoa bultzatzen du: “Lan-harremanen eredu berri baterako dekalogo”, Nazioarteko Lan Antolakundearen mendeurrena zela-eta 2019ko apirilean onartua.

02

Dekalogoan ezaugarri eta berezitasun hauek dituen lan etorkizuna aldarrikatzen da: enpleguaren kalitatera orientatzea; kualifikazio profesionala bermatzea; talde negoziatzailea bultzatzea; esparru orokorrak enpresa akordioekin artikulatzea; lan harremanen eredu dinamikoetara jotzea; hiruko gizarte elkarriketa bultzatzea; gizon eta emakumeen benetako berdintasunaren sustapena bereganatzea; pertsonen osasuna eta ongizatea babestea, langileek enpresan duten partaidetza handitzea eta enpresaren proiektuetan pertsonen inplikazioa areagotzea.

- Adegiren Fabrika proiektutik bultzatuta, enpresari elkarrekin ekinbideei laguntza eman, euskal enpresetako zuzendaritza koadroak, bereziki, sentsibilizatzeko, prestatzeko eta zabalkundea egiteko, enpresako kultura berri baten mesedetan, hots, proiektu bateratu gisa, pertsona enpresaren erdian jarri eta enpresa proiektuaren lehiakortasuna hobetzeko eta etorkizuna bermatzeko giltzarri bihurtuko duen kulturaren alde.

03

- EAJk enpresa eta giza eskubideak ekintzaren jomuga izango dituen plan bat proposatzen du.

04

Jaurlaritzaren ekintza plan bat onartu eta martxan jartzea, enpresari eta giza eskubideei buruz, Nazio Batuen printzipio gidariak aplikatuz. Plan honen esparrua euskal enpresen ekintza ekonomikoa izango da, bereziki nazioarteko jardueran, hiru zutabe harturik: Babestu – Errespetatu – Konpondu

- **Babestu:** ekoizti eta merkaturatzeko ekintzetan giza eskubideak babesteko betebeharra.
- **Errespetatu:** enpresek giza eskubideak errespetatzeko duten erantzukizuna.
- **Konpondu:** Enpresen jardueratik zuzenean nahiz zeharka gertatzen diren giza eskubideen urraketa posibleak auzibidean eta auzibidez kanpo konpontzeko bideak erraztu.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

12. KONPROMISOA

LANEKO OSASUNA ETA LAN SEGURTASUNA BERMATU.

EKINBIDEAK

EAJk 2021-2025 aldirako Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Estrategia onartu eta garatzea proposatzen du.

Helburua lanaldiko eta in itinereko lan istripu larriak erdira murriztea da. Estrategia berri hau hiru printzipiotan garatuko da: “Jakin; Ahal; Nahi”; eta ekintza ardatz hauek izango ditu:

■ Jakin:

- Laneko segurtasun eta osasunean oraingo eta etorkizuneko arriskuei buruzko ezagutza handitzea.
- Laneko arriskuen prebentzioaren arduradunen prestakuntza sustatzea.
- Enpresa mailan eta sektoreka sentsibilizazio kanpainak egitea.

01

■ Ahal:

- Laneko arriskuak kudeatzeko funtsezko tresnen hobekuntza bultzatzea.
- Laneko arriskuak murrizten lagunduko duten ikerketa eta berrikuntza proiektuak garatzea.
- Laneko ezaugarri fisiko eta psikologikoak hobetzea.

■ Nahi:

- Lan inguruneetan prebentzioaren kultura txertatzea.
- Lana pertsonari egokitzea.
- Laneko arriskuen kudeaketa enpresaren kudeaketan txertatzea, identitate ikur izan dadila.
- Eragile guztien inplikazioa eta elkarlana: Enpresari eta enpresaburuak, langile eta sindikatuak eta enpresako arduradunak prebentzian.

EAJtik planteatzen dugu Euskal Administrazio Publikoa laneko arriskuen prebentzian eta kudeaketan Europako erreferentzia eredu izatea.

Ekintzak:

02

- Administrazio publikoetan laneko arriskuen prebentziorako plan estrategikoa.
- Laneko arriskuen prebentzio araudia berritzea bultzatu.
- Sektorearteko eta sailarteko koordinazioa laneko arriskuen prebentzioaren aldeko politiken koherentziarako.

13. KONPROMISOA

LANEKO IRUZURRA BORROKATZEA.

EKINBIDEAK

01

EAJk urteroko ikuskapen kanpainak eta zerbitzuak indartzearen hautua egiten du, urtean batez beste 7.000 pertsonaren lan kontratuak behin betiko egiteko eta erregularizatzeko.

02

Ikuskapen zerbitzuen giza baliabideak eta baliabide materialak indartu, egoera ahulenean dauden edo laneko iruzurrerako aproposak diren sektore eta taldeetan lan ikuskapenerako shock planak garatzeko.

03

Joan den legegintzaldian martxan jarri zen laneko iruzurraren aurkako mezuontzi anonimoa sustatu.

04

Euskal enpresetan gizonen eta emakumeen arteko lan diskriminazioa ezabatzeko berriazko ikuskapen kanpaina.



**INDUSTRIA
ETA NAZIO-
ARTEKOTZEA**

INDUSTRIA ETA
ZERBITZU AURRERATUAK,
BPGD-AREN % 40
BAINO GEHIAGO.

- Industria eta industriari lotutako zerbitzuak Euskadiko ekonomiaren “funtsezko motorra” izan dira eta izaten jarraitu behar dute, eta gure ekonomia egituraren bereizgarri bat ere bai. Euskadik, egin egiten du industriaren eta politika industrial bat izatearen hautua.
- 4.0 industria etorkizuneko industria da. Teknologia adimentsuen erabileran oinarritutako ekoizpen teknika aurreratuenak erabili gabe ezinezkoa da jokaleku globalean lehiatzea. EAJk uste du jarraitu behar dugula Herri moduan iraultza industrial berri honen hautua irmotasunez egiten, hautu hori baita gure etorkizun berme nagusia.
- Enpresetarako laguntzak “360º-ko laguntza” izan behar du. EAJren konpromisoa enpresari enpresen bizi zikloaren fase guztietan laguntzea da, enpresa berriak sortzetik hasi eta euren hazkuntza proiektuetatik jarraituz, bai eta zailtasunean eta enpresa berregituraketan dauden enpresei lagunduz ere.
- Dimentsio handiko proiektu industrialak eta teknologikoak erakartzeko, puntako enpresa azpiegiturak eduki behar dira, enpresak eta eragile zientifiko-teknologikoak koka daitezten eta elkarlanean aritu.
- Espazio horiek (parke zientifiko eta teknologikoak, enpresa parke aurreratuak, berrikuntzarako hiri barrutiak...) gure aurkezpen txartelik onena dira nazioartean eta ezinbestekoak dira talenturik onena erakartzeko, mantentzeko eta garatzeko.
- Pertsonak nahitaez egon behar dute etorkizuneko edozein politika industrialen erdigunean. EAJren iritziz ezinbestekoa da pertsonen prestakuntzari eta birkualifikazioari garrantzi berezia ematea, 4.0 industriaren eta kudeaketa aurreratuaren erronkei aurre egin ahal izateko. Halaber, langileek enpresetan parte hartzea bultzatzen jarraitu behar da, kudeaketan inplikaraziz eta partaidetza handiagoko sozietate formuletan ere bai.
- Euskal enpresa errealitatea batez ere mikroenpresaz eta enpresa txikiz osaturiko ehuna da, eta, azken datu ofizialen arabera, Euskadiko enpresa guztien % 98,8 dira. Enpresa hauei lehiakortasuna hobetzen laguntzeko berariazko neurriak hartu behar dira, bereziki finantzaketan lagunduz euren proiektuak garatzeko, nazioarteko merkatuetara irteteko eta enpresa arteko elkarlana lortzeko, masa kritikoa irabaziz jokaleku globalean lehiatu ahal daitezten.
- 80ko hamarkadaz gero, Eusko Jaurilaritzak bata bestearen atzetik garatu dituen industria eta lehiakortasun plan guztietan agertu da enpresen nazioartekotzea. EAJk euskal enpresa guztiei laguntzeko erronka bereganatzen du, bereziki ETEei, kanpora ireki daitezten. Gure hautuak bai kanpoko merkatuetan lehen urratsak ematen hasi berri diren enpresak bai dagoeneko instalatuta egonik ere nazioarteko merkatuetan hedatzen jarraitzeko laguntza zerbitzuen eskaintza berri bat behar duten enpresak hartzen ditu. Helburu honekin, eta Enpresak Nazioartekotzeko Euskal Agentzia palanka moduan erabiliz, EAJk planteatzen du kanpoko laguntza sare instituzionala zabaltzea oinarri duen etapa berri batean sakontzea; nazioarteko merkataritzan espezializatutako pertsonen gaikuntza indartzea; ezagutza aurreratua eta adimen lehiakorra lekualdatzea; hautaturiko eskualde estrategikoekin alde biko harremanak sendotzea eta enpresei finantzaketa tresna lehiakorrek eskaintzea, zenbait merkatu hobitan munduko lidergoa lortzeko.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

GURE EKONOMIAREN ERREFERENTZIA ETA MOTORRA DEN GARAPEN INDUSTRIALERAKO LAGUNTZA.

01. KONPROMISOA

EAJ-TIK KONPROMISOA HARTZEN DUGU LEGEGINTZALDIKO LEHEN HILABETEETAN INDUSTRIA GARAPENERAKO PLAN ESTRATEGIKO BAT ONARTZEKO, BESTEAK BES-TE, EKINTZA ARDATZ HAUEK JASOTZEKO:

- **A.** Trantsizio teknologikoa eta digitala Basque Industry 4.0.
- **B.** ETEentzako laguntza
- **C.** Enpresen sustraitzea eta industria proiektu estrategikoak
- **D.** Industriako zerbitzu aurreratuak
- **E.** Enpresen azpiegiturak eta industriarako lurzorua
- **F.** Lehentasunez jarduteko eremuak eta zailtasunean dauden enpresentzako laguntza
- **G.** Enpresa eredu inklusiozkoagoa eta partaidetzazkoagoa. Pertsonak erdigunean
- **H.** Talentuaren sustapena, itzultzeko eta birkualifikatzeko programak
- **I.** Nazioartekotzea

A. TRANTSIZIO TEKNOLOGIKOA ETA DIGITALA BASQUE INDUSTRY 4.0.

02. KONPROMISOA

4.0 INDUSTRIA EUSKADIN BULTZATZEA.

EKINBIDEAK

- 01** **Data Centre berri bat diseinatu Euskadin**, elkarlan eredu publiko-pribatuan oinarrituta. EAJren helburua ETEen datu-ostatatze eskari gero eta handiagoari erantzuna ematea eta 5G sareek eta Internet of things gauzen Internetak sortutako datuen bolumen hazkunderari arreta egitea da. Data Center berri hau efizientzia energetiko handiarekin diseinatuko da, eta dagoeneko badauden gainerako Data Center publikoekin erlazionatuta egongo da.
- 02** **Basque Artificial Intelligence Center garatzea** adimen artifizialeko aplikazioak garatzeko, bereziki Euskadiko espezializazio adimentsuko 3 lehentasun estrategikoetan: “energia garbiak, osasun pertsonalizatua eta industria adimentsua”. EAJk planteatzen duen zentroak helburu hauek izango ditu:

 - **Koordinazioa:** adimen artifizialean dauden gaitasunak artikulatu, indartu eta koordinatzea.
 - **Talentua:** Adimen artifizialarekin erlazionatutako talentua sustatu, mantendu eta erakartzea.
 - **Proiektzioa:** Euskal adimen artifizialeko ekosistemaren nazioarteko proiektzioa garatzea.
 - **Ekintzailtza:** Enpresa berriak sustatzea adimen artifizialaren arloan.
- 03** **5G teknologia ezartzen lagundu**, industria eremuko eta zerbitzu aurreratuen eremuko euskal enpresa guztietara hel dadin. Horretarako, EAJk ekintza hauek egitea planteatzen du:

 - Hiru euskal hiriburuetan 3 proiektu pilotu garatzea
 - 3 parke teknologikoetan 3 proiektu pilotu garatzea
 - Industrialdeetan 2 proiektu pilotu garatzea
 - Landaguneetan 2 proiektu pilotu garatzea
 - Garatutako proiektu pilotuen ebaluazio bat egin hiru helbururi erantzuteko:
 - Lehen 5G sareen hedapenari lagundu
 - 5G sareen kudeaketa teknikak esperimentatu
 - “Erabilera kasuak” garatu, ondoren eremu guztietan erreplika daitezkeen jokoera on bezala, bereziki RIS3 Euskadi lehentasunetan: osasun pertsonalizatua; industria adimentsua eta zerbitzu aurreratuak; eta energia garbiak.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

- **Kluster politika ardatz hartu eta berrorientatu, birlokalizazio industrialia bultzatzeko. Horretarako ekintza hauek egitea proposatzen dugu:**
- Klusterren jardueraren ardatza “Plan estrategiko industrial” berria izan dadin lagundu.
 - Klusterren estrategia berrorientatu eta Euskadiko RIS3 Espezializazio Adimentsuko Estrategia indartu, “–Euskadi 2030 ZTBP– Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plan” berriaren esparruan.
- 04**
- Euskal enpresa ehunaren trakzio proiektuak sustatu.
 - Euskal enpresa multilokalizatuen jarduera pizgarritz hornitu. Euskal enpresa hornitzaile eta azpikontratatzaileen ehunarekin baterako plan bat garatzea, horniketa kateko elementu giltzarri batzuk birlokalizatzeko eta itzultzeko.
 - Euskal osasun industriaren klusterra sendotu, enpresen, teknologia eta ikerketa zentroyen eta Osakidetzaeren interakzioak eta baterako proiektuak bultzatuaz, ekipamenduen, zerbitzuen eta osasun produktuen horniketarako.
-

03. KONPROMISOA

BASQUE MOVILITY ESTRATEGIAREN GARAPENA. AUTOMOBILGINTZATIK MUGIKORTASUN IRAUNKORRAREN INDUSTRIARA.

Konpromiso hau betetzeko, EAJk ekinbide eta jarduera hauek garatzea proposatzen du:

EKINBIDEAK

- **Basque Mobility** estrategiari lotutako jarduera industrialak sortzearen hautua sendotu, Euskadin lider diren enprekin eta euskal hornitzaile katearekin elkarlanean. Horretarako, ekintza hauek burutuko dira:
 - 01 ■ Enpresa berriak sortzen eta dagoeneko badaudenak haz daitezen lagundu mugikortasun iraunkorraren arloan.
 - Irtenbideak identifikatu eta garatu, elektrifikazioari lotuta datozen erronkei erantzuna emateko, besteak beste, biltegiatzearekin, trakzioarekin eta birkarga puntuekin zerikusia duten irtenbideak ere sartuz.
 - Ibilgailu autonomoari, ibilgailu konektatuari eta ibilgailu partekatuari buruzko ikerketa proiektuak.
- ■ Mugikortasun iraunkorra bultzatu bidaiarien garraio publikoan eta salgaien garraioan.

- **Euskadi “Mugikortasun Lab” bihurtu**, benetako eskalako laborategi bat, mugikortasun iraunkorreko orotariko irtenbideak probatzeko, nazioartera esportatzeko moduko irtenbideak testatzeko helburuz, euskal enpresentzat negozioa eta enplegu aukerak sortuz.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

B. ETE-ENTZAKO LAGUNTZA

04. KONPROMISOA ETE-EI LAGUNTZEKO BERARIAZKO PROGRAMA.

EKINBIDEAK

- "Plan estrategiko industrial" -ren barruan ETEei laguntzeko berariazko programa bat onartzea, jarduera hauek hartuko dituena:
 - ETEak berrikuntza teknologikora eta digitalizaziora eramateko laguntza.
 - Teknologikoa ez den berrikuntza sustatzeko HAZINNOVA eta INNOBIDEAK programak indartzea, bereziki marka eta diseinu industrialen, marketineko berrikuntzaren eta antolakuntza eredu berrien arloetan.
 - Makineriako Renove programak, robotikara eta digitalizaziora bizkor egokitzea errazteko.
 - Enpresaburuen asoziazionismoari eta enpresen aldi baterako batasunei laguntzea.
 - Garapen teknologikoko proiektuak, trakzio enpresekin elkarlanean.
 - Giza baliabideak garai digital berrirako gaitzea, prestatzea eta birziklatzea.
- ■ Tresneriak areagotu eta berritzeko inbertsioak egiten laguntzeko finantza tresnak indartu.

C. ENPRESEN SUSTRAITZEA ETA INDUSTRIA PROIEKTU ESTRATEGIKOAK

05. KONPROMISOA

ENPRESA PROIEKTU ESTRATEGIKOAK ERAKARRI ETA GARATZEAREN HAUTUA AREAGOTU.

EKINBIDEAK

— Kanpotik proiektu estrategikoak geureganatzea.

01

EAJk konpromisoa hartzen du SPRI Taldearen “Invest in Basque Country” unitatea indartzeko eta Euskadi nazioarteko ekitaldietan posizionatzeko eta halakoak egiteko, gure ekosistema industrial eta zientifiko-teknologikoa aurkezteko. Proiektu bakoitzari banan banako arreta osoa emateko programa, Euskadin kokatzeko posibilitateak areagotzeko, euren eskura jarritz behar guztiak beteko dizkieten laguntza eta 360º-ko zerbitzu multzo bat.

— Euskal enpresa estrategikoak sustraitzea.

02

EAJk “Finkatuz” funtsa eta enpresa proiektu estrategikoak garatzeko funtsak handitzea planteatzen du, euskal trakzio enpresen sustraitzea bermatzeko eta euskal multinazionalak garatzeko, hau da, sozietate helbidea Euskadin duten enpresak, 500 langile baino gehiagokoak, ikerketa proiektu estrategikoak egiten dituztenak eta nazioartean ekoizpen eta merkaturatze zentroak dituztenak.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

D. INDUSTRIAKO ZERBITZU AURRERATUAK

06. KONPROMISOA

INDUSTRIA SEKTOREAN ZERBITZU AURRERATUAK GARATZEN ETA INTEGRATZEN LAGUNTZEA.

EKINBIDEAK

- Euskal industrien lehia ahalmena sustatu, zerbitzu aurreratuen balio erantsia euren ekoizkinei erantsiz.

EAJk “ekoizkinen industriatik” “irtenbideen industriara” aurreratzea planteatzen du. Horretarako, industria+zerbitzu aurreratuen programa bat martxan jarriko da, jarduera eremu hauek arretagune izango dituenak:

01

- Ingeniaritza zerbitzuak
 - Zerbitzu teknologikoak
 - Marketin eta aholkularitza zerbitzuak
 - Proiektu estrategikoei laguntzeko finantza zerbitzuak
- ■ Sorkuntza industriak

E. ENPRESEN AZPIEGITURAK ETA INDUSTRIARAKO LURZORUA

07. KONPROMISOA

EUSKADIKO PARKE TEKNOLOGIKOEN ERAKARGARRITASUNA AREAGOTU ETA HOBETZEA.

EKINBIDEAK

— Ezkerralde-Meatzaldeko parke berria egitea eta dauden gainerako parke teknologikoak hobetzea.

EAJk enpresa eta eragile zientifiko-teknologikoetarako espazio berriak eta horiek lehiakorragoak egiteko zerbitzu berriak eskaintzea planteatzen du. Ekinbide hau aurrera eramateko, ekintza eta lehentasunezko lan ildo hauek gauzatuko dira:

■ Azpiegiturak handitzea:

• Bizkaiko Parke Teknologikoa:

Ezkerralde-Meatzaldeko eremua: Energy Intelligence Center-en eraikin zentral berria martxan jartzea. Sarbideak amaitu eta urbanizazioaren lehen fasea.

Zorrotzaurreko etorkizuneko proiektuan Euskadiko Parke Teknologikoen Sareak izango duen rola adostu tartean diren herri erakundeekin.

Zamudio-Derioko eremua: Eraikin berri bat eraikitzea.

• Arabako Parke Teknologikoa: Lehen urbanizazio fasea eta Parkeko lursailen zabalkuntza.

• Gipuzkoako Parke Teknologia:

Miramón: Eraikin berria eraikitzea Arbide dorreen azpian.

Galarreta: Galarretan eraikin enblematiko berri bat eraikitzea inkubazio espaziorako eta bulego eremu berria.

■ Parkeetarako trakzio proiektu berriak gureganatzea.

■ Mugikortasunaren hobekuntza, parke bakoitzean mugikortasun planak egiten eta ezartzen hasiaz.

■ Efizientzia energetikoa hobetzea. Parke sarerako energia iraunkorren proiektu bat diseinatzea, parkeetako gune eta zerbitzu komunak energia autokontsumoa ahalbidetzeko.

■ Balio zerbitzu osagarri berriak. Haurtzaindegiak, autozerbitzu erako ostalaritza guneak, gimnasioak eta antzeko zerbitzuak martxan jarri, parke teknologikoetako jarduera inguru horietan lan munduan sartzen diren pertsona gazteen beharretara eta bizimodura egokitzeko.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

08. KONPROMISOA

JARDUERA EKONOMIKOA SORTZEKO LURZORU INDUSTRIALA SUSTATZEA ETA BALIOZTATZEA BIDERATU ETA BIZKORTU.

EKINBIDEAK

- 01** Eskualdeko/Estrategiazko **Proiektu Interesgarria** figura sortzea, honelako proiektuak bizkortasunez kudeatzeko eta lehiakorrak izan ahal izateko bai kanpoko ekoizpen inbertsioak erakartzen bai gure enpresen hedapen proiektuei irtenbideak eskaintzen.
- 02** **Sailarteko/Erakundearteko Funtsa sortzea**, lurzoru kutsatu eta degradatuak balioztatzea sustatzeko.
- 03** **Lurzoru erreserba berriak identifikatu eta erostea**, eremu industrial edo logistikoko proiektu estrategikoei ekiteko.

09. KONPROMISOA

PORTUETAKO AZPIEGITURAK ETA AZPIEGITURA LOGISTIKOAK SENDOTZEA, INDUSTRIAREN ZERBITZURAKO BEGIRA.

EKINBIDEAK

01

Portuetako azpiegiturak berritu eta modernizatzeko plana, burdinbidezko portu loturen hobekuntza barne dela.

02

VIAP plataforma garatzea, Forondako aireportuaren posizio hartzea eta lehiakortasuna hobetzeko.

03

Digitalizazio prozesu eta sistemen sarrera sustatu, azpiegitura logistikoen kudeaketan.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

F. LEHENTASUNEZ JARDUTEKO EREMUAK ETA ZAILTASUNEAN DAUDEN ENPRESAK

10. KONPROMISOA

ZAILTASUNEAN DAUDEN ENPRESENTZAKO LAGUNTZA ETA EGOERA AHULEAN DAUDEN LEHENTASUNEZKO ARRETAGUNEEN ESTRATEGIA.

EKINBIDEAK

Zailtasunean dauden enpresen berregituraketa errazteko programa.

Horretarako, EAJK ekintza hauek gauzatzea planteatzen du:

- Bideratu programa indartu, zailtasun iragankorrak dituzten enpresa bideragarriak berregituratzen laguntzeko.
- Oraingo Luzaro Funtza baliatuz partaidetzazko maileguen bitartez, enpresaren berregituraketa teknologikoa ahalbidetzen duten inbertsioak egiteko laguntza.
- Zailtasunean dauden enpresa bakoitzari irtenbide espezifikoko emateko programa indibidualak egitea, inplikaturata dauden eragile guztien jarduketa koordinatua kontuan hartuz.
- Zailtasunean egondako enpresetatik etorritako erregulazioko espedienteek eragindako pertsonak beste lanpostu batean sartzera eta birziklatzera bideratu. Horretarako enplegu eta gizarte-politika arloaren eta industria-garapen arloaren artean koordinatutako ekintza programak aplikatuko dira.

01

Egoera ahulean dauden eskualdeen garapen industrial eta sozioekonomikorako estrategia (lehentasunez jarduteko eremuak).

Ekinbide hau aurrera eramateko, eta 2018-2020 aldian gauzatutako shock planean oinarri hartuta, EAJK, Eusko Legebiltzarrean ezarritakoaren arabera, Ezkerralde-Meatzaldeko, Enkarterriko eta Oartzualdeko eskualde plan estrategikoak onartzea proposatzen du. Plan estrategiko hauek Aiara eskualdera hedatuko dira, Legebiltzarrean horretarako eratu den lantaldeak hala ezartzen badu. Eskualdeko plan horiek 2030 mugarako estrategia komun batean txertatuko dira, eta ekintza ardatz hauek hartuko ditu:

- Ekonomia suspertzea. Enplegua eta prestakuntza.
- Gizarte kohesioa eta zerbitzu publikoak.
- Hiriberritzea eta ingurumena biziberritzea.
- Konektagarritasuna eta iraunkortasuna.
- Lurzoru industrial kutsatuak berreskuratu eta balioa ematea. Erakundearteko funtsa.

02

G. EUSKAL ENPRESA EREDUA. INKLUSIO ETA PARTAIDETZA HANDIAGOKOA. PERTSONAK ERDIGUNEAN**11. KONPROMISOA****INKLUSIOZKO ETA PARTAIDETZAZKO EUSKAL ENPRESA EREDUA SUSTATZEA.****EKINBIDEAK**

- EAJk konpromisoa du ekintza plan bat landu eta ezartzeko, **inklusio eta partaidetzazko euskal enpresa eredu bat sustatzeko**, politika hauek kontuan hartuta:
- Inklusio eta partaidetzazko kudeaketa ereduen zabalkunde eta sentsibilizazio programa, dagoeneko badauden enpresetan jokoerarik onenak identifikatuz.
 - Langileek bai emaitzetan bai enpresaren kapitalean parte hartzeko sistemak suspertu, bai emaitzetan Lampar Funtsaren bitartez dauden laguntzak indartuz, eta langileek kapital ekarpenak egiteko modua ematen duten beste laguntza batzuk sustatuz.
 - Ziurtagiri bat bultzatu, enpresak, ezartzen diren ezaugarriak betez gero, inklusiozko eta partaidetzazko enpresa gisa identifikatu ahal izateko, eta horrela enpresa horiek prestigiatu erakundeen sari eta aitortzen bidez.
 - Enpresa partaidetza eta kudeaketarekin erlazionatutako gaiei buruzko prestakuntza ekintzak egin, bai langileentzat bai langileen ordezkari sindikalentzat.
-

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

H. TALENTUAREN SUSTAPENA, ITZULTZEKO ETA BIRKUALIFIKATZEKO PROGRAMAK

12. KONPROMISOA

KUALIFIKAZIO PROFESIONALA HOBETZEKO ETA GAZTEAK ENPRESAN SARTZEKO PROGRAMAK EGIN, LANBIDE-REKIN ETA LANBIDE HEZIKETAKO ARLOAREKIN ELKARLANEAN.

EKINBIDEAK

- 01** — EAJk Elkarrizketa Sozialerako Mahaiaren esparruan izenpetutako 4.0 Industriara zuzentasunezko trantsizioa egiteko Euskal Itun Soziala garatzea planteatzen du EAJk. Horren bitartez, 4.0 Industria ezinbestean helduko denez, hortik eratortzen diren prestakuntza eta birkualifikazio beharrei ekingo zaie, aurretiaz eta gizarte adostasunez.

- 02** — Kanpoan dauden pertsona eta gazte profesional euskaldunak itzultzea sustatzeko programak, euskal enpresetan sartzea edo euskal enpresekin lotzea eta jasotako esperientzia ekartzea badute.

I. NAZIOARTEKOTZEA

13. KONPROMISOA

NAZIOARTEKOTZEKO EUSKAL AGENTZIA SENDOTU.

EKINBIDEAK

- EAJk 2025erako Enpresak Nazioartekotzeko Plana onartzea proposatzen du, ekintza hauek jasotzeko:
 - Euskal ETEentzat zerbitzu kartera oso bat garatzea, herrialde interesgarriak hiru eremutan estratifikatuz: Herrialde estrategikoak (1. lehentasuna); jarraipen herrialdeak (2. lehentasuna); esploratzeko herrialdeak (3. lehentasuna).
 - Adimen “lehiakorreko” eredu bat eraiki, nazioarteko negozio aukerak aurreikusiko eta enpresen eskura jarriko dituen.
 - 01 ■ Eusko Jaurlaritzaren kanpo sarea indartzea, eskualde hautatuekin aldebiko harremanak bultzatuz eta emandako zerbitzuak gehiagotuz.
 - Nazioartekotzean eta kanpo merkatuetan espezializatuta eta euskal enpresei lotuta dauden profesionalen kopurua handitu.
 - Enpresak nazioartekotzeari finantzaketa laguntza emateko programak egin, bereziki nazioarteko enpresei laguntzeko, enpresak kanpoan erosteko eta Basque Consortium gida garatzeko finantzaketa ildoak, horietan euskal enpresen eskura dauden finantzaketa baliabideak sartuz.
 - Euskadi Basque Country marka sortu eta dibulгатzea, euskal enpresek kanpoan ezagutza eta ospea irabazteko tresna gisa.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

14. KONPROMISOA

ZERBITZU ESKAINTZA BERRI BAT FINKATZEA SEKTOREKA.

EKINBIDEAK

- EAJk laguntza sistema publiko bat finkatzea planteatzen du, Klusterrak eta Merkataritzaganberen lankidetzak integratuz eta, horren bidez, euskal enpresak nazioartekotzeari laguntza publikoa emateko zerbitzu eskaintza integratu bat edukiko du.
Zerbitzu eskaintza berriak nazioartekotzeari lotutako operazio guztien estrategiak eta ezarpena diseinatzeko laguntza tresna sofistikatuen zorro bat dauka, eta zerbitzu horiek laguntza esparru zabal eta ugaria hartzen dute, hala nola:
 - Aukerak merkatuen arabera identifikatzea
 - Merkatu adimena
 - Merkatuen araberako azterlan sektorialak
 - Ezarpen motari buruzko aholkularitza eta definizioa, strategiaren arabera
- ■ Tokiko bazkideak bilatzen laguntzea eta helmugan negoziatzea

15. KONPROMISOA

NAZIOARTEKOTZEKO EUSKAL AGENTZIAREN NAZIOARTEKO SAREA HEDATZEA (Basque Trade & Investment).

EKINBIDEAK

- Atzerrian ditugun bulego komertzialen sarearen eredua indarberritzeko konpromisoa hartzen du EAJk.
Atzerriko merkataritza bulego horiei esker merkatu estrategikoen aukerak gure enpresetara hurbildu ahal izango dira, helmugan laguntza operatibo eta estrategikoa eman ahalko zaie, ateak ireki eta euskal enpresa herri erakundeekin, antolakunde sektorialekin, enpresekin eta pertsona garrantzitsuekin, hots, politiketan eta estrategietan erabakimena dutenekin, konektatu ahal izango dira, bai eta “Euskadi Basque Country” marka dibulgatu ere.
- 01 Geure bulegoak Afrika kontinentean edukitzeak, Afrika Plan Estrategikoan oinarrituta eta dagoeneko osatuta, eta merkatu estrategikoetan izateak, hots, Japonia, Arabiar Emirerri Batuak eta Frantzia, batzuk aipatzearen, abagunea emango digu Euskadin nagusiak diren jarduera sektoreetarako orain aukera konkretuak eskaintzen dituzten herrialde eta eskualdeetan presentzia propioari esker aitzindari gisa jardutea, eta etorkizuneko hazkuntza, hedapen eta garapen gune moduan agertzen zaizkigu.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

16. KONPROMISOA

ENPRESEN DIPLOMAZIA KORPORATIBOA INDARTZEA ETA ENPRESAK NAZIOARTE-KOTZEKO ZAINZTA LEHIAKORREKO SISTEMA.

EKINBIDEAK

- EAJk helmugan harreman sare bat ehuntzea planteatzen du, gure enpresa ehunari atea ireki eta aukerak hurbildu ahal izateko. Ildo horretan, erabakigarria da politika publikoetatik euskal enpresari laguntza eskaintzea.
Merkatu askotan herri administrazioak eta eragin taldeek nabarmen eragiten dute negozioak egiteko moduan eta sektore konkretuetako erabaki estrategikoetan.
- 01** EAJk beharrezkotzat jotzen du erakunde eta talde interesgarriekin harremanak ezartzeko gaitasuna eta horiekin elkarrekintza eraginkorra izateko gaitasuna beste eskualde eta merkatu batzuetara hedatzea.
Alde horretatik, erraztasunak emango zaizkio euskal enpresari laguntza eta orientazioa jasotzeko, bere sektorean giltzarri diren eragileak identifika ditzan, kasu batzuetan ingurune ezezagunetan eta arriskuekin, eta harremanak eta kontaktuak egiterakoan laguntasuna izan dezan.
- EAJk munduko gertakari geopolitiko eta ekonomikoen zaintza eta alerta sistema bat martxan jartzea planteatzen du, horren bitartez enpresei informazioa aurretiaz, ahal den neurrian, eta denbora errealean emateko, ustekabeetan, nazioartean ondorio larriak dituzten gertaera edo erabakiei buruz. Informazio honek, erreferentziako gertakariaren deskribapen zehatza emateaz gain, ondorio posibleen eta kontuan hartu beharreko puntuen prospekzio bat ere emango du, bai eta ondorioak eztitzeko eta horien aurka jokatzeko aholkuak ere. Horri esker euskal enpresek aurrea hartu ahal izango diete gertakariei eta euste neurriak hartu ahal izango dituzte nahikoa aurretiaz, eta aukerak aprobetxatu ere bai.

17. KONPROMISOA

TALENTUA ERAKARRI ETA MANTENTZEA.

EKINBIDEAK

- EAJk talentua atzerrian atzitu eta lotzeko arlo industrial eta teknologiko guztian zeharkako estrategia bat garatzea mahairatzen du. Horretarako ekintza hauek egingo ditugu:
 - Dagoeneko badauden tresnei buruzko diagnostikoa eta beste eskualde batzuekiko benchmarkinga.
 - Gure lehiakideen aldean ditugun lehiarako abantailen mapa bata zehaztu.
- 01 ■ Abantaila dugun 2-3 merkatu hautatu eta helburu argiak jarri.
- Merkatuen gaineko bide orri argi bat eta merkatu bakoitzean aplikatu beharreko ekintzak ezarri.
- ETEei laguntzeko politikak diseinatu, enpresa barrura talentua erakartzerakoan faktore estrategikoak garatzeko: malgutasuna ordutegietan eta lantokietan, autonomia kudeaketan eta erabakimenean, prestakuntza plana, ibilbide profesionalaren plana, ingurune eta tresneria multikulturalak, enpresa kultura horizontal eta irekia.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

18. KONPROMISOA

POLITIKA PUBLIKOEN KOHERENTZIA.

EKINBIDEAK

- EAJk garapen iraunkorreko printzipioez baliatzen jarraitzea proposatzen du, laguntzak ematerakoan kontuan hartu beharreko funtsezko irizpideetako bat baita. Horretarako, GIHei lotutako balioespen irizpideak aplikatuko dira nazioartekotze programa eta ekinbide guztietan.
- 01** Gure konpromisoa Garrantzi estrategikoagatik hautaturiko 4 merkatutan euskal ezarpen nagusien GIHen lerrokatzeari buruzko azterlan bat garatzea da gure konpromisoa. Euskal enpresek landaguneen iraunkortasunarekin eta garapenarekin erlazionaturiko nazioarteko proiektuetan parte hartzea bultzatzea da gure helburua.
-
- 02** “Basque Country Lizitazioak plataforma” garatu, euskal enpresek erakunde multilateralen finantzabideko nazioarteko lizitazio proiektuetan parte hartzea errazteko. Helburua gutxienez nazioarteko 10 lizitazio irabaztea da.
-
- 03** “BCLP” Latinoamerikatik Asia, Afrika eta Europara zabaldu.
-
- 04** Munduko Bankuarekin eta Garapeneko Iberoamerikako Bankuarekin loturak eta harremanak egin, bai eta beste erakunde multilateral batzuekin ere, esaterako, Garapeneko Afrikako Bankuarekin eta Berreraikuntza eta Garapeneko Europako Bankuarekin, ondorioz proiektu kopurua ugalduz.
-
- 05** “Green Funds plataforma” eraiki, klima aldaketari lotutako proiektuetarako finantzaketa gure enpresetara hurbiltzeko.



**BERRIKUNTZA
ETA EKINTZAILETZA
BERRIKUNTZA (I+G+B)**

EUSKADI EUROPAKO BERRIKUNTZA GUNEA BILAKARAZI.

- Euskadiren ongizatea eta lehiakortasuna (I)kerketan, (G)arapen teknologikoan eta (b)errikuntzan bermatzen da. Ezin dugu galdu etorkizuna. Ikerketak eta garapenak ezagutza berria sortzen laguntzen dute, merkatura berrikuntzaren bidez transferitzen da, eta gizartearen erronkak ebazten eta aberastasun ekonomikoa eta kalitatezko enplegua sortzen laguntzen du horrek.
- EAJren iritziz berrikuntzaren erronkari erantzuteak ahalegin publiko-pribatu bateratu bat egin beharra dakar, eta Euskadiren espezializazio adimentsuaren oinarrien gainean epe luzeko estrategia bata egin beharra. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plan berria, euskal gizartearen erronka nagusiak konpontzera orientatua, 2030erako muga jarrita lantzea da gure konpromisoa. Plan berri hau modu irekian eta parte hartuta landuko da, enpresen, kluster elkarteen, unibertsitateen, teknologia eta ikerketa zentroen eta osasun ikerketarako institutuen laguntza eta kontrastearekin eta euskal gizartearen beraren nahitaezko partaidetzarekin.
- EAJK I+G+b arloko inbertsioak eskualde eta herrialde aurreratuenerekin berdintzeraino handitzeko hautu garbia egiten du. Gure enpresek baldintza berdinetan lehiatu behar dute nazioarteko merkatuetan. Horretarako, ikerketan egiten dituzten ahaleginak eta inbertsioak bikoiztu behar dituzte, berrikuntza gauzatu ahal izateko zientzia, teknologia eta ezagutza azpiegitura egokiz hornitzeko gai izan behar duten I+G+b politika eta programa publikoak lagun dituztela.
- EAJren iritziz Eusko Jaurlaritzak sustapen efektu handia gauzatu behar du I+G+b arloko inbertsio pribatuaren, horien hazkuntza gidatuz. Herri konpromiso politiko eta instituzional bat ezartzearen alde egiten dugu, I+G+b arloari laguntzeko Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuak urtero % 6 handitzeko. Aurrekontuen ondutze hori zerbitzu publikoen modernizazioak eta digitalizazioak lagunduta etorriko da, eta eskaria sortzeko tresnen erabilera orokortzeak eta, zehazkiago, erosketak publiko berritzaileak lagunduta.
- Euskadi herrialde txikia denez, funtsezkoa da hautua I+G+b arloan kontzentratzea, inpaktu handia lortzeko. Eutsi egingo diogu Euskadiren espezializazio adimentsuaren hautuari, gizarte moduan aurre egin behar diegun hiru eraldaketa nagusiei erantzuna emateko helburuz: eraldaketa teknologiko-digitalari, ekologiko eta ingurumenekoari eta demografiko-sozialari. Hiru eraldaketa horiei emateko gai garen erantzunaren mende egongo da gure etorkizuna.
- EAJren iritziz industria adimentsuagoa, energia garbiagoak eta osasun gero eta pertsonalizatuagoa dira gure espezializazio adimentsua eta gure I+G+b arloko ahaleginak ardaztu behar ditugun hiru lehentasun estrategikoak. Gainera, Euskadik bere egitura ekonomikoa modernizatzen eta dibertsifikatzen jarraitu behar du elikadura osasungarriaren, ekoberrikuntzaren, hiri iraunkorren eta kultura eta sormen industriaren arloetan agertzen diren aukerak aprobetxatuz.
- EAJK elkarlanean aurrera jarraitzea proposatzen du, hori delako palanka nagusietako bat Euskal Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sistemaren eraginkortasuna eta potentzialtasuna handitzeko. Publikoaren eta pribatuaren artean gertatu behar da elkarlan hori; enpresen, ikerketa zentroen, teknologia zentroen eta unibertsitateen artean; enpresa handien eta txikien artean; balio kateko sektore guztietako enpresen artean. Indarrak batuak eta elkarrekin lan eginaz bakarrik egin ahal izango diogu aurre bermeekin erronka berriei eta aprobetxatu ahaliko ditugu datozkigun aukerak.
- Nahitaez elkarlan hori Euskaditik kanpora ere gertatu beharko da, ezagutzaren nazioarteko sareetan parte hartuz. Gizartearen erronka nagusiak, adibidez, zahartzea edo klima aldaketa, gero eta konplexuagoak dira eta ezagutza partekatua eskatzen dute, bai eta inbertsioak eta estrategia globalak. EAJren iritziz Euskadik Europako ikerketa esparruan integratzea sakontzen jarraitu behar du, Europa Horizontea esparru programa berria ezartzen eragile nabaria da eta.
- Berrikuntza ez da mugatzen enpresa handietara, teknologia zentroetara eta unibertsitateetara. Enpresa guztiek egin dezakete eta egin behar dute berrikuntza, tamaina, jarduera sektorea edo maila teknologikoa gorabehera, horren mende egongo baita euren lehiakortasuna eta etorkizunean bizirik irautea. Euskadin ETEak enpresen % 99 baino gehiago dira eta enpleguaren ia % 70. Beraz, berrikuntza haletako guzti-guztietara eramatera jo behar dugu ahalik eta inpaktu handiena lortzeko ongizatean, hazkuntza ekonomikoan eta enpleguan.
- Estrategia oso hau aurrera arrakastaz eramateko, EAJK planteatzen duena da pertsonak kontuan hartzea, izan ere, ikerketa, garapen teknologikoa eta berrikuntza sostengatzen duten aktibo nagusia direlako. Ikerketa pertsonen egiten dute. Digitalizazioak eta iraunkortasunaren eskakizun berriek bultzaturik eraldatzen den ekonomia globalizatu baten aukerei ekiteko behar den zientziako, teknologiazko eta enpresazko talentua garatu, erakarri eta mantendu behar du Euskadik.
- Emakumea zientzian eta teknologian buru-belarri sartzeak eta ikerketako eta garapen teknologikoko ekimen eta proiektuetan emakumearen lidergo handiagoa izateak sendotuko dute Euskal Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sistema hazi eta hobetzeko behar den talentu oinarria. EAJK, hezkuntza zikloaren hasieratik, zientzian, teknologian, ingeniarietan eta matematikan (STEM) bokazio femeninoa sustatzea proposatzen du.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

01. KONPROMISOAK

EUSKADIREN ESPEZIALIZAZIO ADIMENTSUKO ESTRATEGIAN SAKONTZEA, 2030 EPE-RAKO ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA PLAN ESTRATEGIKO BERRI BAT ONARTUZ, GARATUZ ETA BETEZ.

EKINBIDEAK

01

EAJk Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plan berri bat –2030erako ZTBP–, Europaren ildokoa eta Euskadiko gizartearen erronkak konpontzen lagunduko duena, onartu eta martxan jartzea proposatzen du.

02

Espezializazio adimentsua garatu, fabrikazio aurreratutik industria adimentsura eta energiatik energia garbiena eta berriztagarrietara egingo den trantsizioari aurre egingo diona.

03

EAJk dibertsifikazio ekonomiko eta teknologikoan sakontzea planteatzen du, Euskadik gorakako gaitasunak badituen lau aukera arlo indartuz: elikadura osasungarria, ekoberrikuntza, hiri iraunkorrak eta kultura eta sormen industriak.

04

Euskal gizartearen bost erronka nagusi konpontzerantz orientatu gure I+G+b arloaren hautua: kalitatezko enplegua, osasuna, klima aldaketa eta digitalizazioa, eta genero berdintasunaren zehar-erronka. Bost erronka horiek NBEk 2030erako ezarri dituen Garapen Iraunkorreko Helburuen ildotik doaz.

05

EAJk zahartze osasungarria, mugikortasun elektrikoa eta ekonomia zirkularra “Herri misio” gisa ezartzea proposatzen du. Esparru horietan ikerketako zehar-proiektuak bultzatuko dira enpresetako eragile guztien, teknologia zentroyen eta ikerketa estrategikokoen eta ikerketa zientifiko-unibertsitarioaren elkarlanaren bitartez, Europa Horizonte esparru programa berriaren misioen ildotik.

02. KONPROMISOAK

EUSKADIKO IKERKETAN, GARAPEN TEKNOLOGIKOAN ETA BERRIKUNTZAN INBERTSIOAK HANDITU, EKIMEN PUBLIKOTIK BULTZATUTA ETA ENPRESEN LIDERGORA ORIENTATUTA.

EKINBIDEAK

01

EAJk konpromisoa hartzen du legegintzaldi guztian Eusko Jaurlaritzaren I+G+b arloari laguntzeko aurrekontuak urtean % 6 handitzeko. Helburua da 2024an Jaurlaritzak 600 milioi euroko inbertsioa jotzea ikerketa, garapen eta berrikuntza programetan.

02

Enpresen I+G arloari laguntzeko programak indartu, trakzio enpresa liderren, kate balioko enpresa txikien eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko eragileen partaidetza duten proiektu estrategikoen garapena ahalbidetzeko. Gure konpromisoa legegintzaldi honetan I+G arloan 120 proiektu estrategiko bultzatzea da.

03

Produktu berriak balioztatzeko eta testatzeko azpiegiturak, enpresen prototipo eta irtenbide berriak erabilera egoera errealean probatzeko aukera emango dutenak eta I+G arloaren emaitzak merkatura transferitzen lagunduko dutenak, indar gehiagoz garatu eta hobetzea.

04

Administrazio publikotik enpresen produktu eta irtenbide berriak eskatzea bultzatu, Eusko Jaurlaritzaren sailetan eta mendeko erakunde publikoetan erosketa publiko berritzailearen sistematika indartuz, horren praktika eta dauden proiektuen kopurua zabaldu. EAJren helburua euskal enpresa ehunean berrikuntza bultzatzea da, eta gutxienez 12 ekinbide konkritu aterako ditu erosketa publiko berritzailearen edo erosketa publiko aurrekomertzialaren arloan Eusko Jaurlaritzatik edo bere enpresa publikoetatik.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

03. KONPROMISOAK

BERRIKUNTZA AZKEN MILIARAINO ERAMAN, EUSKAL ETE-ETARA HEL DADIN, BERRIKUNTZA TEKNOLOGIKOA ETA EZ TEKNOLOGIKOA BULTZATUZ ENPRESAREN PROZESU GUZTIETAN.

EKINBIDEAK

01

EAJk enpresa berrikuntzarako laguntza programak indartzea planteatzen du, bereziki ETE industrialetara eta industriari lotutako zerbitzuetakoetara zuzenduak. Gure erronka da 10 enplegatu baino gehiagoko enpresa industrialen gutxienez % 60 enpresa berritzaileak izan daitezen lortzea.

02

Enpresa berrikuntzari laguntzeko programak handitu, informazio teknologiak baliatuz ETE industrialen eta industriari lotutako zerbitzuen automatizazioa eta trantsizio digitala bultzatzeko. Horretarako, programa berriak jarriko ditugu martxan eta oraingoak indartuko ditugu 5.000 ETE eraldaketa digitalera eta berrikuntzara ekartzeko.

03

Enpresa berrikuntzari laguntzeko programak indartu merkaturatzearen, marketinaren, antolakuntzaren eta diseinu industrialaren arloetan, europar markak eta diseinuak eskatzea bultzatuz. EAJren helburua da, lau urtean, Jabetza Intelektualaren Europako Bulegoan marka eta diseinu komunitarioak erregistratzeko 3.000 eskaera erregistratzea lortzea.

04

Lanbide Heziketako ikastetxeen funtzioa finkatu, ETEei berrikuntza teknologikoaren eta balioztapen esperimentalaren arloan laguntzeko. Lanbide Heziketako ikastetxeen sarearen laguntzaz, ETEetan 1.500 berrikuntza proiektu berri egitera iristea da gure konpromisoa.

05

ETE berritzaileak ezagutzeko sistema propio bat ezarri eta sistemari ospe publiko eta pribatua eman.

04. KONPROMISOAK

EUSKAL ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA SISTEMAREN BIKAINASUNA, EMAITZAK, INPAKTUA ETA EFIZIENTZIA AREAGOTU.

EKINBIDEAK

- 01** Bikaintasunezko ezagutza zientifiko berria sortzea eta nazioarteko osperik handieneko aldizkarietan argitalpenak areagotzea indartu. EAJren erronka Euskadi milioi biztanleko argitalpen zientifikoetan puntako herrialdeen artean kokatzea da, eta, gutxienez, horien % 60 bikaintasun maila gorenekotzat jo daitezela.
- 02** Nazioarteko zentroekin elkarlanean ikerketa zientifikoa indartu eta Europako Ikerketa Institutuaren beka dituzten ikertzaileak erakartzea indartu. Europa Horizonte programa berrian ikerketa bikaintasuneko 20 beka berri lortzea eta euskal argitalpen zientifikoaren % 60 nazioarteko ikerketa zentroekin elkarlanean garatzea da helburua.
- 03** EAJk planteatzen du Basque Research and Technology Alliance (BRTA) bultzatzea, euskal teknologia eta ikerketa zentro kooperatibo guztiak biltzen dituelako, BRTA finka dadin euskal eskaintza teknologikoa bilduko duen zentro gisa eta Europan eta munduan gure ikerketa gaitasuna bultzatu dezan modu bateratuan.
- 04** Ikerketa proiektu estrategikoei laguntzeko programak indartu, euskal enprekin elkarlanean, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal I+G Sareko eragile guztien artean.. Gure konpromisoa legegintzaldi honetan I+G arloan 120 proiektu estrategiko berri martxan jartzea da.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

05. KONPROMISOA

EUSKAL ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA SISTEMA NAZIOARTEKOTZEN ETA ZABALTZEN SAKONDU, EUROPA HORIZONTE EUROPAKO ESPARRU PROGRAMAREN BIHAR-ETZIKO MISIOETAN LIDERGOA ETA PARTAIDETZA BULTZATUZ.

EKINBIDEAK

- 01 Europa Horizonte esparru programa berriko Europako ikerketa programetan euskal lidergoa bultzatzea planteatzen du EAJK. Horretarako, Europako proiektu kopuru handiagoa Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko eragileek gidatzea lortzera zuzendutako laguntza programa bat jarriko da martxan. Gure helburua da gutxienez Europako 50 ikerketa proiektu berri euskal enpresek gidatzea.
- 02 Ikerketa zentroek eta unibertsitateek Europako Ikerketa Esparruan parte hartzea eta integratzea areagotu, Europako ikerketa programetatik datorren finantzaketa urtero haztea lortzeko helburuz, 2024an 150 milioi euro lortzera iristeraino.
- 03 I+G+b arloko zentro eta proiektuetan nazioarteko inbertsio pribatuak erakartzea sustatu. Euskadi inbertsiorako leku erakargarri bat izatetik berrikuntzarako ere leku erakargarria izatera igaro dadin, nazioarteko funts pribatuak erakartzera zuzendutako berariazko programa bat garatzea da EAJren konpromisoa.
- 04 Euskadiren nazioarteko proiektzioa eta Europako berrikuntza gune gisa duen posizioa areagotu, Europa Horizonte esparru programaren misioetan eta Digital Innovation Hubs eta EIT Innovation Hubs (Manufacturing, Food) Europako sareetan partaidetza handiagoa izanik. Europa Horizonte Europako ikerketa programa berriaren barruan atariko gisa ezarritako 5 arlo nagusietako Europako sei misiotan Euskadiren partaidetza lortzea da EAJren erronka: minbizia, klima aldaketa; hiri adimentsuak; elikadura eta laborantza osasungarriak; eta itsaso, ozeano, kostea eta barrualdeen osasuna.
- 05 Basque Digital Innovation Hub osatzen duten nodoak posizionatu eta euskal eta europar enpresek erabil ditzatela sustatu, gutxienez 500 euskal enpresari zerbitzua emanda. EIT Manufacturing eta EIT Food-en egoitzetan Euskadin sortutako startup-ak erakarri eta Euskadin instalatzea.

06. KONPROMISOA

TALENGU ZIENTIFIKO ETA TEKNOLOGIKOA GARATU, EUSKADI BERRITZAILE BAT LORTZEKO, EMAKUME IKERTZAILEAREN PROTAGONISMOA BULTZATUZ.

EKINBIDEAK

- 01** Nazioarteko bikaintasun irizpideak betetzen dituzten ikertzaileak erakartzeari eutsi eta arreta berezia jarri euskal ikertzaileak sarrarazten. EAJren konpromisoa legegintzaldian, Euskal zientzia eta teknologia sisteman maila handiko nazioarteko 100 ikertzaile berri txertatzea da, Ikerbasqueren Research Fellows programaren bitartez, ikertzaileen erdiak hasiera batean Euskadin prestatuak.
- 02** Ikertzaileen prestakuntza doktoretza industrialaren bitartez indartzea, enpresen beharren ildotik eta RIS3 eta Basque Industry 4.0 kontuan hartuta (adimen artifizialaren inguruko oinarriko teknologia digitalak, zibersegurtasuna, datuen zientzia, gauzen Internet eta 5G teknologiak). Gure konpromisoa, berariazko laguntza programa baten bidez, legegintzaldian zehar 100 doktore tesi industrial egitea eta euskal enpresetan 100 doktore sartzea da.
- 03** Basque Research and Technology Alliance (BRTA) baliatuz nazioarteko talentu teknologikoa erakartzea bultzatu, euskal teknologia zentroetan sartzeko. Horretarako, euskal teknologia zentroen ahalmena indartzeko nazioarteko 100 teknologo erakarri eta itzultzeko berariazko programa bat martxan jartzea planteatzen du EAJk.
- 04** Oinarri teknologikoa duten startup-ak martxan jarritz talentu erakarpenera indartu, euskal enpresen lehiakortasuna hobetzeko. Horretarako, BIND 4.0 programa indartuko da, gutxienez 100 euskal enpresak euren lehiakortasuna sendotu dezaten, sortutako startup berriei eta talentuarekin elkarlanean aritzeari esker.
- 05** Zientzian, teknologian, ingeniartzan eta matematikan (STEM) bokazioaren garapena bultzatzea planteatzen du EAJk, hezkuntza zikloaren etapa guztiak hartuz eta arreta berezia eginez emakumea sartzeari. Geure buruari jartzen diogun helburua zientzia, teknologia, ingeniartza eta matematikarekin erlazionatutako arloetan emakumeen matrikulazioa % 30 handitzea da, eta Lanbide Heziketako industria adarrean ere bai.
- 06** Emakumearen partaidetzari eta lidergoari lagundu, zientziari, teknologiari eta berrikuntzari lotutako proiektu eta ekimenetan. EAJren erronka da 2024an ikertzaileen % 40 gutxienez emakumezkoak izatea.



BERRIKUNTZA ETA EKINTZAIETZA EKINTZAIETZA BERRITZAILEA

450 ENPRESA BERRITZAILE ETA/EDO OINARRI
TEKNOLOGIKOKO SORTZEN LAGUNDU LEGEGINTZALDIAN.

EAJren iritzirako, kultura ekintzailearekin sentsibilizatu eta kontzientziatutako gizartea abantaila bat da lehiarako, eguneroko landu behar dena. Euskadik bere espiritu ekintzailea, berritzailea, aukera berriak bilatzekoa eta arriskuak bereganatzekoa mantendu eta hobetu beharra dauka, munduko eskualderik lehiakorren artean eta garapen eta gizarte-ongizate maila handienak dituzten artean egoteko.

Euskadik bere posizioa finkatu behar du ekosistema ekintzaile erakargarri bat duen gizarte gisa, ekimena, ahalegina, gaikuntza, negozio ikuspegia, sakrifizioa eta gaintzea eskaintzen dituen gizarte gisa. Jarraitzen dugu geure eredu eta estilo ekintzailean sinesten, gure indarguneetan sinesten dugu. Jarraitzen dugu Euskadin sinesten.

Ongizate gizartea mantendu eta hobetu ahal izateko gaur egun daukagun zutabeetako bat pertsona ekintzailea da. Kontzientzia positiboa sortu nahi dugu ekintzailetzarekiko eta pertsona ekintzailearen artean. Arriskatu egiten duten pert-

sonak, enpresa ekimen berriak martxan jartzeko hautua egiten dutenak eta euren lan etorkizuna sortzen dutenak, eta, aldi berean, beste pertsona batzuentzat aberastasuna eta aukerak sortzen dituztenak.

EAJk euskal ekintzailetza ekosistema hobetzen jarraitzeko hautua egiten du, osatzen duten elementu guztiak, pribatuak eta publikoak, konektatuz, enpresa proiektu berriak sortzen dituzten pertsona eta enpresak azalertzeko, mantentzeko eta erakartzeko.

EAJtik konpromisoa hartzen dugu elkarlan publiko-pribatua eta publiko-publiko indartzeko, Euskadin ekintzailetzari laguntzeko ekosistemaren elementuak hobeto koipeztatzeko, gero eta ideia berritzaile eta I+G arloko emaitza gehiago eta hobeak enpresa ekimen berri bilaka daitezkeen baldintza egokiak ezartzea helburu hartuta.

Daukagun enpresa ehuna ere pieza nagusi bat da enpresa ekimen berriak sortzeko, bai proiektu barne-ekintzaile

berrien bultzagile moduan bai startup berrien trakziogile izaterakoan. EAJtik enpresa handien eta startup-en arteko konexioa indartuko dugu, ekosistema ekintzaileko gainerako eragileen artean bezalatsu: inbertsiogileak, inkubagailuak, azeleragailuak, profesional-mentoreak eta abar.

Ekintzaile eta enpresarien laguntza-aren eta balioztapenaren hautuak Herri konpromiso izaten jarraitzen du. Azken lau urte hauen ildotik, euskal ekintzailetza ekosistema hobetzen inplikaturako herri erakunde eta eragile pribatuen artean lan bateratua bultzatzen jarraituko du EAJk. Konpromisoa hartzen dugu Eusko Jaurlaritzaren eta foru aldundien artean Erakundearteko Ekintzailetza Plan berri bat bultzatzeko, eragile pribatuekin elkarlan estuan, martxan dauden jarduketak finkatu eta sendotzea eta Euskadi gero eta lurralde dinamiko eta ekintzaileagoa bihurtzeko balio dutenak sendotzea helburu hartuta.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

01. KONPROMISOA

ERAKUNDEARTEKO EKINTZAILETZA PLAN BERRI BAT DISEINATU, LANDU ETA MARTXAN JARTZEA.

EKINBIDEAK

01

EAJk ekintzailtza arloan euskal gizarteko 25.000 pertsona berri sentsibilizatu eta prestatzea planteatzen du.

02

450 enpresa berritzaile eta/edo oinarri teknologikoko berri sortzen lagundu, ekintzailtza eta barne-ekintzailtza zenbait programaren laguntzaz.

03

Ekintzaileen figura eta gizarteari ematen diotena jendaurrean balioztatu eta aitortzeko 50 ekintza garatu eta/edo bultzatzea.

04

Euskal ekintzailtza ekosistema osatzen duten elementuen koordinazioa eta konexioa indartu: ekintzaileak, startup enpresak, enpresa finkatuak, inbertsio funtsak, profesional-mentoreak, inkubagailuak, azeleragailuak, administrazio publikoa.

02. KONPROMISOA

EUSKADI GERO ETA LEKU ERAKARGARRIAGOA BIHURTU EKINTZAILTZARAKO.

EKINBIDEAK

01

EAJk euskal gizartean ekintzailtzaren espiritua eta kultura sustatuko duten jardueren programa bat bultzatu nahi du: hezkuntza arloan, zientzia eta teknologiaren arloan eta enpresa arloan.

02

Euskadin lehentasuna duten eta Euskadin startup-etan inbertitu gura duten eremu eta sektoreetan espezializatutako 10 inbertsio funts sortzen eta erakartzen lagundu.

03

BIND 4.0 ekinbidearen bitartez, Euskadiko enpresa handien eta mundu guztiko startup-en artean 200 kontratu izenpetzen laguntzea, startup-ak eta nazioarteko talentua erakartzeko gaitasuna indartuz.

04

Bigarren belaunaldiko gutxienez 100 pertsona ekintzaile eta enpresabururen esperientziari garrantzia emateko ekinbideak diseinatu eta martxan jarri, euren ezagutza lehen urratsak ematen ari diren ekintzaile berrien mentore moduan erabil dezaten.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

03. KONPROMISOA

BRITA-REN (BASQUE RESEARCH TECHNOLOGY ALLIANCE) ETA HEZKUNTZA SISTEMAREN POTENTZIALA KAPITALIZATU, IDEIA ONAK ETA I+G ARLOKO EMAITZA ONAK, HAZKUNTZARAKO ETA ABERASTASUN ETA ENPLEGU SORKUNTZARAKO POTENTZIALA DUTEN ENPRESA EKIMEN BIHURTZEKO.

EKINBIDEAK

01

Euskal Zientzia eta Teknologia Saretik datozen eta startup berri bihur daitezkeen I+G arloko 50 emaitza azaleratzen eta balioztatzen lagunduko duen sistema bat ezartzea proposatzen du EAJk.

02

I+G arloko emaitzak startup bihurtzen lagunduko duten 3 tresna, finantzaketakoak eta arrisku-kapitalekoak, garatzen lagundu.

03

I+G arloko emaitzak trakzionatzeko eta startup berri moduan merkatura eramateko prest eta motibatuta dagoen talentutik ekintzailetzarako potentziala duena identifikatzeko eta erakartzeko sistema bat ezarri.

04

Aurreko elementu guztiak guztiz ondo koipeztatuko dituen venture-building programa bat garatu: Startup bihur daitezkeen I+G emaitzak + Arrisku-kapitaleko tresnak + Ekintzailetzarako potentziala eta motibazioa duen talentua.

04. KONPROMISOA

ENPRESA BERRITZAILE ETA OINARRI TEKNOLOGIKOKO BERRIAK SORTZEKO AZPIEGITURAK, ZERBITZUAK ETA LAGUNTZA BALDINTZAK FINKATU ETA HOBETU.

EKINBIDEAK

01 EAJk enpresa bat eratzeko prozedurak sinplifikatu eta bizkortzeko ekimenak bultzatuko ditu, ekintzailetzari laguntzeko tresna guztiak jasotzeko modua ere bai. Atari zentralizatu bat garatuko dugu, leihatila bakar moduan funtzionatuko duena, euskal gizarteari jarduera ekonomiko berri bat hasteko ibilbideez eta eskura dauden laguntzez informazioa emateko.

02 Ekintzailetza jarduerak eta startup inbertsioa binomioa dinamizatzeko eta bultzatzeko ahalik eta baldintza fiskalik egokienak babesteko foru aldundiekin elkarlana egitea.

03 Euskadiko Business Innovation Center (BIC) zentroek eskainitako zerbitzuak eta ekosistemako gainerako eragileekiko harremana eta konexioa indartu eta osatu. Urtean 120 startup baino gehiago inkubatu.

04 EAJk enpresa ekinbide berrien lehen faseetan finantzaketarako eta inbertsiorako laguntza tresnak mantentzea eta hobetzen jarraitzea planteatzen du: 1.000 proiektu berritzaile eta oinarri teknologikoko berriri laguntzea Ekintzaile, Aurrera eta BasqueFondo programen bitartez.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

05. KONPROMISOA

EUSKADI MUNDUKO EKINTZAIETZA MAPAN POSIZIONATZEA RIS 3 EUSKADI 2030 ESPEZIALIZAZIO ADIMENTSURAKO EUSKAL ESTRATEGIAREN LAHENTASUNEZKO EREMUETAN.

EKINBIDEAK

01

EAJk Interneteko erakustoki bat eraikitzea proposatzen du, bai munduari bai euskal gizarteari Euskadin gutxienez 300 startup aktibo erakutsiko dizkiona.

02

Urtean Euskadin hilero sortzen diren startup berriak erakutsiko dituzten 12 newsletter dibulgatu. Egunero eta uneoro startup-ak sortzen ari diren Euskadiko ekintzaileen dinamismoa erakutsi eta bistaratu.

03

EAJk urtean tokiko eta nazioarteko 15 ekitaldi egitea eta/edo egiten laguntzea planteatzen du, gure lurraldearen eta Euskadin egunero sortzen ari diren startup-en dinamismo ekintzailea ezagutarazteko.

04

“Euskadi Basque Country” munduan erreferentzia lurralde gisa posizionatzeko tokiko eta nazioarteko irismeneko komunikazio kanpaina bat diseinatzea, lehentasunezko eremu eta sektoreetan startup-ak sortu, garatu eta ezartze aldera: manufaktura aurreratua, energia, osasuna, elikadura...



GARRAIO ETA MUGIKORTASUN IRAUNKORRA

BIDAIARIEN
ETA SALGAIEN
BURDINBIDEZKO
GARRAIO TASA
% 20 IGO.

- **Garraio azpiegiturak oinarrikoak dira ekonomia hazteko, bizi kalitatea hobetzeko, lurraldea egituratzeko eta gizarte kohesioa lortzeko.**

Azpiegitura sistema moderno, seguru eta kalitatezkoak konektagarritasun eta giza garapen iraunkor eta orekatua ahalbidetzen du lurraldearen, gizartearen, ekonomiaren eta ingurumenaren ikuspegitik.

EAJren helburua da Euskadik garraio-azpiegitura sistema moderno eta efizientea izatea, mugikortasun iraunkorra emango duena, bizi kalitatea, lurraldearen egituraketa, gizarte kohesioa eta euskal ekonomiaren lehiakortasuna hobetuz

- **Pertsonen mugikortasuna eta irisgarritasuna eskubide indibidual eta kolektiboak dira, eta Administrazioak behartzen ditu garraio zerbitzu publikoen eskaria asetzerara.**

EAJk planteatzen du garraio politika iraunkorrak garatu eta aplikatzea, pertsonen eta pertsonen bizi kalitateari lehentasuna emango dietenak, garraio publikoa sustatuz mugikortasun beharrei erantzuna emateko.

Ibilgailu pribatua masiboki erabiltzean oinarritutako mugikortasun indibidualetik mugikortasun kolektibo eta multimodalera eboluzionatu behar da.

- **Lehentasuna emango diegu gizarte eta ingurumen kostu txikiagoa duten garraio bideei pertsonen eta salgaien mugikortasunean.**

Joan-etorrietan energia kontsumoa gutxitzea aldarikatzen dugu, sistema alternatiboekin erraztasunak ematearen alde eta oinez, bizikletaz eta garraio publikoan mugitzea sustatzearen alde. Halaber, lehentasuna du salgaiak burdinbidez eramateari bultzada handi bat ematea.

- **Mugikortasun iraunkorrak garraio sistema integratu, efiziente, seguru eta**

inklusiozko bat eskatzen du.

EAJk aldarrikatzen duen mugikortasun iraunkorrak gizartearen mugikortasun beharrak asetzeko gai izan behar du, oraingo eta bereziki etorkizuneko beste balio ekologiko eta lurraldeko batzuk sakrifikatu gabe ibiltzeko, komunikatzeko eta erlazionatzeko.

- **Burdinbidezko garraioa lurreko garraio publikoaren bizkarrezurra da, eta errepidezko garraio zerbitzuak bere elikatzailerak izan beharko dute.**

Mugikortasun sistema iraunkorra, seguru, efizientea eta irisgarria garatzen jarraitu behar dugu, kalitatezko burdinbide garraioan oinarritua, ingurune guztien beharretara egokitua, eta errepidezko garraio zerbitzuak osagarri dituenak.

- **Erlazio zuzena dago mugikortasun iraunkorraren eta pertsonen osasuna babestu eta suspertzearen artean.**

Oraingo garraio sistema CO2 igerlerik handiena da, eta eragin zuzena du arnasten dugun airearen kalitatean; ibilgailuen zirkulazioak, kutsadura iturri denez, eragin zuzena eta negatiboa du osasun publikoan.

Mugikortasun efiziente eta osasungarriagoa garatu behar da, garraio fosilak erabiltzen dituen garraioetatik garraio elektrikorako trantsizioa eginez.

- **Logistika sistema integratu bat optimizatu behar dugu garraiorako, banaketarako eta salgaien logistikarako.**

EAJtik garraio multimodala sustatzen eta garatzen jarraituko dugu, arreta berezia jarriz eta lehentasuna emanez burdinbidezko garraioari, plataforma logistikoko multimodalei eta burdinbidezko autobideari.

Euskadik finkatu egin behar du Europako korridore atlantikoaren komunikazioen eta konektagarritasunaren "kate-begi nagusi" gisa.

- **Teknologia berriek eta berrikuntzak balio erantsia ematen diote garraio publikoaren eta garraio azpiegituren zerbitzuari.**

Teknologia berriek eta teknologia digitalak egon dauden mugikortasun irtenbide eta hautabide guztien gainean informata egoteko aukera ematen dute, intermodaltasuna errazten dute, eta garraio eskaintza guztia irisgarri jartzen, informazio eta tarifa integratuko sistema baten bidez.

EAJren iritziz, Euskadik balio handiko enpresak eta profesionalak ditu garraioaren sektorean, eta lidergo argia izan dezake garraioari eta mugikortasunari lotutako industrian.

- **Politika publikoen multzoak oinez, bizikletaz eta garraio publikoan mugitzea bultzatu, babestu eta lagundu behar du.**

Hiri, metropoli eta lurralde plangintza eta garapeneko politika publikoek eta Euskadiko Garraio Jasangarriaren 2030 Gida Planeko garraio politikak, eskala guztietako mugikortasun iraunkorreko planekin batera, koordinatu egin behar dute, lehentasunez oinez, bizikletaz eta garraio publiko eta kolektiboz mugitu ahal izateko.

- **Garraio sistema publiko eraginkor, hurbil eta inklusiozko eta ekonomiko-ki iraunkor bat funtsezkoa da euskal gizartearen ongizate eta kohesiorako eta Euskadiren garapen ekonomikorako.**

EAJk gero eta mugikortasun iraunkoragoa bultzatzen du. Hori da gure gizartearen erronka handia, mugikortasun fisikoa delako gizarte, lanbide, ekonomia eta kultura mugikortasuna ahalbidetzen duena; gizarte eta lurralde kohesiorako, garapen ekonomikorako eta berdintasunezko eta inklusiozko gizarterako faktore erabakigarria bilakatzen da.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

1. KONPROMISOA

EUSKADIK EUROPAN DUEN POSIZIO ESTRATEGIKOA ETA EUROPAKO KORRIDORE ATLANTIKOAREN “KATEBEGI NAGUSI” IZAERA SENDOTU.

EKINBIDEAK

01

EAJk “European Transport Networks, TEN-T” salgaien korridore atlantikoaren garapena bultzatzea planteatzen du.

02

Billboko Burdinbidezko Hego Saihesbidea eta Billboko Portuarekiko burdinbidezko konexioa eraiki.

03

Lille–Gasteiz Burdinbidezko Autobidearen garapena bultzatu, eta Jundizko Plataforma Multimodala burutu eta martxan jarri.

04

“Lezoko Plataforma Logistikoa” garatu, ingurunean dauden burdinbide sareekin tren konexioak eginez, Pasaiako Portuaren burdinbidezko operatibotasuna hobetzeko.

05

Euskadiko eta Akitania Berriko kirol portuetako zerbitzu eta jardueren kudeaketa koordinatua eta eskaintza bateratua.

2. KONPROMISOA

LEHENTASUNA EMAN BURDINBIDEAN INBERTITZEARI ETA ABIADURA HANDIKO, ALDIRIKO, METROPOLIKO ETA TRANBIETAKO ZERBITZUZ HORNITURIKO BURDINBIDEZKO GARRAIOA LURREKO GARRAIO PUBLIKOAREN BIZKARREZUR BIHURTU.

EKINBIDEAK

01

EAJk "Euskal Y" Abiadura Handiko Sarea burutzea proposatzen du, Irun, Donostia, Ezkio, Bilbo eta Gasteizko geltokiak eraikiz.

02

Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuen artean abiadura handiko "intercity zerbitzuak" kudeatu eta prestatu.

03

Loiolako Erriberetako lotunea eraiki, "Donostiako Topoaren" eta Renfeko zerbitzuen artean lotura geltokiak garatzeko.

04

Durangaldea, Usansoloko ospitalea, Galdakao, Basauri eta Bilbo lotuko dituen burdinbidezko konexioa eraiki.

05

Topoaren burdinbidezko azpiegiturak hobetzen bukatu Pasaian eta Irunen eta Eibar eta Donostia bitarteko Linea osatu. Burdinbidearen trazatua hobetzeko obrak egin Aginagan, Eibar eta Donostialdea bitarteko zerbitzuak hobetzeko.

06

Gasteizen tranbiaren hedapenak garatu Salburua eta Zabalganara eta Latinoamerika ingurunean bide sistemaren, tranbiaren eta bus elektriko adimentsuaren bidegurutzea hobetu. Bilbon tranbia Boluetara hedatu eta La Peñara sarbideak egin.

07

Dauden burdinbide azpiegiturak hobetu, metropoliko burdinbide zerbitzua eskaintzeko Irauregitik, Zorrotza, Basurtu, Errekalde eta Iralan zehar Abandoko geltokiraino.

08

Bilbo-Loiuko aireportura burdinbidezko konexioa aurreratu.

09

Burdinbide proiektu berritzaileak bultzatu eta garatu, Europako Shift2Rail ekinbidea, Unibertsitatearekiko elkarlana eta elkarlan publiko pribatua baliatuz.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

3. KONPROMISOA

2021-2025 ALDIRAKO MUGIKORTASUN IRAUNKORREKO PLAN BAT ONARTU, EUSKADIKO GARRAIO JASANGARRIAREN 2030 GIDA PLANEAN INTEGRATUTA.

EKINBIDEAK

- Garraio publiko kolektibo integratua, koordinatua eta bikoiztasunik gabea indartzea lehentasun bat da EAJrentzat. Helburu horrekin, ekintza hauek egingo dira:
 - 01 ■ Osatu Euskadiko garraio publikoaren sistema bakarra, hauek hartuko dituen: ordutegi eskaintza oso eta koordinatu bat, tarifa sistema bakarra, informazio sistema harmoniatsuak, terminal multimodalak eta txartel bakarra Euskadiko garraio publikoko operadore guztietan.
 - Lurraldearen, hiri ingurunearen eta mugikortasunaren plangintza integratu bat garatu.
 - ■ Tokiko eskalan hiri mugikortasuneko plan iraunkorrak garatzea sustatu eta lagundu.
- Argindarrezko ibilgailuaren erabilera laukoiztu, matrikulazioen % 4tik % 16ra igaroz 2025ean. Ekinbide hau aurrera eramateko, EAJk ekintza hauek planteatzen ditu:
 - 02 ■ Argindar birkargaren hobaria
 - Zenbait zerbitzu enpresatan beribil elektrikoak sustatu, bereziki taxistak eta “azken miliako” banatzaileak.
 - Herri administrazioen ibilgailuak berritzea
 - ■ Hiritik ibiltzeko bizikleta elektrikoaren eta argindarrezko beste ibilgailu batzuen erabilera sustatu.
- Argindar birkargarako azpiegiturak sustatu eta potentzia handiko birkarga sarea hirukoiztu, Euskadin birkarga azkarreko 100 puntura heldu arte. EAJk proposatutako ekintzak:
 - 03 ■ Komunitateetako eta aparkaleku publikoetako birkarga instalazioetarako diru-laguntza programa.
 - Ibilgailu multzoetarako, gaueko birkargarako aparkatokiak ahalbidetu.
 - Industrialdeetan eta parke teknologikoetan birkarga puntuak bultzatu.
 - Gasolindegi guztietan Euskadiko birkarga elektrikoaren mapa aldiro eguneratu eta zabalkunde birtuala egin.
 - Elkarlan publiko-pribatua koordinatu eta bultzatu Euskadin potentzia handiko birkarga sarea handitzeko.
 - ■ Birkarga azkarreko euskal sarea integratu “birkarga azkarreko azpiegituren korridore iberikoan” eta Europako sarean.

- Garraio publikoaren elektrifikazioa, ekintza hauek garatuz:
 - Garraio publikoko ibilgailuak berritzeko prozesua bizkortu, foru aldundiekin eta udal erakundeekin elkarlanean.
- 04** ■ Ahalmen handiko autobus elektriko adimentsuaren (BEI) proiektuak hedatu biztanle dentsitate handiko hiri eta metropoli eremuetara.
- ■ Tren zerbitzua hobetu eta maiztasunak sarriagotzea.
- Teknologia eta arau garapena.
Helburu horrekin, EAJk ekintza hauek egitea planteatzen du:
 - Mugikortasun iraunkorreko unitate bat sortzea, parke teknologikoko Energy Intelligence Center zentroari atxikia Ezkerraldean.
 - Trakzio elektriko sistema berriekin, osagaien eta material berrien garapenarekin, bateria belaunaldi berriekin eta birkarga elektrikoari lotutako zerbitzuen garapenarekin erlazionatuta dauden ikerketa aplikatuko eta garapen teknologikoko proiektuak bultzatu.
- 05** ■ Mugikortasun elektrikoari buruzko nazioarteko azoka bat martxan jartzea BECekin, zentro teknologikoekin eta sektoreko enpresekin elkarlanean.
- Administrazio publikoen jasangarritasun energetikoaren legea garatu eta gauzatzea, bereziki mugikortasun elektrikoari dagokionez.
- Udalekin eta aldundiekin elkarlanean, ibilgailu elektrikoaren erabilera sustatuko duten sistemak bultzatu.
- ■ Autobus elektriko adimentsuen sistematarako berrikuntza proiektuak garatu.
- Gizartea mugikortasun iraunkorraren alde sentibilizatzea.
Helburu horrekin, EAJk ekintza hauek egitea planteatzen du:
 - Mugikortasun elektriko iraunkorraren aldeko gizarte ituna.
- 06** ■ Mugikortasun elektrikoa Lanbide Heziketako programetan sartu.
- ■ Mugikortasun iraunkorrari buruzko heziketa eta sentibilizazio programak garatu, gure gizartean mugikortasunaren kultura berri efizienteago, adimentsuago eta osasungarriago bat hedatzeko.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

4. KONPROMISOA

AZPIEGITURA PROIEKTU BERRIAK EFIZIENTZIA IRIZPIDEEKIN ETA ORAIN DAUDENEN MODERNIZAZIOA ETA KONEXIO INTEGRATUA OPTIMIZATUTA PLANIFIKATU ETA GARATU.

EKINBIDEAK

- 01** Garraio azpiegituren ebaluazio txostena. Azpiegituren plangintzak ebaluazio bat izango du barnean, haien beharra eta iraunkortasuna gizarte, ekonomia eta ingurumen kostuen ikuspegitik arrazoituko duena. Ebaluazio honek alderdi hauek jasoko ditu: bizitza baliagarria, garraio zerbitzu berrien eskaintza eta eskaria kontuan hartuta; mugikortasun iraunkorrari egiten dion eragina eta ematen dion laguntza; plan ekonomiko-finantzarioa; eta integrazio funtzionala garraio sistemaren osotasunean.
- 02** EAJk gutxien kutsatzen duten garraio sistemari lehentasuna ematea planteatzen du. Berotegi efektuko gas gutxiago igortzen duten garraio bideak orokortzen dituzten azpiegitura proiektuei emango zaie lehentasuna: bizikleta, burdinbideak, autobus elektriko adimentsuak eta ibilgailu elektriko eta hibridoak.
- 03** Portuko azpiegiturarako irisgarritasuna hobetzeko plana. Portuko azpiegiturara heltzeko Irisgarritasuna Hobetzeko Plan bat garatu. Mutrikuko Portuaren dikeko obrak amaitu.

5. KONPROMISOA

GARRAIO AZPIEGITURA GUZTIEN EUSKADIRAKO TRANSFERENTZIAK OSATU: PORTUAK, AIREPORTUAK ETA BURDINBIDEAK, GARRAI OBIDE ETA GARRAIO MODU GUZTIEN KUDEAKETA ERAGINKORRA ETA EFIZIENTEA EGITEKO.

EKINBIDEAK

- EAJk Espainiako Gobernuaren interes orokorreko sare izatetik burdinbide linea hauek deskatalogatzeko behar diren ekintzak bultzatzeko konpromisoa hartzen du:
 - Zabaler metrikoko Balmaseda/Karrantza–Bilbo linea.
 - Muskiz/Santurtzi–Bilbo.
 - Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan dabilzan aldiriko lineak.
- Burdinbide linea horiek Eusko Jaurlaritzari eskualdatu behar zaizkio.
- **02** Aldiriko burdinbide sareen transferentzia eta Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan euskal Y-tik dabilzan intercity zerbitzuen transferentzia gauzatu.
- **03** EAJk Bilboko Portuaren kudeaketaren transferentzia eta Pasaiako Portuari interes orokorreko portuaren izaera kentzea planteatzen du.
- **04** Hondarribiko, Forondako eta Bilboko aireportuen kudeaketaren transferentzia, hiru aireportuen kudeaketa eredu koordinatu eta osagarria garatzeko.
- **05** Nafarroarekin eta Akitaniarekin abiadura handiko burdinbide sare berriaren konexioa, eta Burgosekin Gasteizkoa, bultzatu, Abiadura Handiaren Europaz gaindiko Sarearen garapen osoa amaitzeko.



ELIKADURA, BASO SEKTOREA ETA LANDA GARAPENA

NEKAZARITZA EKOLOGIKOAREN EKOIZPENERAKO
7.500 HEKTAREA GEHITU.

Euskal lehen sektorea funtsezko aktibo bat da kultura, gizarte eta ingurumen balioak transmititzeko elementu gisa. Elikagai osasungarri eta kalitatezkoak sortzeak, gaur egun, Euskadiren beharren % 30 asetzen du, elikadura baliabideen aldeko borroka funtsezkoa den mundu globalizatu batean. Aldi berean, izadia mantentzea eta klima aldaketa borrokatzea ezin litezke ulertu euskal lehen sektore sendo eta berritzailea, aberastasun- eta enplegu-sortzailea, eduki gabe. Azken batean, gure Herriaren identitate ikur bat da. Aitortza horretatik abiatuta, EAJk euskal lehen sektorearekin konpromiso indartu bat planteatzen du printzipio hauetan oinarrituta:

- Elikaduraren eta zuraren balio kate egituratu eta zeharretarako, lehiakor eta iraunkorra, bertoko ekoizkina trakzionatzen duena sendotu. Balio kate hori lehengaien ekoizpenarekin hasten da eta aurrera jarraitzen du eraldaketa, merkaturatze eta gastronomia eta kontsumoarekin, eta, gainera, turismoarekin, osasunarekin edo garraioarekin hartu-eman handiak dauzka.
- Elikaduraren eta zuraren balio katean, bai eta landa eta kosta ingurunearen balio katean, ezarri beharreko estrategia eta politiketan klimaren betebeharra txertatu, hazkunde egonkor, iraunkor eta orekaturako. Era berean, nekazaritza eta abeltzaintzako jokaera onuragarrien bidez, elikagaien kateko karbono marka murriztuz eta bioekonomia zirkularra garatuz, emisio gutxi duen eta klima aldaketarekiko erresilientzia duen ekonomiarantz trantsizioa egiteak dituen inplikazio sozial eta ekonomikoak kontuan hartu beharko dira.
- Gure lehen sektorearen etorkizuna bermatu, belaunaldi ordezkapena ziurtatuz. Horrek nekazaritza, basogintza eta arrantza sektoreak prestigioatuko dituen sentsibilizazio estrategia bat behar du, bai eta sustapen neurriak hartzea (finantzaketa tresnak, inbertsiorako zuzeneko laguntzak, belaunaldi arteko ezagutzaren transmisioa, aholkularitza) eta arauak aldatzea (pizgarri fiskalak, lurzorua arautzeak, lurralde plangintza, oinordekotza panak erraztea eta ustiategiak eskualdatzea) ere, pertsona berriak sartzeko modu eraginkorrean ahalbidetzeko.
- Euskadiko elikadura katearen eta zurarenaren potentzial ekintzailea aktibatu, eragileek osatutako ekosistema propio bat egituratuz bere programa eta tresna espezifikoekin. Era berean, balio kateko proiektu berriak erakarri eta hazarazteko nazioarteko plataformaren posizioa eman Euskadiri, bereziki berritzailea, teknologikoa eta potentzialduna.
- EAJk, nekazaritza eta arrantza politika guztiak osorik diseinatu eta garatzeko, burujabetzaz baliatzea aldeztu du. Nekazaritzaren eremuan eta landa garapenean Landa Garapeneko Programa (LGP) bat eta Erakunde Ordaintzaile bat izan ahal izatea funtsezkoa dela ikusi izan da. Gainera, erkidegoko araudiaren aplikazioan erabakimen osoa edukitzea ezinbestekoa litzateke.
Arrantzaren eremuan eta kosta garapenean, Euskadi Europako Itsas eta Arrantza Funtsearen (EIAF) Programa Operatibo propioa eta Arrantza Erakunde Ordaintzaile autonomo bat eduki beharko luke, Erkidegoko araudi desberdina bere lurraldean aplikatzeko erabakimenaz gain.
- Nekazaritza eta basogintza sektorearen lehiakortasuna bultzatu, kalitatea eta animalien ongizatea, iraunkortasuna eta elikadura segurtasuna irizpide hartuz, eta merkaturatze bide laburrak bultzatuz, elikagaien sustapena eginez eta erosketan publikoan ingurumen irizpideak gehitzea bideratuz.
- EAJk arrantza sektorea indartzea aldeztu du, baliabideen kudeaketa iraunkorraren printzipioari eutsiz, Euskadiko arrantzaren identitate ikurra baita. Horrek eskatzen du arrain kuota finkatzea (antxo, hegaluzea eta abar) eta horien kudeaketa autonomikoa izatea. Era berean, akuikultura sustatuko da, proiektu berritzaileak eta enpresa berrien sorrera bultzatuz.
- Balio katearen garapen teknologikoa eta digitalizazioa bultzatu, nekazaritza ustiategi txiki eta ertainei teknologiarantz iristea ahalbidetuz, ahalmenak eskuratzen lagunduz eta behar diren aholkularitza zerbitzuen bidez.
- Nekazaritzaren eta basogintzaren berotegi gasak (BG) ezituzeko posibilitateak aprobetxatu, gure basoen eta beste ekosistema batzuen karbono erreserbak handituz, teknologia eta jokaera iraunkor berriak garatu eta aplikatzen laguntzeko programak bultzatuz (bereziki, ekoizpen ekologikoa), ekonomia berdea sustatuz eta ongariaren erabilerean kudeaketa onena bultzatuz, eta satsa, simaurra eta hondakinak zuzen kudeatuz.
- EAJk planteatzen du Euskadi European erreferentzia bihurtzea elikaduraren eta zuraren balio katea ikertzen, garatzen eta berritzen, dauden zentro teknologikoen sarea indartuz eta nazioarteko sareekiko elkarlana eta eragileen arteko ezagutza transferentzia bultzatuz.
- Landa eta kosta eremuetan enplegua eta hazkunde biziberritu, dibertsifikazio ekonomikoa sustatuz balio kate berrien bitartez, besteak beste, bioekonomia eta ekonomia zirkularra, eta turismoari, osasun eta ongizateari eta teknologia berriei lotutako garapen-potentziala duten beste hobi batzuk baliatuz.

PRINTZIPIOAK

ELIKADURA, BASO SEKTOREA ETA LANDA GARAPENA

- Erantzun osoa eman dauden banda zabaleko konektagarritasun arazoei, kalitatezko oinarrizko azpiegiturak indartuz (hur hornidura eta saneamendua, bide sarea, telekomunikazioak...) eta eremu horietan zerbitzu osoen hornidura eginez (mugikortasuna, osasuna, hezkuntza...).
- Izadia eta paisaia babestu, eta kultura ondare materiala (eraikuntzak, monumentuak...) eta immateriala (hizkuntza, tradizioak...) ere bai, eta eremu degradatuen ingurumena berreskuratu eta landagunean etxebizitzak zaharberritu.
- EAJk proposatzen du politika eta programa guztiak Garapen Iraunkorreko Helburuekin (GIH) lerrokatzea, arreta berezia jarritz gai hauekin zerikusia dutenetan: elikagai segurtasuna, nekazaritza iraunkorraren sustapena, ozeanoen kontserbazioa eta erabilera iraunkorra, itsasoak eta itsas baliabideak; genero berdintasuna, janari hondakinak murriztea, gizarteratzea eta lan munduratzea; ekoizpen eta kontsumo eredu iraunkorrak sustatzea; eta klima aldaketa eta bere efektuak borrokatzeko neurriak hartzea.

1. KONPROMISOA

ELIKADURAREN ETA ZURAREN BALIO KATE EGITURATU ETA ZEHARRETARAKOA, LEHIAKOR ETA IRAUNKORRA, BERTOKO EKOIZKINA TRAKZIONATZEN DUENA SENDOTU.

INICIATIVAS

01

EAJk planteatzen du 2020 osterako Euskadiko Nekazaritza Politika Komunaren Plan Estrategikoa diseinatu eta onartzea, eragile instituzional guztien, Eusko Jaurlaritzaren eta foru aldundien, eta erreferentziako eragile sektorialen adostasunetik abiatuta.

02

Belaunaldi ordezkapena ziurtatuz gure lehen sektorearen etorkizuna bermatu, sentsibilizazio programak erabiliz, sustapen neurriez baliatuz eta Itsasoratu Programaren eta Gaztenek III Programa berriaren esparruan pertsona berriak sartzea erraztuko duten arau aldaketen bidez. Nekazaritzako elikaduraren eta arrantzaren jardueretan belaunaldi ordezkapenari laguntzeko, gutxienez, 500 pertsona berri sartzea da gure erronka.

03

Lehen sektorearen eta elikadura industriaren lehiakortasuna bultzatu, programak, laguntza neurriak eta esparru bakoitzaren errealitatera egokitutako finantzaketa tresnen garapena baliatuz, eta balio katearen maila guztien artean egituraketa sektoriala eta lankidetzak bultzaturik eta nazioartekotzeari laguntza emanik. EAJk jartzen duen helburua gutxienez 1.500 ustiategiri eta nekazaritzako elikaduraren 500 enpresari laguntzea eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren (LGENF) babespean finantzaketa tresna bat garatu eta inbertsio funts pribatu bat finkatzea da.

04

Baso sektorea indartu, hobekuntzak bultzatuz produktibitatean, eraldaketan eta kontserbazioan, eta energia baliabide gisa biomasak dituen posibilitateak indartuz. EAJren konpromisoa gutxienez 50 enpresa eraldatzailei laguntza ematea da.

05

Nekazaritzako eta landa inguruneko elkarte egiturak berrantolatzen aurrera egin, elikaduraren balio katearen beharrei politika publikoen ildotik erantzun oso bat emateko.

06

Nekazaritzako eta landa inguruneko politika publikoak XXI. mendeko nekazaritza berritzaile, iraunkor eta ingurumena errespetatzen duena lortzeko helburuari lotuak izatea bermatu.

07

Euskadiko mahastizaintzako eta ardogintzako eskualdeak (Arabako Errioxa eta txakolingintzako eremuak) osorik garatzeko politikak bultzatu, kalitate handiko ardoak ekoizten eta merkaturatzen lagunduaz, eta familiako upelategi eredu bereziki babestuz.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

2. KONPROMISOA

ARRANTZA SEKTOREA INDARTU, BALIABIDEEN KUDEAKETA IRAUNKORRAREN PRINTZIBIOA MANTENDUZ.

EKINBIDEAK

01

EAJk Europako Itsas eta Arrantza Funtsaren Euskadiko Programa Operatiboa (EIAF 2021-2027) lantzea eta Arrantza Erakunde Ordaintzaile propioa sorraraztea planteatzen du.

02

Arrain kuoten kudeaketa propioa erreklamatu lehiakortasun eta iraunkortasun printzipioen izenean, lehentasun berezia emanez antxo eta hegaluze espezieei.

03

Nautika eta arrantza prestakuntzako zentroetatik datorren talentua mantendu eta erakarri gure arrantza sektoreko aginte postu kualifikatuetarantz, besteak beste, Itsasoratu Programaren bitartez.

04

Arrantza sektoreko enpresen titulartasunean belaunaldi ordezkapena sustatu, inbertsiorako laguntza zuzenak edo finantzaketa tresnak bezalako sustapen neurriak artikulatuz.

05

Akuikultura sustatu, bereziki itsas akuikultura, proiektu berritzaileak bultzatuz, akuikultura parkeak eraikiz eta enpresa berriak sortuz, eta I+G arlora zuzendutako berariazko programak ezarri. Era berean, Lemoizen akuikultura ekoizpen eta ikerketa bultzatuko da.

3. KONPROMISOA

EUSKAL LANDA ETA KOSTA EREMUA BABESTU, BAI ETA BERE JARDUERA EKONOMIKOA SUSTATU ETA DIBERTSIFIKATU ETA BERTAKO BIZTANLERIAREN ONGIZATE MAILA HOBETU ERE.

EKINBIDEAK

01

EAJk landa garapenerako lege berria osatzeko konpromisoa hartzen du.

02

Bizi kalitate eroso aziurtatzen duten kalitatezko oinarritzko azpiegiturak (banda zabala, telekomunikazioak...), ekipamenduak eta zerbitzu osoen hornidura (mugikortasuna, osasuna, hezkuntza) hobetu eta, kasu bada, horiez zuzkitu. Gure konpromisoa gutxienez 500 ekimen publikori laguntza ematea da, Erein, Leader eta Itsaspen programen bidez.

03

Landa eta kosta eremuetan enplegua eta hazkundea biziberritu, dibertsifikazio ekonomikoa sustatuz gizarte berrikuntzaren bitartez, landa ingurunean bizi diren pertsonen partaidetza aktiboarekin, turismoari, osasun eta ongizateari eta teknologia berriei loturik garapen-potentziala duten beste jarduerak batzuk sor baititzakete.

04

Enplegu sorkuntza eta aukera berdintasuna bultzatu eta lagundu, arreta berezia jarri emakumeentzako, gazteentzako eta enplegua lortzeko zailtasunak dituzten beste taldeentzako berariazko programen garapenean. Horretarako, diskriminazio positiboaren irizpideak erabiliko dira talde horien alde, laguntza deialdi guztietan.

05

Emakume Nekazarien Estatutuaren garapena burutu.

06

Sasoikako Lanaren Arretarako V. Plan Integrala landu.

07

EAJk landa eta kosta eremuan plangintza tresnak sustatzea planteatzen du, partaidetzako prozesuen bidez, eta landa eta kosta eremuetan garapenerako eragileen sarea indartzea eta Tokiko Ekintza Taldeak sendotzea.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

4. KONPROMISOA

EUSKADIRI ELIKADURAREN ETA ZURAREN BALIO KATEKO EKINTZAIETZA ETA BERRIKUNTZA ARLOAN NAZIOARTEKO ERREFERENTZIAREN POSIZIOA EMAN.

EKINBIDEAK

01

Eragile publiko eta pribatuek eta dauden programek eta tresnek osatuko duten ekintzaitzari eta berrikuntzari laguntzeko plataforma oso bat finkatzea planteatzen du EAJk.

02

Proiektu berritzaile, estrategiko eta trakzio-ahalmendunak ezartzea sustatu, eta, bereziki, ekonomia zirkularrari lotutakoak. Horretarako, laguntza ildo berri bat bultzatuko da, enpresa gazte eta berritzaileei eta/edo oinarri teknologikoko enpresa berriei zuzendua, eratzeko, martxan jartzeko eta jardueren garapenerako azpiegitura eta zerbitzu berriei laguntzeko, eta enpresa tipologia honetara zuzendutako finantzaketa tresna berri bat artikulatuko da.

03

Teknologia transferentzia bultzatu eta elikaduraren eta zuraren balio katearen arloari lotutako 4.0 irtenbideak garatzea ahalbidetu. Horretarako, 4.0 industriaren teknologia berrietan oinarritutako irtenbideak dituzten enpresetatik transferentzia sustatzera zuzendutako ekinbide berri bat jarriko dugu martxan. Gure ekinbidearen oinarria, dagoeneko finkatuta dauden 4.0 irtenbide eta enprekin konexioak ezartzea da, startup-ei lotutako ekintzaitza bultzatzen duen BIND 4.0 programaren pare. Gure erronka, programa bien artean, gutxienez 100 enpresaren beharrei arreta egitea da, elikaduraren eta zuraren eremuan.

04

EAJk elikaduraren eta zuraren balio kateko enpresa guzti-guztiei berrikuntzara iristeko aukera hedatzea planteatzen du, bai berrikuntza teknologikoa bai teknologikoa ez dena bultzatuz enpresaren prozesu eta esparru guztietan, proiektu kolektiboek edo bitarteko eragileen bidez kanalizatuei lehentasuna emanez. Gure konpromisoa berriazko berrikuntza plan bat martxan jartzea da, 200 enpresa berri berrikuntzaren bidean sar daitezten.

05

Euskadiko Gastronomia eta Elikadura Plana bultzatu, BPGd-aren % 12ra heldu arte, eta elikaduraren balio kateko maila guztietako eragileen artean proiektu berritzaileak sustatu.

5. KONPROMISOA

BERRIKUNTZAK ETA GARAPEN TEKNOLOGIKOAK ESKAINTZEN DITUZTEN AUKERAK APROBETATZEKO AUKERA EMATEN DUTEN ETA EZAGUTZATIK ERATORTZEN DIREN KLIMA ALDAKETAREN AURKAKO EKINTZA POLITIKAK APLIKATU.

EKINBIDEAK

01

EAJk elikaduraren eta zuraren balio katean ezarri beharreko estrategia eta politika guztietan klimaren betebeharra txertatzea planteatzen du.

02

Bioekonomiaren eta elikadura zirkularraren eremuan proiektuak bultzatu, Euskadiko elikaduraren eta zuraren katean ziklo osoa aprobetxatuz.

03

Bioekonomiaren eta elikadura zirkularraren eremuan I+G+b arloko zehar-proiektuak bultzatu.

04

Ingurumen irizpideak eta tokiko ekoizpenetarako laguntza txertatuko dituen kontratazio publikorako klausula berriak jartzea bultzatu.

05

Nekazaritzan eta elikadura katearen gainerakoan digitalizazioa sartzeko sustatu, baliabideen erabilera murrizteko, ekoizpen kostuak gutxitzeko, prozesuak automatizatzeko, elikadura segurtasuna areagotzeko edo elikagai hondakinak murriztea lortzeko.

06

EAJk Euskadin ekoizpen ekologikoa bultzatzea eta klima aldaketatik eratortzen diren ondorioak eztitzeko nekazaritza jokaera egokiak sustatzea planteatzen du. Gure helburua da legegintzaldiaren amaieran nekazaritza ekologikoan 7.500 ha inskribatuta izatera heltzea eta kalitatea, ingurumen azterna eta, gainera, abelazkuntza ekoizpenetan, animalien ongizatea jasoko dituzten ziurtagiriak garatzea.

07

Elikaduraren balio katearen eraldaketa digitala bultzatu eta teknologia berritzeko estrategiak baliatu elikaduraren eta gastronomiaren sektorean.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

6. KONPROMISOA

EUSKADI HEGO EUROPAKO BIOEKONOMIA ERAKARGUNEA BIOEKONOMIA SUSTATU ETA BALIABIDE NATURAL FOSILEN MENDEKOTASUNA GUTXITU, BIOANIZTASUNAREN GALERA SAIHESTUZ ETA EKONOMIAREN HAZKUNDEARI ETA ENPLEGUARI LAGUNDUZ, GARAPEN IRAUNKORREKO PRINTZIBIOEN ILDOTIK

EKINBIDEAK

01

Euskadiko Bioekonomia Estrategia garatu, teknologia eta prozesu berrietan oinarrituta, Bioekonomiarako Euskal Aliantzaren bitartez.

02

Enpresa jarduera berriak sustatu, bereziki lehen sektorean eta elikadura industriaren eraldaketa jardueretan, garapen iraunkorraren printzipioen ildotik.

03

Europako Bioeskualde Sarearen aitzindari izan, bioekonomiaren aldeko lankidetzak bultzatzeko.

04

Bioekonomiaren garapenari lotutako arloetan gaitasun zientifiko teknologikoak eta berriazko prestakuntza indartu eta bideratu.

ELIKADURA, BASO SEKTOREA ETA LANDA GARAPENA

TURISMOA

TURISTA BISITARIEN
6,5 MILIOI GAUALDIRA IRITSI.



Turismoak zuzenean laguntzen dio Euskadiren hazkunde iraunkorrari, eta herrialdearen egitura ekonomikoa dibertsifikatzen laguntzen du. Covid-19aren aurretik, sektoreak BPGd-aren % 6,1 ematen zuen Euskadin, baina osasun krisiak gehien eragin dionetako bat da. Gure helburua datorren legegintzaldia amaitzen denerako turismoa BPGd-aren % 6,3 ematera heltzea da.

EAJrentzat turismoa lehentasuna da. Krisi honek turismo iraunkor eta arduratsuen aldeko hautu irrimo finkatzera eraman behar gaitu, eta Garapen Iraunkorreko Helburuak (GIH) geureganatzera. Nazio Batuen 17 Helburuak garatzeko Agenda betetzeko, aplikazio esparru argi batean egin behar da lan. Horretarako, turismo sektoreko enpresek GIHei egiten dieten ekarpena islatuko duen ekintza gida bat landuko dugu. Jabetuta gaude enpresek jokatzeko duten rola garrantziaz eta lagundu egingo diegu negozio eredu iraunkor eta arduratsu bat ezartzen, garapen iraunkorreko helburuak betetzen lagundu dezaten.

2018an Euskadik 3 milioi bidaiari eta 6 milioi gaualdi gainditu zuen. Gure erronka 6,5 milioi gaualdira heltzea da. Eragin ekonomikoarekin batera, euskal helmuga turistiko modu iraunkorrean kudeatzen badugu, turismoa ingurumena babesteko, helmuga sustatzeko eta gure kultura eta ondarea balioztatzeko faktore bat izango da. EAJren politikak turismo iraunkorra, gure ondare kultural eta naturalari begirunea erakutsiz modu orekatuan lanpostuak sortzen dituen turismoa, garatu eta bultzatzera bideratuta egongo dira.

EAJren konpromisoa “Euskadi Basque Country” helmuga iraunkor, adimentsu eta berdintasunezkoaren posizioan jartzera bideratutako politikak garatzen arazten da.

Turismoa herrialde baten marka-sustatzailerik handia da, eta euskal gizartearen ezaupidea handitzen laguntzen du. Bisita egiten diguten pertsonen % 40 baino gehiago atzerritarrak dira, eta horrek beste esparru batzuetan posibilitateak zabaltzen ditu: enpresan, teknologian eta erakundeetan.

EAJtik erakundearteko lana bultzatuko dugu, eta Turismoaren Mundu Erakundearen (UNWTO) turismorako mundu kode etikoarekin sektore pribatuak izan behar duen konpromisoa. Garrantzitsua da eragile guztiok, besteak beste, sektorean operatzen duten enpresak, jabetuta egotea honek dakartzan bai abagunez bai erronkez helmugaren eta negozioen iraunkortasuna ziurtatzeko.

“Euskadi Basque Country” bikaintasunezko eta iraunkortasunezko helmuga turistiko segurua bihurtzearen hautua egiten dugu. Euskal ekoizpen sektoreetan eragiten duten bidaiari guztien bisitaren kalitatea hobetzea proposatzen dugu, besteak beste: garraioa, ostalua, jatetxea, ostalaritza, merkataritza, kirola, aisia, kultura, finantzak eta beste. Baliabideen optimizazio zuzena eta eraginkortasun eta efizientziarik handiena bilatuko dugu erakundeen arteko elkarlan eta koordinaziotik eta elkarlan publiko-pribatutik.

EAJk euskal erakundeen eta euskal industria turistikoko enpresen arteko alian-

tzak egingo ditu. “Basque Style” estiloari garrantzia ematea izango da gure estrategiaren oinarria, gure benetakotasuna eta identitatea.

Urtarokotasuna kentzearen eta lurralde guztian aberastasuna orekaz banatzeko eskaintza bereizialdi laguntzearen egingo dugu lan, eta etxeko eta estatuko turismoa sustatuko dugu. “Euskadi Basque Country” bezala dugun presentzia areagotuko dugu nazioarteko merkatuetan, erreferentziako azoketan eta estatuko merkatuan.

EAJk Euskadi helmuga adimentsua bihurtu nahi du, lurralde garapenaren ikuspegi pertsonalizatua eskainiz. IK-Tei esker lurraldeetako aktiboak erabilera ona ematea susta daiteke, bisitarien interakzioa eta eurak ingurunean integratzea erraztuz, euren esperientziaren kalitatea eta euren beharren ezagutza handiagoa areagotuz. Digitalizazioa funtsezko tresnetako bat izango da etorkizuneko bidaiarientzat.

EAJtik industria turistikoaren sektorearen lehiakortasuna bultzatzen dugu. Hezkuntza sektorearekin batera, turismoaren profesionalengan talentua sustatuko dugu. Gainera, enpresen lan-kidetza, modernizazioa eta kalitatezko kudeaketa sistemak ezartzea bultzatuko dugu.

Helmugan duten jokabide arduratsuen garrantziaz bidaiariak sentsibilizatzea sustatuko dugu. Gainera, turismoaren sektoreko enpresen kontzientziazioa ahalbidetuko dugu, iraunkortasun eta efizientzia energetikoko neurriak ezartzeko helburuz.

COMPROMISOS E INICIATIVAS

1. KONPROMISOA

EUSKADI – BASQUE COUNTRY: HELMUGA TURISTIKO SEGURU, IRAUNKOR ETA ARDURATSUA

EKINBIDEAK

01

EAJk “2020-2030 aldirako Turismo Iraunkorraren Euskal Estrategia” berria onartu eta martxan jartzea planteatzen du. Jokaleku bi erantsiko dituen estrategia bat. Epe laburreko jokalekua, covid-19aren pandemiak eragindako krisi egoerari erantzuteko, lanpostuak eta jarduera mantentzeko neurriei garrantzia emango zaiena, enpresen likidezari lagunduaz eta bereziki ETEenari. Eta epe ertain eta luzeko jokaleku bat, covid-19aren ondorengo egoerari aurre egingo diona, ikusmira sektorearen erronka eta joera nagusietan jarrita.

02

“Top ten, ingurune, espazio eta establezimendu seguru eta iraunkorrena” katalogoa landuko dugu.

03

Produktuak eta zerbitzuak hiru lurraldeetan orekaz garatzeko turismorako laguntza programak indartuko ditugu, ekonomiari eta bertoko ekoizkinei laguntza emanez. Lurralde garapen orekatuago bat izateko, etxeko turismoa bultzatuko dugu eta kosta eta barrualdea hiriekin lotzen dituzten proiektuei lagunduko diegu.

04

Lankidetzeta eta dinamizazio sektorialeko estrategiak eta ekonomia lokalen garapena sustatzera bideratutako laguntza programa berri bat sustatuko dugu.

05

Bertoko ekoizle eta ekoizkinen merkataritza, ostalaritza eta jatetxe mapa berezi bat landuko dugu, merkataritza eta ostalaritzarekin baterako “Hiria 3.1.” programan.

06

Turismo sektoreko enpresen jardueran aurrezki eta efizientzia energetikoko neurrien programa bat martxan jartzea, zerbitzu eta produktu turistikoekoen kostu energetikoa murrizteko, EVEK, IHOBek eta Iraunkortasun Institutuak eta Turismoaren Mundu Erakundeak markatutako irizpideen arabera.

07

EAJk “Turismoko mugikortasun iraunkorraren plan” bat planteatzen du. Kontua da interes taldeak metodologia iraunkorretan sentsibilizatu eta kontzientziaztea, zerbitzu eta produktu turistikoekoen inguruan, ekintza hauek eginez:

- Espazio babestuak eta turismorako interesgarriak birkarga puntuz hornitzea.
- Ibilgailu elektrikoekoen (minibusak, ibilgailuak eta bizikletak) eskuragarritasuna ahalbidetu, ibilbideak egiteko eta leku babestuak bisitatzeko.
- Turismo bulegoetan argindarrezko bizikleten alokairua eta, kasua bada argindarrezko autoa eskaini, elkarlan publiko-pribatuko hitzarmenak eginez.
- Baliabide eta ibilbide turistiko guztiak konektatu, garraio publikoa eta/edo iraunkorra erabiliz.

2. KONPROMISOA

EUSKADI BASQUE COUNTRY: HELMUGA TURISTIKO ARDURATSUA.

EKINBIDEAK

01

“Turismo enpresetako berdintasun programa”. EAJk Emakunderekin elkarlanean aritzea proposatzen du, emakumeei lanean berdintasunez garatzeko aukera emateko. Emakumeak sektorean egiten duen rola bistaratzea da kontuan, eta berdintasun plana duten enpresei laguntzetan diskriminazio positiboa egitea.

02

Nazioarteko arauen arabera kudeaketa sistema ziurtatuak ezartzea, sektore seguru, inklusiozko, iraunkor eta integratzailea sustatzen lagundu dezaten.

03

“Enpresaren gizartearekiko erantzukizunaren printzipioak”, sektorean lan egiten duten pertsonek lan baldintza duinak dituztela bermatzeko.

04

Sektoreko enpresen artean zabalduko dugun kode etikoa, kudeaketa arduratsu eta gardena ziurtatzeko.

Garapen Iraunkorreko Helburuak turismo sektorean aplikatzeko eskuliburua landu eta zabaltzea. EAJn jabetuta gaude enpresek rol garrantzitsua jokatzen dutela eta lagundu nahi diegu negozio eredu arduratsu bat ezartzen, Garapen Iraunkorreko Helburuak betetzen lagundu dezaten.

05

Helburu horretarako, EAJk ekintza hauek egitea planteatzen du:

- Adierazle kuantitatibo eta kualitatiboen panel bat onartzea. Turismoan iraunkortasuna Europar Batasunaren 2020rako Agendaren helburuen arabera neurtuko da.
- 12. GIHan adierazle bat sartu, Euskadin dauden baliabide eta establezimendu turistiko iraunkorren kopurua emateko.

COMPROMISOS E INICIATIVAS

3. KONPROMISOA

EUSKADI – BASQUE COUNTRY: BIKAINTRASUNEZKO HELMUGA TURISTIKOA.

EKINBIDEAK

01

Sektoreko enpreekin elkarlanean jokaera onen gida bat landu, gure produktu eta zerbitzuen kalitatea bermatzeko, gure bezeroen gogobetetasun indizea mantendu eta hobetzea helburu dugula. Sektore pribatuarekin batera egingo da lan, kontsumitzaileentzako xedapen zuzenak bultzatzeko eta kontsumitzailearen babes osoa bermatzeko.

02

Lurraldearen turismo eskaintza dibertsifikatua garatzea.

Horretarako, EAJtik helmuga eta produktu turistiko hauek bultzatuko ditugu:

■ Gastronomia & enologia

■ Turismo kulturala eta hirikoa

■ Familia turismoa

■ Ongizate turismoa

■ MICE turismoa (Meetings, Incentives, Conventions and Exhibitions), hau da, negozioen turismoa edo negozio bidaiak.

■ Turismo nautikoa eta surfa

03

Bidaiariak eta euren segurtasuna gure estrategiaren erdigunean kokatu.

Profilen ikerketa eta marketina erabiliz, Euskadira bidaia egiten duten pertsonen beharrak eta interesak aztertuko ditugu. Sektorearekin batera zehaztuko dugu bisitaren esperientzia.

04

EAJk harrera plan bat martxan jartzea planteatzen du, aireportu, portu eta tren geltokietan. Bidaiarien segurtasun eta babes protokoloei ekingo dien plan bat, ingurune segurua lortuko dugula bermatuko duena.

05

Turismoaren seinaleztapen plan berri bat onartzea, inplikaturako gainerako herri erakundeekin batera.

06

Iraunkortasuna eta helmugaren errespetua esperientzia turistikoaren ezaugarri baliotsua bihurtzea Euskadin. Jokaera onen gida bat editatu eta argitaratuko dugu, eta turismo bulegoetan eta Interneteko komunikabideetan eskura egongo da.

4. KONPROMISOA

EUSKADI – BASQUE COUNTRY: HELMUGA TURISTIKO ADIMENTSUA.

EKINBIDEAK

- Turismoaren lehiarako adimen sistema bat garatu, eragile publiko eta pribatuen lankidetzarekin eta koordinazioarekin.

Helburu horretarako, EAJk ekintza hauek egitea proposatzen du:

01

- “Euskadiko Behatoki Turistikoa” kanpoko eta barruko informazioa zentralizatu eta gainerako erakundeen eta sektorearen eskura jartzeko gaitasuna duen ezagutza unitate bihurtu.
- Inguruneko eta lehiakide ditugun helmugetako jarduera eta joerak monitorizatu, erabakiak hartzeko informazio erabilgarria eduki dezagun, covid-19aren ondorengo jokalekuan eskaria bultzatzeko estrategiak diseinatzeari arreta berezia eginaz.
- Sektorearen gaikuntza digitalaren diagnostiko bat egin eta turismo sektorea eraldaketa digitalera egokitzeko plan bat bultzatu.
- Mentore digitalen, “inplantalariak”, eta lantegi teknologikoen figura berreskuratu, ahalmen digitala handitzeko.
- Teknologia berriak erabili, prozesuak optimizatzeko, gure bidaiariak ezagutzeko, gure eskaintza egokitzeko eta helmuga adimentsuago bat eraikitzeko.

02

- “XXI. mendeko turismo bulegoa” diseinatu. Horretarako, EAJk turismo bulegoak egokitzea proposatzen du, bidaiarien eraldaketa digitala kontuan hartuta. Teknologia berrien erabilera sartuko dugu prozesuen optimizazioan, iraunkortasun turistikoaren komunikazioan eta Euskadi Basque Country helmuga adimentsua eraikitzen.

COMPROMISOS E INICIATIVAS

5. KONPROMISOA

EUSKADI – BASQUE COUNTRY: HELMUGA TURISTIKO LEHIAKORRA.

EKINBIDEAK

01

EAJk 2024rako marketin turistikoaren plana onartu eta ezartzea proposatzen du.

02

Turismoko adituen foro bat sortzea, diziplina anitzekoa, turismoaren industriako, hezkuntzaren munduko, ikerketako, berrikuntzako eta teknologiko profesionalekin. Eztabaidagune horrek euskal turismo sektorearen eskaria bultzatzeko eta lehiakortasuna hobetzeko estrategiak diseinatzen lagunduko du, eta covid-19ak orain eragin duen osasun krisia gainditzen.

03

“Turismoaren prestakuntza plana”, gure enpresetako profesionalak gaitzeko. Gaikuntza digitala, negozio eredu berriak, berrikuntza eta turismo iraunkorra izango dira berriazko prestakuntza programak martxan jarri garatuko ditugun gaietako batzuk.

04

Kualifikazio profesionaleko ziurtapenen programa. Lanbiderekin koordinatuta, lan esperientziaren bidez edo formalak ez diren prestakuntza bideen bitartez hartutako konpetentzia profesionalen ebaluazioa eta egiaztatena aplikatu eta bultzatuko dugu.

05

“Turismo berrikuntzarako gida” landu, jokaera berritzaileak eta sektorean erreferentzia direnak identifikatu eta zabaltzeko.

06

Urte guztian operatzeko gai diren eta urtarokotasuna kentzea eta lurralde dibertsifikazioa indartzen duten kategoria berrietako produktu turistiko berriak sortzeko laguntza programa espezifikoa.

07

EAJtik euskal erreserba-zentral baten sorrera bultzatuko dugu.

08

Ekintzailtzaren, autoenpleguaren eta gazteak kontratatzea sustatzearen aldeko diskriminazio positiboko neurrien programa, belaunaldi berriei aukera berdintasuna emateko.

09

Bultzada ematea turismo sektorean enpresek jarraitu ahal izatea ahalbidetzera zuzendutako belaunaldi ordezkapeneko programari, "Berriz Enpresa".

10

Gizartearekiko erantzukizunaren eta iraunkortasunaren arloan turismo sektoreko enpresen kudeaketa ereduak eta jokaera onak hedatzea proposatzen du EAJk, jardunaldien, mintegien edo workshopen bidez.

11

"Euskadi Basque Country" markaren presentzia bultzatzea, herrialdearentzat interesgarriak diren nazioarteko turismo foroetan eta merkatuetan presentzia edukiz, sektoreko gainerako herri erakunde eta enpresekin batera.

12

Sare sozialen bitartez "Euskadi Basque Country" marka munduan sustatzeko kanpaina urtero egitea planteatzen du EAJk.

A black and white photograph of a man with curly hair and a beard, smiling warmly. He is wearing a dark shirt and an apron, standing in what appears to be a kitchen or food preparation area. The image is overlaid with decorative diagonal stripes: green and white stripes in the top right corner, and red and white stripes in the bottom right corner. The text is positioned on a white triangular background on the left side of the image.

MERKATARITZA ETA OSTALARITZA KONTSUMOA

LANPOSTU GUZTIAK BERRES-
KURATU MERKATARITZAN ETA
OSTALARITZAN.

- Merkataritza eta ostalaritza faktore erabakigarria izan da Europako hirien sorreran eta garapenean. Gure esparruan, merkataritzak eta ostalaritzak hiri eta udalerrri biziagoak, elkarbizitzarako egokiagoak eta seguruagoak garatzen lagundu dute. Ezin dugu ahaztu sektore biek osatzen dutela gure bizimodu sozialaren oinarritzko elementu bat: hiri-bizkortzaile ordezkazekin dira, tokiko ekonomiak eta enpresak bultzatzen dituzte, gizarte harremanak ahalbidetzen dituzte eta hiriko bizitza sendotzen dute.
- Merkataritza eta ostalaritza oinarritzko sektoreak dira Euskadiren egiturari, bai euren magnitude ekonomikoengatik bai garrantzi sozial eta ahalmen egituratzaileratik. Covid-19ak ekarri digun krisia hasi aurretik, banaketa komertzialak 39.000 enpresa komertzial baino gehiago zituen, BPGd-ri % 11 ematen zion eta 128.800 pertsonari ematen zien lanpostua. Ostalaritza sektorearen kasuan, 13.900 establezimendu zituen, BPGd-ri % 7 ematen zioten eta 57.500 lanpostu sortzen zituzten. Datorren legegintzaldirako helburua lanpostu guztiak berreskuratzea eta sektorea suspertzea eta biziberritzea da.
- EAJtik konpromisoa hartzen dugu gaur egun daukagun hiri konpaktu eta sozialki kohesionatuaren eredia mantentzeko, tokiko eta hiriko merkataritzak historian zehar izan duen funtzioa mantentzen duena, enplegua, ekonomia, integrazioa eta gizarte kohesioa sortzen lagunduz.
- Geure hiri eta herri eredu propioa garatu eta mantentzeko komenigarritasunari lurzoruaren eta eraikinen iraunkortasuna bermatu beharra erantzen zaio; gainera, hiriarteko eta periferiako instalazio komertzialetan kontsumo burugabeak ingurumenari eta herritarren mugikortasunari egiten dizkion kalteak saihestu behar dira. Europar Batasunak berak bereganatzen ditu planteamendu horiek Europaren Lurralde Estrategian (Potsdam, 1999ko maiatza) hirien hedapenaren kontrola hirien eta herrien garapen iraunkorrerako alderdi erabakigarri bat dela jaso baitzuen.
- Hiri eta herrien konpaktutasun printzipioa da hain zuzen ere Europaren lurralde estrategia gisa aldeztu eta hartu den irizpidea, garapen orekatu eta iraunkorrerako, lurralde hedapen burugabeak saihestuz.
- Merkataritza sektorea aldaketa sakoneko prozesu batean murgilduta dago, bai abagunekoa bai egiturazkoa, batez ere eraldaketa teknologikoak, operadore komertzial handien kontzentrazioak eta erosketa ohituren aldaketak eragindakoa. Covid-19ak azeleratu egingo ditu eraldaketa horiek eta aldaketa faktore horiek. Merkataritza sektorea mantendu eta hazi egingo bada, teknologia izan behar du oinarri eta zutabe. Erronka handiak sektore atomizatu batentzat, enpresa integrazio txikia baina dinamismo handia duen sektore honentzat. Merkataritzaren digitalizazioa geldiezina da. Bezeroekiko harreman digitalak diseinatzeko unea da merkataritzarako eta ostalaritzarako.
- Tokiko saltoki txikia, ostalaritza eta jate-txeak, pertsona autonomoak dira EAJren strategiaren erreferentzia. Negozio eredu berriak lagunduko ditugu, eraldaketa digitala, sektore bietako profesionalen prestakuntza eta euskal merkataritza eta ostalaritza sektoreko mikroenpresentzako diru laguntza. Helburua baldintza berdinetan lehiatzen laguntzea da, eta horrela gure herriak, auzoak eta hiriak bizirik eta dinamiko mantentzea.
- Kontsumitzaileen defentsari eta kontsumo modu berrietatik eta ordaintzeko tresna berrietatik eratorri den eraldaketa teknologikoari dagokionez, EAJk kontsumitzaileek egiazko informazioa arin eta erraz ulertzeko moduan izan dezaten jagongo du, euren babes bermatzeko. Informazio hori talde babesgabeenei eta egoera ahulenean daudenei prestakuntza emanaz osatu behar da, hau da, haurrei, nerabe eta gazteei, adinekoei eta batez ere kontsumo modu eta era berriekiko sentikor diren beste publiko objektiboek.
- Kontsumobideek helburu estrategikotzat hartzen du enpresek gero eta gehiago kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideekiko jokabide zorrotza izan dezaten lan egitea. EAJk proposatzen du Kontsumobide merkaturatu kontrolatetik (ikuskapenak eta zehapenak) harago joan dadila enpresekin duen harremanean. Horregatik, kontsumo politikan txertatzea eta kontsumitzaileen eskubideen errespetua erantzea proposatzen da euren strategiaren beste lehiakortasun faktore bat gehiago bezala.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

A. MERKATARITZA ETA OSTALARITZA

1. KONPROMISOA

MERKATARITZA ETA OSTALARITZA SEKTOREKO PROFESIONALIZAZIOA ETA PRESTAKUNTZA HOBETU

EKINBIDEAK

- 01** EAJk 2024rako merkataritza eta ostalaritza plan berri bat martxan jartzea planteatzen du, Euskadin jarduera horien erronkei erantzuten laguntzeko. Fase biko plan bat. Lehenengoan, pandemia amaitu artekoan, enpresen likidezia sustatzeko neurriak bultzatzeko eta enplegua suntsitzea saihesteko neurriak bultzatuko dira, eta eremu eta establezimendu seguruen protokoloak ezarriko dira. Eta bigarrena pandemiaren ondorengo jokalekua izango da.
- 02** Merkataritzarako eta ostalaritzarako prestakuntza plan bat ezarri. Gure helburua gutxienez 2.500 profesionalak euren kompetentzia teknikoak indartu ditzaten lortzea da. lehenetsuta emanaz eraldaketa digitalarekin, negozio eredu berrieekin eta talentuaren kudeaketarekin zerikusia dutenei.
Sektorearen prestakuntzaren osagarri, Merkataritzako Bulego Teknikoetan diharduten pertsonen gaikuntza indartzeko programa bat jarriko da abian.
- 03** EAJk merkataritza eta ostalaritzako Ikasgela Digital bat sortzea proposatzen du Interneten bidezko prestakuntzarako. Gure helburua sektoreko pertsonen lehiakortasuna eta talentua areagotzea da. Profesionalak ezagutzak modu atseginean, erakargarrian eta irisgarrian eskuratzea bilatzen dugu. Plataformak irakurgaiak, informazio pilulak eta autoprestakuntzako ikastaroak edukiko ditu, kompetentzia nagusiak garatzera zuzendutako prestakuntza-edukiekin.
- 04** Merkataritza Eskola bultzatu, prestakuntza dualarek
EAJk Merkataritza Eskola bat sortzea planteatzen du, profesionalak prestatzeko, ondo garatutako negozio ereduarekin lehiatzeko behar diren kompetentziekin, kontsumitzaileentzat egokiak diren formatuekin eta hiri merkataritza lokal erakargarria eta gizartearen eskariei egokitua eskaintzeko gai izan daitezen.
- 05** Sektorearen erakarpina eta berrikuntza indartu, merkataritza eta ostalaritzaren lehiakortasuna indartuko duten gazteak kontratatuzko laguntzak martxan jarri.

2. KONPROMISOA

SEKTOREKO ETE-EN DIGITALIZAZIOA ETA LEHIAKORTASUNA HANDITU

EKINBIDEAK

01

EAJk negozio eredu berriak garatzeko laguntza programa bat proposatzen du. Berritzen lagunduko dugu ekonomia digitalak ematen dituen aukerez baliatuz: digitalizazioa, big data, adimen artifiziala; horien garapenak eta aplikazioak lehentasuna du.

02

“Saltokitik enpresetara” kudeaketa aurreratuko programa bultzatu. EAJren konpromisoa programa honetan gutxienez 300 enpresak parte hartzea da. Programari esker, sektoreko ETEek eta pertsona autonomoek lehiakortasuna, enpresaren efizientzia eta emaitzen lorpena hobetzeko behar dituzten gaitasunak eskuratuko dituzte. Kudeaketa aurreratuan sartzen diren enpresen aitortza sistema propio bat ezarriko dugu.

03

Merkataritza eta ostalaritza eraldaketa digitalera egokitzeko plan bat martxan jartzea.

Osasun krisiak teknologiaren beharra eta garrantzia erakutsi du, eraldaketa digitala errazteko funtsezko zutabea izango baita. Laguntza lerro berri bat abiaraziko da txikizkako merkataritza eta ostalaritza digitalizatzeko, hasierako diagnostikotik abiatuta.

04

Arrakala digitala murrizteko lantegi teknologikoak garatu. Enpresen lehiakortasuna hobetzea bultzatuko dugu informazioaren eta telekomunikazioen teknologia berriak erabiliz, eta, aldi berean, sareko negozio berriak garatzen lagunduko dugu ekonomia berriko profesionalak gaituz eta lagunduz. Gure helburua 2.000 profesionalak lantegietan parte hartzea da.

05

Mentore digitalen sistema bat ezarri, “Inplantalariak”, sektoreko profesionalak eraldaketa digitala eragiten ari den aldaketei jarraitzeko prozesuan gidatzeko.

06

Hirigune programa, hiriko lankidetzeta, dinamizazio eta lehiakortasun estrategia komertzialak sustatzekoa, indartu. EAJren proposamena legegintzaldian 12 milioi euro baino gehiago programa honetarako erabiltzea da.

07

Merkataritza bulego teknikoaren funtzioa finkatu, merkataritzaren enpresa sektoreari laguntzeko aktibo nagusietako bat direlako.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

08

Urtean 2 milioi euro baino gehiagoko inbertsioak dituzten establezimenduen hobekuntza eta modernizazioa indartzea, irudia eta gizartearen hautematea eraldatzeko, merkataritza eta ostalaritza seguru eta moderno bati lotuta. Horretarako urtean 2 milioi euro baino gehiagoko inbertsioak egingo dira.

09

Sektorera talentua erakartzea indartu, merkataritza banaketaren kudeaketa teknikariak prestatzeko beken deialdiarekin. Deialdia prestakuntza unibertsitarioa ikasi duten pertsoneri irekita egongo da eta Lanbide Heziketara zabalduko da. Helburua urtean 35 bekadun lortzea da.

10

EAJk merkataritza banaketaren behatoki bat proposatzen du. Sektorerekin elkarlanean, zaintza lehiakorreko sistema bat garatuko dugu, berritzaileak izateagatik hautatutako nazioarteko esperientziak eta jokaera onak identifikatu eta zabaltzera zuzendua. Behatoki honen helburua sektorearen eboluzioa aztertzea izango da, enpresa ehunaren lehiakortasunaren hobekuntza eta politika instituzionalen eraginkortasuna sustatzeko, bai eta kontsumitzaileen gogobetetasuna ere, arreta berezia jarriaz covid-19aren ondorengo jokalekuetan.

11

Merkataritza eta ostalaritza sektoreetan belaunaldi ordezkapena eta enpresek jarraitu ahal izatea bultzatu. Helburu horrekin, EAJk ekintza hauek planteatzen ditu:

- “Berriz Enpresa” programa, merkataritza eta ostalaritza sektoreetan enpresek jarraitu ahal izatea ahalbidetzera zuzendua, indartu. Gure helburua ehun bat establezimenduri jarraitu ahal izateko aukera ematea da.
- Langabeei eta 35 urte arteko gazteei zuzendutako programa baten garapena bultzatu, lanbidean gaitu ondoren.

12

EAJk berdintasunezko eta inklusiozko enpleguari laguntzea planteatzen du merkataritza eta ostalaritza sektorean, Garapen Iraunkorreko Helburuen (GIH) arabera. Horretarako, ekintza hauek egingo ditugu:

- 2030erako Agendako dibulgazio lantegiak martxan jartzea, garapen iraunkorrerako eta horren helburuetarako. GIHek merkataritzak duen rola azpimarratzen dute, eta MMAk 2030erako Agendari egin dion ekarpena aitortzen dute.
- Emakumearen parte-hartzea eta lidergoa sustatu. Berdintasunezko lan garapenerako lantegiak jarriko ditugu martxan eta, Emakunderekin batera, sektore bietan berdintasun planak sustatuko ditugu.

3. KONPROMISOA

BERTOKO MERKATARITZA ETA OSTALARITZARI LAGUNDU.

EKINBIDEAK

01

Hiria 3.1. programa indartu, bertoko ekonomia eta ekoizkinak bultzatzen dituzten saltoki eta ostalaritza establezimendu bereziei ikusgaitasuna ematea eta horiek sendotzea helburu hartuta.

02

Bertoko saltokian kontsumitzea sustatzeko ikasgela sortu. “Merkataritza Lab” ume lantegiak martxan jartzea, haurrak euren udalerrietako saltokietara hurbiltzeko eta tokiko dendetan kontsumitzearen garrantziaz kontzientziatzeko, eta ekoizkinaren jatorria jakiteko.

03

EAJk denda txikian kontsumitzea sustatzeko erakunde arteko kanpaina bat garatzea planteatzen du, saltoki hurbilaren balioa eta ekonomian eta enpleguan duen garrantzia nabarmentzeko.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

4. KONPROMISOA

TOKIKO HIRIGINTZAREN BARRUAN MERKATARITZA EREMUEN DISEINU ONENA, GAINERAKO HERRI ERAKUNDEEKIN BATERA, KUDEATU.

EKINBIDEAK

— **“Bussines Improvements Districts” BIDak garatu eta martxan jartzea.**

Helburu horrekin, EAJk ekintza hauek egitea planteatzen du:

01

- Esperientzia arrakastatsuak identifikatzeko BID ereduak Europako esperientzietatik buruzko azterketa.
- Zonako lankidetzak eta enpresen eta herri erakundeekin arteko aliantza sustatuko duten merkataritza eremuak dinamizatzeko programa bat bultzatu, elkarlan publiko-pribatuko ingurune batean.
- Lurralde bakoitzean proiektu pilotu bat kudeatu.

— **Auzoetako merkataritza biziberritu, lagundu eta sustatu.**

Helburu horrekin, EAJk ekintza hauek egitea planteatzen du:

02

- Tokiko establezimendu hurbiletan kontsumitzea sustatzeko kanpaina.
- Giscom Euskadi-ren datuen ustiapena ezagutzera eman, udalerrietan eta auzoetan errealitate sektorialaren berri jakiteko.
- Estrategiak zehaztu, udalekin batera, auzoak zuzen garatzeko behar diren merkataritza sektoreak biziberritu eta garatzeko.
- Tokiko merkataritzaren mapa bat diseinatu.

- EAJk merkataritza herrietan eta hiriguneetan ekintza hauen bidez bultzatzea proposatzen du:
- Merkataritzaren lan mahaia, herriak eta hiriak diseinatzerakoan hirigintza komertzialaren irizpidea sartzeko.
 - Udalekin koordinatuta, udalerrien merkataritza ereduak eta plangintza zehaztu.
 - Oinezkoen eremuen azterketa eta sustapena egin.
 - Merkataritza bultzatzearen ikuspegitik aukera bat diren hiriko lekuak aztertu.
- 03** ■ Zamalanetarako eremuak berraztertu eta optimizatu. Horien birkokapena aztertu, udalerriaren merkataritza beharren arabera.
- Merkataritzako seinale plana garatu, merkataritzaren informa hobetzeko eta udalerrietako merkataritza eremuak indartzeko.
 - Udalerrien mugikortasun planaren esparruan, eremu komertzialetara iristeko baldintzak hobetzen dituzten proiektuak garatu, bai eta garraio publikoaren erabilera, argindarrezko mugikortasuna, bizikletazko joan-etorriak eta merkataritza eremuen arteko oinezkoen bideak sortzea hobetzen dituztenak ere.
-

- Lokal hutsak berreskuratzeko programak, ekintza hauen bitartez:
- Lokal jabeekin koordinatuta, dagoen eskaintza, biztanleria egoiliarra, biztanleria flotatzalea eta zehaztutako merkataritza eredu kontuan hartuta, lokal hutsak berriro irekitzea eta erabiltzea sustatuko da, bai ekintzaile berrieekin bai beste merkataritzazko negozio eredu batzuekin.
 - Udalekin Giscom datu baseko lokal hutsei buruzko informazioa erabili, informazio hori merkataritza eta ostalaritza sektoreetako pertsona ekintzaileei eskaintzeko.
-

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

5. KONPROMISOA

TURISMOAREN ETA MERKATARITZAREN ARTEKO SINERGIAK BULTZATU

EKINBIDEAK

- EAJk merkataritza eta ostalaritza mapak lantzea eta zabaltzea planteatzen du, turismo komertzialera begira, ekintza hauen bitartez:
- 01 ■ Hirien merkataritza eta ostalaritza turistikoaren mapa diseinatu, tokiko merkataritza bereziari garrantzia emateko.
- Merkataritza eta ostalaritza eskaintza bultzatzea, hiriaren erakarren turistikoaren ardatz gisa.
- ■ Ostalaritzaren, merkataritzaren eta turismoaren artean sinergiak sortzen dituten ekintzak sustatu.

6. KONPROMISOA

ERAKUNDEARTEKO GOBERNANTZAN ETA ALIANTZETAN SAKONDU

EKINBIDEAK

- 01** Eudel erakundearteko merkataritza mahaia.
EAJk ekintza bateratuak bultzatuko ditu udalekin, arauen efizientzia faltak identifikatzeko, beharrezko ekintzak egiteko eta behar dena berritzeko.
- 02** Euskal ganberen legea. Euskal ganberen legea idatzi eta onartu.
- 03** Merkataritza jardueraren legea.
- 04** AJk merkataritza eta ostalaritza zuzendaritza bat sortuko du.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

B. KONTSUMOA

7. KONPROMISOA

KONTSUMOBIDE KONTSUMO ETA ORDAINKETA MODU BERRIETARA EGOKITU

EKINBIDEAK

01

Joeren eta gatazka eta iruzur tipologia berrien analisirako tresnak sarraraztea eta prebentzio tresnak erabiltzea.

02

Egoerarik ahulenean dauden taldeak identifikatzea eta informazio eta prestakuntza kanpainak egitea.

8. KONPROMISOA

KONTSUMITZAILEAK INFORMATU ETA BIZKORTASUNEZ PRESTATU

EKINBIDEAK

- Hobeto prestatu eta informatutako kontsumitzaileak, euren eskubideez eta eginbeharrez ere jabetuta daudenak, lortzeko hautua. Horretarako EAJk ekintza hauek egingo ditu:
 - Informazio interesgarri guztiaren irispidea hobetu, bereziki maizen, urgenteen eta alarma handienarekin eskatzen dena.
 - Kontsumitzaileek eta erabiltzaileek eman zaizkien zerbitzuekin duten gogobetetasun mailaren berri jakin.
 - Kontsumobidek jasotzen dituen kontsultei erantzun hobea eta arinagoa eman. Zerbitzu karta bat garatu.
 - Publiko objektibo guztien beharrei arreta onena eginez prestakuntza eta informazioa eman. Kontsumobideren prestakuntza zentroen ezagutza eta probetxua hobetu.
 - Erantzukizuna sustatu. Informazioaren zabalkunderako formatuak beharren eta joera berrien arabera erabili.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

B. KONTSUMOA

9. KONPROMISOA

ENPRESEN JOKABIDE ERRESPECTUZKOA BULTZATU KONTSUMITZAILE ETA ERABILTZAILEEN ESKUBIDEEKIKO

EKINBIDEAK

01

Jokaera onen kodeak sustatu sektore guztietan. Lege urratzeak eta merkatuko jokaera txarrak ezabatzeko eta esesteko zorroztz jokatu.

02

Enpresen erantzukizuna eta gardentasuna sustatu, kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideak errespetatzeko borondatezko mekanismoak eta jokabideak garatuz. Era berean, enpresa sortu berriei eta ekintzaileei kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideen berri eman.

03

Arbitraje sistemari atxikitako enpresa kopurua handitu. Kontsumo etiko eta arduratsuaren kontzeptua integratu, bai eta Jaurlearitzaren irizpideetan borondatezko arbitraje sistemari atxikita egotea ere, laguntasunak, diru laguntzak, sariak eta enpresei laguntzeko beste edozein berme modalitate ematerakoan.

Profesionalen eta enpresarien elkarteekin, kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideen babesaren hobetuko duten hitzarmenak egitea planteatzen du EAJk.

10. KONPROMISOA

KONTSUMO GATAZKAK EBAZTEN BIKAINASUNERANTZ LAN EGITEA

EKINBIDEAK

01

Erreklamazioak eraginkortasunez kudeatu. Erreklamazioen kudeaketa eta Kontsumoko Arbitraje Sistemarena optimizatu, prozedura administratiboak sinplifikatu.

02

Izapidetze elektronikoa eta telematikoa bultzatu. KontsumoNETen erabilera bakarra areagotzea eragile guztientzat.

03

Bai enpresei bai kontsumitzaileei informazioa eta prestakuntza eskini, eta bitartekaritza sustatu, kontsumoko arbitrajearen aurretik gatazkak ebazteko bide gisa.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

11. KONPROMISOA

ELKARLAN ETA LANKIDETZA SAREAK HOBETU KONTSUMO POLITIKETAN

EKINBIDEAK

01

EAJk lehentasuna ematen dio kontsumitzaileen babes osoa bermatzeari, sailarteko eta erakundearteko elkarlana hobetuz eta elkarlanerako bide formalak eta informalak ezarriz.

02

Giltzarri diren eragileekin hitzarmen berriak diseinatu eta kontsumo politikekin erlazionatutako eragile guztien erantzunak homogeneizatu.

03

Nazioarteko ekintzetan parte hartu, eta bereziki Europakoetan.

HEZKUNTZA

DIGITALIZAZIO PLANA
IKASTETXE GUZTIETAN



- Hezkuntza Herri erronka bat da, eta gure ikasleak garapen osorako prestatzea du helburu, aniztasun handiko ingurune sozial eta kultural konplexu eta dinamik batean. Ingurune horrek konpetentzia eta balio batzuk eskuratzea eskatzen du, aukeratzen duten esparru pertsonal, akademiko eta profesionalean arrakastaz mugitu ahal izateko.
- Hezkuntza lehentasun bat da EAJrentzat. Hezkuntzak erronka demografikoari, erronka teknologiko digitalari eta garapen iraunkorrari egin behar die aurre, baina ezin ditugu ahaztu aniztasunari eta kulturartekotasunari erantzuna eman go dioten eta bikaintasunerantz aurrera eramango gaituzten helburu gaitzagoak, hezkuntzaren kalitatea, gizarte kohezioa eta berdintasun faltaren aurkako borroka ardatz dituztenak. EAEn jaitza tasa etengabe jaitea, eta atzerriko jatorria duen immigrazioa areagotzea gure lurraldearen osaera soziala aldatzen ari dira, eta, ondorioz, gure eskola sistemarena, eta leku batzuetan gizarte aniztasun handiagoa dute beste batzuetan baino. Horren aurrean, lehentasuna du kohezioa eta oreka bultzatuko duten neurriak garatzeak, bai eta kalitatezko hezkuntza proiektuak bultzatzeak, ikasle guztien arrakasta lortzera orientatuta.
- 2030erako hezkuntza esparruak Garapen Iraunkorrerako Helburuak lortzeko eragile nagusi gisa hezkuntzak duen rola aitortzen du, eta, zehazki, 4. berariazko helburuan, inklusiozko, ekitatezko eta kalitatezko hezkuntza bermatzeko eta bizitza guztirako pertsona guztientzat ikaskuntza aukerak sustatzeko. Hazkuntze iraunkor eta integratzaile eta elkarbizitza baketsura eramango gaituzten konpetentziak eta balioak sustatu behar dira.
- Euskal hezkuntza sistemak ekitatea bermatu behar du, aukera berdintasunaren eta gizarte kohezioren erakusle gisa. Beste alde batetik, ikasleen konpetentzien garapenean emaitzarik onenak lortzea bultzatu behar du, eta, are gehiago, gure Herriaren garapenean berrikuntza eta iraunkortasun erronkei erantzuteko kualifikazio handiko pertsonak beharko dituen gizarte baterako prestatzeko konpromisoaren aurrean.
- EAJk etengabe aldatzen ari den gizarte batera egokitzeko ahalmena duen euskal hezkuntza sistema bat planteatzen du, ahalmen ikaragarria, disrupzio teknologikoko testuinguru azeleratu honetan, konpetentzia digitalak ez ezik pentsamendu kritikoa, sormena eta prestakuntza humanista ere indartuz. STEAM bokazioak sustatu behar dira hezkuntza etapa guztietan, bereziki neskengan, ikasleak ahalduzko eta etorkizuneko erronken aurrean egoki prestatzeko.
- Hezkuntza bere printzipioetan, metodologian eta edukietan birpentsatu behar da, euskarari eta euskal kulturari ardatz hartuz, geure identitate ikur gisa, ikaslearen oinarria eta hizkuntza normalizazioaren bidea izan dadin, kulturarekin eta gizarte kohezioarekin konpromisoa hartuta.
- Gure hezkuntza sistema eleaniztunak kalitatezko, berdintasunezko, inklusiozko eta berrikuntzazko proiektio bat izan behar du, eta, euskara eta euskal kultura ardatz hartuta, hizkuntza ofizial bietan konpetentzia aurreratua lortzea bermatu behar du, hizkuntzak ikastea bultzatuz, ingelesaren eskariari erantzunez eta atzerriko bigarren hizkuntza bat ikasteari ere bai.
- Ebaluazioa prestakuntzarako tresnatzat hartu behar da, berrikuntzarantz eta ikasleak, ikastetxeak eta hezkuntza sistema bera hobetzerantz orientatuta.
- Bizikidetzara positiboa hezkuntza sistemaren ardatzat hartu behar da, ikaslearen garapen osorako hezkidetzara eta aniztasunaren errespetua bere adierazpide guztietan bultzatzen dituzten balioak oinarri hartuz.
- EAJren proiektuak euskal hezkuntza sistemaren eraldaketa prozesua bultzatzen du. Covid-19aren pandemiak agerian utzi du irimotasun handiagorik ekin behar diogula testuinguru berrira egokitzera eta antolaketa eta kudeaketa eredu egokitu eta hobetzerara bideratuta dagoen eraldaketa bati. Eredu horrek garrantzia eman behar dio irakaslearen figurari, bere profiletan eta bere rolean birdefinituta, ikastetxeen autonomiaren bultzadari, eskolaren lidergoari eta komunitatearen erantzukidetasun eta inplikazio kulturari, autonomia garatzeko funtsezko zutabeak direnez.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

1. KONPROMISOA

HEZKUNTZA ZERBITZU PUBLIKO UNIBERTSAL ETA KALITATEZKOA INDARTU ETA FINKATU.

EKINBIDEAK

- 01** Euskal Hezkuntza Legea onartu. EAJk oinarritzat planteatzen du lortutako akordioa eta Hezkuntza Legearen egitasmoa lantzea. Oinarri horren gainean, alderdi eta eragile guztien arteko akordioa bultzatzeko konpromisoa hartzen da, eta gure hezkuntza sistemaren erronkei eta etorkizuneko aldaketei erantzuna emango dien eta, datozen hamarkadetan bikaintasunerantz jarraituz, euskal hezkuntzaren egonkortasuna eta kalitatea egituratu eta indartuko duen Euskal Hezkuntza Lege bat onartzeko konpromisoa.
- 02** Antolaketa eta kudeaketa ereduaren eraldaketa bultzatu, hurbiltasun, eraginkortasun eta gardentasun handiagoa sustatuz hezkuntza administrazioaren kudeaketa egitura berri baten bitartez.
- 03** Hezkuntza komunitatetik hurbilago eta bizkorrago kudeatzea ahalbidetzeko tresnak bultzatzen jarraitu, hezkuntza administrazio berritzailea eta digitalizatua, izapidetze, kudeaketa eta informazio eta komunikazio eredu aurreratuagoak baliatuz.
- 04** Hezkuntzari laguntzeko zerbitzuen antolaketa eta funtzionamendua hobetu.
- 05** Hezkuntza azpiegiturez zuzkitu eta horiek egokitu eta modernizatu, iraunkorra eta askotarakoa izatea printzipio hartuta, irakaskuntzaren kalitatean eragiteko. EAJk 2023 azpiegitura plana garatzea proposatzen du, bereziki eragonez irisgarritasunari, hezkuntza premien indizeak (HPI) adierazten dituen ikastetxeei, berdintasun espazioei (puntu beltzak ezabatu) eta in situ sukaldeen posibilitateari. Horretarako, 245 ekintza eta 318 milioitik hurrean ibiliko den inbertsioa egingo dira. Besteak beste, nabarmentzekoak dira Tolosako Orixe, Gasteizko Salburua eta Leioako Barandiaran institutuak, Dantzertiren egoitza berria, eta Atxondon, Murumendin, Zaldibarren, Zabalarran edo Lemoizen in situ sukaldeak jartzea.

— **06** Ikastetxe Publiko Integralak (IPI) jartzen jarraitu, 2 urtetik 16 urtera bitarteko hezkuntza ibilbidea dutenak eta euren proposamen pedagogikoaren hezurmamitzen duen Hezkuntza Proiektua, kudeaketa, antolaketa eta funtzionamendua bakarrak izango dituztenak, IPI berri bat lurralde bakoitzean ezarriz. Gaur egun 4 daude Araban, 2 Gipuzkoan eta 8 Bizkaian. Ikastetxe Publiko Integral hauen abantaila da ikasleak ez duela ikastetxea aldatzen Lehen Mailako seigarrena gainditu ondoren; gainera, hezkuntza proiektu eta zuzendaritza talde bakarra dutenez, hezkuntza esku-hartze koherenteagoa egiten da.

— **07** Hezkuntza sistema ekitatezkoagoa bultzatu, jantoki zerbitzu osagarrien kudeaketan eredu berritzaileagoak erabiliz eta tokiko administrazioarekin elkarlanean eskola garraioa hedatzeko, eskolarako irispidean aukera berdintasuna eta gizarte kohesioa bermatze aldera.

— **08** EAJk konpromisoa hartzen du hezkuntzarako irispidean desoreka edo desberdintasun oro baztertzeko, laguntza eta beka sistema propio baten bidez.

— **09** Herri erakundeen barruko eta erakunde arteko elkarlana bultzatu planak eta programak garatzeko, elkarlan eta kudeaketa hurbilagoa eta partaidetuagoa bultzatuz. Elkarlan hori zerbitzu osagarrietan eta eskolaratzeko informazio zerbitzuetan planteatzen da, hezkuntzako bizikidetzaren eta ekitatearen mesedetan.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

2. KONPROMISOA

INKLUSIOZKO, EKITATEZKO ETA KALITATEZKO ESKOLAREN HAUTUA EGITEN JARRAITU, BIZIKIDETZA POSITIBOA ARDATZ EGITURATZAILEA IZANGO DUEN ESKOLA ETA GIZARTE ALDAKETARI ERANTZUNA EMANGO DIONA, GIZARTE KOHESIOA BULTZATUZ ANIZTASUNAREN ETA KULTURARTEKOTASUNAREN AURREAN, ETA BIKAINTRASUNERANTZ JARRAITUKO DUENA.

EKINBIDEAK

01 Esku-hartze eredu oso eta malguak, aniztasunari eta kulturartekotasunari erantzuna emango diotenak, ezarri, erakundearteko elkarlana bilatuz. Horretarako, EAJk erantzun espezifikoagoa bultzatuko du bidaiderik gabeko adingabeak eskolaratzeko, bai eta DBH gradua eduki gabe lan munduan sartzeko edo ikasten jarraitzeko adinean daudenak ere. Era berean, ardurakidetasun hitzarmenak bultzatuko dira egoera ahulean dauden inguruneetako ikastetxeekin, eta hezkuntza proiektuaren berezitasuna eta interes soziala kontuan hartuta.

02 Hezkuntza ekintza ikasleei laguntzeko behar espezifikoetara egokitu, garapen osoari eta eskolako arrakastari estrategia eraginkorrak ezarri laguntzeko, baliabide pertsonal eta materialak eraginkor kudeatzea bultzatzen duen esparru batean.

03 Hezkuntza ekitatea eta gizarte kohesioa mesedetu, egoera ahuleneko inguruneetako ikastetxeei, atzerriko jatorria duten ikasleen ehuneko handi dutenei, lehentasuna emanez. Enfasi berezia jarriko da euskal hezkuntza sisteman sartu berri diren ikasleengan eta aniztasun soziokultural handiko ikastetxeetan proiektu berritzaileak ezarriko dira, inklusiozko eskola baten esparruan ikasle migratzaileen arretarako plan berri bat garatuz eta atzerriko jatorria duten ikasleak eskolaratzearen azterketa diagnostikotik eratorritako ekimenen bitartez, jokaera onak sortuz eta hedatuz..

EAJk Magnet-Erakarri programaren garapena planteatzen du, aniztasun soziokultural handiko ikastetxeen eta hezkuntza proiektu berritzailea, kalitatezkoa eta familientzat eta hezkuntza komunitatearentzat erakargarria garatzea asmo duten erreferentziazko instituzioen artean aliantza estrategikoak sortzea helburu baitu. Bere ingurunean erreferentzia bihurtuko den proiektu bat, eta, aldi berean, ikasleen ikasketa arrakasta hobetzen lagunduko duena.

04 Hezkuntza sisteman orekaz, ekitatez eta gardentasunez sartzea bermatu. Jaiotza tasa jaitsi denez, hezkuntza eskaintzaren plangintzan efizientzia handiagoa bultzatu, eskola mapa eguneratuz, bestelako neurriak hartzeaz gain.

- 05** Gaitasun handiko ikasleekin esku hartzea sistematizatu eta hezkuntza komunitatea sentsibilizatu. EAJk Gaitasun Intelektual Handiko Ikasleen Hezkuntza Arretarako Plana garatzea proposatzen du, ikastetxeetan identifikazio prozesuak sistematizatzeko helburuz, eskola umeen gutxienez % 2,5 detektatzea lortzeko, eta ikasle horiei egiten zaien esku hartzea eta ematen zaien erantzuna hobetzeko.
- 06** Inolako diskriminaziori biderik emango ez dion bizikidetza positiborako balioetan hezte bultzatu, eta eskola hezkidea indartu. EAJk “Euskal hezkuntza sistemarako hezkidetza plana, berdintasunaren eta tratu onaren bidean 2023” planaren helburuak ezartzea planteatzen du. Era berean, eskola jazarpenaren aurkako prebentzio eta esku-hartze neurriak indartu **“BIZIKASI ekinbidea”** erabiliz.
- 07** Haurrentzako eskaintza handitu, udalerriekin elkarlanean, 0 eta 2 urte bitarteko eskolaratze goiztiarrean aurrera eginez. Gainera, familiei laguntzak eman familia bizitza hobeto uztartzeko eta lan munduratzea mesedetzeko, arreta berezia eginez landa eremuei. EAJren helburua postu eskaera guztiei arreta egitea da, eta aurrera egitea bitartekak malguagotzen, errenta txikiena duten familien kuotak gutxitu ahal izateko.
- 08** Toki erakundeekin elkarlana bultzatu, hezkuntza ekitatea eta gizarte kohesioa bultzatzeko. Familien eta hezkuntza-eragileen ardurakidetasuna indartu ikastetxeko hezkuntza proiektuetan, bereziki egoerarik ahulenean dauden inguruneetan, gizarte eta hezkuntza proiektuetan inplikatur, horretarako ikastetxea gaindituko duten neurriekin ekintza hitzarmenak bultzatuz, eta lurralde historiko bakoitzean ekinbide berriak ezartzeko helburuarekin.
- 09** Ohitura osasungarriak bultzatu eta profil konplexuko ikasleekiko esku hartzeari ekin, bai osasun mentalaren esparruan bai gaixotasun kronikoen eta gaixotasun arraroenean, Osasun Sailarekin elkarlanean.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

3. KONPROMISOA

ARDATZ NAGUSIA EUSKARA DUEN ESKOLA ELEANIZTUNA GARATU.

EKINBIDEAK

01

EAJk hizkuntzen Europako esparruko mailak eskuratzea bermatuko duten diagnostikorako eta metodologia berriak ezartzeko plan bat bultzatzea planteatzen du, euskaraz komunikatzeko kompetentzian.

02

Ikastetxe guztietan hizkuntza proiektuak hedatu eta garatzea, bakoitzaren errealitate soziolinguistikoaren arabera, euskara ardatz nagusi izanik, hizkuntzen tratamendu oso eta integratuaren esparruan, bai hizkuntza normalkuntzako planak bai irakurketa planak erantsiz.

03

Ingeleseko prestakuntzaren hedapena bultzatu, eta, gutxienez, atzerriko bigarren hizkuntza batena, gaiak ingelesez ematen dituzten ikastetxeen % 20 gehituz.

04

Hizkuntza ofizialen prestakuntza programak ezarri, batez ere euskararenak, atzerriko ikasleen edo hasi berrien harrera eta egokitzapena sustatzeko, hizkuntza eta komunikazio gaitasuna garatzeko eta Hizkuntzen Europako esparruaren A2 maila lortzeko, horrela ikaskuntza prozesua errazteko eta, beraz, oinarrizko kompetentziak egoki lortzeko. Prestakuntza ekinbideak diseinatu eta irakasmaterialak landu.

05

Euskararen erabilera areagotzeko eta euskal kulturaz gozatzeko balio duten aisiako, osagarriko edo eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzea bultzatu hezkuntza komunitatearekin lankidetzan.

06

Irakasleek hizkuntzetan duten konpetentzia hobetzeko neurriak hartu. Ikastetxeetako irakasleen prestakuntza sendotu, Prest-Gara programaren deialdia indartuz.

07

Hezkuntza Saileko laguntza zerbitzuetakoak eta prestatzaileak hizkuntzen didaktika egokituan berariaz prestatzeko eta horien euskara indarberritzeko plan bat diseinatu eta aplikatzea.

08

EAJk jarrera positiboak sustatzea eta esparru eleaniztunean euskararekiko konpromisoa hartzea planteatzen du, guraso elkarteekin elkarlanean. Familiak ikastetxeko hizkuntza proiektuan inplikatu, eskumen soziolinguistikoen esparrua bultzatuz.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

4. KONPROMISOA

ERALDAKETA TEKNOLOGIKO-DIGITALAREN GARAIAN HEZKUNTZA SISTEMAREN MODERNIZAZIOA BULTZATU. ESKOLA, BERTZAILE, MODERNO ETA SORTZAILE BAT

EKINBIDEAK

01 IKTen integrazio pedagogikoa indartu, hezkuntza komunitateak baliabide digitalak erabiltzea bultzatuz, ezagutzan oinarritutako gizarte kohesionatu eta interkonektatu batean konpetentzia maila handiena bermatzeko, baina erabilera arduratsurako pasahitzekin. EAJk digitalizazio plana berehala ezarri eta garatzea proposatzen du, ekipamenduak eta instalazioak modernizatuz, ikastetxeak sareko ikastetxe bihurtuz, azken belaunaldiko konektagarritasun bizkor eta seguruz hornituta. Irakasle eta ikasleen identitate digital bakarra planteatzen da, ekipamendu moderno eta egokia duena, irakasleen konpetentzia digitala errazteko eta irakaslea ikaskuntza errazten duena bihurtzen laguntzeko, teknologia berriak batez ere euskaraz aprobetxatuz. Era berean, digitalizazio planaren esparruan, hezkuntza baliabide digitalen plataformak indartuko dira.

Ikastetxeek euren digitalizazio plana landu dezaten bultzatzea, euren ikaskuntza birtualeko plataforma garatzeko, eta IKTen heldutasun mailetan aurrera egin ahal izateko.

02 Sormena eta berrikuntza areagotu, zehar-konpetentziak eskuratzea sustatuz, hala nola, konpetentzia digitala, ikasten ikasteko gaitasuna, ekimenaren eta izaera ekintzailearen indarra eta gizarte eta kultura kontzientzia. Konpetentzia digitala irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren ardatz gisa txertatu. Urruneko Euskal Hezkuntza Institutua indartu.

03 Eraldaketa metodologikoa indartu, irakasleria giltzarri dela, konpetentzien araberako heziketan aurrera jarraitzeko, berrikuntza gehituz eta ikaslea irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuaren erdigunean kokatuz. Ingurune birtualen sorkuntzarantz aurrera egin, Internet bidezko ikaskuntza erabiltzen duten proposamen metodologikoak konbinatuaz

04 Hezkuntza eta prestakuntza zientifiko-teknikoa bultzatu, STEAM bokazioak hezkuntzaren etapa guztietan sustatuz, arreta berezia eginez neskei. EAJk STEAM Euskadi Estrategia indartu eta garatzea planteatzen du. Helburua da gutxienez ikastetxeen % 80k STEAM proiektuak diseinatu eta garatzea. Horretarako STEAM-Sare indartuko da, hezkuntzako STEAM proiektuak elkarlanean bultzatuko dituen eskola eta eragile sarea.

05 Sareko lana bultzatu hezkuntzako laguntza zerbitzuen, ikastetxeetako irakasle orientatzaileen eta unibertsitateetako artean, ikasleen arreta hobetzeko, haien orientazio akademikoan eta etorkizun profesionalean.

06

Garapen iraunkorreko hezkuntza sustatu ikuspegi eraldatzaitetik eta ekintzara orientatutako ikuspegitik, inklusio eta ardurakidetasun printzipioetan oinarrituta, eta garapen iraunkorreko helburuetan ikasleei izendatzen zaizkien oinarrizko kompetenziak garatzen curriculumetik eraginez.

07

Ebaluazioaren kultura sustatu, eta ebaluazioetako emaitzak hobetzearena. EAJk ebaluazio sistema propio bat garatzea proposatzen du, eta lortutako emaitzak hobetzeko proposamenak diseinatu eta jarraipena egitekoa.

08

Irakurritzko ulermena eta konpetentzia matematiko eta zientifikoa hobetzeko programak bultzatu, errendimenduaren maila apalenetan dauden ikasle kopurua gutxitzeko eta maila altuenetan kokatutakoen ehunekoa handitzeko helburu hartuta, eta baita Ebaluazio Diagnostikoen eta kanpokoen emaitzak hobetzeko.

09

Irakaskuntza artistikoak indartu (eszenikoak, artistikoak, diseinukoak eta musikalak), eta ikastetxe eta eskoletan beste eragile eta erakundeekin koordinatzea eta elkarlanean aritzea ere indartu, irakaskuntza bakoitzean ibilbideak artikulatuz eta orientatuz.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

5. KONPROMISOA

IRAKASLEAK SISTEMAREN ERALDAKETARAKO ERAGILE NAGUSI GISA AHALDUNDU ETA INDARTU, PREMIA ETA IKASBIDE BERRIAK DITUEN IKASLERIARI ERANTZUTEKO.

EKINBIDEAK

- 01** EAJk irakasleen hasierako eta etengabeko prestakuntza eguneratu eta sustatzea proposatzen du. Helburua da haien konpetentzia profila hezkuntzako jomugetara eta ikasleen irteerako profilerara egokitzea, eremu digital, linguistiko, emozional eta pedagogikoan eraginaz, gure hezkuntza sistemaren aniztasunari eta kulturartekotasunari erantzuna eman ahal izateko, gure Euskal Unibertsitate Sistemarekin eta beste eragileekin elkarlanean, prestakuntza dualagoa bultzatuz
- 02** Irakasleen eta ikastetxeetako hezkuntza-pertsonalaren egonkortasuna hobetu klaustro egonkorragoak bermatuz, ikasleen premia eta ikasbide berrien hobekuntzan eta erantzupenean lagundu dezaten. Hori guztia, eskola komunitateak elkarrekin duen hezkuntza proiektuaren esparruan.
- 03** Sistema publikoko irakasleen eta hezkuntzako pertsonalaren bitartekotasuna gutxitzen jarraitu, EEP berrien bidez kalitatezko enplegua sortuz, kidegoen deialdiak urtez urte txandakatuz eta bitartekotasun estrukturala 10 puntu murrizteko helburura hurbilduz.
- 04** Hobekuntza arloak identifikatu ahal izateko irakasle funtzioaren ebaluazioa indartu eta garapen profesionalak eskatzen dituen laguntzak eta neurriak programatu.
- 05** EAJk irakasle funtzioaren ospea indartzea planteatzen du gizartearekin, hezkuntza komunitatearekin eta hezkuntza administrazioarekin konpromisoa hartuz eta ardurakidetasunez.
- 06** Irakasleen lanpostu zerrendak behar den profilerara egokitu, eskola inklusiodun, eleaniztun, berritzaile eta moderno baten premia berrien arabera.
- 07** Irakasleen eta Administrazioaren arteko komunikazioa erraztuko duten eta lanpostuak betetzea bizkortu eta gardentasuna bermatuko duten tresnak bultzatu.
- 08** Beharren duten ikastetxeei laguntza zuzkidura handitu, Hezkuntza Premien Indizearen arabera (HPI).
- 09** EAJk akordioak bilatzeko bidean lanean jarraitzea proposatzen du, elkarriketa eta negoziazioa erabiliz gizarte-eragileekin, garapen profesional hobea lortze aldera.

6. KONPROMISOA

IKASTETXEEN AUTONOMIA HANDIAGOA GARATZEN AURRERATU

EKINBIDEAK

01


Prestakuntzaren eta zuzendaritza funtzioa profesionalizatzearen bide ikastetxeetako zuzendaritzaren lidergoa bultzatu.

02

Ekimen berritzaile berak dituzten ikastetxeen sareak indartu eta sortu. "Partekatuz ikasi" programa indartu. Esperientzia berritzaileetan ardurakidetasun konpromiso osagarriak dituzten ikastetxeen sare mistoak sortu.

03

Ikastetxearen eta Administrazioaren artean hezkuntza proiektuan oinarritutako ardurakidetasun hitzarmenak bultzatu. EAJk hitzarmen hau ikastetxearen autonomian eraginkortasun handiagoz aurrera egiteko tresna moduan planteatzen du, eta lurralde bakoitzean gutxienez 2 ikastetxek ardurakidetasun hitzarmenak ezartzea lortu nahi du.



LANBIDE HEZIKETA

IKASLEEN % 60EK LANBIDE HEZIKETA DUALA
EGIN DEZAN LORTZEA INDUSTRIA ARLOAN

■ Bikintasunezko eredu pedagogikoa. Errendimendu handiko Lanbide Heziketa.

Teknologia esparru guztietan modu esponentzian sartu da, eta bereziki lan munduan; gainera, zahartzen ari gara eta pertsonen batez besteko bizialdia luzatu egin da, mundu mailan lan lehia handitu da, eta “ekonomia berdea” bultzatu behar da; horrek guztiak gazteentzako ezagutza berritu eta erakarria eskatzen du, baina, lan sektore bakoitzerako konpetentzia espezifikoa eta zehar-konpetentziak eskuratuz eta garatuz, aukera emango diena bai lan munduan txertatzeko bai goragoko kualifikazioak eskuratzeko, bizitzan zehar ikastera argi orientatuta. Euskal Lanbide Heziketa gizarte-kohesioan aurrera egingo duen, aniztasunari erantzuneko dion eta gizarte aurreratu bat eraikitzekeo talentua eta ezagutza sortuko dituen eredu baten garapenean sakontzen du.

■ Lanbide Heziketaren eta euskal enpresa ehunaren artean loturak estutu.

Laugarren Iraultza Industrialak beste faktore sozioekonomiko eta demografiko batzuekin interakzioan ari da, eta, gure enpresetan ekoizpen ereduak aldatu egingo denez, horrek aldaketa handiak ekarriko ditu lan merkatuetan. Teknologiaren eboluzioa eta digitalizazioa lanpostu batzuk eraldatzen joango dira epe labur eta ertainean, eta lanbide berriak sortuko dira. Lanbide horiek sormen eta malgutasun handiagoa beharko dute. Ildo horretan, eskatzen diren trebetasun multzoak, bai lanpostu berrietan bai betikoetan, aldatu egingo dira enpresarik gehienetan eta pertsonen lan egiteko modua eta lan egiteko lekua aldatu egingo da. Testuinguru horretan, EAJk uste du Lanbide Heziketak aurrean daukala gaitasun berriak garatzea ahalbidetzeko erronka eta pertsonen euren konpetentziak etengabe eguneratzera bultzatzea. Horretarako, Lanbide Heziketako ikastetxeen eta enpresen arteko elkarlan estua funtsezkoa da.

■ Etorkizuneko lanpostuei eta prestakuntza premiei aurrea hartzea.

Gure enpresen lehiakortasunaren geroan eta pertsonen enplegarritasunaren eragingo duten joerak identifikatu eta aztertu behar ditugu, eta joera horiei erantzuneko dieten prestakuntza mota eta premiak ezarri.

EAJren helburua pertsonak gure ekoizpen ehunaren benetako beharretarako uneoro prestatuta edukitzea da. Horrek helburu hori lortzeko behar den prestakuntzaren diseinua aurretiaz landu behar dela dakar.

■ Lanbide Heziketa berrikuntzaren zerbitzura eta “RIS 3 Euskadi” Espezializazio Adimentsuko Estrategiaren ildotik.

Lanbide Heziketako euskal ikastetxeen sarearen eta euren elkarlanerako sareen kapilaritateari esker, ETEei hurbileko eragile gisa lagundu diezaiekete eta euren aplikatutako berrikuntza bultzatzeko aukera dute. Ikastetxeek, enpresekiko elkarlan dinamikan, berrikuntza aplikatuari laguntza zerbitzuak eskaintzen dizkiete, enpresen arazo teknologikoei erantzuna ematera orientatuta. Berrikuntza sistemak aukera berriak sortzerako eta enplegua sortzerako errazterako bideratzea da ikastetxeen etorkizuneko erronka. Horretarako, EAJk produktu berriak sortzeko aukerak eta ekoizpideak hobetu eta aldatzeko aukerak modu proaktiboan identifikatu beharra planteatzen du, bai eta enpresen lehiakortasuna eta pertsonen enplegarritasuna hobetzen lagunduko duten jarduerak goraka datozen sektoreetan identifikatu beharra ere. Beti Euskadin martxan jarri den “Espezializazio Adimentsuko Estrategia” erreferentzia hartuta. Etorkizunak Lanbide Heziketako ikastetxeen eta enpresen elkarlana are gehiago estutzea eskatzen du berrikuntza proiektuetan, gero eta konplexutasun tekniko handiagoa edukiko duten eta zenbait ezagutza arlo konbinatzea eskatuko duten proiektuetan.

■ Nazioarteko proiektzioa.

Garatu den estrategiak, nazioartean bikaintasuna erakustea oinarri izan duenak, Euskadiko Lanbide Heziketa mundu mailan erreferentzia izatea lortu du.

Prestakuntzaren arloan zabaltzen diren etorkizuneko perspektibek eta gure sistemara talentua erakarri beharrek gure sistema indartzeko azpiegitura berri bat taxutzea oinarri duen proposamen sorta bat formulatzera eramane gaituzte. Horrela, LHko nazioartekotze estrategiak, nazioarteko foroetan parte hartuz, Europako Batzordearekin elkarlan estuan, eta bost kontinenteetako herrialdeekin harremana izanik, “Basque Country” marka kanpoan indartzen laguntzen du, eta gure lurraldera talentua erakartzea ahalbidetzen eta indartzen ere bai, zenbait sektoretako gaituntza aurreratuko hainbat eskaintzaren bitartez.

■ Emakumea ziklo profesional industrialetan sartzea.

Gure gizartearen aurrerapenean berdintasuna sustatzeak hartu duen garrantziak aldaketa garrantzitsua dakar pertsonen hainbat lanbide esparrutan parte hartzeari buruz duten ikuspegian. Lanbide Heziketako ikasketetan eta, zehazki, ziklo industrialetan emakumearen parte-hartzea bultzatzea lehentasun bilakatu da. Horretarako, EAJren konpromisoa Lanbide Heziketaren sektore estrategikoko eta berritzaileenetan sartzen den emakume kopurua handitzea da.

■ Pertsona aktiboen egokitzapena eta birziklatzea.

Teknologia arin garatu izanak, digitalizazioaren aurrerapenak eta sistema adimentsuen ezarpen progresiboak profesionaltasun askoz konplexuago baterantz eboluzionatzera eramango dute enplegarritasuna. Hezkuntza sistemako Lanbide Heziketak ikaskuntza metodologiak eraldatu ditu heziketa hori jasotzen duten neska-mutuek euren lana ingurune konplexuetan egin ahal izateko behar dituzten konpetentziak eskuratu ditzaten. Berdin beharrezkoa da lan munduan ari diren pertsonen ere konpetentzia berri horiek berenganatzea, aurreikusten diren eraldaketek eragiten dituzten egoera berrien aurrean euren lana arazo handirik gabe egin ahal dezaten.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

1. KONPROMISOA

EUSKAL LANBIDE HEZIKETAREN GAITASUNAK HOBETU, ERRENDIMENDU HANDIKO EREDU PEDAGOGIKOAK GARATUZ.

EKINBIDEAK

— EAJk Euskadiko Lanbide Heziketako “errendimendu handiko heziketa zikloen” ereduaren ezarpena hedatzea planteatzen du, gutxienez, Lanbide Heziketako eskaintza guztiaren % 70era iritsi arte. Ekinbide hau aurrera eramateak ekintza hauek hartzen ditu:

01

■ Errendimendu handiko zikloen eredia osatzen duten elementu guztiak integratu, pertsonen konpetentziak hobeto garatzeko.

■ Irakasleen prestakuntza indartu, Lanbide Heziketan aldaketa eta transformazioa finkatzeko behar diren gaitasun eta ahalmen berriak garatzea bilatuz.

— ■ Zuzendaritza taldeak ikaskuntzetako aldaketa metodologikoagatik sortzen diren premiekin lerrokatu.

02

Ikastetxeen eta sistemako eragileen artean esperientzia arrakastatsuek eta elkarlan sareak bultzatu, ikaskuntza eredu berriak orokortzea bizkortzeko eta errazteko.

03

“Eboluziorako ebaluazioa” eredia bultzatu, prestakuntza ikasleen bilakaeraren bitartez eta jarritako erronkak betez ebaluatzeari lehentasuna ematen dion eredu baterantz joateko, kalifikazio bidezko ebaluazio hertsiauren aurka.

— Lanbide Heziketaren ikaskuntza prozesuetan balioak txertatzen dituzten eredu pedagogikoak garatu. EAJk ekimen hau ekintza hauen bidez aurrera eramatea planteatzen du:

04

■ Laugarren Iraultza Industrialak planteatzen dituen erronketan giza dimentsioa indartuko duten ikaskuntza ekintzetan integratutako eredu pedagogikoak txertatu.

■ Lanbide Heziketan talentu indibiduala eta kolektiboa aktibatu, ikaskuntza ereduan sormena garatuz eta emozioen kudeaketa prozesuak txertatuz.

■ Ikaskuntza prozesua errazteko tresna berriak indartu, pertsonen garapena eta ingurunearekiko konexioa aberastu dezaten.

— ■ Ikaskuntza Adimentsu kontzeptu berrian behar diren konpetentziak garatu.

2. KONPROMISOA

BIZITZA GUZTIAN IKASTEAN LANBIDE HEZIKETAREN BITARTEZ BULTZATU, ENPLEGURAKO BALIO DUTEN IBILBIDE MALGUAK EZARRIZ.

EKINBIDEAK

01

Enplegurako Lanbide Heziketa euskal ekoizpen ehunaren benetako beharretara egokitu.

02

Lanbide Heziketa laugarren Iraultza Industrialak eskatzen dituen kompetentzia eta kualifikazio berriekin eguneratu, bereziki eragonez pertsona aktibo landunak birziklatzeari, kualifikazio maila horiek eguneratuz eta areagotuz, Lanbide Heziketako ikastetxeen eta enpresen elkarlanaren eta hitzarmenaren bidez.

03

Langile landunentzat lehentasunez zuzendutako ikaskuntza metodologia berriak progresiboki ezarri, metodologia horiekin euskal ekoizpen ehunean progresiboki gertatuko den eraldaketan behar diren kompetentzia berriak eskuratu, indartu eta finkatu ahal ditzaten.

04

Lanbide Heziketa guztirako zuzendaritza organo bakarra sortu, Lanbide Heziketaren arloan politika publiko guztien diseinua, garapena, antolamendua eta plangintza orokorra egiteko ardura har dezan. Horrela, Lanbide Heziketa sistema koherente bat eratuko da, hezkuntza eta lan arloen artean dagoen ohiko zatiketa gainditzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 28ko 4/2018 Legearen arabera.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

3. KONPROMISOA

BERRIKUNTZA TEKNOLOGIKO APLIKATUA ETA 4.0 INDUSTRIA ADIMENTSURAKO TRANTSIZIOA SUSTATU.

EKINBIDEAK

- 4.0 Ingurune Industrialetan berrikuntza egin, jasotako ezagutza euskal Lanbide Heziketaren balio katera transferituz. Horretarako, EAJk ekintza hauek gauzatzea planteatzen du:
 - Teknologia aurreratuen erabilera ezarri Lanbide Heziketako ikastetxeetan, irakasleen eta ikasleen ingurune konplexuetako kompetentziak hobetzeko.
- 01 ■ Berrikuntza proiektuak Lanbide Heziketako ikastetxeetan, oraingo eta etorkizuneko ekoizpen prozesuei estaldura emateko eta horietan behar diren gaitasunak garatu ahal izateko. Helburua LHko ikastetxeetan gutxienez berrikuntzako 200 proiektu garatzea da.
- Lanbide Heziketatik ETEei eta MikroETEei aplikatutako berrikuntza garatu.
- Lanbide Heziketan goraka doazen eremuetako ikerketa indartu, Jaurlaritzaren Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren ildotik.
- EAJk Lanbide Heziketako lehentasun teknologikoak eguneratzea eta RIS3 Espezializazio Adimentsuko Euskal Estrategiarekin lerrokatzea planteatzen du. Horretarako, ekintza hauek garatuko dira:
 - Ikastetxeen ahalmenak enpresen zerbitzura, bereziki ETEen zerbitzura, jarri TKGUNEen bidez, berrikuntza aplikatuko proiektuak garatuz produktueta eta ekoizpen prozesuetan. Helburua berrikuntza aplikatuko 2.500 proiektu egitea da, 1.800 enpresarekin.
- 02 ■ Berrikuntza aplikatuko proiektuak aurrera eramaterakoan enpresekin egindako elkarlanaren bidez jasotako gaitasun eta ezagutzak Lanbide Heziketako ikastetxeetara transferitzen direla ziurtatu.
- Zenbait sare nodoren bitartez, Euskadiren berrikuntza politikak zehazten dituzten lantaldeetan parte hartu, Lanbide Heziketaren ikuspegia txertatzeko. EAJk gutxienez 16 sare nodo desberdin ezartzea proposatzen du, gutxienez Lanbide Heziketako 128 ikastetxek parte hartuta.
- Lanbide Heziketan ikerketa eta berrikuntza aplikatua garatzen duten proiektuetan enpresa aurreratuekin, teknologia zentroekin, kluster, unibertsitate eta nazioarteko erreferentzia diren beste batzuekin elkarlanean aritu.
- Errendimendu handiko 4.0 Lanbide Heziketako ikastetxeak garatu. Horretarako, EAJk ekintza hauek gauzatuko ditu:
 - Lanbide Heziketako ikastetxeetako lantegi eta laborategiak progresiboki 4.0 espazio adimentsu bihurtu.
 - Errealitate areagotua, errealitate birtuala eta errealitate mistoa Lanbide Heziketako ikaskuntzetan ezartzen aurrera egin.
- 03

- Ikertu eta elkarrekintza ikasgela, murgiltze ikasgela eta errealitate birtualeko ikasgela eredu berri bana diseinatu, eta Lanbide Heziketako 10 ikastetxetan jarri hasierako proiektu pilotu gisa, gero hedatzeko.
- Gauzen Interneten (IoT) ingurunea eta sistema adimentsuak Lanbide Heziketaren ikaskuntzetan sartu.
- 3D inprimatzearen eremuan esperimenezkoak eta garapena indartu, 4 esparru garrantzitsutan: Industria, osasuna, gastronomia eta ehungintza, gutxienez Lanbide Heziketako 35 ikastetxek parte hartuta.

Ingurune konplexuetan lan egiteko konpetentziak hobetzera zuzendutako oraingo eta etorkizuneko aplikazio digitalen erabilera ezarri, Lanbide Heziketako ikastetxe guztietan. Horretarako, EAJk ekintza hauek planteatzen ditu:

- Visual Thinking, Flipped Classroom, 4.0 web tresnak, ElkTen integrazioa edo Big Data oinarri dituzten tresna berrien eta automatizazioaren eta hodeiko lanaren erabilera bultzatu.

04

- Zibersegurtasuneko eta irudi digitalaren garapeneko prozedurak ezarri Lanbide Heziketako ikastetxe adimentsuetan.
- Ikaskuntza espazio adimentsuak erabili, Lanbide Heziketa ikasten duten pertsonengan konstruktibismoaren pentsaera, sortzeko ahalmena eta adimen exekutiboa bizkortzeko.
- Ikaskuntza eremuak diseinatu eta ingurune pizgarri, malgu eta funtzional bihurtu, ikasteko metodologia aktibo berrietara egokituta.

- Irudimena eta sormena bizkortzen eta talde lana indartzen duten eremuak sortu.

Lanbide Heziketako ikastetxe guztietan teknologia aurreratuen erabilera eta sistema adimentsuen garapena eta erabilpena bultzatu. Horretarako, ekintza hauek gauzatuko dira:

- Lanbide Heziketan adimen artifizialaren erabilera aurrera egin.
- Lanbide Heziketarako informazio garrantzitsua bilduko duen Big Data bat sortu, eta analisirako eta datuak kudeatzeko tresna aurreratuak erabili.

05

- Lanbide Heziketako ikastetxeetan 4.0 inguruneekin erlazionaturako teknologiak sartu, eta automatizazioan, sentorizazioan eta robot laguntzaileen erabilera aurrera egin.

- 4.0 biltegi adimentsuak eta 4.0 lantegi adimentsuak Lanbide Heziketako ikastetxeetan ezartzea hedatu.

- Eraikingintzaren, zehaztasuneko nekazaritzaren eta topografiaren arloetan aireko eta itsaspeko droneak erabiltzeko teknologia aurreratuen erabilera indartu.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

4. KONPROMISOA

GARAPEN IRAUNKORREKO HELBURUEKIN LERROKATUTAKO LANBIDE HEZIKETA.

EKINBIDEAK

— EAJk ikerketa zientifikoa eta berrikuntza aplikatua nekazaritzaren elikadura iraunkorraren, izadiaren eta itsas inguruaren sektoreetan garatzea planteatzen du, sektore horiekin erlazionatutako lau familia profesionaletako heziketa zikloak ematen dituzten Lanbide Heziketako ikastetxe guztietan. Horretarako, ekintza hauek gauzatuko dira:

01

- Lanbide Heziketan ekonomia zirkularreko ereduak ezarri, bioekonomia aplikatuan oinarritutako ereduak hobetuz eta baliabideak optimizatuz.
- Bioekonomiaren eta lotutako sektoreen arloan ingurune estratejikoak eta espezializazio arloak ezarri, jatorri biologikoko baliabideen erabileran oinarritutako jardueren efizientzia eta iraunkortasuna hobetuz.
- Lanbide Heziketako ikastetxeetan enpresak sortzea areagotzeko proiektuak garatu, eta bioekonomiarekin erlazionatutako merkatuak zabaldu.
- Lanbide Heziketan bioekonomia aplikatuko lehen sarea sortu.
- Enplegu sorkuntza eta ekintzailtza mesedetu, hazkuntza iraunkorrekarekin zerikusia duten jardueretan.
- Lanbide Heziketako ikastetxeen eta enpresen artean bioekonomia arloko proiektuak sortu.
- Lanbide Heziketako ikastetxeen eta enpresen artean ekintzak dinamizatu, eta nekazaritzako elikaduraren balio katearen ziklo osoa hobetuz lehen sektorearen ingurumen iraunkortasunari balioa eman.

— ikerketa zientifikoa eta berrikuntza aplikatua Lanbide Heziketan eraikingintza adimentsuaren eta eraikuntza iraunkorraren sektoreetan garatu, sektore horiekin erlazionatutako sei familia profesionaletako heziketa zikloak ematen dituzten Lanbide Heziketako ikastetxe guztietan. Horretarako, EAJk ekintza hauek planteatzen ditu:

02

- Ezagutza espezializatu berriak, eraikingintza adimentsuan eta eraikuntza iraunkorrekarekin enplegarritasunak dituen eskakizunetara egokituak, garatu.
- Lanbide Heziketako ikastetxeen eta enpresen artean elkarlanerako eremu bat eraiki eraikingintza adimentsuan eta eraikuntza iraunkorrekarekin.
- Lanbide Heziketan hiriberritzea eta hiri zaharberritzea bultzatu, iraunkortasun irizpideak, eraikingintza adimentsua eta pertsonen osasunaren hobekuntza kontuan hartuta.
- Eraikuntza sistema industrializatuak ezagutu eta garatzera zuzendutako gaikuntza ekintzak ezarri, eta eraikuntza iraunkorrekarekin hondakinak balioztatu eta aprobetxatzea.
- Lanbide Heziketan lehen Smart-Green Buildings-Iraunkortasun Adimentsua Plataforma sortu, elkarrekiko harremanetarako eta ezagutza eta esperientziak trukatzeko, eraikin adimentsu eta iraunkorrekarekin erlazionatutako sektore guztien artean.

5. KONPROMISOA

OSASUNAREN ETA BIOZIENTZIEN ESPARRUA BULTZATU LANBIDE HEZIKETAN, EUSKADIKO ESPEZIALIZAZIO ADIMENTSUKO ESTRATEGIAREN LEHENTASUNETAKO GISA.

EKINBIDEAK

01

ikerketa zientifikoa eta berrikuntza aplikatua osasunaren eta biozientzien arloetan garatu, sektore horiekin erlazionatutako sei familia profesionaletako heziketa zikloak ematen dituzten Lanbide Heziketako ikastetxe guztietan.

02

Giza osasunaren segmentuan zehar-diziplina gisa biozientziak eta bioteknologia ikastea bultzatu, immunoterapia, bioinprimatze, terapia geniko eta birsortze medikuntzako teknikekin.

03

Lanbide Heziketaren hainbat arlotan lan egin pertsonen ongizatea eta zahartze aktibo eta osasungarria hobetzeko, adimen artifizialean eta sistema adimentsuetan oinarritutako teknologia aurreratuak erabiliz.

04

Osasunaren, ingurumen iraunkortasunaren eta biozientzien esparruan goraka datozen sektoreetan espezializazio arloak ezarri.

05

Lanbide Heziketako ikastetxeak esparru soziosanitarioari dagozkion familia profesionalekin harremanetan jarri, biozientzien eta osasunaren ekosisteman berrikuntza aplikatuko trebetasunak eskuratu eta hobetzeko helburuz.

06

EAJk Lanbide Heziketako ikastetxeetan ekintzailtza programen bidez bioenpresen sorkuntza sustatu eta bultzatzea planteatzen du.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

6. KONPROMISOA

LANBIDE HEZIKETAKO IKASKETETAN EMAKUMEA SARTZEA INDARTU, BEREZIKI ADAR INDUSTRIALETAN.

EKINBIDEAK

01

EAJk Lanbide Heziketako ikasleen profesionalizazioan STEAM estrategia bultzatu eta indartzearen hautua egiten du, eskainitako Lanbide Heziketako zikloen % 70ean, emakumezko ikasleei arreta berezia eskainiz

02

Lanbide Heziketako ikastetxeen eta enpresen arteko aliantzak garatu, jarduera industrialetan emakumeen kontratazioa areagotzeko.

03

Lanbide Heziketan ikastetxeetan emakumeen eta gizonen berdintasunerako diagnostikoak eta planak lantzea bultzatu.

04

Lanbide Heziketako ikastetxeen artean esperientziak trukatzeko sare bat sortu, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun politikak garatze aldera.

05

Lanbide Heziketako ikastetxeetan berdintasun ekintzak garatzen laguntzeko materialak prestatu.

7. KONPROMISOA

ETORKIZUNARI AURREA HARTUKO DION LANBIDE HEZIKETARANTZ AURRERA EGIN.

EKINBIDEAK

01

EAJk Etorkizuneko Ikaskuntzen Behatoki bat martxan jartzea planteatzen du.

02

Etorkizuneko lanekin zerikusia duten lanbide profil berriak zehaztu, enpresekin, Lanbide Heziketako ikastetxeekin eta beste antolakundeekin elkarlanean.

03

Etorkizuneko prestakuntza premiak aurretiaz ezarri, datozen urteetan beharko diren kompetentziak eta kualifikazioak zehazteko helburuz.

04

Zehazten diren etorkizunerako ikaskuntzei buruz irakasleentzako gidaliburu eta eskuliburuak egin.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

8. KONPROMISOA

ERRONKA DEMOGRAFIKO BERRIEI ETA DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEI ERANTZUNA EMANGO DIEN LANBIDE HEZIKETA.

EKINBIDEAK

01

Pertsona migratzaileei egokitutako heziketa ibilbideak ezarri, hainbat lan egin ahal izateko behar diren kompetentziak berenganatu ahal izateko.

02

Desgaitasuna duten pertsonen egokitutako heziketa ibilbideak ezarri, desgaitasun mailaren arabera lan merkatuan sartzeko profesionaltasun egokia lortzen lagundu diezaien.

9. KONPROMISOA

TALENTUA ETA ENPRESA BERRIEN SUSTAPENA BULTZATU, LANBIDE HEZIKETAKO IKASTETXEEN INGURUNEAN.

EKINBIDEAK

01

Talentuaren mapa bat ezarri Lanbide Heziketan.

02

“Konpetentzia” kontzeptutik “talentu” kontzeptura aurreratu eta trantsizioa egiten lagundu.

03

Talentu indibiduala bultzatu pentsaera kritikoaren, konstruktibismoaren pentsaeraren eta pentsaera sortzailearen garapena sustatuz ezarritako heziketa zikloen % 70ean. Horretarako, EAJk ekintza hauek gauzatuko ditu:

- Lanbide Heziketan pentsaera mota eta adimen emozional eta exekutibo mota desberdinak landu.
- Sorkuntza konpetentziak garatzera eta sormena ikaskuntzaren ingurune guztietan aplikatzera zuzendutako programa espezifiko bat bultzatu.

04

Lanbide Heziketako ikastetxeetan urtean 100 enpresa berri sortzea bultzatu, euren tutoreak dituztela eta, ahal bada, Lurralde Garapeneko Agentziekin elkarlanean garatuta. EAJk URRATSBAT programa planteatzen du helburu hori lortzeko.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

10. KONPROMISOA

EUSKAL HERRIKO LANBIDE HEZIKETAREN IKERKETA ETA BERRIKUNTZA APLIKATUKO ZENTROA (TKNIKA) INDARTU.

EKINBIDEAK

01

Tknika, Lanbide Heziketaren Ikerketa eta Berrikuntza Aplikatuko Zentroa, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planean beste kide aktibo baten moduan sartu.

02

Lanbide Heziketak ikastetxeetan ikerketa eta berrikuntza teknologikoko prozesu berriak bultzatu, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko teknologia zentroekin eta eragileekin elkarlanean.

03

EAJk heziketa zentroetan digitalizazioa, konektagarritasuna eta teknologia aurreratuen erabilera bultzatzea planteatzen du, laugarren Iraultza Industrialaren ingurunean aurrera egin ahal dezaten, eta horretarako elkarlan sareak sortzea, Tknika osatzen duten arlo guztien bitartez.

04

Lanbide Heziketako ikastetxeetan kudeaketako berrikuntza prozesuak bultzatu, egitura malguagoak, dinamikoagoak eta parte-hartze handiagoak sortzeko, elkarlana, pertsonen konfiantza, ikastetxeen autonomia eta taldeak kudeatzeko gaitasuna oinarri dituztenak.

05

Lanbide Heziketan ikaskuntza inguruneak bultzatu, errealitate areagotua, errealitate birtuala eta errealitate mistoa baliatuz.

06

Berrikuntza teknologikoko eta ekoizpenera eta zerbitzuetara aplikatutako teknologietako ikastaro espezifikoak eskaini, Euskal Autonomia Erkidegoko, Estatuko eta nazioarteko Lanbide Heziketako irakasleei.

11. KONPROMISOA

LANBIDE HEZIKETAKO IKASTETXEAK BERRIKUNTZA, ALDAKETA, KONPLEXUTASUNA ETA PERTSONAK KUDEATZEKO GAI DIREN ANTOLAKUNDE ADIMENTSU BILAKARAZI.

EKINBIDEAK

- Lanbide Heziketako ikastetxeetan antolakuntza eredu berri batean aurrera egin, progresiboki antolakunde adimentsu izatera hel daitezen. Horretarako, EAJk ekintza hauek gauzatuko ditu:

 - 01 ■ Etorkizuneko profesionalen prestakuntza eta gaikuntzaren iraunkortasuna bermatuko duten egitura eta tresna berrietan lan egin.
 - Behar diren prozesu eta prozedurak garatu, ikastetxeei antolakunde adimentsuaren kontzeptu berri baterantz trantsizioa egiten laguntzeko.
 - Ikastetxeen antolaketa prozesuak malgutu, etorkizuneko behar eta erronkei erantzun egokiak ematen laguntzeko.

- Berrikuntza aplikatuaren kudeaketa eredu bat bultzatu, gutxienez Lanbide Heziketako 80 ikastetxetan. Horretarako, ekintza hauek gauzatuko dira:

 - 02 ■ Lanbide Heziketatik lau berrikuntza eremutan lan egin: Etengabeko berrikuntza, disrupziozko berrikuntza, moldaerazko berrikuntza eta intuiziozko berrikuntza.
 - Kudeaketaren esparrutik Lanbide Heziketako ikastetxeetan berrikuntzaren kultura bultzatzeari eta sormenari laguntza ematea.

- Aldaketaren kudeaketa eredu bat ezartzea gutxienez Lanbide Heziketako 42 ikastetxetan. Horretarako, EAJk ekintza hauek gauzatuko ditu:

 - 03 ■ Aldaketaren kudeaketa eredu bat ezarri, etorkizuneko erronkei erantzuteko behar diren egokitzeko, erreakzionatzeko eta aurrea hartzeko gaitasuna garatzen ikastetxeei laguntzeko
 - Ikastetxeetan aldaketaren estrategien figura bultzatu, Lanbide Heziketako ikastetxeetan ezartzen diren prozesuak gidatzeko arduradun moduan.
 - Lanbide Heziketako ikastetxeetatik Aldaketaren Kudeaketa Partekatuen bidez balioa sortzera zuzendutako elkarlan sareetan lan egin.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

— Elkarlan sareak sortu, konplexutasunaren kudeaketa garatzeko, Lanbide Heziketako ikastetxe guztiek parte hartuta. Horretarako, ekintza hauek gauzatuko dira:

04

- Lanbide Heziketako ikastetxeetan etorkizunari aurrea hartzeko estrategiak, berrikuntza kultura eta kudeaketa operatiboko sistema berriak garatzera zuzendutako antolakuntza arlo berriak ezarri, Lanbide Heziketako ikastetxeen inguruneetan dauden beharrei bizkortasunez erantzun ahal diezaieten.
- Zuzendaritza taldeak eta irakasleak konplexutasunaren kudeaketa eredu berri batean prestatu, horretarako eredu orokorra ikastetxe bakoitzaren ezaugarri eta beharretara egokitu.
- Konplexutasunaren kudeaketaren arloan ikastetxe bakoitzaren jokaera onenak identifikatu, erregistratu eta transferitu.
- Lanbide Heziketako ikastetxeei laguntzeko eta aholku emateko programak ezarri, eta, kasua bada, ikastetxeek enpresei, bereziki ETEei, konplexutasunaren kudeaketa eredia ezartzen.

— Pertsonen kudeaketa eredu bat ezarri gutxienez Lanbide Heziketako 42 ikastetxetan. Horretarako, EAJk ekintza hauek planteatzen ditu:

05

- Kudeaketaren esparrutik ikastetxea pertsonengan oinarritutako proiektu gisa ikustea bultzatu, ikastetxearen aurrerapena eta aurrerabidea hura osatzen duten pertsona guztien arrakasta partekatua den proiektu komun bezala ikustea.
- Ikastetxeetan gogobetetasun taldeak sortu, irakasleen ongizate eta motibazio mailari buruzko informazioa jasotzeko eta irakasleen hautemateen bitartez agertzen diren hobekuntzei erantzuna emateko behar diren neurriak bultzatzeko.

06

EAJk Lanbide Heziketako ikastetxeetan ezagutza kudeatzeko eredu bat planteatzen du, hiru elementutan oinarritutako Lanbide Heziketaren Big Datan berrmatuta: atzipena, informazio trukea eta ezagutza sortzea, horretarako prospektiba eta elkarlaneko zaintza garatuz.

07

Erabaki estrategikoak hartzeko informazio garrantzitsua hautatu, aztertu eta zabaltu, adimen lehiakorreko plataformen bidez, gutxienez Lanbide Heziketako 70 ikastetxetan.

08

Lanbide Heziketaren Big Data bat garatu eta abian jartzea.

12. KONPROMISOA

NAZIOARTEKO PROIEKZIOA DUEN EUSKAL LANBIDE HEZIKETARANTZ.

EKINBIDEAK

01

EAJk Lanbide Heziketaren nazioartekotze eredua bultzatu eta indartuko du, hainbat proiektu garatzeko harreman bat ezarriz, gutxienez 5 kontinenteetako 75 herrialderekin.

02

Europako erakundeekin eta Europako Batzordean Lanbide Heziketaren erantzukizuna duten arduradunekin elkarlanean sakondu.

03

Europako Batzordearekin elkarlanean aritu, Euskal LHaren 4/2018 Legean ezarritako Lanbide Heziketa eredua erreferentzia duten nazioarteko zenbait proiektu garatzen.

04

Lanbide Heziketari lotutako nazioarteko gutxienez 40 ikerketa proiektu egin.

05

Lanbide Heziketako ikastetxeetako irakasleei gaikuntza orokor bat eman nazioartekotzean eta sentsibilizazioan.

06

Euskal Lanbide Heziketa Sistemari eragiten dioten gutxienez 24 prestakuntza jardueraren eskaintza bultzatu, beste herrialde batzuetan.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

07

EAJk sare kudeaketa eta Lanbide Heziketako nazioarteko biltzarren antolaketa Euskaditik gidatzea planteatzen du. Euskadi UNESCO-UNEVOGen Europako erreferentzia bihurtu. Nazioarteko sare berri bitan parte hartzea, EURASHE, goi mailako hezkuntzakoa, eta nazioarteko ekintzailatza sare bat.

08

Beste herrialdeetako Lanbide Heziketako sistemen diseinu eta ezarpen prozesuetan lankide izan.

09

Irakasleen eta ikasleen Europako mugikortasun proiektuak ezarri.

10

Lanbide Heziketako Nazioarteko Campus Etengabea ezarri. Horretarako, EAJk ekintza hauek gauzatuko ditu:

- Lanbide Heziketako Nazioarteko Campus Etengabearen helburuak, egitura eta antolakuntza diseinatu.
- Nazioarteko Campusean eman beharreko ikastaro mota guztiak formulatu, diseinatu eta ezarri.
- Lanbide Heziketako ikastetxeen eta Nazioarteko Campusaren artean elkarlan sare bat ezarri.
- Nazioarteko konferentzia, jardunaldi eta biltzarretan parte hartu.

13. KONPROMISOA

LANBIDE HEZIKETAREN ETA EUSKAL ENPRESA EHUNAREN ARTEAN LOTURAK ESTUTU.

EKINBIDEAK

01

EAJk loturak sustatuko ditu berrikuntza teknologikoko proiektuetan. Helburua ingurune estrategikoetan 1.500 berrikuntza proiektu egitea da, 1.800 enpresarekin elkarlanean, lehentasunez ETEekin, produktuen fabrikazioan eta ekoizpen prozesuetan.

02

Heziketa eta lan-munduratzeko loturak. Horretarako, ekintza hauek gauzatuko dira:

- Lanbide Heziketa dualaren eredua LHaren heziketa ziklo guztietara hedatu.
- Lanbide Heziketaren sistema dualari atxikitako 5.000 enpresara heltzea.
- LH dualaren programetan parte hartzen duten 9.600 ikaslara heltzea.

03

Enpresak ikaskuntza prozesuetan parte hartzea sustatu. EAJren helburua da, proiektu pilotu baten bidez, zenbait sektoretan erreferentzia diren enpresek benetako lanei buruzko erronkak prestatzen hartu dezatela parte, prestatutakoa sektore horiei dagozkien heziketa zikloetan xertatzeko.

04

Langile aktiboen birziklatze eta egokitze prozesuetako loturak. Horretarako, EAJk ekintza hauek gauzatuko ditu:

- Enpresekin berriazko elkarlan hitzarmenak bultzatu, Lanbide Heziketako ikastetxeetan birkualifikazio eta eguneratze ikastaroak egiteko.
- Langile aktiboek eguneratze, birziklatze eta egokitze ikastaroak egiteko aukerak eman, Lanbide Heziketako ikastetxeekin elkarlanean, oraingo eta etorkizuneko ekoizpen ehunean behar den prestakuntza eta eskatzen diren konpetentziak eskuratu ditzaten.

05

LHko ikastetxeetatik enpresekin elkarlanean aritu, bereziki ETEekin, berrikuntza aplikatuari bultzada ematen, zenbait ingurune estrategikoren bitartez.

EAJren helburua ETEekin berrikuntza aplikatuko 1.500 proiektu egitea lortzea da, bai produktuak garatzeko bai ekoizpen prozesuak hobetzeko.

06

Irakasleen prestakuntzarako egonaldiak languneetan. Horretarako, EAJk ekintza hauek gauzatuko ditu:

- Languneetan 3 eta 20 ordu bitarteko prestakuntza mikroegonaldiak egin.
- Languneetan 20 eta 250 ordu bitarteko prestakuntza egonaldiak egin.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

14. KONPROMISOA

IKASLEEN PRESTAKUNTZA EUSKARAZ BERMATU ETA SUSTATUKO DUEN LANBIDE-HEZIKETAKO EREDU ELEANIZTUNA GARATZEA.

EKINBIDEAK

01

EAJk Bigarren Hezkuntzan ezarritako hizkuntza tratamenduaren jarraipena bermatzea planteatzen du, bai derrigorrezkoan bai derrigorrezkoaren ostekoan.

02

Lanbide Heziketan euskarazko heziketa eskaintza zabaltzea bultzatu, D eredia indartuz eta B eredu elebiduna zabalduz, euskaraz ikasi eta profesionalizatzea indartzera bideratuta. Era berean, jarrera positiboak sustatzen dira inguruko eragileekin lankidetzan.

03

Lanbide Heziketaren euskarazko eskaintza bermatu, kontuan hartuz eskaria, zonaldeko hizkuntza egoera eta dena delako Lanbide Heziketaren eskaintzaren helburuak.

04

Lanbide Heziketan eredu hirueleduna ezarri, atzerriko hizkuntzak gehituz.

05

Lanbide Heziketa ikasten ari diren pertsonak ahozko nahiz idatzizko komunikazio prozesuen garapenean gaitu, dagokion hizkuntzan, dagokion lanbide esparruan normaltasunez heziketa amaitzen duenerako.

15. KONPROMISOA

LANBIDE HEZIKETAREN ETA UNIBERTSITATEAREN ARTEAN ETA ALDERANTZIZ LOTURAK ETA TRANSFERENTZIA BULTZATU.

EKINBIDEAK

01

EAJk heziketa zikloen % 90ek unibertsitateko graduak egiteko aintzatetsia eta baliozkotua izateko posibilitatea eduki dezan lortzea planteatzen du.

02

Gradu ikasketetan lotura duten heziketa zikloen kredituak aintzatestea bultzatu.

03

Ibilbide integratuen testuinguru batean, LH gehi Unibertsitate ikasketa bateratuak progresiboki eta euskal ekoizpen ehunaren kualifikazio beharren arabera ezarri.



UNIBERTSITATEAK ETA IKERKETA

UNIBERTSITATE SISTEMAREN BIKAINTA-
SUNEAN AURRERA EGIN: 400 IKERBASQUE
IKERTZAILE, 5.500 ARGITALPEN ZIENTIFIKO
ETA 500 DOKTORE TESI.

PRINTZIOAK

UNIBERTSITATEAK ETA IKERKETA

- Euskadik euskal gizartearen garapenerako eta eraldaketarako erreferentziazko esparrua izango den unibertsitate ekosistema bat izatera heltzeko helburua du, goi-mailako prestakuntzaren, bikaintasuneko ikerketaren eta ezagutzaren transferentziaren bitartez. Goi-mailako Euskal Hezkuntzaren modernizazioa eta aurrerabidea ezinbestekoak dira gizarte aurreratua, bidezkoa eta inklusiozkoa izateko, eta baita talentua eta ezagutza aurreratua sortzen direla bermatzeko ere. Garapen ekonomiko eta soziala ekarriko lukete talentuak eta ezagutza aurreratuak eta erronka teknologiko eta digitalen zein garapen iraunkorraren arloko erronken aurrean erantzuten lagunduko lukete.
- Euskal Unibertsitate Ekosistema Europa mailako erreferentea izan beharko litza-teke 2024rako, gure herrialdearentzako estrategikoak eta enblematikoak diren arloetan. Horretarako, EAJK lau ardatzetan oinarritutako unibertsitate- eta ikerketa-politika bultzatzen du: bikaintasuneko ikerketa indartzea; unibertsitate+enpresa harremana areagotzea; prestakuntzarako metodologia eta metodo berritzaileetan oinarritutako unibertsitate-eredu bat hartzea; ekosistemaren nazioartekotzea bultzatzea.
- Bikaintasuneko ikerketa indartzea lehen-tasunezkoa da zientzia, teknologia eta berrikuntza politiketan. Prozesu horren funtsezko elementuak bikaintasuna bultzatzeari eta pertsonen eta eragileen nazioarteko kokapena hobetzeari lotuta daude, I+G+b arloan giza baliabideak indartuz eta unibertsitateetan eta BERC zentroetan ikerketa-jarduera sustatuz, eta baita ikerketarako azpiegitura berezi egiteari ere.
- Bikaintasuneko ikerketa helburu duen zientzia-politika sustapenaren eta indartzearen printzipioetan oinarrituta dago. Unibertsitateetan, bikaintasuneko ikerketa zentroetan eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko beste ikerketa zentro batzuetan egindako ikerketa du jomuga. Honako hauei eragiten die, funtsean: ikerketa-arloan hastape-nak egitea, doktoratu aurreko zein dok-toratu osteko ikertzaileak prestatzea, bikaintasuneko ikerketa taldeak sustatzea, mugikortasun programak ezartzea,

azpiegitura zientifikoak eta azpiegitura berezi handiak erosteko programak di-ruz hornitzea eta ikerbasque bikaintasun programen bidez talentua erakartzea.

- EAJK 2024rako “Basque Excellence Re-search Centers BERCs” bikaintasuneko ikerketa zentroen sarea Europa mailako erreferente bilakatzea du helburu, Eu-ropako Batzordearen bikaintasuneko ikerketa-arlo enblematikoetan. Datorren legegintzaldian Ikerbasque fundazioak bikaintasuneko 200 ikertzailetik gora erakartzea dugu helburu, “professor” kategorian, eta beste 100 ikertzaile “Fellow” kategorian. Horrez gain, 100 ikerbasque “associate” egonkortu nahi ditugu. Horietako asko euskal unibertsitateetara batuko dira ordurako eta be-raz, gure unibertsitateak indartzeko eta nazioartean kokatzeko ardatzetako bat izango dira.
- EAJK proposatutako ereduak uniber-sitateko prestakuntza duala bultzatzen du eta datozen urteetan eredu horren alde egiten jarraituko dugu, gure uni-bertsitate sistemaren ezaugarri nagusi modura. Hala, gure goi-mailako hezkun-tza ereduak sortuko dugu, dualtasunean oinarritutakoa, eta Lanbide Heziketa + Unibertsitatea gradu bikoitzen eskaintza bultzatuko dugu, ikasleen profesionaliza-zioa eta enplegarritasuna hobetzeko. Unibertsitatea+enpresa estrategia bul-tzatuko dugu, eta baita estrategia horren bi helburuen betearazpena ere: guztiz espezializatuta dagoen talentua sortzea eta gizarteari ezagutza transferitzea. Ho-rixe da 2024ra bitartean izango dugun lan-ildo nagusietako bat, gutxienez uni-bertsitateko prestakuntza dualaren eta i-dualaren 50 titulazio eskaini ahal izateko.
- Hezkuntza-arloko berrikuntza-praktiketan oinarritutako goi-mailako euskal pres-takuntza-eredu baten aldekoak gara. Elementu hori berebizikoa da graduko irakaskuntzan eta master ikasketak eta titulu propioak bultzatzen laguntzen du, ikasleak guztiz gaitzeko eta kanpoko talentua erakartzen duen eskaintza ga-ratzeko.

Online dagoen eskaintza indartzen du-ten programak garatuko dira, euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez. Programa horiek euskal unibertsitate ekosistema

osorako ezarritako helburuekin bat eto-rriko dira eta hala, eragileen kohesioa, eskaintzaren osagarritasuna eta euskal unibertsitateekiko lankidetzaren sustatuko dira. Online unibertsitate-prestakun-tzaren eredu euskalduna indartuko da, modalitate horretan dagoen eskari eta beharizan handiagoari erantzuteko.

- EAJK bikaintasunari eta lehenetsi beha-rreko ekintzen egokitzapenari estu lotutako prozesu modura planteatzen du nazioartekotzea. Hori dela eta, bi-kaintasuneko ikerketaren alde egingo dugu eta prestakuntza eta kudeaketa nazioartekotzeko estrategia bereziak garatuko ditugu, unibertsitateen arteko lankidetzan oinarritutakoak, Europa mai-lan batez ere. 2024rako, euskal uniber-sitate guztiak unibertsitate europarren proiektuetan murgilduta egongo dira, koargitalpenen % 50 baino gehiago na-zioarteko lankidetzatik jaioko izango dira, nazioarteko aipamena duten 40 tituluko eskaintza izango dugu, masterreko ikas-leen artean % 20 kanpokoak izango dira eta doktoregoen heren batek nazioarte-ko aipamena izango du.
- Euskal Unibertsitate Ekosistema indar-tzeko, kohesioa egon behar da espa-rru horretako tokiko eragileen artean, nazioarteko lankidetzaren bultzatu behar da eta ekosistema horren helburuak Europar Batasunak Europako Goi-mai-lako Hezkuntzaren Espaziorako eta Europako Ikerketa Espaziorako ezarri-tako helburuen osagarri izan behar dira. Ekosistema horrek garapen iraunkorreko helburuei arreta berezia eskaintzea pro-posatzen du EAJK, gure gizartearen gizo-nen eta emakumeen arteko ekitatea eta berdintasuna lortzeko helburuari batez ere, eta baita gure identitate propioa in-dartzeko helburuari ere, euskal kulturari eta euskarari garrantzia emanez, bere-ziki.

- Euskadik euskal unibertsitate ekosiste-marako baliabide publikoak areagotzea-ren aldeko apustu garbia egin du EAJK, baliabide lehiakor eta pribatu gehiago erakartzearekin batera, gastua eta ba-liabideak Europako batez bestekoarekin parekatzeko xedez.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

1. KONPROMISOA

BIKAINTRASUNEN IKERKETAREN POLITIKA ZIENTIFIKOAN ETA EUSKAL UNIBERTSITATE EKOSISTEMAREN EREDUAN SAKONDU, 2030. URTERAKO ZIENTZIAREN ETA UNIBERTSITATEEN EUSKAL LEGE BAT ETA 2023-2026RAKO UNIBERTSITATE SISTEMAREN PLANA ONETSIZ, GARATUZ ETA GAUZATUZ.

EKINBIDEAK

- 01 — EAJk Zientziaren eta Unibertsitateen Euskal Lege bat itxuratu eta onestea planteatzen du, Europa erreferentzia gisa hartuta. Euskal Unibertsitate Ekosistema bat indartzera bideratutako legegintza-esparru aurreratu eta propio gisa funtzionatuko luke, Euskal Unibertsitate Sistema ardatz hartuta, unibertsitate publikoa, bereziki. Ekosistema bat, bere eragileen bitartez Agenda 2030 erreferentzia gisa duen euskal gizarte aurreratua, bidezkoa eta inklusiozkoa lortzen lagunduko duena, Euskadin garapen ekonomiko eta soziala ekarriko duten talentua eta ezagutza aurreratua sortzeko ekarpen garrantzitsua egingo duena eta era berean, erronka teknologiko eta digitalaren aurrean erantzuten lagunduko duena. Hori guztia, Euskaditik Europako Ikerketa Espazioaren eta Europako Goi-mailako Hezkuntzaren Espazioaren erronkei eta helburuei mesede egingo dien ikuspegia oinarri hartuta. EAJk 2030. urterako Zientziaren eta Unibertsitateen Euskal Legea idaztea eta onestea bultzatuko du.

- 02 — 2023-2026 tarterako Unibertsitate Sistemaren Plana onetsi, Eusko Jaurlaritzak Euskal Unibertsitate Sistema indartzeko plangintza estrategikoa eta kudeaketa egiteko tresna nagusia izango litzatekeena. EAJk lau garapen ardatzetan oinarritutako euskal unibertsitate-politika garatzea planteatzen du, euskal unibertsitate ekosistema osatzen duten gainerako eragileekin batera: bikaintasuneko ikerketa indartzea; unibertsitatea+enpresa harremana areagotzea; metodologia eta metodo berritzaileetan oinarrituta dagoen eta online prestakuntza-eskaintzan nabarmen aurrera egiten duen unibertsitate-eredua hartzea; ekosistemaren nazioartekotzea bultzatzea. Agenda 2030eko garapeneko helburuak aintzat hartzen dituen politika, ekitatearen, berdintasunaren eta euskararen ingurukoak aintzat hartzen dituenak, bereziki. 2019-2022rako Unibertsitate Sistemaren Planaren betearazpena kudeatzea eta 2023-2026rako Euskal Unibertsitate Sistema indartuko duen Unibertsitate Sistemaren Plana itxuratzea eta onestea da erronka.

2. KONPROMISOA

EUSKAL UNIBERTSITATE EKOSISTEMARAKO BALIABIDE PUBLIKOAK AREAGOTU, BALIABIDE LEHIAKOR ETA PRIBATU GEHIAGO ERAKARTZEAREKIN BATERA, GASTUA ETA BALIABIDEAK EUROPAKO BATEZ BESTEKOAREKIN PAREKATZEKO XEDEZ.

EKINBIDEAK

01

Eusko Jaurlaritzak euskal unibertsitate ekosistemari laguntzeko urteko aurrekontuak handitzea proposatzen du EAJk, 2024. urterako 700 milioi euroko gastua izatera hel dadin, batez ere UPV/EHUn zentratuz.

02

Europako baliabide pribatu eta lehiakorren erakarpina sustatzeko programak indartu, ezagutza-poloen Erronka programa bultzatuz. Euskal Unibertsitate Sistemak 2024rako 10 ezagutza-polo izatea da EAJren konpromisoa.

03

Ikerbasque fundazioa sustatu, haren aurrekontua urtean % 6 handituz, 2024rako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareak 200 ikerbasque professor, 100 ikerbasque associate eta 100 ikerbasque fellow izan ditzan.

04

BERC edo bikaintasuneko oinarrizko ikerketa zentroyen deialdia sustatu, deialdiaren baliabideak gutxienez % 6 handituz, Eusko Jaurlaritzak I+G+b arlora bideratutako aurrekontu osoa handitzearekin batera.

05

Bikaintasuneko taldeen deialdia sustatu, 2024rako baliabideak gutxienez % 6 areagotuz, 2019-2021eko deialdiarekin alderatuta.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

3. KONPROMISOA

BIKAINTRASUNEN IKERKETA BULTZATU ETA EUROPAKO EGINBIDE ENBLEMATIKOETARA EGOKITU ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZAREN EUSKAL SAREAREN NAZIOARTEKO KOKAPENA HOBETZEKO, FUNTSEZKO EZAGUTZAREN SORRERAREN ARLOAN ETA GUZTIZ ESPEZIALIZATUTAKO TALENTUAREN SORRERAREN ARLOAN.

EKINBIDEAK

- 01 Euskadin ikerketa-lanaren garapena palanka gisa erabiliko duen euskal zientzia-politika garatu, gizonen eta emakumeen arteko aukera-berdintasunean arreta berezia jarri. Etorkizuneko Zientziaren eta Unibertsitateen Euskal Legeak, 2030era begirakoak, euskal ikerketa-karrera osoa antolatuko du Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistemaren baitan. Horrek posible egingo ditu Euskadiko ikertzaileen bokazio- eta prestakuntza-bidea eta ibilbide profesionala, inspirazioz beteak. Unibertsitateko prestakuntzarekin hasiko litzateke bide hori eta argi eta garbi identifikatutako etapetan zehar garatzen joango litzateke, bikaintasunaren maila gorenera iritsi arte. Gainera, bide horretan aktiboki sustatuko litzateke gizonen eta emakumeen arteko aukera-berdintasuna.
- 02 Ikertzaileak erakartzeko lana sendotu eta areagotu, nazioarteko bikaintasun irizpideak aintzat hartuta eta euskal ikertzaileen inkorporazioari arreta berezia eskainiz. Ikerbasqueren Research Fellows programaren bitartez, goi-mailako nazioarteko 100 ikertzaile berri zientzia eta teknologiaren euskal sarera batzea da EAJk legegintzaldi honetarako hartutako konpromisoa. Ikertzaile horien artean, erdiak Euskadin jaso du hasierako prestakuntza. Era berean, 400 ikerbasque ikertzaile izatera iritsi nahi dugu, horien artean % 50 "Professor" kategorian.
- 03 Unibertsitateen eta BERC zentroen arteko lankidetzak sustatu, haien kohesioa areagotuz eta eragile bien arteko lankidetzan bikaintasuneko ezagutza zientifiko berria sortzea bultzatuz.
- 04 Ikerketa zientifiko indartu, nazioarteko zentroekin lankidetzan, eta European Research Council-en beka dituzten ikertzaileak erakarri. Horizon Europe programa berriaren bikaintasuneko ikerketarako 20 beka berri lortzea eta euskal argitalpen zientifikoaren % 60 nazioarteko ikerketa zentroekin lankidetzan egitea da EAJren helburua.

- 05** Bikaintasuneko euskal zientzia-politika garatzea proposatzen du EAJk, bikaintasuneko ikerketan eta ezagutzaren transferentzian sakonduko duena, flagship europarretara egokitutako ildo enblematikoetan espezializatuz. Ikur ekinbideen eremuko ikerketa bultzatzeko konpromisoa hartu dugu, 2024an Europa mailako erreferente izan gaitzen bikaintasuneko oinarritzko ikerketaren hiru ekinbide enblematikotan, gutxienez.
- 06** Doktoratu aurreko zein doktoratu osteko ikertzaileak prestatzeko programak indartu, programa horiek euskal zientzia-politikaren ildo estrategikoetara egokituz. 2024rako prestakuntza-bidean ari diren ikertzaileentzako 110 plaza eta doktorego osteko 30 plaza eskaintzea da EAJren konpromisoa.
- 07** Europa mailan erreferentziazkoa den ikerketarako azpiegitura zientifiko gehiago eta azpiegitura berezi handi gehiago erostea, BERC sarea buru duten ikerketa-eremu enblematikoetarako zehazki: neutronika, teknologia kuantikoak, prestazio handiko konputazioa eta neuro-bio-zientziak. 2020-2024 tartean bi azpiegitura berezi handi martxan jartzeko 20M€ inbertitzea da gure konpromisoa.
- 08** Bikaintasuneko ezagutza zientifiko berriaren sorrera eta nazioartean entzutetsuenak diren aldizkarietan egindako argitalpen kopuruaren gorakada indartu. Euskal Unibertsitate Ekosistemaren erronka da bere ekarpena % 10 haztea eta hala, 2024rako urtean 5.500 argitalpen zientifiko ekoiztera iristea. Horrela, milioi bat biztanleko argitalpen zientifiko gehien dituen herrialdeetako bat izango litzateke Euskadi.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

4. KONPROMISOA

EUSKAL UNIBERTSITATE EKOSISTEMAREN ETA TOKIKO ARLO PROFESIONALAREN ARTEKO LANKIDETZA BULTZATU, 2024RAKO UNIBERTSITATEA+ENPRESA ESTRATEGIA INDARTZEAREN ALDEKO APUSTUA EGINEZ.

EKINBIDEAK

01

EAJk euskal unibertsitateetan prestakuntza duala bultzatzeari ematen dio lehentasuna. Horrela, 2024rako 50 titulazio dual eta 5 titulazio i-dual izango genituzke eta 1.500 ikaslerentzako eskaintza izango genuke.

02

Euskal fakultateen eta unibertsitate-eskolen egituraketaren liderra izan RIS3 Euskadi aurrera eramateko prestakuntza-klusterretan. Horrez gain, Euskadiko 11 zientzia, teknologia eta ingeniari fakultateek, euskal enpresek, RIS3ko gidaritza taldeek eta Eusko Jaurlaritzak osatutako 4Gune klusterraren lana sendotu. Sormen eta Kultura Industrien esparruan, gutxienez beste kluster berri bat sortzea bultzatuko da.

03

Lanbide Heziketa + Unibertsitatea lankidetzara bultzatu, prestakuntza-eskaintza osoaren mapa bat egituratuz, goi-mailako lanbide heziketa zikloen eta graduako, masterreko zein doktoregoko unibertsitate ikasketen arteko zubiekin.

04

Unibertsitateko irakaskuntza dual euskalduna eskaintzeko zein hartzeko gaituta dauden profesionalen eta enpresen euskal aitorten esparrua bultzatu.

05

Euskal unibertsitateen funtzioa indartu, ETEei teknologikoa ez den berrikuntzaren esparruan laguntzeko.

06

Euskal unibertsitateen eta BERC zentroyen funtzioa indartu, euskal enpresa handiei berrikuntza zientifiko eta teknologikoaren esparruan laguntzeko.

5. KONPROMISOA

EUSKAL UNIBERTSITATE EKOSISTEMA NAZIOARTEKOTZEN JARRAITU, BIKAINTA-SUNA BULTZATUZ ETA PRESTAKUNTZA-ESKAINTZAK ETA EKOSISTEMAKO ERAGILEEK NAZIOARTEAN DUTEN KOKAPENA INDARTUZ, BATEZ ERE EUROPA ARDATZ HARTUTA.

EKINBIDEAK

- 01** Euskal unibertsitate-politika garatzea proposatzen du EAJk, euskal unibertsitate sistemaren kohesioa sustatzeko, euskal unibertsitate sistema horren eta zientzia, teknologia eta berrikuntzaren euskal sareko gainerako eragileen eta batez ere BERC sarearen artean lankidetzaz bultzatzeko, eta sare horien eta bikaintasuneko beste unibertsitate sistema batzuen arteko harremana sustatzeko, Euskadi-Nafarroa-Akitania Berrian zentratuz bereziki, eta Europan, oro har. Unibertsitate Europarren eta Nazioarteko Bikaintasun Campusen proiektuen garapena bultzatuko da.
- 02** Nazioarteko aipamena duten tesiak egitea bultzatu. 2024rako, gutxienez tesien % 37k nazioarteko aipamena izatea eta urtean 500 doktorego-tesi defendatzera heltzea da partekatzen dugun erronka.
- 03** Ikasleen nazioarteko mugikortasuna bultzatu. Euskal Unibertsitate Sistemako ikasleen % 7k, gutxienez, mugikortasun programetan parte hartzea da EAJren erronka.
- 04** Nazioarteko aipamena duten titulazioen eskaintza bultzatu, eta baita euskal fakultateak eta unibertsitate-eskolak nazioartekotzeko estrategiak ere. Euskal unibertsitate sisteman nazioarteko eskaintza izatea da erronka eta hala, 2024rako nazioarteko aipamena duten 40 titulazio izatea eta irakasle kopuruaren heren bat nazioarteko titulazioetan eskolak emateko gaituta egotea.
- 05** Nazioarteko ikasleak unibertsitate sistemaren prestakuntza-eskaintzara erakartzea bultzatu. Masterreko ikasleen % 20 nazioartekoa izatea da helburua.
- 06** Nazioarteko bikaintasun campusak indartzea planteatzen du EAJk, Nafarroa-Euskadi Akitania Berria esparruan lankidetzan aritzeko. Era berean, Unibertsitate Europarren proiektuak indartzea planteatzen du, euskal unibertsitateek horietan parte hartzen dutenean. 2024rako, unibertsitate sistemako unibertsitate guztiek Unibertsitate Europarren proiektuetan parte hartzea da erronka.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

6. KONPROMISOA

METODO ETA METODOLOGIA BERRITZAILEETAN OINARRITUTA DAGOEN ETA EUSKAL UNIBERTSITATE SISTEMAREN PRESTAKUNTZA-ESKAINZAREN GARAPENA SUSTATUKO DUEN GOI-MAILAKO PRESTAKUNTZA-EREDUA BULTZATU.

EKINBIDEAK

- 01** — Goi-mailako euskal prestakuntza-eredu propioa bultzatu, hezkuntza-arloko praktika berritzaileei lotuta dagoena. Praktika horiek lirateke irakaskuntzaren funtsezko elementua, graduiko ikasketetan zein graduatu ondoko ikasketetan. Euskal unibertsitate sistemako irakasleen % 50, gutxienez, irakaskuntzako egiaztapen-eredu baten bitartez egiaztatuta egongo da 2024rako.
- 02** — Irakasleen hasierako zein etengabeko prestakuntza bultzatzen dituen euskal unibertsitate-politika garatzea planteatzen du EAJk, non prestakuntza duala eta sektorearekin lankidetzan egindako ikerketa unibertsitateko prestakuntzaren ardatzak izango bailirateke.
- 03** — Prestakuntza dualerako eta nazioarteko prestakuntzarako goi-mailako prestakuntza-eredu propioak bultzatu, eskaintza espezializatu horien berariazko ezaugarrietara egokitutakoak.
- 04** — Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren egitekoa bultzatu, hots, Unibasq-ena, prestakuntza-eskaintzaren kalitatea bermatzen duen eragilea izanik. Etorkizunean 2030era begira egindako Zientziaren eta Unibertsitateen Euskal Legean txertatuko da Unibasqen egitekoa.

7. KONPROMISOA

EUSKAL UNIBERTSITATE EKOSISTEMAN EKITATEA, BERDINTASUNA ETA EUSKARA BULTZATU.

EKINBIDEAK

- 01** Ekitate-politikak sendotu, unibertsitateko prestakuntzarako beken eta diru-laguntzen sistema indartuz, hari azpiak jan nahi dizkioten kanpoko esku-sartzeetatik defendatuz eta erabilgarri dagoen baliabide ekonomiko kopurua areagotuz. Unibertsitateko prestakuntzara sarbidea duten euskal ikasle guztientzat, gradua-masterra-doktoregoa ibilbide osoan, haien egoera ekonomikoa eragozpena ez izatea da EAJren erronka.
- 02** Gizonen eta emakumeen arteko benetako berdintasuna bermatzeko estrategiak bultzatu unibertsitateko prestakuntzaren eta ikerketaren esparruetan. 2024rako helburu nagusia goi-mailako ikasketak egiten ari diren pertsonen % 52 emakumezkoak izatea eta Ikerbasquek kontratatutako langileen % 40, gutxienez, emakumezkoak izatea da, batez ere maila altuenetan helburu hori bultzatuz.
- 03** Euskal Unibertsitate Sistemako euskarazko prestakuntza eta ikerketa bultzatu. Euskal Unibertsitate Sistemako irakasle eta ikertzaileen % 60 elebiduna izatea da erronka nagusia, eta unibertsitateko ikasketak euskaraz egiten ari diren ikasleen ehunekoa % 52tik gorakoa izatea.
- 04** Online eskaintzen den prestakuntza gainerako goi-mailako prestakuntza-eskaintzarekiko harmonian bultzatzen duen euskal unibertsitate-politika garatu. Politika hori, gaur egungo errealitatea abiapuntu gisa hartuta, eraldatzen joango litzateke, unibertsitate sistema garatuz joan ahala. Online aurki daitekeen lankidetzarako eskaintza indartzen duten programak bultzatuko dira, euskaraz, gaztelaniaz zein ingelesez.
- 05** Euskal gizartean goi-mailako prestakuntza bultzatu. Goi-mailako ikasketak egin dituzten 25-65 urte bitarteko euskal biztanleen ehunekoa % 57tik gorakoa izatea da EAJren helburua. Horrela, Europa mailan adierazle horren lehenengo postuetan egongo litzateke Euskadi. Era berean, egresatuen enplegarritasuna hobetu nahi da, lana lortu duten egresatuen tasa % 85ekoa izatera hel dadin.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

8. KONPROMISOA

UNIBERTSITATEK STEAM EUSKADI ESTRATEGIA GARATZEN LAGUNDU.

EKINBIDEAK

- 01** Zientzia eta kultura zientifikoa gizarte osora zabaltzen lagunduko duen euskal zientzia-politika garatzea planteatzen du EAJk, Euskadin emakumeak zientzia-arloan egindako lana gailenduz. Zientziaren eta kultura zientifikoaren dibulgazioa euskal zientzia-politika ezartzeko ekintza guztietan txertatutako helburu neurgarri gisa hartzea da xedea, Euskadin emakumeak zientzia-arloan egindako lanari arreta berezia eskainiz. Euskal Unibertsitate Sistemaren dibulgazio-estrategien definizioa, garapena eta koordinazioa bultzatuko dira.
- 02** BERC STEAM programa bultzatu, BERC zentro guztiek dibulgazio-estrategia bat gara dezaten, Kultura Zientifikoko Katedrarekin elkarlanean. Zientziaren eta kultura zientifikoaren dibulgazioa euskal unibertsitate politika ezartzeko ekintzetan % 100ean txertatutako helburua izatea da EAJren helburua, Euskadin emakumeak zientziaren eta kultura zientifikoaren arloan egindako lana gailenduz.
- 03** Euskal unibertsitate ekosistemaren lana bultzatu, STEAM Sare programaren baitan unibertsitatekoak ez diren hezkuntza-mailen eta eragile sozioekonomikoen arteko lankidetzak posible egiten duen bitartekari gisa, 4Gune Klusterraren eta BERC sarearen bitartez, gutxienez 4Gune fakultate eta zentroen % 50 eta BERC zentroen % 100 inplikatur.
- 04** Irakasleen hasierako zein etengabeko prestakuntza bultzatzen dituen euskal unibertsitate-politika garatu, eta baita unibertsitateak eta hezkuntza-arloko beste STEAM eragile batzuek elkarlanean egindako ikerketa ere, STEAM hezkuntza bultzatzeko. STEAM Euskadi ikerketa proiektuak finantzatzeko programa bat proposatzen du EAJk.
- 05** STEAM hezkuntza bultzatzeko orduan unibertsitate sistemaren inplikazioa sustatzen duen euskal unibertsitate-politika garatu. 2023-2026rako Unibertsitate Sistemaren Planak STEAM Euskadi estrategia zeharkako moduan barne hartzea da partekatzen den erronka, unibertsitate guztien garapenerako ardatz nagusietan barne hartzea, alegia.



OSASUNA

OSAKIDETZAKO
PERTSONALA 4.000
LANPOSTU BERRIREKIN
HANDITU.

Pertsona orok osasun fisiko eta mentalaren mailarik gorenaz gozatzeko duen eskubidea egia bihurtzen duen osasun sistema du Euskadik, Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Nazioarteko Itunaren 12. artikularekin bat etorritik. Euskal osasun sistema publikoa Europako osasun sistema publikorik onenetako bat izatea da EAJren konpromisoa. Sistema integratua eta sendoa, egunotan Covid-19aren ondorioz izandako krisia bezalakoei edo etorkizuneko osasun krisiei erantzuteko gai dena. Horretarako, euskal osasun sistema indartuko dugu, lehen mailako arretaren esparruan batez ere, bost printzipio inspiratzaile oinarri hartuta:

■ **Pertsonengan oinarritutako osasun sistema. Pertsona bakoitzaren arabera osasuna.**

EAJ osasun sistema unibertsala, publikoa, kalitatezkoa eta bidezkoa izatearen alde dago, pertsona guzti-guztien osasuna eta ongizatea lehentasunezko helburutzat dituen osasun sistema izatearen alde.

Sistema iraunkorra, giza eskalan erakitakoa, gaur egun Euskadin bizi diren pertsonentzat zein etorkizuneko etorriko direnentzat pentsatuta dagoena.

Pertsonen bizi-itxaropena luzatzen eta osasun-arloan emaitza positiboak izaten jarraitzea ahalbidetzen duen sistema, egungo berdintasunik ezari aurre eginez.

Pazienteen erantzunkidetasuna eta parte-hartze aktiboa bultzatzen dituen sistema, haien osasuna zaintzeko orduan.

■ **Osasun sistema sendoa.**

Osasun sistema sendoa, eraldatzailea eta berritzailea defendatzen dugu, erakunde sendoak barne hartzen dituen, haien maila guztietan, punta-puntako zerbitzuekin, azpiegiturekin eta teknologiekkin.

“Berdea” den sistema, klima-aldaketaren ondorioei aurre egiteko, ingurumenaren alde hartutako konpromiso korporatibotik abiatuz. Pazienteentzako,

familiarentzako eta profesionalentzako antolaketa-eredu osasungarria daukan sistema.

■ **Bikaintasuneko osasun sistema.**

Profesional bikainak dituen osasun sistema publikoaren aldekoak gara. Konpromiso- eta trebetasun-maila handia izateaz gain, gizartearen aitorpena duten profesionalak dituen. Bere profesionalen talde lana baloratzen, sustatzen eta bultzatzen duen sistema.

Lidergo partekatua duen antolaketa-ereduaren alde egiten duen eta profesionalen prestakuntza eta gaitzuntza bultzatzen dituen sistema, profesional horiek baitira osasun sistema etengabe hobetzeko eragile aktiboak.

■ **Osasun sistema berritzailea.**

Ikerketa, goi-mailako ezagutza eta osasun-arloko berritzailea ekoizten dituen euskal osasun sistema garatzea da gure konpromisoa, gero hori guztia pazientekin aplikatzeko.

Zientzia, Teknologia eta Berritzailearen Euskal Sare osoari lotutako osasun-arloko ikerketa sistema, espezializazio adimentsuko euskal estrategia dinamizatzen duena, Euskadiko industria- eta teknologia-sare osoarekin lankidetzan.

■ **Sistema osoa.**

Pertsonen osasuna, ongizatea eta bizikaltatea botere publiko desberdinek eta politika sektorialekin -eta ez Osasun Sailak edo Osakidetza bakarrik- partekatu beharreko helburutzat daukan osasun sistema oso baten aldekoak gara.

Printzipio horiek oinarri hartuta, EAJK helburu bikoitza du:

■ Euskal osasun sistema osoa indartu, pertsonen beharrezko ahaliak eta erantzun onena emateko gai den zerbitzu gisa, eta Europa mailan kalitatezko erreferente gisa sendotu.

■ 2024ra begira, gizonek zein emakumeek jaiotzean duten batez besteko bizi-itxaropena urtebete luzatzea, ahalik eta osasun baldintza onenetan. Horrela, munduko bizi-itxaropenik handiena duten herrialdeen artean mantenduko da gurea. Hori lortzeko, hiru mailatan jardungo dugu. Lehenik eta behin, osasunaren prebentzioa, babesa eta sustapena landuko ditugu. Jarraian, gaixotasunen aurrean eman beharreko erantzun eraginkorra indartuko dugu, gaixotasun horiek agertzen direnerako. Hirugarrenik, laguntza emango dugu errehabilitazioan eta kronikotasunean, horien ondorioak arinduz.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

1. KONPROMISOA

PERTSONA GUZTIEKIN KONPROMETITUTAKO OSASUN SISTEMA.

EKINBIDEAK

— Pazientearekiko hurbiltasun gehiago.

Ekinbide hau betetzeko, honako jarduketa hauek martxan jartzea planteatzen du EAJk:

- Telelaguntza-programa eta e-osasuna zabaldu aplikazio mugikorren bitartez, “nire tratamendua” edo Osasun-karpeta, esaterako.
- Osasun Eskola programa guztiz zabaldu, pazienteak prestatzeko eta haiei laguntzeko, gaixotasunari aurrea hartzeko zein gaixotasunaren jarraipena egiteko erabakirik onenak har ditzaten.
- Telemedikuntzako aplikazio berriak garatu, pazienteak eta familiak osasun-langileekin harremanetan egoteko eta osasuna paziente bakoitzaren egoerara gehiago hurbiltzeko.
- Pazienteak osasun baliabideak erabiltzeko orduan duen erantzukizuna sustatzeko, urtean hiru informazio- eta sentsibilizazio-kanpaina abian jarri.
- Esku-hartze komunitarioaren eta tokiko osasun sareen eredua zabaldu, osasun zentroen, osasun publikoko eskualdeen, udalen, hezkuntza zentroen eta eragile sozialen bitartez, komunitate bateko eragile aktibo guztien parte-hartzea bultzatzeko xedez, ohitura osasungarrien bitartez pertsonen bizikaltatea hobez dezaketen programak eta jarduerak egiteko orduan. 2025era begira, Erakunde Sanitario Integratu guztietan esku-hartze komunitarioarako plan bat zehaztea da EAJren konpromisoa. Plan horrek udalerririk guztietan osasunaren sustapenerako eta prebentziorako jarduerak egitea bultzatuko luke, tokiko osasun aktiboekin batera.

— Pazienteen irisgarritasuna hobetu osasun zentroetara sarbidea izateko orduan, honako jarduketa hauekin:

- Orain ditugun komunikazio bideak eta erabiltzaileari arreta emateko bideak berriro diseinatu eta ikusgarri egin. Osasun-karpeta berriro diseinatu. Osakidetza Eusko Jaurlaritzaren sare elektronikoa sartu. SMS bidez hitzordua gogorarazteko sistema hobetu. Aplikazio berriak diseinatu, hala nola haurdunaldirako liburuxka edo pazientearen etxeko jarraipena egiteko aplikazioa.
- Gazteekiko eta nerabeekiko konexioa hobetu, Osakidetzaren webgune berriaren edukiak eguneratuz.
- Pertsona orori euskal osasun sistemarako sarbide unibertsala bermatu, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluarekin elkarlanean. Alde batetik, azpiegitura guztietan bermatuko da. Bestetik, urtean gutxienez milioi bat euro inbertitzen jarraituko dugu, gainerako instalazioak progresiboki eguneratzen joateko.

03 Ekitate gehiago.

EAJk planteatutako jarduketak:

- Emakumeen aurkako indarkeria mota ororen detekzio goiztiarra hobetu eta laguntzaren jarraitutasuna bermatu, “Genero-indarkeriaren eta sexu-erasoen aurrean Euskadin nola jardun jakiteko jarduketagida” zabalduz. Ez dadila indarkeriazko ekintza bakar bat ere salatu gabe geratu.
- Dekretu formako esparru arautzaile autonomikoa garatu, osasun-laguntza publikoa jasotzeko eskubidea bermatzen duena, bizileku baimenik ez duten etorkinei jada eskaintzen zaien bezala. Hori guztia, 7/2018 Errege Dekretua betez, Osasun Sistema Nazionalerako irispide unibertsalari buruzkoa.
- Gurutzetako Ospitaleko Genero Identitate Unitatea dezentralizatu pertsona transexual eta transgeneroei eskaini beharreko arretari dagokionez, eta gutxienez transexualitaterako arreta zerbitzu bat jarri lurralde historiko bakoitzean.

04 Osasun mentalerako arreta berezia.

Hona hemen EAJk planteatutako jarduketak:

- Euskadiko osasun mentalerako laguntza eredia sakondu eta bultzatu. Nahasmendu psikiatrikoetarako laguntza emateko eredu komunitarioa ezartzeko eta garatzeko aukeraren analisia barne hartuko luke, besteak beste, batez ere Buruko Nahasmendu Larrietarako baliabide soziosanitario komunitarioetan lanpostu berriak diseinatu eta kalkulatzeko.
- Ongizate psikikoa hobetzeko eta osasun mentalaren baldintzatzaileei lotutako faktore negatiboak murrizteko programa zehatzen alde egin, esate baterako:
 - Gatazkak eta ondoez psikologikoa arrakastaz gainditzeko programa espezifikoak: gurasotasun positiborako programak, seme-alabak ondo heztekoak, arrisku psikosoziala dakarten haurdunaldietan jardutekoak edo ezbeharren eta estresaren aurrean baliabide psikologikoa garatzeko eskola-programak.
 - Profil berrientzako arreta-programa espezifikoak: ondoez emozionala, patologia duala eta psikogeriatría.
 - Haurren eta gazteen buruko nahasmenduei aurre egiteko neurrietan sakondu: seme-alaben eta gurasoen arteko indarkeria, mendetasunak, nortasunaren nahasmendua, elikadura-nahasmendua edo suizidioa.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

Gure adinekoei zaintza berezia eman. Honako jarduketa hauek planteatzen ditu EAJk:

- 05**
- Adineko pertsonen ahultasunaren aurreko arreta plana itxuratu eta zabaldu, adineko pertsonen gainbehera funtzionala, desgaitasuna, malnutrizioa eta isolamendua eragiten dizkieten patologien prebentziorako, horien aurrean arreta eskaintzeko eta errehabilitaziorako esku-hartzeen bitartez. Azken finean, adineko pertsona nagusien ahultasuna dakarten egoerak lirateke eta gizarte zerbitzuek zein osasun zerbitzuek modu koordinatu eta osagarrian erantzun behar dute, eta baita Jaurlaritzako beste arlo batzuek ere. Plan horrek honako alderdiak barne hartuko ditu, besteak beste:
 - Berariaz talde ahulei zuzenduta dauden osasun programak eta programa soziosanitarioak garatu, bakarrik bizi diren adineko pertsonen edo landa-ingurunean bizi diren adineko pertsonen zuzendutakoak esaterako, edota buruko gaixotasunak dituzten adineko pertsonen zuzendutakoak.
 - Adineko pertsonenganako tratu txarrak, abandonua, arreta falta edo diskriminazioa ekiditeko esku-hartzeak abiarazi.
 - Adineko pertsonen, jokoerei eta bizi-ohitura osasungarriari mesede egiten dieten osasun-erloto programak eta ekintzak indartu, pertsona horiek haien bizitzaz goza dezaten, ahalik eta autonomia handienarekin. Helburu horren bitartez, honako jarduketa hauek indartzea planteatzen du EAJk:
 - Urtero gripearen aurkako txertoa jartzen duen 65 urtetik gorako pertsona kopurua areagotu, progresiboki OMEk kolektibo horren kasurako proposatutako estaldura mailara (% 75) hurbiltzen joan gaituzten.
 - Mendekotasunen pean dauden edo hala egoteko arriskuan dauden 65 urtetik gorako pertsonen zuzendutako berariazko programa bat garatu.
 - Osakidetzaren osasun erakundeak Euskadi Lagunkoia programan sartu, adineko pertsonentzako irigarriagoak, inklusio aldetik hobekiak eta erosoagoak diren osasun inguruneak lortzeko ekintzak eta neurrien bidez. Zehazki, adineko pertsonentzat egokituak diren espazioak diseinatu edo birmoldatu dira, haien ergonomiari eta erosotasunari mesede egiteko (esate baterako, erakusmahai baxuagoak, errazago irakurtzen laguntzeko argiteria, seinaleak, irigarritasuna, haientzako erosoak diren altzariak...).

Arreta soziosanitario osoa. EAJk planteatutako jarduketak:

- 06**
- 2021-2024 tartean arreta soziosanitarioa eskaintzeko estrategia osoa garatu, jada martxan dauden jarduketak sendotuko dituen eta honako hauek ere barne hartuko dituen:
 - Gobernantza soziosanitarioari buruzko dekretu bat argitaratu, enplegu eta gizarte politika sailaren eta osasun sailaren artean. Dekretu horrek instituzio maila guztiak eta antolamenduaren zein laguntzaren esparruak barne hartuko lituzke, oso-osorik.
 - Baliabideen katalogo bat egin eta Euskadirentzako finantzaketa-eredu bat adostu.
 - Historia Elektronikoko Soziosanitarioa martxan jarri, tartean dauden instituzio guztien artean arreta osoa ematen laguntzeko, jarduera ororen erdigunean pertsona jarri.
 - “Profesionalak ez diren zainzaileei arreta soziosanitarioa eskaintzeko plana”, Enplegu eta Gizarte Politika Sailarekin elkarlanean, zahartze aktiboari buruzko Agenda Nagusiren parte gisa.
 - Lehen mailako arreta soziosanitarioa garatu, testuinguru soziosanitarioa egituratzen duen ardatz gisa.

Arreta euskaraz ematen dela bermatzeko bidean aurrera egin.

Honako hauek dira EAJk proposatutako jarduketak:

07

- Osasun-laguntzan euskararen presentzia eta erabilera indartu, progresibotasunaren printzipioa oinarri hartuta, hizkuntza-eskubideekiko errespetua bermatzeko eta zerbitzuaren kalitatea hobetzeko.
- Euskarazko osasun-laguntza erabiltzen laguntzeko neurri zehatzak barne hartzen dituen plana diseinatu eta ezarri, zerbitzu hori euskaraz ematea aukeratzen duen paziente kopurua handitzeko.
- Pazienteen Historia Klinikoan euskararen presentzia indartu.

Bizitzaren amaierari aurre egiteko duintasuna.

EAJk proposatutako jarduketak:

08

- 11/2016 Legea, bizitzaren amaierako prozesuan pertsonen eskubideak eta duintasuna ziurtatzeari buruzkoa, benetan aplikatzen dela bermatu, lege horretan bildutako artikulua betez.
 - 2021-2024rako Zainketa Aringarrien Plan berria onetsi, aurrekoaren behin betiko ebaluazioa egin ostean, 2020an amaitzen baita bere indarraldia.
 - “Bizitzaren amaierarako laguntza-ibillbide soziosanitarioak” ezarri, Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluaren partetik.
 - Gaur egun “aurretiazko borondatea” adierazten duten pertsonen tasa igo, hots, 12,66/1000 (momentu honetan autonomia-erkidegoen buruan gaude, Nafarroarekin batera), 2024rako eskubide hori erabili duten pertsonen tasa 60.000koa izan dadin (27/1000 pertsona).
-

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

2. KONPROMISOA

OSASUN SISTEMAREN ETENGABEKO HOBEKUNTZA, LAGUNTZA-ARLOKO INTEGRAZIOAN AURRERA EGINEZ ETA LEHEN MAILAKO ARRETARI LEHENTASUNA EMANEZ.

EKINBIDEAK

Lehen mailako arretari lehentasuna eman.

- 400 familia-sendagile berri prestatu, lehen mailako arreta zerbitzuan belaunaldi arteko erreleboa bermatzeko.
- Erizainen lana bultzatu, lehen mailako arreta zerbitzuan eman beharreko osasun-laguntzaren oinarrietako bat baitira. Horretarako, barneko erizain egoiliarrentzako lanpostu kopurua handituko da eta funtzio berrietarako gaikuntza hobetuko da, kasuen kudeatzaile berriak, erreferente berriak edo prozesu automugatueterako eskumen berriak izateko, adibidez.
- Lehen mailako arreta zerbitzuko sendagile kopurua areagotu, pediatria-arloko eta familiako eta komunitateko medikuntza-arloko BAME prestakuntzari lehentasuna emanez. Helburu horrekin, Euskadin egiaztatuta dauden irakasleen trebetasuna ahalik eta gehien aprobetxatzeko konpromisoa hartu dugu, arlo horietan ahalik eta lanpostu gehien egon daitezen.
- UPV/EHUrekin lankidetzan aritu, Familiako Medikuntza ikasketa-programan ikasgai bezala sartzeko.
- Sendagileen eta erizainen lana desburokratizatu, pazienteak artatzen ahalik eta denbora gehien eman dezaten. Horretarako, osasun zentroetan eskariaren kudeaketa-eredua progresiboki zabalduz joango gara, administrazio-langileen egitekoa indartuz.
- Lehen mailako arreta zerbitzuko sendagileek eska ditzaketen proba diagnostikoen zorroa zabaldu eta homogeen bihurtu, pazienteak ospitaleraino joan behar ez izateko, eta familiako sendagileek erabaki gehiago hartzea ahalbidetu. Esate baterako, erresonantziak edo analisi konplexuak egin behar direnean.
- Lehen mailako arreta zerbitzuko fisioterapia Osakidetzaren zerbitzuen zorroan sartzen joan. Patologia muskuloeskeletikoa edo gaixotasun neurodegeneratibo batzuk dituzten pertsonak izango dira onuradunak, Euskadiko Gaixotasun Neurodegeneratiboetarako Arreta Planaren arabera.
- Zerbitzuen, unitateen eta profesional elebidunen zorroa zabaldu.
- Lehen mailako arreta emateko osasun zentroak modernizatzeko eta sistema teknologikoak eguneratzeko inbertsioa areagotu.
- Lehen mailako arreta zerbitzuan azpiegitura berriak ireki: Alde Zaharreko osasun zentroa Gasteizen eta Murgia osasun zentroa; Aiete eta Alde Zaharra Donostian, Aretxabaletan, Ordizian; Zallan eta Irala Bilbon

Lehen Mailako Arreta indartu Covid-19aren jarraipena egiteko eta hura geldiarazteko.

Behin oraingo osasun krisiaren okerrera igarota eta koronabirusak eragindako kurba epidemikoa menderatu ondoren, beste fase batean sartzen gara. Fase horretan, epidemia geldiaraztea beharrezko zeregina da oraindik, agertuz doazen kasu berriak isolatuz eta kasu horiekin harremanetan egon ahal izan diren pertsonak identifikatuz eta haiekiko prebentziozko neurriak hartuz. Horretarako, ezinbestekoa da Lehen Mailako Arreta indartzea, gaitasun espezifiko batzuekin, eta EAJk honako hiru proposatzen du horretarako:

02

- Osakidetzaren Lehen Mailako Arreta zerbitzuetan 35 Familiako eta Komunitateko Erizaintza espezialista gehitu, Covid-19aren kasu berriak eta haiekin harremana izan dutenak kudeatzeko, Euskadiko osasun eremu desberdinetan.
- Aurretik zegoen zerbitzua indartu, Lehen Mailako Arreta Unitateetako 150 erizain baino gehiagorekin, espezialistek epidemia behatzeko egindako jarduketaren bidez.
- Go.Data aplikazioa ezarri Covid-19aren kasuak eta haiekin harremana izan dutenak kontrolatu eta kudeatzeko, epidemiaren testuinguruaren baitan, tresna hori garatu duen Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) gomendioak jarraituz.
- Lehen Mailako Arretan behar diren PCR test guztiak edukitzea, Covid-19arekin bat datozen sintomak dituen edo kutsatuta egoteko susmoa duen paziente orori probak egiteko.

Laguntza berezituaren eta ospitaleko laguntzaren bikaintasuna.

Hona hemen EAJk planteatutako jarduketak:

03

- Ebakuntzetarako itzarote-zerrendak 65/2006 Dekretuan markatutako ratioen azpitik mantendu. Gaur egun estatuko mailarik baxuenetan daude eta Europako baxuenen artean daude: kirurgia onkologikorako 30 egun natural eta bihotzeko kirurgiarako 90 egun natural.
- Erreferentziazko Unitateetan espezializazio altuko politika mantendu, osasun-arloan emaitza hobekak lortzeko.
- Bihotzeko kirurgian zerbitzu bakarra ezarri eta terapia zelularerako erreferentziazko unitate bat ezarri Euskadi osorako, gure gizarteari zerbitzu aurreratu eta adituak eskaintzeko, pazienteak bizi diren lurralde historikoa edozein izanik ere.
- Euskal Osasun Sistema Publiko gisa eta talde profesionalekin batera, Osasun Sistema Nazionalaren Zentro, Zerbitzu eta Unitateetara edo Europako Bikaintasun Sareetara batzeko aukerak dituzten ildoak identifikatu eta indartu.
- Onkologikoak Osakidetzarekiko duen lotura sendotu, Gipuzkoarako onkologia zerbitzu bakarra garatuz.
- Euskal Biobankuko informazioaren potentzialtasuna aprobeztatu big data eta adimen artifiziala baliatzen dituzten aplikazioetarako tresna erabilgarria bilakatzeko, doitasun-medikuntzaren esparruan, eta hala osasun eta ikerketa sistemaren beharrezko mailarik gorenean erantzuten jarraitu ahal izateko, hemen zein nazioartean.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

Osasunari mesede egiteko azpiegitura berriak.

EAJk planteatutako jarduketak:

- Osakidetzaren sareko X izpien 25 gela berritzen joan, mailaka.
- Osakidetzaren sareko anestesia-ekipamenduen parkea progresiboki berritzen joan.
- Tolosan bereizmen handiko zentro bat eraiki, anbulatorioko espezialitate mediko eta kirurgiko guztiak har ditzakeena eta horrez gain, Kirurgia Handi Anbulatoriorako ebakuntza gelak eta ekipamenduak, eguneko ospitale mediko-kirurgikoa eta diagnostiko aurreratuak egiteko baliabideak (endoskopiak egiteko batez ere) eta erradiodiagnostikorako ekipamenduak (erresonantzia magnetikoa, OTA eta erradiologia konbentzionala) barne hartzen dituenak.
- Donostia Unibertsitate Ospitalean hezur-muineko transplanteak egiteko dauden instalazioak berritu eta egokitu, Terapia Zelularrerako Erreferentziazko Unitatearen egiaztapenera egokitzeko.
- Arabako Unibertsitate Ospitalearen eraikin nagusi berria egiteko obrak bukatu eta eraikina ireki, Arabako gizartearentzako zerbitzu berriak definituz.
- Basurtuko Unibertsitate Ospitalean (Bilbo-Basurtuko ESI) OTA diagnostiko onkologikoa egiteko ekipamendu berria jarri.
- Gurutzetako Unibertsitate Ospitalean (Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzeta ESI) akutuen psikiatria zerbitzua zabaldu.
- Debagoieneko Ospitalean zerbitzuak oso-osorik berrantolatu.
- Bidasoako ESiko eta Goierri-Urola Garaiko ESiko bloke kirurgikoak modernizatu eta handitu.
- Bidasoako Ospitaleko larrialdietarako eremuaren eraberritze lanak bukatu.
- Donostia Unibertsitate Ospitaleko (Donostialdea ESI) hemodinamika zerbitzua berriro kokatu eta zabaldu.
- Basurtuko Unibertsitate Ospitaleko (Basurtuko ESI) hemodinamika zerbitzua zabaldu.
- Donostia Unibertsitate Ospitaleko (Donostialdea ESI) endoskopia gelak berrantolatu eta handitu.
- Euskadiko erradioterapiako parke teknologikoaren eraberritze lanak bukatzeko, Onkologikoko azeleragailu lineala ordeztu.

04

Ingurumenarekin konprometitutako osasun sistema.

Honako hauek dira EAJk proposatutako jarduketak:

- Euskal osasun sisteman hondakin plastikoak progresiboki murrizten joateko eta haien kudeaketa hobetzeko plan korporatiboa.
- Osakidetzaren atxikimendua lhobek bultzatutako erosketa publiko berdearen programara, ingurumenean izandako eragina kontuan izan beharreko aldagaia izan dadin, dimentsio horretan balantze hobea duten teknologiak/produktuak/zerbitzuak lehenetsiz.
- Ingurumeneko aginte-koadro korporatiboa egin, arlo horretan erabaki hobek hartu ahal izateko.

05

Hizkuntza-normalizazioa errespetatu.

EAJk planteatutako jarduketak:

- Euskararen erabilera bultzatu osasun erakundeetako laneko hizkuntza gisa, barruko harremanetan zein kanpokoetan, hornitzaileekin zein beste administrazio batzuekin.
- Profesionalen euskarazko prestakuntza planak zabaldu, arreta euskaraz ematen den euskal udalerrri kopurua handitzen jarraitzeko. 2024rako dugun helburua da lehen mailako arreta zerbitzuko zein arreta espezializatua emateko zerbitzuko harrera-, onarpen- eta informazio-unitate guzti-guztietan pazienteek lehenetsitako hizkuntzan jardutea.
- % 45etik gorako biztanleria euskalduna duten udalerrietan kokatuta dauden lehen mailako arreta zentroetan sendagileek eta erizainek arreta lehenetsitako hizkuntzan ematen dutela bermatu.
- Osakidetzako langile elebidunen kopurua % 15 handitu.
- Gutxienez erabiltzaileen % 70 euskararen erabilera mailarekin pozik egotea lortu.
- Pazienteen % 100en hizkuntza-lehentasuna erregistratu.
- Ofizialak ez diren hizkuntzen erabilera ahalbidetzen jarraitu, hala behar dutenei behar bezalako arreta ematen zaiela bermatzeko.

06

Farmaziaren erabilera egokia eta funtzionala.

EAJk planteatutako jarduketak:

- Farmazia-industriari emaitzen araberako ordainketa egiteko politikak garatu.
- Farmaziako gastuaren erabilera egokian eta zentzuzkoan sakondu, euskal osasun sistema publikoko profesionalekin batera, kalitatezko preskripzio eraginkorretan etengabe hobetzen jarraitzeko, berrikuntzaren bidetik.
- Euskal osasun sistema publikoari Farmazia Soziosanitarioaren Unitatea gehitu, egoitzei sendagaiak modu zentralizatuan banatzeko, 29/2019 Dekretua garatuz (otsailaren 26koa, Euskal Autonomia Erkidegoko adineko pertsonentzako egoitza-unitateen farmazia-zerbitzuei eta sendagai-biltegiei buruzkoa).
- Farmazia-bulegoekiko integrazio maila sendotu eta areagotu. Hurbileko osasun-eragileak dira eta osasun sistemarekin elkarlanean, komunitatera bideratutako osasun zerbitzuak eskaintzen dituzte, sendagaien erabileraren eta osasunaren prebentzioaren eta sustapenaren inguruan.
- Printzipio aktiboaren araberako preskripzioa eta generikoen kontsumoa indartu. Momentu honetan, Euskadin sendagai generikoak kontsumitutako unitateen % 50,5 dira eta balio ekonomikoari erreparatuz gero, % 23,6. Generikoen kontsumoa Europako batez besteko mailetara iristea da gure helburua, hau da, % 65 inguru unitateetan eta % 25 balioetan.

07

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

Osasunaren behatokia.

Hona hemen EAJk planteatutako jarduketa:

08

- Osasunaren behatokia martxan jarri eta zabaldu. Biztanleriaren osasunari buruzko informazio guztia praktika klinikoan txertatzea ahalbidetuko du, osasun-langileek ohiko praktika klinikoan erabili ahal izateko.
- Alerta goiztiarreko mahai bat ezartzea munduan gerta daitezkeen pandemia kasuetarako, Euskadin prebentziozko eta euste-kontingentziako protokoloak eta planak ezartzeko.

Kudeaketa garden eta bateratua.

Bi jarduketa proposatzen ditu EAJk:

09

- Euskadiko osasun sistema konpromisoaren, gardentasunaren, zorrotasunaren eta zintzotasunaren printzipioak oinarri hartuta kudeatzeko plan estrategikoa.
- Berriro ere Espainiako Gobernuari falta diren eskumenak eskuordetzeko eskatu, batez ere osasun-erloto prestakuntza espezializatua, lanpostu eta zentroen egiaztapena, farmaziako produktuen erloto legegintza, aldi baterako ezintasunen kontrola edo kanpo-osasuna.

3. KONPROMISOA

OSASUNERAKO PROFESIONALAK.

EKINBIDEAK

— **Kalitatezko enplegu publikoa.** EAJk planteatutako jarduketak:

- 01**
- Osakidetzaren egonkortasuna berriro eta areagotu. Enplegu Publikoaren Eskaintzan 4.000 lanpostu betetzeko deia egin 2021-2024 tartean, Osakidetzak sortu zenetik izandako lanpostuen zerrenda berritzeko.
 - Langileak aukeratzeko eredu berria aplikatu, osasun sistema publikoko lanpostuak betetzeko orduan gardentasuna, justizia eta ekitatea bermatzera bideratutako 57 neurri barne hartzen dituena.
 - Osasun-langileei zuzendutako Prestakuntza Plan Espezifikoa, minbizia duten pertsonak eta haien senideak hobeto artatzeko, batez ere gaixotasun hori Euskadin heriotza gehien eragiten dituena dela kontuan hartuta.
 - Mugikortasun sistema irekia sustatu, Osakidetzako profesional guztiei haien aukeretara egokitutako irtenbideak eskaintzeko.
 - Uztarketa erantzunkidea bultzatu, osasun-langileen bizitza pertsonalaren, familiaren eta lanaren uztarketa sendotu eta areagotzeko. Adibidez, ordu-tegi-malgutasuna eta urrutiko lana aztertuko dira neurri gisa.
 - “Enpresa osasungarria” kontzeptua garatu. Horrek lan-inguruan osasunaren kultura eta ongizatea lantzea eta giro atseginaren alde egiten jarraitzea esan nahi du. Kontzeptu horrek laneko arriskuen eta arrisku psikosozialen prebentzioari, langile bakoitzaren osasunaren jarraipena egiteari eta abarri egiten die erreferentzia, zerbitzu-erakundeen Arriskuen Prebentziorako Unitateen bidez.

— **Genero-ikuspegia.** EAJk proposatutako jarduketak:

- 02**
- Osakidetzaren Berdintasun Plana onetsi, zabaldu eta ebaluatu.
 - Euskal osasun sistema publikoan lan egiten duten pertsona guztien kudeaketa-sistema eta prozesu guztietan genero-ikuspegia txertatu.
 - Zuzendaritzako lanpostuetan eta erabakiak hartzeko lanpostuetan emakume kopurua handitu. Momentu honetan emakumeak buru dituzten bulego nagusien ehunekoa % 60koa da. Ehuneko hori emakumezko langile kopuru osoaren parekoa izatea lortzea da helburua, hots, % 80.
 - Soldata-diskriminazioa identifikatzeko eta hura desagerrarazteko plan zehatz bat martxan jarri eta soldata-arrakala murrizten laguntzeko ekinbide zehatzen berriazko programa bat aplikatu.
 - Osasunaren eta generoaren inguruko azterlanak bultzatu eta Euskadiko osasun sistemako jarduketa guztietan aplikatzea sustatu.
 - Osasun Planaren baitan, osasun-arloan generoarekin zerikusia duen berdintasunikeza desagerrarazteko politika espezifikoak definitzeari eta ezaugarritzeari buruzko atal espezifiko bat itxuratu eta garatu.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

4. KONPROMISOA

IKERKETA, EZAGUTZA, BERRIKUNTZA ETA OSASUN SISTEMAREN ETA ZIENTZIA-TEK-NOLOGIA-ENPRESA SISTEMAREN ARTEKO LANKIDETZA.

EKINBIDEAK

01

Osasun-arloko I+G+b estrategia berri bat onestea planteatzen du EAJk (EIS 2025), osasun sistemak aplikazio klinikora eraman daitezkeen emaitzak lortzeko duen ahalmena areagotzeko xedez.

02

Osasun-arloko I+G+b erakundeek sarean duten funtzionamendu koordinatua indartu eta haien estatu mailako zein nazioarteko aliantza estrategikoak indartu, Euskadi osasun-arloko I+G+b jardueretan bikaintasuneko erreferentia izan dadin.

03

Berrikuntza irekia garatu, euskal osasun sistema publikoaren eta beste erakunde batzuen arteko lankidetzaren bidez, nazioartean lehiatzea ahalbidetzeko besteko masa kritikoa lortzeko.

04

Datuen ustiapen masiboa eta Adimen Artifizialaren (AA) erabilera areagotu, osasun-langileen zerbitzura dagoen tresna gisa, gaixotasunen prebentzioa, diagnostikoa eta tratamendua eta pazienteen osasuna hobetzeko.

05

Ikerketan eta berrikuntzan oinarritutako doitasun-medikuntza pertsonalizatua gehitu, osasun-laguntza hobe eskaini ahal izateko, gaur egun aplikazio-eremu nagusia den onkologiaz haratago.

06

Diagnostiko-sistemen eta/edo tratamenduen baterako ikerketa programa berriak ezarri medikuntza erregeneratiborako eta terapia aurreratueterako (terapia zelularrak eta gene-terapiak) eta gaixotasun arraroetarako. Gaixotasun neurodegeneratiboak tratatzeko ezagutza eta ikerketa garatzeari arreta berezia eskaini.

07

Ikerketa eta berrikuntza prozesuetara paziente gehiago batzeko aurrerapausoak eman.

08

Emakumeen osasun-arazo eta patologia espezifikoak aztertzen dituzten ikerketa proiektuen kopurua handitu.

09

Emakumeek osasun-arloko ikerketan egindako ekoizpen zientifikoa eta izandako parte-hartze aktiboa ikusgarri egin.

10

Osasun-arloko I+G+b jardueretan osasun-langileen parte-hartzea sustatzeko eta saritzeko eta zientzia-teknologia-enpresa sistemarekiko erlazioa eta lankidetzeta indartzeko esparru arautzailea onetsi.

11

Osasun teknologia eta ekipamendu berrien inguruko ikerketa-, garapen-, baliozkotze-, balorazio- eta frogaketa-jarduerak eta proiektuak garatzen laguntzen duten programak eta tresnak indartu, euskal osasun sistemarekin eta zientzia-, teknologia- eta enpresa-arloko eragileekin batera. Prozesu berritzailearen fase guztiak gauzatuko dira, ideia sortzen denetik erosketa publikoa gertatzen denera arte, euskal osasun industria indartsua lortzeko.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

5. KONPROMISOA

OSASUNAREN PREBENTZIOA, BABESA ETA SUSTAPENA.

EKINBIDEAK

- Euskal Osasun Publikoari buruzko Legea. Euskal osasun sistema publikoa Europako onenen artean egotea nahi du EAJK, hots, herritar guztiek osasun fisiko eta mentalaren ahalik eta mailarik altuena lortzeko duten eskubidea egia bihurtzea. Hori dela-eta, EAJren aburuz beharrezkoa da Euskadirentzako Osasun Publikoaren Lege propioa proposatzea, Estatuko “33/2011 Lege Orokorra, urriaren 4koa, Osasun Publikoari buruzkoa” osatuko duena eta gure berezitasunetara egokituko duena.

Lege berriak indartuko dituen alderdietako batzuk zaintzaren, prebentzioaren, sustapenaren eta osasunaren babesaren ingurukoak izango dira, hala nola:

01

- Euskadiko biztanleen osasuna arriskuan jar dezaketen faktoreak hautemateko alerta eta erantzun azkarreko sistemak.
- Osasun publikoaren inguruko aldi behingo inkestak, osasuna eta osasun sistema hobetzeko beharrezkoa den informazioa emango dutenak.
- Agertuz doazen, infekziosoak diren eta etorkizunean osasuna arriskuan jar dezaketen gaixotasunei aurrea hartzeko programak.
- Osasunaren arrisku-analisiak, ebaluazio-, kudeaketa- eta komunikazio-jarduerak barne hartzen dituztenak, osasuna hobeto babesteko xedez.

- ■ Osasunaren zeharkako sustapena euskal politika publiko guztietan.

02

2013-2020rako Osasun Planaren ebaluazioa egitea proposatzen du EAJK eta prozesu horretatik abiatuz 2021-2028erako Osasun Plan Berria itxuratzea.

- **Prebentzio - eta baheketa - programak areagotu, batez ere umekien eta jaioberrien baheketen kasuan.**

EAJK proposatutako jarduketak:

03

- Haurra jai aurretik kromosomen alteraziorik dagoen hautemateko xedez, Euskadi amaren odolean umekiaren DNA detektatzeko aukera inkorporatzen duen lider gisa kokatu.
- Jaioberrien Sortzetiko Gaixotasunen Baheketaren bidez (Gaixotasun Metabolikoen Programa), hots, “orpoaren probaren” bidez, gaixotasunen identifikazio eta prebentzio goiztiarra areagotu.

Minbizi kasuetan biziraupena handitu.

Hona hemen EAJk planteatutako jarduketak:

- 2018-2023rako Euskadiko Plan Onkologikoa zabaldu eta ebaluatu, pertsonen biziraupena handitzeko xedez.

Minbizia gainditu duten pazienteen bizi-kalitatea hobetzeko baterako ekintza-programa bat diseinatu eta ezarri.

Umetoki-lepoko, bularreko eta koloneko minbizi kasuak prebenitzeko programak % 100 zabaldu,

- Umetoki-lepoko minbiziaren screening-a osotasunean zabaltzera heltzeko.
- ESI guztietan koloneko minbiziaren screening-ean 3tik 5erako errondak osatzeko bi urtero.

Birikako minbiziaren baheketa egitearen komenigarritasunaren eta/edo egokitasunaren inguruan dagoen ezagutza urtero ebaluatu eta beharrezkoa izanez gero, populazioan gaixotasun horren baheketa egiteko plan bat definitu.

Adimen Artifizialaren erabilera bultzatu, bularreko minbiziaren screening-ean erabakiak hartzen laguntzeko.

04

Gaixotasun kardiobaskularren prebentzioa eta tratamendua hobetu.

EAJk proposatutako jarduketak:

- “Infartu Kodea”. Miokardioko infartu akutuak eragindako heriotza kopurua murriztu, Bihotzez programan identifikatzen diren hobekuntza-eremuetara zuzendutako jarduketaren bitartez. Programa horren bidez, urtean 1000 pertsona artatuko dira.

- “Iktus Kodea”. Paziente bakoitzari ahalik eta epe laburrenean aukera terapeutikorik onena bermatzen dion jarduketa-protokoloa zabaldu. Istripu zerebrobaskularrek ondorio larriak dakartzate. Euskal gizartean heriotza eragiten duen kausa nagusietako bat dira eta horrez gain, desgaitasunaren kausa nagusia dira.

05

Gaixotasun neurodegeneratiboetarako arreta berezia.

Hona hemen EAJk proposatutako jarduketak:

- Genetika-arloan eta errehabilitazio-arloan jarduteko plan bat diseinatu eta zabaldu, batez ere gaixotasun neurodegeneratiboetan eta patologia zerebrobaskularretan zentratuz.

- Gaixotasun neurodegeneratiboen prebentziorako eta arretarako estrategiaren buruan izan: Alzheimerra (gaixotasun horien % 70), Parkinson gaixotasuna edo Alboko Esklerosi Amiotrofikoa (AEA), pazienteen eta familien elkarrean elkarlanari eta aliantzari arreta berezia eskainiz.

06

Txertoak jartzeko egutegia zabaldu eta eguneratu.

EAJk planteatutako jarduketak:

- Haurrei zein helduei txertoak jartzeko egutegiak ebaluatu, eguneratu eta zabaldu, beharrezkoa denean.
- Txertoen aurkako mugimenduei aurre egiteko informazio- eta sentsibilizazio-kanpainak egin gizartearentzat, mugimendu horiek arriskuan jartzen dituztelako osasun-arloan biztanleria gaixotasun kutsakorretatik babesteko xedez egindako aurrerapenak.

07

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

08

Antibiotikoen gehiegizko erabileraren inguruko kontzientziakzioa areagotu.

- Biztanleen artean antibiotikoen erabilera egokia sustatzeko estrategia, etorkizunean erresistentzia ekiditeko.

09

Mendekotasun berrien prebentzioa eta tratamendua.

Hona hemen EAJk proposatutako jarduketak:

- Mendekotasun Legea garatzen amaitu, pertsonak gehiago babesteko, gazteenak eta zaurgarrienak bereziki.
- Substantzien eta mendekotasuna sor dezaketen portaeren gaineko arriskuari buruzko kontzientzia sozial handiagoa sustatu, prebentzio-arloan esku hartuz eta aisia segurua eta osasungarria sustatzeko neurriak hartuz.
- Zigarreta elektronikoei, nikotina aska dezaketen gailuek eta tabakoa duten produktu berriek osasunerako izan ditzaketen arriskuez ohartarazi, informazio-kanpainen bidez.
- OMErekin batera, kutsaezinak diren patologietan eragina duten faktoreak azpimarratu, bereziki: tabakoaren eta alkoholaren kontsumoa; egoneko bizitza, oso osasungarria ez den dieta edo kutsadura.
- Jokoaren publizitate-arloan berariazko araudia garatu, Segurtasun Saileko Joko Zuzendaritzarekin batera.

10

Elikadura osasungarriko estrategia bat garatu.

EAJk planteatutako jarduketak:

- Elikadura Osasungarriaren Aldeko Estrategia eta Haurren Obesitatea Prebenitzeko "Sano" Estrategia garatu, Euskadiko haur eta gazteen % 100ek egunero frutak eta barazkiak kontsumitu ditzan eta gutxienez ordubetez ariketa fisikoa egin dezan, haurren obesitate indizea % 10 murrizteko eta Euskadi haurren obesitate indize baxuenak dituzten eskualde europarretako bat izan dadin.
- Euskadin osasunarekin eta jarduera osasungarriekin konprometituta dauden eragileen mapa bat egin eta zabaldu.
- Osasun inkestetan elikaduraren inguruko alderdiak txertatu.
- Euskadiko vending makinetan elikagai osasungarri gehiago sartu.
- Osasun-langileen prestakuntza areagotu, elikadura osasungarriaren sustapenerako.
- Osasun publikoko ikuskatzaile-sarearen bitartez, elikagaien etiketen eta osaeraren egiazkotasuna kontrolatzeko programa berezi bat abiarazi, elikagaien benetako edukia "gatz, azukre eta koipe gutxiduna" etiketara egokitzen dela bermatzeko.
- Azukredun edariak zergapetzeko aukera baloratzea, Foru Aldundiekin eta Jaurlaritzako Ogasun Sailarekin batera.

Ariketa fisikoa sustatu.

EAJk planteatutako jarduketak:

||

- Haurtzaroan, nerabezaroan eta adineko pertsonen artean ariketa fisikoa sustatzeko erakunde arteko programa. Gorputza mugitzeko egindako jarduera oro litzateke ariketa fisikoa, jolasean, lanean, leku batetik bestera modu aktiboan joatean, etxeko lanetan eta aisian egiten denean, eta kirol gisa egiten denean, noski.
- Euskal gizartea ariketa fisikoak osasunerako duen garrantziaren inguruan kontzientziatzeko “Mugi zaitez” kanpaina.

Suizidioa prebenitzeko estrategia.

Hona hemen EAJk proposatutako jarduketak:

12

- Suizidioa Prebenitzeko Estrategia osorik zabaldu, barne hartzen dituen 57 neurri zehatzekin, arriskua aldeztu aurretik hautemateko eta garaiz esku hartu ahal izateko. Beharrezkoa da suizidioa ikusgarri egitea, estigmak eta tabuak baztertuz eta biziraun duten pertsonak zainduz.
- Zaintza epidemiologikoa eta ikerketa egin, Euskadiko suizidioen erregistro baten bidez, eta gertatutako suizidio kasuetan profilak identifikatzeko autopsia psikologikoak egin.
- Prestakuntza eta kontzientziaketa, herritarrak sentsibilizatzeko aldi behingo kanpainen bidez. Informazioa, orientazioa eta laguntza emateko webgunea eta hedabideentzako orientazio-gida sortu.
- Baliabide hilgarriak lortzea galarazi, suizidio arriskuen mapa bat eginez. Mapa horren bitartez, suizidatzeko erabilitako metodoen profila eta arrisku handiko eremuak ezagutuko genituzke. Bestela, hesiak eta suizidioa eragozteko beste elementu batzuk jarri.
- Hezkuntzan, gizarte zerbitzuetan, lan-arloan eta familietan suizidio arriskua lantzeko prestakuntza koordinatu.
- Biziraun duten pertsonen kasuetan erantzuteko jarduerak gauzatu, erantzun azkarra emateko protokoloen bitartez edo asoziazionismoa sustatuz eta babestuz.
- Kolektibo zaurgarrietan joera suizidaren detekzioa eta prebentzioa hobetu.



GIZARTE INKLUSIOA / GIZARTE ZERBITZUAK GIZARTE INKLUSIOA

DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTA
(DSBE) JASOTZEN DUTEN PERTSONA
ENPLEGAGARRIEN LAN-MUNDURATZE
HITZARMENAK % 20 GEHITU.

- Enpleguaren sorrera eta aberastasunaren birbanaketa berebizikoak dira gizarte-babeserako sistemak bermatzeko (pentsioak, langabezia, osasuna, gizarte zerbitzuak...). Osagarri gisa, gizarte-babeserako sistemak, enpleguan eta BPGd-an eragin zuzena izateaz gain, pertsonen oinarizko beharrezkoak ezaltea, gizartean parte hartzea, haien gaitasunak garatzea eta haien bizi-proiektua gauzatzea ahalbidetzen dute, jarduera eta hazkunde ekonomikoa sorraraziz. Horrela, jarduera ekonomikoa sustatzeko politikek zein gizarte politikek gizarte kohesioa, birbanaketa eta hazkundea lortzen laguntzen dute.
- Euskal gizarteak ondo daki berdintasunik eza eta prekaritatea areagotzen duten faktoreak zeintzuk diren. Ez gara irla bat, eta mundu mailako erronkez ari gara. Testuinguru horretan, Euskadin lortu dugun gizarte-babes eta kohesio maila hobetzen jarraitzearen aldekoa da EAJ. Horretarako, ezinbestekoa da ekoizpenaren, prestakuntzaren, ordainsarien, irabazien, bilketaren eta birbanaketaren arloetan aldi berean haztea. Helburu horrekin, datorren hamarkadan belaunaldi arteko erreleboa kudeatu beharko dugu lan-merkatuan. Horrez gain, langileek dituzten gaitasunen eta kalitatezko enpleguari eta eza-gutzan oinarritutako ekonomiari lotutako ekoizpen jardueraren eskakizunen artean dagoen aldea konpondu beharko dugu. Eraldaketa digitalaren prozesua ere gizarteratzeko edo gizarretik kanpo geratzeko funtsezko faktorea da eta beharrezkoa izango da hainbat erronkari aurre egin eta aukerak aprobetxatzea, arrakala digitalari edo horrek gutxieneko prestakuntza behar duen enpleguan duen eraginari aurre egitea esaterako, eta autonomia gehiagorekin gizarteratzen laguntzen duten aplikazio digitalak garatu ditzakegu.
- EAJrentzat, gizarte inklusioa enplegura, etxebizitzara, hezkuntzara, osasunera, informaziora, gizarte laguntzara eta gaitasunak garatzea, eskubide eta betebeharrak gauzatzea eta pertsonen bizitza autonomorako proiektuak aurrera eramatea posible egiten dituzten beste baliabide batzuetara sarbidea izatea da. Gizarte

integrazioa politika publikoen emaitza da, baina baita elkartasunaren eta elkarrekotasunaren, elkarri laguntzearen, familieren babesaren eta laguntza-sare komunitarioen lanaren emaitza ere.

- Haur pobrezia gizarte kohesioaren porrotaren erakusgarri da eta arriskuan jartzen ditu aukera-berdintasuna, pobrezian bizi diren haur horien etorkizuna eta gizartearen beraren etorkizuna. Euskal administrazio publikoek eta beste instituzio batzuek sinatutako familien eta haurren aldeko euskal itunarekin bat eginez, haur pobrezia desagerraraztea eta proaktiboki prebenitzea da EAJren konpromisoa, seme-alabak dituzten familia guztientzako baliabide ekonomiko nahikoa bermatuz.

Haur pobrezia guraso bakarreko familia amadunei eragiten die gehienbat. Lanean diskriminatua izateko faktorea da emakumezkoa izatea. Horren erakusgarri dira soldata-arrakala, emakumeen okupazio-tasa baxuagoak eta haien langabezia-tasa altuagoak, besteak beste. Laneko berdintasunik ezak pobrezia eta gizarte-bazterketaren feminizazioa dakar eta eragina du haur pobrezian. Emakumeek lan-merkatuan gehiago parte hartzeak eta zaintza formala indartzeak emakumeen aukerak, autonomia eta bizi-kalitatea hobetzen ditu eta gainera, jarduera ekonomikoa eta BPGd areagotzen ditu. EAJren aburuz, euskal gizarteak eta instituzioek berdintasunaren aldeko aurrerapausoak ematen jarraitu behar dute, pertsona guztien bizi-proiektuak posible eginez, gaitasunak garatuz eta esparru guztietan gizonen eta emakumeen talentua bere osotasunean aprobetxatuz.

- Gizarte batek gazteek haien bizi-proiektua modu autonomoan abian jartzeko duen gaitasunaren erakusgarri onena da gazteen emantzipazioa. Euskal gazteek 30 urte baino lehen emantzipatzeko aurkitzen dituzten oztopoek arriskuan jartzen dute belaunaldi arteko elkartasuna eta zailtasunak dakartzate maila pertsonalean zein sozialean, zuzenean edo zeharka, gazteen bizi-proiekturako eta erronka demografikorako zailtasunak direlako. Ez zaio etekin ateratzen gazteen talentuari, alferrik galtzen da inbertsio so-

zial bat eta familia berrien sorrera eta haurrek izateko momentua atzeratzen dira.

- Emakumeen aurkako indarkeriak belaunaldi berriei ere eragiten die eta horrek erakusten du oraindik ere matxismoa indarrean dagoen eta gizartean transmititzen eta errepikatzen den paradigma dela. Testuinguru horren baitan, EAJren iritziz beharrezkoa da adin tarte guztietan indarkeria matxistaren aurkako borroka sendotzea, haurrei, nerabeei eta gazteei zuzendutako berariazko ekintzen bidez. Era berean, EAJk beharrezkotzat jotzen du salatze, babesteko, sentsibilizatzeko eta baloreetan hezteko ahalegin guztiak egitea, matxismoa eta emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko legeak sortuz eta esku hartuz, emakumeen aurkako indarkeria izanik matxismoaren adierazpiderik erradikalena.
- Ezinbestekoa da esparru guztietan herritarren eskubideak benetan gauzatzeko aurrerapausoak ematen jarraitzea, herritarren bizitza independentea eta gizarteratze osoa sustatuz. Helburu horrekin, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren katalogoan desgaitasunen bat duten pertsonen zuzenduta dauden prestazio eta zerbitzuen dekretuak garatzea da EAJren konpromisoa.
- Pobrezia, gizarte-bazterketa eta arrisku-egoerak areagotu egin dira COVID-19aren eraginak ekarritako krisi ekonomikoetatik eta aldi berea, egoera horien aurrean erantzuteko baliabide publiko kopurua murrizten da. Gainera, laneko prekaritateak hurrengo krisialdi ekonomiko baten larritasuna areagotu dezake, familien bizi-baldintzak okertuko litzukeelako (“euri zaharraren gainean aritzea” litzateke) eta baliabide publikoak murriztuko liratekeelako. Ildo horretatik, tresna antiziklikoak bilatzeko beharrezkoak planteatzen du EAJk, lan-, ekonomia-, finantza- eta gizarte-arlokoak, enpleguari eutsi ahal izateko eta haren kalitatea hobetzeko, krisialdiaren ondorio diren beharrezko sozialen gorakadari erantzuteko, jarduera ekonomikoaren pizgarri izango liratekeen inbertsio emankorrak egiteko eta gizarte kohesioa, elkarrekiko laguntza eta elkartasun antolatua indartzeko.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

A. GIZARTETIK BAZTERTUTA DAUDEN EDO BAZTERTUAK IZATEKO ARRISKUAN DAUDEN PERTSONEI LAGUNTZEKO LURRALDE-SAREAK.

1. KONPROMISOA

GIZARTETIK BAZTERTUTA DAUDEN EDO BAZTERTUAK IZATEKO ARRISKUAN DAUDEN PERTSONEI LAGUNTZEKO LURRALDE-SAREAK SENDOTZEN LAGUNDU.

EKINBIDEAK

01

Lurralde historiko bakoitzean gizarte zerbitzuen sarea zabaltzen jarraitzea planteatzen du EAJK, inklusiorako bide edo prozesu desberdinak kontuan hartuz eta haiekiko koherentzia mantenduz.

02

Lehen mailako eta bigarren mailako arretaren zein gizarte zerbitzuen egituraketa indartu, beste baliabide batzuekin (osasuna, etxebizitza...), gizartetik baztertuta dauden edo baztertuak izateko arriskuan dauden pertsonen udalerrir mailan etengabeko arreta emateko, zeharka eta luzetara.

03

Oinarrizko gizarte zerbitzuetatik eta bereziki gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzutik, gizartetik baztertuak izateko arriskuan dauden pertsona helduekin esku hartzea bultzatu.

04

Gizartetik baztertuak izateko arriskuan dauden eta esku-hartze sozialaren esparrutik (gizarte zerbitzuak, zerbitzu soziolaboralak, soziosanitarioak...) laguntza egonkorra behar duten pertsonen eskaini beharreko arreta antolatzeke, hobetzeko eta bermatzeko estrategia osoa martxan jarri.

05

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zorroko zerbitzuen dekretuak onetsi esparru honetan, aurreko lau ekinbideen amaiera gisa.

06

Pobrezia-tasa altuenak dituzten eta "lehenetsuneko eremu" modura identifikatu diren udalerrietan gizarte-larrialdietarako laguntzetarako (GLL) partidak % 10 igotzea proposatzen du EAJK.

B. HAUR ETA GAZTEEN POBREZIA (POBREZIA EZKUTUA).

2. KONPROMISOA

HAUR POBREZIA MURRIZTU ETA HAURREN AUKERA-BERDINTASUNEAN IZAN DITZAKEEN ONDORIOAK PREBENITU.

EKINBIDEAK

- Haur pobreziaren aurkako estrategia globala sustatu, seme-alabak dituzten eta pobrezia egoeran dauden familiei gehiago lagunduz, horietako asko guraso bakarreko familia amadunak izanik. Horretarako, ondorengoei zuzendutako neurriak bultzatuko, indartuko edo egokituko diru EAJk:
 - 01 ■ Bizikidetz-unitateak eta horiek osatzen dituzten pertsona helduak. Diru-sarrerak bermatzeko eta enplegura, etxebizitzara, osasunera eta hezkuntzara sarbidea bermatzeko neurriak; bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzeko neurriak edo etxez etxeko laguntza.
 - ■ Haurrak, haurtzarorako berme-programa baten baitan.

- Haurtzarorako berme-programa bat garatzea planteatzen du EAJk, Europar Batasunak arlo horretan ateratako ondorioak kontuan hartuta.
 - 02 ■ Programa horrek haur guztien eskubideak eta aukera-berdintasuna gauzatzea sustatuko du Euskadin, familia-egoera prekarioetan bizi diren haurren kasuan, desgaitasunen bat edo beharrian bereziak dituzten haurren kasuan, babes sarearen pean dauden haurren kasuan eta haur migratzaileen kasuan bereziki.
 - ■ Testuinguru horren baitan, haurrek oinarritzko zerbitzuetara sarbide unibertsala izatea eta haurren beharriaren detekzio eta arreta goiztiarra bultzatuko dira, besteak beste. Hori guztia, gizarte-, osasun- eta hezkuntza-arlotik.

- Diru-sarrerak bermatzeko errentan hobekuntzak egin, ardurapeko seme-alabak dituzten familientzat. Hona hemen EAJk proposatutako jarduketak:
 - 03 ■ Diru-laguntza jaso aurretik errolatuta egon beharreko epea bi urtera murriztu.
 - ■ DSBEren zenbatekoa eta osagarriak handitu, ardurapeko haurrak dituzten bizikidetz-unitateen kasurako.
 - ■ Guraso bakarreko familia amaduna edo guraso bakarreko familia izateagatik ematen den osagarria handitu.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

— Pobreziak eskolatzean eta eskola-errendimenduan duen eragina murriztu, hiru sistemetan lehen mailako arreta emateko dauden baliabideen arteko lankidetzaren bidez (hezkuntza, gizarte zerbitzuak eta osasuna), gizarte-ekimena ere batuta. Horretarako, honako jarduketak hauek egingo ditu EAJk:

04

- Elikadura zaindu.
- Hezkuntza konpentsatzailea.
- Gizarte- eta hezkuntza-arloko eta arlo psikosozialeko laguntza.
- Diziplinarteko lana egiteko tokiko mahaiak (gizarte zerbitzuak, osasun-arloko lehen mailako arreta, hezkuntza zentroak, aisialdirako hezkuntza-arloko elkarteak...), beharizan handiena duten haurrei eragiten dieten egoera guztiak aztertzeko.

05

— Neurri desberdinek familia eta haur horien egoeran duten eragina ebaluatu, neurriek haien egungo egoera konpontzeko eta haien etorkizuneko aukerak areagotzeko orduan nola eta zenbateraino lagun dezaketen eta gehiago nola lagun dezaketen zehaztuz.

3. KONPROMISOA

GIZARTE ZERBITZUETATIK GAZTEEN BIZITZA AUTONOMORAKO PROIEKTUAK SUSTATU, GAZTERIA, ETXEBIZITZA ETA ENPLEGU POLITIKAREKIN BATERA.

EKINBIDEAK

- 01 — Gazteen Emantzipaziorako Ekinbidea martxan jartzea proposatzen du EAJk, sektore publikotik ekinbideak abiaraziz, sektore eta eragile sozial guztiekin batera. Helburua 18tik 34 urtera bitarteko gazteen emantzipazio-tasa igotzea litzateke, Euskadin gazteen emantzipatzeko adina 28 urtetik beherakoa izan dadin.

Estrategia horrek eragin zuzena eta garrantzitsua izango du enplegurako eta etxebizitzarako sarbidean, talde eta eremu espezifikoetarako ekintzak diseinatuz, eta neurri jakin batzuk zehaztuko ditu gizarte politiken arloan, oro har pertsona gazteen eta gizarteratzeko zailtasun gehien dituztenen emantzipazio prozesuetan laguntzeko.
- 02 — Gazteei emantzipatzen laguntzeko sistema bidezkoagoa eta eraginkorragoa sustatu, egungo neurrien inguruko informazioa sistematizatuz (kenkariak, diru-laguntzak edo prestazioak, enplegua, etxebizitza), indartuz eta antolatuz, euskal administrazio publikoen arteko lankidetzatik abiatuz eta ekinbide isolatuak edo duplizitateak ekidinez.
- 03 — Gazteen gaitasunen eta lan-merkatuaren arteko konexioa indartzeko programak bultzatu, gazteen prestakuntza-fasean ibilbide profesionala aukeratzen den momentutik, enpleguaren inguruko sentsibilizaziorako, orientaziorako eta prestakuntzarako ekintzen bidez, prestakuntza dualaren edo gazte-bermearen bidez, esate baterako.
- 04 — Talentua erakartzeko, atxikitzeko eta berreskuratzeko programak bultzatu, proiektu edo ekinbide publikoei, enpresenei edo gizarte-ekimenari lotuta daudenak, helburu bakoitzaren (erakarri/atxiki/berreskuratu) eta kolektibo bakoitzaren arabera egokitutako estrategien bitartez.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

05

Euskal gazte migratzaileak bueltatzeko programak indartu, joaten diren momentutik joan-etorriko ibilbidea diseinatuz eta babestuz, instituzioekin, enprekin eta hirugarren sektore sozialeko erakundeekin batera.

06

Alokairu soziala sustatzea eta pertsona gazteak sustapen publikoko etxebizitzetan alokairuan sartzeko diskriminazio positiboa egitea planteatzen du EAJK.

07

Bizikidetzeta-aukera berriak bultzatu, etxebizitza-arloan eta gizarte zerbitzuen arloan eskudunak diren sailen arteko lankidetzeta oinarri hartuta, belaunaldi arteko elkartasunari bidea eginez: gazteek partekatutako etxebizitzak, adineko pertsonak eta gazteek partekatutako etxebizitzak eta egoitzak, hiri-masoberia (hutsik dagoen eraikin edo etxebizitza baten jabeak bertan bizitzeko eskubidea lagatzen dio pertsona bati edo pertsona talde bati eta azken horiek, alokairua ez ordaintzearen truke, etxebizitza eraberritzeko eta/edo egoera onean mantentzeko konpromisoa hartzen dute).

08

Emantzipatzen laguntzeko zerbitzuak bultzatu, gazteek etxebizitzara eta enplegura sarbidea izateko informazio, orientazio eta bitartekaritza espezifikoak eskainiz.

B. APARTEKO AHULTASUN EGOERETARAKO ETA PERTSONA DESGAIUENTZAKO ARRETA.

4. KONPROMISOA

APARTEKO AHULTASUN EDO BABESGABETASUN EGOERAK HAUTEMAN ETA ESKU HARTU.

EKINBIDEAK

- Etxerik ez duten eta arrazoi desberdinak direla medio laguntza-baliabideen sarera jotzen ez duten pertsonen errealitatera hurbiltzeko eta egoera hori prebenitzeko jarduketak indartu, genero-ikuspegia indartzeaz gain. Horretarako, foru eta udal instituzioekin batera, 2022-2026rako Etxerik Gabeko Pertsonen Euskal Estrategia planteatzen du EAJk. Honako jarduketa-ildoak izango ditu, besteak beste:
 - 01** ■ Prebentzioa, sentsibilizazioa, etxebizitzan oinarritutako ikuspegia, herritarren eskubideak, osasunaren, gizarte zerbitzuen, diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta enpleguaren arloko hobekuntzak, aisiara sarbidea izatea, hezkuntza eta parte-hartze soziala eta politikoa.
 - Errealitate hau prebenitzeko eta lantzeko politiketan genero-ikuspegia sendotu, kalean bizi diren emakumeen aparteko ahultasuna dela eta.
 - Kalean bizi diren pertsonentzako oso eskakizun gutxiko baliabide baten gidaritzaz, zorroko Dekretuak gizarte-bazterketaren kasu larrietarako ezarritako baliabideekiko desberdina dena.

- Instituzioetatik pobrezia energetikoaren aurkako neurriak areagotu, enpresa hornitzaileekin, finantza-erakundeekin eta beste eragile sozial batzuekin batera. Horretarako, honako jarduketa hauek egingo ditu EAJk:
 - 02** ■ Pobrezia energetikoko egoerak aldeztu aurretik hauteman.
 - Hornidura-iturri guztietarako diru-laguntzak eta bono sozialak.
 - Etxebizitza horien energia-eraginkortasuna hobetu.
 - Kontsumitzaile zaurgarriei hornidura etetea debekatu.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

5. KONPROMISOA

PERTSONA DESGAIUEN ARRETARAKO SAREAREN ARAUAK GARATZEN ETA BIZITZA INDEPENDENTEAREN PARADIGMARA EGOKITZEN JARRAITU.

EKINBIDEAK

- 01** — Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren katalogoan pertsona desgaituentzako ageri diren prestazio eta zerbitzuen Dekretuak garatzea planteatzen du EAJK, zerbitzu estandarizatuen garapena helburu pertsonaletara eta bizitza betea izateko proiektuetara bideratutako laguntzaren indibidualizazioarekin osatuz.

- 02** — Bizitza independentea egitera bideratutako prestazioak eta zerbitzuak bultzatu, bizitza independentea egiten laguntzeko zerbitzua eta laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa esaterako, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako prestazio eta zerbitzuen zorroko Dekretuaren 33. artikuluan bilduta daudenak. Hori guztia, baliabide horien hartzaile izan daitezkeen pertsona desgaituak ordezkatzeko dituzten erakundeekin batera.

- 03** — Irisgarritasun unibertsala sustatu, eta baita pertsona desgaituen aukera-berdintasuna eta diskriminaziorik eza ere, Aniztasunaren Behatokiaren bitartez, diskriminazioaren aurka borrokatzeko eta pertsona desgaituen eskubideak benetan betetzea sustatzeko beste tresna batzuen artean.

D. PARTE-HARTZEA, ELKARLAGUNTZA, BOLUNTARIOTZA ETA BIZIKIDETZA.

6. KONPROMISOA

GIZARTERATZE BIDEAN DAUDEN PERTSONEN PARTE-HARTZEA BULTZATU ETA PERTSONA HORIEK GIZARTERATZEKO BOLUNTARIOTZA-EKINBIDEAK ETA ELKARLAGUNTZA BABESTU.

EKINBIDEAK

01

Esku-hartzearen xede diren pertsonak haien gizarteratze prozesuaren plangintzan eta ebaluazioan parte hartzeko ekinbideak sustatzen eta bultzatzen ditu EAJk.

02

Elkarri laguntzeko ekinbideak (denbora bankuak, autolaguntzako taldeak) eta ekinbide formalak (erakunde eta instituzioen bidezkoak) zein informalak babestu eta elkarri laguntzeak gizarteratze prozesuetan duen eragin positiboa aitortu eta indartu.

Horretarako, honako jarduketak eta proiektu pilotuak gauzatuko ditu EAJk:

- Adineko pertsonen artean elkarri laguntzeko ekinbideak txertatu, Euskadi Lagunkoia sareko udalerrietan funtzionatzen duten talde gidarrietan.
- Desgaitasunaren arloan lan egiten duten erakundeek garatuta duten elkarri laguntzeko eredua beste kolektibo batzuei zabaldu.

03

Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeetan laguntzen duten 160.000 boluntarioen prestakuntza bultzatu, haien gaitasunak eta trebetasunak garatzeko, eta erakundeetan boluntarioen kudeaketa hobetu, erakundeen eta boluntarioen arteko lotura indartzeko.

04

Udalerrri mailan aisiarako jarduerak eta kultur eta kirol jarduerak sustatu eta gizarte zerbitzuetako zentroak inguruarekin konektatu, gizartetik baztertuta dauden edo baztertuak izateko arriskuan dauden pertsonak gizarteratzen laguntzeko eta beste pertsona batzuk ezagutzeko.

05

Gizarte integraziorako eta inklusiorako prozesuetan murgilduta dauden pertsonen erreferente edo tutore lana egiten duten familiak eta pertsonak egotea sustatu, egungo esperientziak sistematizatuz eta haiei aitortpena eta laguntza eskainiz. Honako jarduketa hauek planteatzen ditu EAJk:

- “Euskarri” programaren baitan, adingabe eta gazte zaurgarrienak gizarteratu eta laneratzea helburu duena, ekinbide bat jarriko da martxan: zailtasun larriak pasatu dituen baina zailtasun horiek guztiak gainditu dituen eta gizarteratzea eta laneratzea lortu duen gazte talde bat beste gazte batzuen babesle bilakatuko da (“hermano mayor”).
- Euskadiko komunitate islamikoekin lankidetzan aritzeko “Ados” aholkularitza batzordearekin batera, jatorri berekoak diren eta guztiz integratuta dauden familiek bakarrik dauden adingabeak hartzeko eta haiei laguntzeko kasuak gidatuko dira.
- Izeba proiektua: arrazoi desberdinak direla bide, haien familiekin bizi ez diren adingabeak hartu eta osaba-izeba lana egitea onartzen duten familiek eta pertsonak osatutako sarea.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

E. GENERO-IKUSPEGIA.

7. KONPROMISOA

GIZARTE ZERBITZUEN EUSKAL SISTEMAN ETA INKLUSIOAREN ESPARRUAN GENERO-IKUSPEGIA BARNE HARTZEKO LANEAN AURRERA EGIN.

EKINBIDEAK

01

Oro har Gizarte Zerbitzuen Euskal Sarean eta bereziki inklusioaren esparruan genero-ikuspegiaren analisisian eta aplikazioan sakontzea planteatzen du EAJK, egindako azterlanetatik eta garatutako estrategien ebaluaziotik ateratako ondorioetatik abiatuz.

02

Covid-19aren krisiak eta hortik ateratzeak emakumeen enpleguan eta okupazioan izan duen eragina aztertu, krisialdiaren aurretik, krisialdian zehar eta ostean emakumeen okupazio-tasa igotzeko neurriak bultzatuz.

03

Indarkeria matxista prebenitzeko ekintzak sustatu, nerabeei eta gazteei zuzendutakoak, Zeuk Esan zerbitzutik eta beste baliabide batzuetatik.

04

Babesgabetasunik handiena duten emakumeek pairatzen duten genero-indarkeriara proaktiboki hurbiltzeko eta hura lantzeko proiektuak edo taldeak bultzatu: genero-indarkeria salatu ez duten emakumeak, etxerik ez dutenak, desgaitasunen bat edo buruko gaixotasunen bat dutenak, iragaitzazko migratzaileak...

F. ANIZTASUN AFEKTIBO-SEXUALA.**8. KONPROMISOA****ANIZTASUN AFEKTIBO-SEXUALAREKIKO ERRESPETUA BERMATU.****EKINBIDEAK****01**

2020-2024rako Berdindu plana indartzea proposatzen du EAJk, joera sexualagatik eta genero-identitateagatik diskriminaziorik ez egoteko dena.

02

Eraberean - tratu berdintasunaren aldeko eta diskriminazioaren aurkako sarea indartu, Euskadiko tratu berdintasunaren aldeko eta diskriminazioaren aurkako II. kongresua martxan jarri.

03

14/2012 Legea aldatzeko aukera sustatu (ekainaren 28koa, transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa), transexualen eta transgeneroen elkarrekin eta adingabe transexualen familien elkarrekin batera lortutako akordioei jarraitutasuna emanez.

G. NEURRI ETA IKUSPEGI DESBERDINAK 2022-2025 GIZARTERATZEKO EUSKAL PLAN BERRIAREN BAITAN ANTOLATU**01**

2022-2025 Gizarteratzeko IV. Euskal Plana onestea proposatzen du EAJk, aurreko planaren ebaluazioan hautemandako hobekuntza-ildoak kontuan hartuz eta Covid-19aren krisian identifikatutako erronka berriak gehituz. Horretarako, 2017-2021eko IV. Planaren betetze-adierazleen jarraipen txostena egingo da.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

H. BALIZKO KRISIALDI EGOEREN EDO HAZKUNDE EKONOMIKOEN AURREAN NEURRI ANTIZIKLIKOAK SUSTATU.

9. KONPROMISOA

HAZKUNDE EKONOMIKO TXIKIAGOKO GARAIEN EDO KRISIALDI EKONOMIKOEN ERAGINARI AURRE EGITEA AHALBIDETZEN DUTEN NEURRI ANTIZIKLIKOAK HARTU.

EKINBIDEAK

- Mundu mailan, Europa mailan, estatu mailan eta eskualde mailan gizarte-, ekonomia- eta lan-esparruan arrakastaz aplikatu diren neurri antiziklikoak aztertzea eta euskal testuingururako neurri erabilgarriak identifikatu eta diseinatzea proposatzen du EAJK.
- 01** Horretarako, hitzarmen bat sinatzea proposatzen du, unibertsitate-arloko aditu talde batek nazioartean egoera desberdinetan hartutako neurri antizikliko desberdinak identifikatu, deskribatu eta azter ditzan, egoera sozial eta ekonomikoari buruzko prospekzio-txostena egin dezan eta egoera desberdinak aintzat hartuta, Euskadirako egokitzat jotzen dituen neurri antiziklikoak aurrera ditzan. Bi urtero egingo da txosten hori. Nolanahi ere, sasoi txarren bat aurreikusten den bakoitzean egin beharko da.
- 02** Gizarte zerbitzuen sistemaren, diru-sarrerak bermatzeko sistemaren eta gizarte inklusiorako sistemaren gastua finantzatzeko eta osatzeko neurri desberdinak identifikatu eta horien bideragarritasuna aztertu, krisi egoeretan beharrian gehiago eta baliabide gutxiago daudenerako.



**GIZARTE INKLUSIOA /
GIZARTE ZERBITZUAK
GIZARTE ZERBITZUAK**

- Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema erantzukizun publikoko sistema unibertsal gisa definitu zen lehen aldiz, 12/2008 Legearen bitartez (abenduarien 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa). 2008. urtearen osteko krisi-hamarkadan zehar garatu zen plana eta EAJren aburuz, orain Covid-19ak izandako eragina dela eta, bultzada berria behar du, euskal gizartearen erronka berrietara egokitzeko, erronka demografikora batez ere.
- Biztanleriaren zahartzea, migrazioak, jardura ekonomikoan eta lan-merkatuan izandako aldaketen ondorio sozialak eta lehen mailako laguntza-sareen ahultzea diirela eta, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema indartu beharko da, gero eta beharrian handiagoi eta adinaren, sexuaren, jatorriaren eta autonomia mailaren aldetik gero eta desberdinagoak diren profiei erantzun ahal izateko.
- Beharrianak gero eta handiagoak diren eta baliabideak gero eta mugatuagoak diren honetan, ezinbestekoa da Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren oraingo zein etorkizunerako iraunkortasuna bermatzea. EAJrentzat, inbertitutako baliabideen (ekonomikoak, sozialak...) eta lortutako emaitza eta eraginaren (sozialak, ekonomikoak...) arteko oreka egokia da iraunkortasuna. Iraunkortasunak hainbat dimentsio ditu (ekonomikoak, sozialak, ingurumenekoak...) eta beraz, gizarte politikak gastua izateaz gain, inbertsioa ere badira. Ezinbestekoa da pertsonala, familiara, komunitatearena eta instituzioena denaren arteko oreka mantentzea.
- EAJren eredia berrikuntza soziala eta gizarte zerbitzuen, zerbitzu soziosanitarioen eta zerbitzu soziolaboralen arteko koordinazioa bultzatzearen aldekoa da. Horrela, beharrianen aurrean emandako erantzuna hobea, kalitate handiagokoa eta eraginkorragoa izango da. Berrikuntza sozialaz ari gara, Europar Batasunak bezala eragile desberdinen arteko lankidetzara gisa ulertuta (erabiltzaile diren pertsonak eta familiak, sektore publikoa, hirugarren sektore soziala, enpresak, unibertsitateak eta beste ikerketa zentro batzuk...), elkarren artean gero eta konektatuago dauden gizartearen gero eta erronka konplexuagoi aurre egiteko.
- Hirugarren sektore sozialarekiko lankidetzara, hau da, ekimen eta esku-hartze sozialeko erakundeekiko lankidetzara, haien ibilbidearen eta jardunbide egoien aitorpenaren emaitza ez ezik, gizarte-sarea eta elkartasun antolatua indartzeko borondatearen emaitza ere bada. Herralde nordikoen babes maila lortzea proposatzen du EAJk, gure gizarte solidarioaren ereduaren funtsezko alderdiak galdu gabe, familiarako eta komunitateko bizitzan, gizartearen parte-hartzean, elkarlaguntzan eta elkartasun antolatuan oinarrituta baitago.
- Enpresekiko lankidetzara ere, arretaren kalitatezko parametroak eta (eredu komunitarioa) enpresa sozial baten praktika propioak (lurraldearekiko lotura, parte-hartzea, irabazi guztiak edo zati bat arretan berriro inbertitzea) oinarri dituen, gizarte zerbitzuen esparruan enpresa-sarea garatzearen alde egindako apustua da.
- Prestazioen eta zerbitzuen kalitatea sustatzea da EAJren konpromisoa, Gizarte Zerbitzuen Borondatezko Kalitate-esparru Europarrean bildutako arretaren ezaugarriak eta legerian aurreikusitako ikuspegi komunitarioa kontuan hartuta: arretaren pertsonalizazioa, osotasuna eta jarraitutasuna, zerbitzuen hurbiltasuna (dezentralizazioa), hartzaileen parte-hartzea, berdintasuna, ekitatea, integrazioa, normalizazioa eta prebentzioa. Arretaredu horren garapenak kalitatezko estandar europarrak betetzen ditu eta gainera, prebentzioaren eta hurbileko arreta komunitarioaren garapenaren bidetik epe luzera sistemaren iraunkortasunean aurrera egitea ahalbidetzen digu.
- EAJk ikuspegi prebentiboa eta arretaren piramideari buelta ematea proposatzen du, lehen mailako arreta eta egoitza zentroak baino txikiagoak diren bigarren mailako beste arreta zerbitzu batzuk indartuz, eguneko zentroak esaterako, oraindik etxean bizi diren pertsonentzat. Horrek hasiera batean esfortzu edo inbertsio handia egitea eskatzen du, epe ertainera beharrianen gorakadari (beharren zerbitzu eta baliabide kopuruari) eta horien eraldaketari (profilen, itxaropenen eta beharrianen eboluzioari) gaur egungo zerbitzuen bidez erantzuteko gai izango den sistema bermatzeko.
- Biztanleriaren zahartzearen aurrean erantzuteko ikuspegi hori barneratzeko, zahartze aktiborako estrategiak garatu behar dira, etxean bertan iraupen luzeko zaintza-sistema bideragarria jarri behar da martxan eta horrez gain, gaixotasun kronikoen prebentziorako eta arretarako gizarte- eta osasun-programa jarri behar da abian. Aurrekoaz gain, etxean bizi diren adineko pertsonen eta haiek zaintzen dituzten senideei laguntza gehiago eta hobea eskaini behar zaie. Laguntza hori, egun ematen denaren aldean, intentsitate aldetik baxuagoa izango da baina zabalagoa izango da eta hobeto egokituko da pertsona bakoitzaren eta haren laguntza-sarearen beharrietara eta ezaugarrietara. Era berean, baliabide horiek eta beste batzuk, egoitzako baliabideak esaterako, adineko pertsonen eta haien senide zaintzaileen beharrietarako eta profileen izandako bilakaerara egokitu beharko dira. COVID-19ak adineko pertsonen egoitza zentroetan izandako ondorioak eta hartutako neurri operatiboak aztertuko dira.
- Eraginkortasuna eta efizientzia bilatzeak, berrikuntza bultzatzeaz gain, ardura hori duten administrazio publikoek zuzeneko kudeaketan, kontratuetan, itunetan eta hitzarmenetan prestazioen eta zerbitzuen diseinurako, kudeaketarako eta ebaluatziorako zikloa sendotzea eta hobetzea dakar, eta baita etengabe hobetzen joateko eta jardunbide egokiak identifikatzeko eta eskualdatzeko mekanismoak txertatzea ere, etengabeko prestakuntzaren edo birziklapen profesionalaren bidez.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

1. KONPROMISOA

GIZARTE ZERBITZUEN EUSKAL SISTEMAN JAUZI KUALITATIBOA BULTZATU, KALITATEAREN, PREBENTZIOAREN, BERRIKUNTZAREN, ERAGINKORTASUNAREN ETA EFIZIENTZIAREN PRINTZIBIOAK ERRESPETATUZ.

EKINBIDEAK

01

EAEko Gizarte Zerbitzuen II. Plan Estrategikoa egitea proposatzen du EAJk, kalitatearen, prebentzioaren, berrikuntzaren, eraginkortasunaren eta efizientziaren printzipioetan oinarrituz eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren oraingo zein etorkizuneko iraunkortasuna bermatuz.

02

Gizarte zerbitzuen erakunde arteko funtsa sendotu, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema zabaltzeko, urtean 20 milioi euroekin. Jaurlaritzak 14 milioi jartzen ditu. Zorroko Dekretuan bilduta dauden eta gutxien garatu diren prestazioak eta zerbitzuak eskaintzeko finantzaketa egokia bermatzea da helburua, udal esparruan zein foru esparruan, hala nola:

- Zaintzaileek atsedean hartzeko eta haiei laguntzeko zerbitzua
- Bizitza independentea egiten laguntzeko zerbitzua eta laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa
- Adineko pertsonen ostatu emateko eta eguneko arreta emateko zerbitzua

03

126/2019 Dekretua egokitu, adineko pertsonentzako egoitza zentroak arautzen dituen, Covid-19aren ondorioak eta neurri operatiboak aztertu ondoren.

04

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazioen eta Zerbitzuen Zorroaren ebaluazioa egitea planteatzen du EAJk, gainerako administrazio publikoekin koordinatuta, honako helburu honekin:

- Gizartearen errealitatean hautemandako aldaketetara behar bezala egokitzen den ikusi eta beharrezkoa bada, egokitu.
- Arreta formulei berrikuntza gehitu.

05

Gizarte itunaren araubidea arautzen duen dekretua bultzatu, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzuak kudeatzeko erabiltzen den ohiko tresna gisa, titulartasun pribatuko zentroetan. Tresna horren bidez, bereziki Foru Aldundiek (ituna bultzatzen duten erakundeek) erakunde pribatu itunduekin (Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeekin eta enpresekin) lan egin ahalko dute, hitzarmenekiko eta kontratazioarekiko desberdina den formula baten bidez.

2. KONPROMISOA

HURBILENEKO PRESTAZIOAK ETA ZERBITZUAK INDARTU, OHIKO BIZI-INGURUNEAN EMANDAKO ARRETA GAILENDUZ.

EKINBIDEAK

— Sektorre publikoaren eta ekimen pribatuaren arteko lankidetzan oinarritutako estrategia bat martxan jartzea proposatzen du EAJk, arreta-eredu komunitarioan eta Gizarte Zerbitzuen Borondatezko Kalitate-esparru Europarrean sakontzeko.

01

Honelakoa izango da arreta-eredua:

- Pertsonalizatua, osoa eta bizitza osoan zehar eman beharrekoa
- Hurbilekoa eta irisgarria
- ■ Erabiltzaileen parte-hartzea izango du eta haien eskubideak errespetatuko ditu

02

— Arreta-piramidean egindako inbertsioa planifikatu eta haren jarraipena egin, etxean bizi diren pertsonentzako prestazioak eta zerbitzuak indartuz eta egoitza-zentroen aldean duten garrantzia areagotuz. 10 ekinbide babestuko dira, gidaritza fasetik pasatu ostean ondorioak ateratzeko eta etxean bizi diren pertsoneri

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

3. KONPROMISOA

ERANTZUKIZUN PUBLIKOKO GIZARTE ZERBITZUETAN PLANGINTZA, EBALUAZIOA ETA PROSPEKZIOA BULTZATU, EMAITZETAN OINARRITUTAKO IRIZPIDEEKIN.

EKINBIDEAK

01

Gizarte zerbitzuen arloko eskumenak bere gain hartzen dituen Eusko Jaurlaritzako sailaren baitan, Plangintza eta Berrikuntza Zuzendaritza sortzea eta gai horietan foru aldundietako eta EUDELeko arduradunekiko lankidetzak indartzea proposatzen du EAJK, eta baita esparru soziosanitarioan ere.

02

Gizarte zerbitzuen esparruan berrikuntza sozialerako sistema bat martxan jarri, euskal unibertsitateekin eta beste ikerketa zentro espezializatu batzuekin batera, Jaurlaritzan jada existitzen diren errealitatea aztertzeko tresnak (behatokiak) eta sustapenerako tresnak (laguntza-lineak eta beste berrikuntza-tresna batzuk) konektatuz.

03

Berrituz programa indartu, lehen mailako arreta emateko gizarte zerbitzuak hobetzeko, Eudelekin batera, udal gizarte zerbitzuetan izandako jardunbide egokien eta esperientzia positiboen trukea sustatuz. Aldian behingo topaketen eta online dauden tresnen bitartez, lehen mailako arreta emateko gizarte zerbitzuen arloko tresna teknikoak, berrikuntzak eta jardunbide egokiak partekatu eta zabalduko dira.

04

Erantzukizun publikoko gizarte zerbitzuetan ebaluazioa indartzea proposatzen du EAJK, kalitatearen, etengabeko hobekuntzaren, eraginkortasunaren eta efizientziaren printzipioak kontuan hartuta, zerbitzu baten edo arreta emateko baliabideen sare baten parte hartzen duten alde guztien ikuspegia txertatuz eta batez ere hartzailleak eta haien familiak kontuan hartuz.

05

Gizarte zerbitzuen beharrezan eta eskaria zehazten dituzten faktoreetan aldaketak aurreikusteko informazio- eta analisi-tresnak garatu (prospekzioa), prebentzioa bultzatzeko eta etorkizunean erantzuteko gaitasuna areagotu edo hobetzeko.

4. KONPROMISOA

GIZARTE ZERBITZUETAN ERALDAKETA DIGITALEKO PROZESUA BULTZATU.

EKINBIDEAK

01

Eraldaketa digitaleko prozesuarekin zerikusia duten teknologiak erabiltzeko aukera izaten laguntzen duten proiektu eta ekinbideak sustatu, arrakala digitala murriztuz.

02

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren xede diren pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko produktu digital berritzaileen garapena bultzatu, teknologia-enpresekin batera: inguruarekin harremanetan egoteko, komunikaziorako, estimulazio kognitiborako eta abarrerako app-ak, domotika, etab.).

Horren inguruan, EAJk honako jarduketa hauek planteatuko ditu, besteak beste:

- Pertsonak ahalik eta luzaroen haien etxean egon ahal izateko aplikazioak
- Zaintzarekin eta zaintzaileen zaintzarekin zerikusia duten aplikazioak

03

Gizarte zerbitzuen euskal sistemaren informazio-sistemaren esparruan aurrerapausoak eman, gizarte zerbitzuen arloan lan egiten duten hiru eskumen mailen artean, sistemaren kudeaketa hobetzeko xedez. Zerbitzuen xede eta erabiltzaile diren pertsoneri eman beharreko arreta ebaluatzeko eta planifikatzeko informazio erabilgarriaren kudeaketarekin hasiko ginateke.

ETXEBIZITZA

10.000 ETXEBIZITZA BERRI ALOKAIRUAN
MERKATURA ATERATZEA SUSTATU
2020-2024 DENBORALDIAN.



■ **Etxebizitza duin, egoki eta irisgarri baterako sarbidea bermatzea.** EAJk etxebizitza duin, egoki eta irisgarri baterako sarbidea bermatzeko duen konpromisoa adierazten dugu. Eskubide hau presazko premia bihurtu egin da Covid-19ak eragindako osasun-krisialdian zehar, jendea bere etxeetan itxita geratu behar izan delako. Konpromiso hau gauzatzeko, Etxebizitza Legearen beharrezko araudi-garapenak burutuko ditugu etxebizitza duin eta egoki baterako sarbidea bermatzeko hori lortzeko beharrezkoak diren baliabide ekonomikoak ez dituzten pertsoneri, baita etxebizitzaren gizarte-eginkizuna, alokairuaren lehentasunezko promozioa eta hutsik dauden etxebizitzaren aktibazioa sustatzeko ere.

■ **Erakunde arteko ekintza koordinatua.** Gobernuaren ekintza irimoz gain, etxebizitza-politikak beste eragile nabarmen batzuen esku-hartzea eta inplikazio aktiboa eskatzen ditu, bereziki, udalena eta udal etxebizitza- eta birgaitze-sozietateena. EAJren konpromisoa da eragile guztien baterako jarduketak aktibatzea eta koordinatzea, etxebizitza duin baterako sarbiderako eta horretaz gozatzeko eskubidea bermatzeko.

■ **Alokairuaren lehentasuna. EAJtik alokairua lehenetsi egingo dugu etxebizitzarako sarbide-araubide gisa.** Alokairu-araubidea da biztanle behartsuek gehien eskatzen duten modalitatea eta, horrekin, kolektiborik ahulenei erantzun ahal zaie. Hala eta guztiz ere, gure he-

rrialdean, oraindik ere gutxieneko araubidea da eta merkatu librean dagoen eskaintzak errenta altuegiak ditu etxebizitza behar duten biztanle gehienentzat. Gure konpromisoa da 3.500 etxebizitza eta zuzkidura-bizitokiren promozio publikoa bultzatzea eta 6.500 etxebizitza pribatu mugiaraztea babeseko alokairurako. Horretarako, indartu egingo ditugu Bizigune eta ASAP (Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa) Programak eta itundutako etxebizitzaren promozioa sustatu egingo dugu operadore pribatuekin eta kooperatibekin alokatzeko. Politika publiko honi esker eta eragile publiko eta pribatuen arteko koordinazio handiagorekin, 2024rako % 30eko babeseko alokairu-kuota lortzeko konpromisoa bete ahalgo da.

■ **Adineko pertsonen etxebizitzaren irisgarritasuna eta energia-eraginkortasuna hobetzea.** Ondorio horietarako, irisgarritasun-jarduketak burutzeko laguntza-programa zehatzak bultzatuko ditugu (igogailuak eta arkitektura-oztopoak kentzea). Obrak egingo dira horien etxebizitzaren energia-eraginkortasuna hobetzeko eta, beharrezkoa den kasuetan, adinekoek bizitza duin eta egoki batez goza dezaten errazteko.

■ **Hiri-birgaitzearen eta berroneratzearen bultzada lehentasun bat da zaharretako etxebizitza-parke batentzat.** Gainera, ekonomian eta enpleguan eragin nabarmena duen jarduera bat da eta Euskadik orain behar duen susperraldi ekonomiko eta sozialean lagunduko

du. EAJk etxebizitzak birgaitzeko laguntzen programak indartuko ditu, guztira, 70 milioi euroekin eta, horrela, guztira, 60.000 etxebizitza birgaitzen lagunduko du. Era berean, eraikinen birgaitze integralera zuzendutako programa berriak garatuko ditugu, arreta berezia jarriz irisgarritasunaren eta energia-eraginkortasunaren hobekuntzan; horretarako, 2020 eta 2024 bitartean, 25 milioi euro bideratuko ditugu.

■ **Etxebizitzarako sarbide-formula berriak abian jartzea.** Familia-tipologiak dibertsifikatzen dira; familien tamaina murrizten da eta pertsona bakarreko etxeen bolumena areagotzen da, hau da, bakarrik bizi diren pertsonen eta guraso bakarreko familien etxeak ugartzen dira. Familien dibertsifikazio honek etxebizitzaren askotariko eskaintza eskatzen du. Eskaintza eskarira egokitze aldera, baliabide ekonomiko gutxiago eta/edo bizitoki-premia bereziak dituzten pertsoneri, besteak beste, gazteei edo adinekoei sarbide-aukerak ematen dizkieten bizitokiak sustatuko dira. Horrez gain, beharrezkoa da egokitutako konponbideak eskaintzen dituzten formula berritzaileak bilatzea, egungo jabetza-alokairua binomioa gaituzten saiatuz. Aztertu beharreko formulak izango dira, adibidez, cohousing, elkarlaneko etxebizitzak edo erabilera-lagapeneko kooperatibak. Zehazki, proposatzen dugu pilotu-proiektuak garatzea babes publikoko 300 etxebizitzaren promoziorako, erabilera-lagapeneko kooperatiba-araubidean edo cohousing bidez.

- **Izapideak arintzea etxebizitza-ema-kidan.** Proposatzen dugu egungo izapideak eta eskakizunak arintzea eta egungo baremazio-eredua kupoen sistema batekin konbinatzen duen esleipen-sistema bat ezartzea. Helburua da promozio berean eskatzaile-profil desberdinen elkarbizitza erraztea, gizarteratzea sustatze aldera. Horrez gain, berriro zehaztu behar da etxebizitza-beharraren ideia, bai gutxieneko zein gehieneko diru-sarrereri dagokienez, bai etxebizitzarik ez izateko baldintzari dagokionez, batez ere, irisgarritasun-arazoengatik etxebizitza-trukeak egiten diren kasuetan. Laburbilduz, biztanleriaren premiek oso errealitate desberdinei erantzuten diete eta modu berezian kudeatu behar dira, kontuan hartuz, kasu askotan, etxebizitza baten esleipenak arazoaren parte bat baino ez duela konpontzen eta, askotan, gizarte-laguntza ere beharrezkoa dela.
- **Utzarazpen-prozeduretan pertsona ahulak babesteko neurriak.** Alokairuko etxebizitza-parke publikoen kudeatzaile guztiak partekatzen dute errealitate hori; hortaz, beharrezkoa da alokairu-parkearen kudeaketak barne hartzen dituen prozesu desberdinak bateratzerantz aurrera egitea. Xedea da, protokolo komun bidez, bertako maizterrekiko harremanak erraztea. Era berean, EAJK lankidetzak eta koordinazioa proposatzen ditu udalekin eta horien zerbitzu desberdinekin (gizarte-zerbitzuak, erki-dego-ekintzako zerbitzuak), baita foru aldundietako gizarte-sailekin, Eusko Jaurlaritzaren beste arlo batzuekin eta hirugarren sektoreko erakundeekin eta gizarte-kolektiboekin ere.
- **Etxebizitza-sozietate guztiak integratzea zuzenbide pribatuko entitate publiko batean.** Urteetan zehar garatutako etxebizitza-politika desberdinak direla-eta, sailak eta horren sozietateek babeseko etxebizitza-parke handia dute eta horiek kudeaketa-lan itzela eskatzen dute. Gainera, gai horretan, gizarte-aldagaiak garrantzia handia hartu du azkenengo urteotan. Eraginkortasun handi-agoa lortze aldera, EAJK proposatzen du Visesa eta Alokabide zuzenbide pribatuko entitate publiko batean integratzea. Halaber, uste dugu beharrezkoa dela unitate bakar batean bateratzea etxebizitza-prestazio ekonomikoak, beharrezkoa izatekotan, egungo etxebizitza legea egokituz.
- **Koordinazio eta lankidetzak gehiago eragile publiko eta pribatuen artean.** Sektore honetan, eragile sozial eta ekonomiko askok esku hartzen dute eta 3/2015 Etxebizitza Legeak gidalerro eta erantzukizun berriak ezartzen ditu; horregatik guztiagatik, behartuta gaude administrazio eta eragile publiko eta pribatuen arteko koordinazioa eta lankidetzak indartzera, zehazki, etxebizitza-politikaren eraginkortasun handi-agoa lortzeko. EAJK eragile publiko eta pribatu desberdinen arteko lankidetzak lehenetsiko du ekimen pribatua babeseko alokairurantz erakartzeko, bai promozio berrirantz, bai bigarren eskuko etxebizitzak lortzerantz, horiek alokairu-merkatuan jartzeko errenta onargarrietan.

1. KONPROMISOA

ALOKAIRUKO ETXEBIZITZEN PARKEA BULTZATU.

Konpromiso hau betetzeko, EAJk honako ekimenak garatuko ditu:

EKINBIDEAK

- Alokairu-araubideko 3.500 etxebizitza berrien eraikuntza publikoa sustatu 2020-2024 epean.
Ondorio horietarako, EAJk jarduketa hauek proposatzen ditu:
 - Alokairura zuzendutako gizarte-babeseko 2.700 etxebizitza eta zuzkidura-bizitokiren promozio publikoa gobernuaren eta VISESA sozietate publikoaren bidez.
 - Tokiko erakundeekin elkarlanean, gobernuak diruz lagundutako alokairu-araubideko 400 babeseko etxebizitza eta zuzkidura-bizitokiren promozioa.
 - Babes publikoko 400 etxebizitzaren promozioa, erabilera-lagapeneko kooperatiba-araubidean edo cohousing bidez.

- **01** Operadore pribatuekin eta kooperatibekin itundutako alokairuko babes publikoko 3.500 etxebizitzaren promozioa sustatu 2020-2024 epean, erosteko aukerarekin.

- Merkatuan hutsik dauden 3.000 etxebizitza hartzea, horiek gizarte-alokairura bideratzeko 2020-2024 denboraldian. Ondorio horietarako, EAJk jarduketa hauek burutzea proposatzen du:
 - Bizigune Programaren bidez 650 etxebizitza lortu urtero.
 - ASAP - Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa- Programa birformulatzea eta indartzea. Xedea da urtean 100 etxebizitza lortzea programa honen bitartez.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

2. KONPROMISOA

GAZTEEN EMANTZIPAZIOA SUSTATU ETXEBIZITZA DUIN BATERAKO SARBIDEA ERRAZTUZ, BEREZIKI ALOKAIRU-ARAUBIDEAN.

EAJren helburua da gazteentzat gordetzea alokairu-araubidean egingo diren promozio publikoko etxebizitza guztien % 50. Ondorio horietarako, ekimen hauek garatuko ditugu:

EKINBIDEAK

01

Gazteen emantzipazioarako laguntza. Laguntza bat eskainiko zaie baliabide gutxi dituzten eta familiaren etxetik emantzipatu nahi duten 25 eta 29 urte bitarteko gazteei.

02

Etxebizitzaren onartutako alokairuko gutxieneko hileko errenta igo 900 eurora.

03

Plaza-kupo bat ezarri aniztasun funtzionala duten gazteentzat.

04

Babeseko etxebizitzako lehenetsunezko erreserba bat ezarri gazteen kolektiboarentzat. Kupoak ezarriko dira etxebizitzaren % 50 zehazki esleitzeko 35 urtetik beherakoei.

05

Hiri-berroneratzeko programak sustatu, gazteentzako etxebizitzak erreserbatuz; hain zuzen ere, bermatu egingo da etxebizitzaren % 50 35 urte baino gazteagoek okupatzen dituztela.

06

Gazteek alokatzea eta erosteko aukerarekin alokatzea sustatzera zuzendutako formula berriak eta neurriak garatu partekatutako pisuen programa pilotuen bidez. Kooperatibak erabilera-lagapenean sortzea sustatzeko proiektua esperientzia pilotu gisa. Zuzkidura-bizitokiak nagusiki gazteen kolektiboari bideratu.

3. KONPROMISOA

ESLEIPEN-PROZEDURAK ETA ETXEBIZITZARAKO SARBIDE-ESKAKIZUNAK HOBETU.

EKINBIDEAK

- Babes publikoko etxebizitzak esleitzeko egungo baremazio-sistema hobetu.
- 01** Helburu horrekin, EAJk proposatzen du egungo baremazio-sistema konbinatzea kupo-sistema batekin, ghettoak sortzea saihesteko eta gizarteratzea sustatzeko.
- Gazteek babeseko etxebizitzaren tipologia desberdinak lortzeko gutxieneko eta gehieneko diru-sarreraren mugak berrikusi.
- 02** Horri dagokionez, EAJk jarduketa hauek burutuko ditu:
 - Babeseko etxebizitzaren tipologia desberdinak lortzeko gutxieneko eta gehieneko diru-sarreraren mugak hobetu.
 - Jabetzako etxebizitzarik ez edukitzeko baldintza berrikusi etxebizitza-trukeen kasuetarako.
- Kolektiborik behartsuenen etxebizitzarako sarbidea errazteko neurri zehatzak aplikatu.
- Ondorio horietarako, EAJk jarduketa hauek burutuko ditu:
 - 03** ■ Kupoak ezarri lehentasunezko arreta-kolektiboentzat: guraso bakarreko familiak, banandutako eta/edo dibortziatutako pertsonak, 65 urte baino nagusiagoak, familia ugariak...
 - Genero-indarkeriaren biktimei eta bizitoki-bazterkeria larriak ukitutako pertsonen ez-ohiko esleipen zuzena egiteko irizpideak berrikusi eta zabaldu.
 - Etxebizitzarako sarbide-lehentasuna emango zaie, kupo-ezarpenarekin, ardurapean seme-alabak dituzten bikote gazteei.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

4. KONPROMISOA

ARRETA ZEHATZA ADINEKO PERTSONEI.

EKINBIDEAK

- Adineko pertsonentzako bizitza-ingurune egokiak sustatzera bideratutako ekinbideak babestu.
Helburu horrekin, EAJk jarduketa hauek proposatzen ditu:
 - Arreta berezia adineko pertsonen berariazko arazoari, eraikinen irisgarritasuna hobetuz. Horretarako, % 100era arteko diru-laguntzak emango dira pertsona desgaituak eta diru-sarrera baxuko pertsonak dauden etxebizitzetan irisgarritasuna hobetzeko obrak egiteko.
 - Elkarlan-etxebizitzaren ekimenak (cohousing) babestu; horiek, beste elementu batzuen artean, adinekoen kolektiboen zaintzen kudeaketa eta arreta soziosanitarioa indartzen lagunduko dute.
 - Etxebizitza-trukeak erraztu (etxebizitza lagatzea babeseko etxebizitzaren truke).
 - ■ Adineko pertsonekin erkidego-proiektuak eta proiektu parte hartzaileak garatzea babestu.
-
- **02** Abian jarri adineko pertsoneri zuzendutako berariazko zerbitzu integrala eskaintzen duen programa, udaletako Gizarte-zerbitzuekin eta foru aldundiekin elkarlanean. EAJk eragileen arteko lankidetzaren lehenesten du esperientziak eta ezagutza partekatzeko eta horiek beste leku batzuetara hedatzeko.

5. KONPROMISOA

PERTSONA AHULAK BABESTU UTZARAZPEN-PROZESUETAN.

EKINBIDEAK

- Gizarte-alderdia indartu babeseko etxebizitza-parkearen kudeaketan, arreta berezia jarritz Covid-19aren osasun-krisiaren ondoren sortutako ahultasun-egoera eta premia berrietan. Horretarako, EAJk proposatzen du laguntza eskaintzea maizterren zorren kudeaketa integralean, zehazki, udalekin, foru aldundietako gizarte-sailekin eta Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuekin (Lanbide, Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako Zerbitzua, Osakidetza) koordinatuz eta hirugarren sektoreko erakundeekin, utzarazpenen aurkako plataformekin eta bestelako gizarte-kolektibo esanguratsu batzuekin elkarlanean.
- Utzarazpenen ordezkotoki-aukerak eskaini.
- EAJk Botere Judizialaren Kontseiluaren, Eusko Jaurlaritzaren, Eudelen eta udal gizarte-zerbitzuen arteko elkarrekintza erraztuko du, pertsona ahulei ordezkotoki-aukerak proposatzeko eta utzarazpenak prebenitzeko. Utzarazpenen aurrean bitokitoki-aukerak bilatzeko 100 etxebizitza erreserbatuko dira.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

6. KONPROMISOA

ERAGINKORTASUNA HOBETU BABESEKO ETXEBIZITZA-PARKEAREN KUDEAKETAN.

EKINBIDEAK

01

Koordinazioa hobetu babeseko etxebizitzaren parke publikoa modu eraginkorragoan kudeatzeko, Alokabideren erkidegoko esku-hartze programa zabalduz eta alokairuko etxebizitzaren parkearen kudeaketari buruzko gida bat idatziz.

02

Hirugarren sektorearekiko lankidetzaren indartzea. Horretarako, EAJK hauxe lehenesten du: Gizarte-larrialdietarako Laguntzak kudeatzen dituzten erakundeekiko koordinazioa bermatzea; lankidetzaren eta koordinazio-mekanismoak ezartzea pertsonak arretarik gabe geratzea saihesteko eta udaletako eta foru aldundietako Gizarte-zerbitzuak koordinatzea bizitegi-bazterkeria larriko egoeraren arretan gainjartzeak ekiditeko.

Gizarte-azpiegituren promozio-plan bat abian jarri. Etxebizitzaren lagapena hirugarren sektoreko erakundeekiko, gizarteratzearekin lotutako programak gara ditzaten. Gizarte-erakundeekiko lankidetzaren alokairuko babeseko etxebizitzaren parkean gizarte-laguntza emateko.

03

Bizilagun indartzea auzokideen eskubide eta betebeharrekin lotutako bitartekaritza- eta aholkularitza-zerbitzu gisa: jabeak eta maizterrak.

04

Alokabideren eta udalen arteko lankidetzaren bere alokairu-parkearen kudeaketan.

05

EAJK proposatzen du lankidetzaren sare bat sortzea udaletako etxebizitzaren sailekin eta udal-sozietateekin. Etxebizitzaren eremuan udal jarduketaren esparrua den gida bat egin. Ezagutza eta esperientziak partekatzeko espazio komun bat ezarri. Autonomia erkidegoko administrazioaren eta udalen artean hitzarmenak sinatzea sustatu, apurka-apurka, gizarte-sektorerik behartsuenentzako zuzkidura-bizitokiaren udalaz gaindikotako sare bat eratze aldera. Udalen etxebizitzaren planak egitea sustatzea.

06

Bizi-ibilbideak erraztu eta etxebizitzak gutxiegi erabiltzea saihestu, erositako zein alokatutako babes publikoko etxebizitzaren trukeak erraztuz, baita erositako babes publikoko etxebizitzaren aldaketak eta etxebizitzaren banaketak ahalbidetuz ere.

Babeseko etxebizitza-parkearen gizarte-eginkizuna bermatu.

Ondorio horietarako, EAJk jarduketa hauek garatuko ditu:

■ Babeseko etxebizitza-parkearen ikuskapen-prozesuak hobetu.

07

■ Ikuskapen-plan orokorrak eta zehatzak egin.

■ Lehenetsunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidearen erabilera indartu babestutako etxebizitzaren transmisioetan etxebizitza-eskaria nabarmena duten eremuetan.

■ Gobernuaren berrerosketa bermatu, hain zuzen ere, etxebizitzaren eta lurzoruaren eremuan Eusko Jaurlaritzaren eta kreditu-erakundearen artean luzatu beharreko Finantza-hitzarmenaren arabera formalizatutako hipotekak dituzten babes publikoko etxebizitzetan.

08

Visesa eta Alokabide Sozietateak Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publiko batean integratu, horien ekintzetan edo eginkizunean eraginkortasun handiagoa lortzeko.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

7. KONPROMISOA

ERAIKINEN MANTENTZE-LANA ETA BIRGAITZEA SUSTATU, EGUNGO PARKEAREN IRISGARRITASUNA ETA ENERGIA-ERAGINKORTASUNA HOBETUZ.

EKINBIDEAK

— Etxebizitzen eta eraikinen birgaitzea sustatu.

01

Ondorio horietarako, EAJk proposatzen du birgaitzerako laguntza-programa hobetzea eta handitzea, zehazki, irisgarritasun-jarduketak (igogailuak eta arkitektura-hesiak kentzea) eta energia-eraginkortasuna lehenetsiz.

02

Landa-garapeneko sailarekiko lankidetzeta eta koordinazioa landa-guneetako baserrietan eta etxebizitzetan jarduketak eta laguntzak kudeatzeko, 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan despopulazioa saihesten lagunduz.

03

Irisgarritasun unibertsala bermatzera zuzendutako jarduketak positiboki sustatu eta bereizi, zehazki, Euskadin irisgarritasun unibertsalaren estrategia aitzindari bat onetsiz.

— Etxebizitzen parke publikoaren mantentze-lana eta kontserbazioa bultzatu.

04

Ondorio horietarako, EAJk jarduketa hauek burutuko ditu:

- Erkidegoen kudeaketa eta administrazioa hobetu, babes administratiboa eta ekonomikoa emanaz horien jasangarritasuna bermatzeko.
- Udalei eta bestelako tokiko erakunde batzuei zuzendutako berariazko laguntza-lerro bat sortu alokairuko babeseko etxebizitza publikoak birgaitzeko.
- “Errenten truke birgaitzea” programa pilotu bat abian jarri parke publikoko etxebizitzetan. “Hiri-apartzeria”, hau da, esperientzia pilotu bat garatu parke publikoko etxebizitzetan birgaitzeko jarduketak eginez alokairu-errenta murriztearen truke.

— Eraikinen ikuskapen teknikoak (EIT) egitea bultzatu eta erraztu.

05

Ondorio horietarako, EAJk jarduketa hauek burutzea proposatzen du:

- EITen onuren inguruko informazio-kanpaina bat egin udal eta auzokide-erkidegoentzat.
- Udalekin elkarlanean aritu EITak egitea sustatzeko eta horien irizpenen ondoriozko jarduketak burutzeko.
- EITen kalitatearen segimendua eta ikuskapena.

— Birgaitzearekin lotutako informazioa, prestakuntza eta komunikazioa hobetu, eraikinen prebentziozko mantentze-lan integral jasagarria sustatzeko.

06

Ondorio horietarako, EAJk jarduketa hauek burutuko ditu:

- Finka-administratzaileei eta auzokideen elkarteei zuzendutako laguntza-sistemaren araudiari eta horretarako sarbideari buruzko programa bat garatu eta abian jarri.
- Birgaitze-sektorearen profesionalizazioa erraztu prestakuntza-programen bidez.
- Energia-kontsumo eraginkorarekin lotutako prestakuntza- eta aholkularitza-programen garapena sustatu, ahal izanez gero, lurralde-gunerik ahulenetan.

07

— Birgaitzearen kudeaketa bateratua erraztu. Narriatutako eta lehentasunez esku hartzeko guneen adierazpena sinplifikatu eta sustatu, hiri-, gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-arloetan jarduketa bateratua errazte aldera.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

8. KONPROMISOA

ETXEBIZITZAN BERRIKUNTZA BULTZATU.

EKINBIDEAK

- **01** Lankidetzaren sarea birgaitze-eragileekin. EAJk Birgaitze Batzorde bat sortzea proposatzen du, etxebizitzaren eremuan inplikaturako eragile desberdinen arteko harremana eta komunikazioa hobetzea ahalbidetzen duena. Batzordearen xedea da eragile desberdinen arteko “disfuntzioak” murriztea, elkarlanean arituz eta informazioa, datuak, proiektuak eta programak proposatuz eta partekatuz.

- **02** Ikerketa-proiektuak bultzatu eraikuntza jasangarriaren eta energia-eraginkortasunaren arloan, espezializazio adimenduneko RIS 3 Euskadi strategiaren arabera eta garatutako programak indartuz IHOBE Sozietate Publikoaren eta Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza sailaren bitartez, baita Lehendakaritzako Berrikuntza Funtzarekin koordinatuz ere.



GAZTERIA KIROLA GAZTERIA

GAZTEAK EMANTZIPATZEKO BATEZ
BESTEKO ADINA 28 URTERA JAITSI.

- Gazteria da gure gizarte-kapitalik onena. Euskadik lehenbailehen azkartu behar du belaunaldi-ordezkapena; izan ere, gazteriaren “gizarteratzerik ezak” duen kostu sozial, ekonomiko eta kulturala itzela da. EAJk gazteriaren laneratze erreala lehenesten du, horrela, eremu soziolaborala gaztetzen delako prestakuntza eta trebakuntza altuko gazteekin eta horrek Euskadiren lidergoia bermatzeko jarraitzea ahalbidetzen duelako.
- Gazte-emantzipazioa errazteko ekintza-politika bateratua. Gazteen kolektiboa biztanleriaren lehenetsuneko segmentu bat da eta, horregatik, gazteei neurri ugari zuzentzen zaizkie gobernuko sail desberdinetatik. Hortaz, EAJk politika komun eta koordinatu bat proposatzen du, euskal gazteriari hezkuntzaren, lanaren eta etxebizitzaren arloetan erantzun bateratua ematea ahalbidetzen duen zeharkako ekintza eskaintzeko, horrela, haien emantzipazioa eta bizitza-proiektu independente eta duin bat garatzea errazteko.
- Gazteria trebatua, aldaketara eta kulturartekotasunera irekia. Gure gazteriari, besteak beste, balio hauetan oinarritutako prestakuntza eskaini behar diogu: bizikidetzak, bakea, kontziliazioa, solidaritatea, aukera-berdintasuna, tolerantzia, esfortzua eta erantzunkidetasuna. Balio-erantzukuntza da euskal gizarte solidario eta erantzukidetu baten berme bakarra.
- Euskadik klima-aldaketarekin duen konpromisoaren liderra den gazteria. Gazteriak klima-aldaketaren aurkako konpromisoan duen mundu mailako lidergoia Euskadin ere nabarmen islatzen da. Horrela, gizakiok klima-aldaketan dugun eraginaren gaineko kontzientzia- eta ezagutza-maila askoz altuagoa da gazteengan gainerako gizarte-kolektiboengan baino. Zentzu horretan, Eusko Jaurlaritzak egindako “Klima-aldaketa eta Energia” txostenak erakusten du gazteek duten konpromisoa kontsumismoaren murrizketarekin, energia-eraginkortasunarekin eta energia-iturri berriztagarrien bultzadarekin.
- Enplegua eta etxebizitza dira gazteen emantzipazioaren gakoak. EAJk proposatzen duen gazteria-politikaren lehenetsuneko bi jarduketak enplegua eta etxebizitza dira; izan ere, horiek dira gazteen oztopo nagusiak bizitza-proiektu independente bat garatu ahal izateko.
- Enpleguaren lehenengo oinarriaren xedea da Covid-19aren krisian galdutako gazteen enplegua berreskuratzea. Hori lortzeko, txoke-plan bat ezarriko da: 30.000 gazteri lehenengo lan-esperientzia bat eskaini nahi dien Gazteen Enplegu-plan bat.
- Etxebizitza duin baterako sarbidea garpenera pertsonal osorako bigarren oinarria da eta, horrenbestez, hori da gazteen eremuan babes handiagoa jasotzen duen politiketako bat.
- Horretarako, EAJk metodo tradizionalen ordezko etxebizitzarako sarbide-metodoak proposatzen ditu, besteak beste, Babes Ofizialeko Etxebizitzaren lehenetsuneko erreserba edo Zuzkidura-ostatuaren sistemaren garapena. Gainera, gazteentzako etxebizitza-politiken garapenera proiektu berean lortzen dira gazte-emantzipazioa eta zenbait gizarte-onura, bazterreko guneak birgaitzea bezalaxe.
- Bizitza-proiektu independenteak eta jaiotza-tasa sustatzea. Gazteen emantzipazioa atzeratzeak ondorio negatiboak ditu gazteentzat eta adierazle ekonomiko eta sozial askotan, nabarmen eragiten dutenak jaiotza-tasaren eremuan.
- Gazteen egungo baldintzak mantentzen badira, etorkizuneko ugalkortasun-tasak ez luke biztanleriaren ordezkapena bermatuko, hain zuzen ere, lan-merkatuaren premiak asetzeko eta belaunaldi arteko solidaritate-sistemei eusteko. EAJk emantzipazioa eta jaiotza-tasa bultzatzera zuzendutako politikak lehenetsiko ditu.
- Genero-berdintasunarekin eta elkartasunarekin konprometitutako gazteria. Emakumeen aurkako indarkeriaren gaitzespena gero eta nabariagoa da, bai erakunde-mailan, bai gizarte-mailan.

Zentzu horretan, EAJK berdintasunaren eremuan bultzatzen duen esfortzua indartzen jarraitu beharra dago, bereziki, gazteen kolektiboari zuzenduta. Horretarako, gizartearen pentsamolde-aldaketa bat eragitera zuzendutako ekinbideak abiarazi behar dira, jendea konbentzitzeko berdintasuna eta solidaritatea bezalako balioek bizi-kalitatea hobetzen dutela eta gizarte bidezkoago, askeago eta jasangarriago bat eraikitzen dutela, garrantzia berezia emanaz indarkeria matxistaren amaierari.

- Bere etorkizunaren jabea den gazteria parte-hartzailea. Euskadik berezko irizpidea duen gazteria dauka eta behar du; gazteria autonomoa, ekinbidea duena, parte-hartzailea, solidarioa eta konprometitua gizarte- eta ekonomia-garapenerarekin. Gazterian balio horiek sustatzea bereziki garrantzitsua da; izan ere, gazte batek gizartearen parte dela sentitzen duenean, inplikatzeko da, parte hartu nahi du, elkartzen da eta konprometitzen da, protagonismoa hartuz erkidegoaren garapenean eta aldaketa-eragile bihurtuz. Zentzu horretan, EAJK zenbait gazte-elkarteren eta boluntarioritza-programak dituzten erakundeek jarduerak sustatu eta bultzatu egingo du, euskal gazteriarik bere garapen kolektibo eta parte-hartzailea ahalbidetzeko.
- Gazteria osasuntsua. Osasuna izango da EAJK proposatzen duen baterako politika integralaren bitartez jorratuko den alderdietako bat. Helburu horrekin, be-

rariazko ildoak garatu izan dira hezkuntzaren eta adimen-ongizatearen arloan, arreta goiztiarra eskainiz antsietate- eta depresio-egoeren aurrean. Hala eta guztiz ere, euskal gazteen osasun-egoeraren analisiak zenbait seinale kezagarri erakutsi ditu eta horiei egin beharko zaie aurre hurrengo urteetan. Aisialdi osasungarriko jardueren sustapenak ahalbidetzen du Euskadiko gazteen artean bizitza-ohitura osasungarriak bultzatzea. Era berean, osasunaren eremuan gazteentzat bereziki garrantzitsuak diren bi gai hauek jorratuko dira: hezkuntza afektibo-sexuala eta mendekotasunen prebentzioa.

- Gazteria ekintzailea eta berritzailea. Ekintzaitzaren sustapena gazteentzako aukera erakargarri gisa eskaini behar da, bere etorkizuneko proiektu profesionalak garatzea errazteko Euskadiko Ekintzaitzako Erakunde Arteko Planaren barruan. Ildo horretatik, EAJK ekiteko joera sustatuko du hezkuntza-sisteman eta ekintzaitza-proiektuak lantzen eta garatzen laguntzen duten tresnak eta baliabideak gazteen eskura jarritz. Hala ere, berriaz babestuko dira izaera ekonomiko-soziala duten ekintzaitza-proiektuak, gazteak konprometitzeko gaitasuna dutelako.

1. KONPROMISOA

GAZTERIAREN EUSKAL LEGEAREN ONESPENA.

EKINBIDEAK

— Gazteriaren Euskal Legea idatzi eta onetsi, gazte-ikuspegia txertatuz politika publiko guztien erreferente gisa.

Hauxe EAJren lehentasun bat da, Gazteriaren Euskal Legeak honakoari erantzungo diolako:

01

- Gazteen autonomia eta emantzipazioa sustatu, gazteen enplegua sortzera bereziki zuzendutako zeharkako politiken finkapenaren eta sail arteko eta erakunde arteko koordinazioaren bidez.
- Kalitate-minimo batzuk bermatu gazteen promoziora berariaz zuzendutako zerbitzuen eta ekipamenduen prestazioan.
- Euskal gazteriaren parte-hartzerako eta elkarrizketarako bideak zabaltu, bide egonkorak sortuz tokiko eremuan ere bai, aukera berberak emanez elkartutako gazteei eta elkartuta ez daudenei.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

2. KONPROMISOA

2022-2025 GAZTE PLANA EGIN, EGIKARITU ETA EBALUATU.

EKINBIDEAK

- EAJk proposatzen du 2025 Gazte Plana inplikaturako eragile guztiekin elkarlanean egitea. Planak euskal gazteriaren interesetarako erantzun integrala aurreikusiko du eta honako ardatz hauetan egituratuko da:
 - Enplegua
 - Etxebizitza
 - 01 ■ Enplegurako prestakuntza
 - Balio-hezkuntza
 - Bizitza osasuntsua
 - Parte-hartzea
 - Klima-aldaketa
- ■ Euskararekiko eta kulturarekiko konpromisoa

3. KONPROMISOA

LAN-AUKERA BERRI BAT ESKAINI 30.000 GAZTERI.

EKINBIDEAK

- “Gazte-enpleguko plan” bat onestea. Plana Enpleguaren eta Suspertze Ekonomikoaren aldeko 2020-2024 Estrategiaren barruan sartzen da, Enpleguaren 2024 Euskal Estrategiarekin eta 2021-2024 Enplegu Planarekin bat etorritik. Enpleguaren eta Suspertze Ekonomikoaren aldeko Estrategiaren konpromisoan ezarritakoari jarraiki, EAJk honako jarduketa hauen inguruan artikulatzen den Gazteen Enplegu-plan bat proposatzen du:
 - Enplegu publikoa berritzeko programa.

Legegintzaldian zehar, oro har, administrazio publikoetako eta, zehazki, Eusko Jaurlaritzako langileak berritzeko prozesuarekin jarraitu beharko da. Ondorio horietarako eta egiten diren enplegu-eskaintza publikoen esparruan, kalkulatu da, gutxienez, plaza horien % 45 35 urte baino gazteagoek estaliko dituztela. Oso aukera ona da gazteentzat eta administrazioarentzat.
 - Hezkuntza-mundutik lanerako trantsizioa. Unibertsitate-hezkuntzako eta lanbide-heziketako azken urtean dauden ikasleei hezkuntza-mundutik lan-mundurako trantsizioko esperientzia praktikoa eskaini. Hezkuntza-mundutik lan-mundurako trantsizioa hobetzen duten ekinbideak % 30 indartu.

Zentzu horretan, lehenik eta behin, LH Dualaren sistema azpimarratu behar da, baita unibertsitate-graduaren eta masterren sistema dualerako aldaketa ere. Era berean, Lehen Aukera programek, Global Training bekek eta nazioartekotze-bekek mundu akademikoaren eta lan-munduaren arteko lotura errazten dute.
 - Bazterkeria-arriskuan dauden gazteak laneratu. Bazterkeria-arriskuan dauden gazteen laneratzea areagotu hirugarren sektoreko antolakuntzen eta enpresen bidez, bereziki sustatuz emakume gazteen laneratzea.
 - Gazte-ekintzailatza. Gobernuak gazteen ekintzailatza babesteko leihatila bakarreko estrategia sustatu laneratzeko bide gisa, garapen-agentziekin eta foru zein tokiko erakundeekin koordinatuz.

Horretarako, EAJk honako programa hauek garatzea proposatzen du:

 - Urrats Bat Programa LHko sisteman ekiteko prestakuntza eta aholkularitza.
 - Ikasapresa Programa, lanbide-heziketako sisteman ekiteko eragile gisa.
 - Zitek, Inizia eta Entreprenari Programak unibertsitate-eremuan.
 - Gazteen kontratazioa tokiko zein eskualdeko enplegu-planetan.

Tokiko eta eskualdeko enplegu-planak indartuko dira, bereziki, langabezia-indize altuagoak dituzten eskualde eta gune baztertuetan. Lehentasunez jarduteko eskualde hauetan, bereziki hartuko dira kontuan laneratzeko zailtasun handiagoak dituzten gazteak, iraupen luzeko gazte langabeak eta familia-erantzukizunak dituzten gazteak.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

EKINBIDEAK

- ■ Prestakuntza-bekak kontratazio-konpromisoarekin.
Global Training prestakuntza-bekak, nazioartekotze-bekak eta praktiketako prestakuntza-bekak sustatzen jarraituko da, soldata duinaren gutxieneko berme batzuekin. Lehentasuna emango zaie beken epea amaitzerakoan gazteak kontratatzeko konpromisoa hartzen duten enpresei.
- 02 ■ Gazteen itzulerako programak. Gazteen itzulerako programa sustatu, 2018arekin alderatuta, % 20 handituz Gazteen Itzulerako Programaren Erregistroan inskribatzen diren 35 urte baino gazteagoen kopurua, baita, urtero aurreko urtearekin alderatuta, laguntzak eskatzen dituzten enpresen kopurua ere.
- ■ Gazte-enpleguaren aktibazioa garatzen ari diren sektore zehatzetan. Ingurumenarekin lotutako jarduerak; industria sortzaile eta kulturalak; menpeko pertsonentzako arreta; digitalizazioa eta enpresentzako zerbitzu aurreratuak eta energia garbiak eta berriztagarriak.
- 03 Enplegu egonkorragoak eta hobeak. EAJk pizgarri-programa bat proposatuko du gazteen enpleguan behin-behinekotasuna murrizteko eta bereziki gazteen kolektiboari eragiten dion lanaldien partzialtasuna murrizteko ere bai.

4. KONPROMISOA

ETXEBIZITZA. ETXEBIZITZA BATERAKO SARBIDE-AUKERA EMAN.

EKINBIDEAK

- Gazteen Etxebizitza Plana. Etxebizitzarako sarbidea erraztu, bereziki, alokairuan, gazteriaren bizitza-proiektu independenteak osorik garatzeko bide gisa, gero eta gazte gehiagok eduki ditzaten aukerak emantzipatzea gustatuko litzaiekeen adinetik geratuago independizatzeko. Etxebizitza baterako sarbide-estrategia globalari jarraiki, EAJk proposatzen du Gazteen Etxebizitza Plana aktibatzea honako jarduketa hauen bidez:
 - Gazteen emantzipazioarako laguntza. Laguntza bat eskainiko zaie baliabide gutxi dituzten eta familiaren etxetik emantzipatu nahi duten 25 eta 29 urte bitarteko gazteei.
 - Babeseko etxebizitzako lehentasunezko erreserbako % 50eko kupoa ezarri gazteen kolektiboarentzat.
 - Gazteek alokatzea sustatzera bideratutako formula eta neurri berriak garatu: zuzkidura-bizitokien garapena, txandakako alokairu-sistema, partekatutako pisuen programak eta hiri-apartzeriako pilotu bat.
 - Belaunaldi arteko bizikidetza-ekimenak sustatu, emantzipazioa errazten dutenak eta batez besteko adin altuko biztanle-guneak suspertzea bultzatzearen ondoriozko beste gizarte-onura batzuk lortzen laguntzen dutenak.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

5. KONPROMISOA ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA.

EKINBIDEAK

- **01** Lan-informazioa eta orientazioa. EAJk proposatzen du gazteentzako enplegu-orientazioko eta laguntzako zerbitzu-programa zehatza sustatzea Lanbideko ibilbide pertsonalizatuen bidez; horrez gain, proposatzen du gazteen trebakuntza sustatzea enplegurako prestakuntza-ekintzetan parte hartzearen bidez eta teknologia berriak erabiltzea lan-informazio eta orientazioko prozesuetan.

- **02** Prestakuntza enplegu-eskari berrietara egokitu. EAJk Lanbide-heziketako berezko eredu bat proposatzen du, Euskadiko lan-merkatuaren erronka zehatzei erantzuten diena eta prestakuntzaren egokitzapenean oinarritzen dena, hain zuzen ere, hurrengo urteetako enplegu-premiak asetze aldera. Halaber, gazteen trebakuntza hobetuko dugu hezkuntza-eremuan, zehazki, nazioarteko mugikortasun-programetan eta/edo ikerketako lankidetzaproiektuetan inplikaturik eta parte hartuz.

Zentzu horretan, berariazko prestakuntza-ekinbideak sustatuko dira, prestakuntza lan-merkatuaren eskarira egokituz, EHUren eta Makina Erremintaren Institutuaren arteko akordioa bezalako lankidetzakordioekin, aeronautikaren sektorean esperientziak garatzeko.

- **03** Prestakuntza areagotu enpleguaren kalitatea hobetzeko. Atal honetan, jarduketa desberdinak jasotzen dira, besteak beste, berariazko prestakuntza-pilulak edo lan-eskarietara egokitutako prestakuntza-ibilbideak eta prestakuntza, Lanbideko koordinatutako lituzkeenak.

EAJrentzat, lehentasunezkoa izango da enpresak inplikatzeko eta sentsibilizatzea gazteen prestakuntzaren hobekuntzan, enpleguaren kalitatea hobetzeko eta trebakuntza altuko langileak edukitzeko tresna gisa.

— Enplegurako prestakuntza-programa trebakuntza baxuko gazteentzat.

04

Laneratzea bermatzen duten enplegurako prestakuntza-programak diseinatuko ditugu trebakuntza baxuko gazteentzat. Bi adar nabarmentzen dira: trebakuntza profesionala sustatzeko prestakuntza eta gaitasun profesionalak aitortzeko eta egiaztatzeko programa lan-orientazioko eta prestakuntzako zerbitzuaren bidez.

05

Hizkuntza-gaitasunak sustatu. Horretarako, EAJk Ulibarri Programa bultzatuko du euskararen sustapenean, baita atzerriko hizkuntza-programen garapena ere ERASMUS beken eta truke-beken bitartez.

— Prestakuntza areagotu STEAM diziplinetan eta, bereziki, emakume gazteen artean.

06

Beharrezkoa da bokazio zientifikoak eta teknologikoak eta gaitasun sortzaileak sustatzea lan-merkatuaren eskari berriei erantzuteko eta emakumeen eta gizonen arteko eten teknologikoa zein soldata-arrakala murrizteko. Horretarako, EAJk proposatzen du gai hauekin lotutako sentsibilizazio-programa bat garatzea lehen eta bigarren hezkuntzatik, baita LHko adar industrialetara sartzeko programak eta bokazio ikertzailea bultzatzeko programak sustatzea ere. Baditugu aurrekoaren zenbait adibide: Donostiako Ikerketa Fisikoen Zentroko Topaketak; Ikasiker bekak; Berrikertu Programa giza kapital ikertzailea Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarean sartzeko eta emakume ikertzaileak babesteko programak.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

6. KONPROMISOA

ERRESPETU, BERDINTASUN ETA KULTURARTEKOTASUNEN BALIO-HEZKUNTZA, ABERASTASUN PERTSONALERAKO BERME GISA.

EKINBIDEAK

- Genero-berdintasuneko balioetan oinarritutako eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako hezkuntza. EAJk jarduketa hauek proposatzen ditu:
 - Hezkuntza-curriculuma genero-ikuspegitik garatu.
 - Genero-ikuspegia txertatzen den tutoretzak egin.
 - Materialak sortu eta laguntza-deialdiak egin zentroek bere hezkidetzeta-proiektuak diseinatzeko.
- 01 ■ Genero-indarkeriaren eta emakumeen aurkako bestelako abusu-formen prebentziozko sozializazioa lehenetsi.
- Materiala, prestakuntza eta laguntza eskaini zentroi eta irakasleei, indarkeria matxistaren detekzio goiztiarraren eta arretaren ikuspegia txertatuz.
- “Zero tolerantziako” sentsibilizazio- eta prebentzio-kanpainak egin, “Beldur Barik” programaren ildotik.
- Genero-indarkeriako ikasketak sustatu, Deustuko Unibertsitateko eta EHUko masterren finantzaketaren bitartez.
-
- Jazarpena sare sozialetan. Azkenengo azterlanek adierazten dute nerabezeroan eta gaztaroan ziberjazarpenaren prebalentzia nabarmena dela. Arazo horri aurre egiteko, EAJk honako jarduketa hauek garatzea proposatzen du:
 - 02 ■ Gazteekin lan egiten duten pertsonen sare sozialen fenomenoaren eta horiek gazteengan duten eraginaren inguruko prestakuntza eman, baita horien erabilera txarrak edo abusuak eragin ditzakeen arriskuak ezagutarazi eta erabilera arduratsu baterantz orientatu.
 - Tratu txarren forma berriak prebenitu, Euskadiko Ziberseguritateko Zentroaren Bizikasi Programa sustatuz sare sozialetan bullyinga saihesteko.
-

— Gurasoen aurkako indarkeria. Ondorio horietarako, EAJk jarduketa hauek sustatzea eta indartzea proposatzen du:

03

- Gazteekin eta familiekin lan egiten duten profesionalen multzoari zuzendutako programak, gurasoen aurkako indarkeria goiz identifikatzeko.
- Jarduketa-protokoloa ezartzen duen eta gurasoei eta profesionaleri bitartekoak ematen dizkien baliabide-gida.
- Gurasotasun positiboa sustatu Gurasotasuna Programa eta Familia-bitartekaritzako Zerbitzua indartuz.
- Arreta integrala bermatu 24 orduko telefono bidezko arreta-zerbitzuen bidez eta hezitzaileei etengabeko prestakuntza emanez.

— Kulturartekotasuna eta giza eskubideak. Kulturartekotasuna sustatzeko helburua duten programak bultzatu, gure herrialdean ez ezik, Europako beste herrialde eta eskualde batzuekin gazte-trukeak eta sinergiak ere sortuz.

04

- Eskola-zentroetako Elkarbizitza-plana garatu biktimen lekukotzekin, berezko eskola-materialekin eta Elkarrekin Programarekin, indarkeriaren aurrean gaitasun kritikoa duen eta giza eskubideen defendatzailea den gazteria hezteko.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

7. KONPROMISOA

BIZITZA OSASUNTSUA.

Osasun-egoera onean egotea beharrezkoa da bizitza- eta lan-proiektuak osorik garatzeko. Horregatik, EAJk uste du oinarrizkoa dela gazteriaren informazioa, prestakuntzara eta kontzientziatora bideratutako ekimenak bultzatzea ohitura osasungarriagoak izan ditzan, arreta berezia jarriz “estimularitatean”. Izan ere, printzipio horrek ezartzen du osasun mentala osasun fisikoa bezain beste lehenetsi beharra dagoela.

EKINBIDEAK

- Arreta desoreka emozionalei. Eremu honetan, EAJk proposatzen du elikadura-portaeraren nahasmenduetara eta gazteen gaixotasun mentaletara bideratutako programak eta jarduketak indartzea.
- 01** — Gazteen kolektiboak arreta berezia merezi du suizidioarekin edo autolesioekin lotutako hilkortasun-tasak murrizten saiatzeko onetsi den Euskadin suizidioa prebenitzeko planean, 15 eta 29 urte bitarteko 100.000 gaztetik 3,9koa baita.
- Haurren eta gazteen obesitate-tasak murriztu. Ondorio horietarako, EAJk jarduketa hauek sustatzea eta indartzea proposatzen du:
 - “Elikadura Osasuntsuaren Liga” aplikatu.
- 02** — ■ Hezkuntza-zentroetan ekosistema osasuntsuak sustatu.
 - Gazteen artean jarduera fisikoa sustatu Mugiment 2020 Estrategian aurreikusitako programa desberdinekin.
 - Gorputz Hezkuntzako asteko eskola-orduak areagotu hezkuntza-maila guztietan.
- ■ Mugibili sustatu, hau da, ibiltzeko jarduera sustatzera bideratutako ekimenak.
- Mendekotasun berriekin lotutako arriskuak prebenitu: jokia eta sare sozialak. Horretarako, EAJk hiru motatako jarduketak proposatzen ditu:
 - Sare sozialen bidezko komunikazioko eta hedapeneko informazio-kanpainak substantziarik gabeko mendekotasunen arriskuan hezteko.
 - Berriazko hezkuntza-programak prestakuntza-zentroetan.
 - Gazteei fisikoki zein linean jokorako eta online apustueterako sarbidea mugatzen dien legeria murriztaileagoa.
- 03** — ■
- Bizitza sexual osasuntsu eta segurua. Ekinbide hau hezkuntza-zentroetan hezkuntza afektibo-sexualeko programak ezarriz garatzen da, baita sexu-transmisiozko gaixotasunen prebentzio-programekin ere, prebentzio-programen, erkidegoan esku hartzeko programen eta profesionalentzako prestakuntza-programen bidez.
- 04** — ■
- Trafiko-istripuen tasa. Gazteen trafiko-istripuen tasari datxezkion arriskuen inguruan sentsibilizatze aldera, EAJk proposatzen du “Gerta dakizuke” eta “Road show” informazio-kanpainak indartzea, baita Norabide Guztiak eta Cambio de Sentido antzezlanak ere.
- 05** — ■

8. KONPROMISOA

PARTE-HARTZEA.

Euskadik berezko irizpidea duen gazteria dauka eta behar du; gazteria autonomoa, ekinbidea duena, parte-hartzailea, solidarioa eta konprometitua gizarte- eta ekonomia-garapenarekin.

EAJk proposatzen du abiapuntu irmo eta positibo hau indartzea ekinbide hauen bitartez:

EKINBIDEAK

01

Gazteen boluntariotzaren bultzada. Gazte-boluntariotzako Esparruen Programa indartu; programa horren xedea da Euskadiko gazteak garapen bidean dauden herrialdeetako lankidetzak-ekintzetan sensibilizatzea, baita euskal gazterian herrien eta kulturen arteko solidaritate-kultura sustatzea ere.

Administrazioa gazteekin komunikatzeko bide berriak, EAJk proposatutako jarduketak hauen bitartez:

02

- Irekia ataria sustatu sare sozialetan.
- Gazte-elkarteen ekimenak babestu eta Euskadiko Gazteriaren Kontseiluarekiko elkarrizketa sustatu.
- Administrazioaren gazteekiko komunikazioa indartu sare sozialen bidez eta teknologia berriek eskaintzen dituzten beste komunikazio-bide batzuen bidez.

03

Elkarteetan ez dauden gazteek parte hartzea eta horiek entzutea sustatu. Etengabeko elkarrizketarako eta entzuterako bidea. Elkarteetan ez dauden gazteekin hitz egiteko eta horiek entzuteko bideak ezarri, bereziki, teknologia berrien bidez.

04

Leihatila bakarra administrazio publiko guztiekin.

EAJk proposatzen du "Gazteukera" gazte-ataria indartzea administrazio publikoen gazteentzako leihatila bakar gisa.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

9. KONPROMISOA

GAZTERIA ETA KLIMA-ALDAKETAREN AURKAKO BORROKA.

Gazteria da klima-aldaketaren aurka borrokatzeko konpromisoaren liderra, ekonomia eta gizartea eraldatzeko ekintza kolektibo global gisa, hain zuzen ere, Garapen Iraunkorreko Helburuei (GIH) jarraiki. Gazteriak klima-aldaketaren aurka duen konpromiso hori indartze aldera, EAJk hiru ekinbide zehatz proposatzen ditu:

EKINBIDEAK

- 01** Kontsumo arduratsua. Baliabideen kontsumo eta erabilera arduratsuak bultzatzeko Hezkuntza- eta Prestakuntza-plana indartu Eskolako Agenda 21en bitartez. Kontsumo digital arduratsua sustatu Kontsumobideren plataforma digitalaren bidez eta arreta berezia jarritz kontsumitzaile gazteen babesean.
- 02** Mugikortasun jasangarriko eta ordezeko mugikortasuneko forma berriak bultzatu. Gazteen artean garraibide jasangarrien erabilera sustatu.
- 03** Ingurumen-hezkuntza eta ekonomia zirkularra indartu, arreta berezia jarritz Eskolako Agenda 21ean.

10. KONPROMISOA

GAZTERIA ETA EUSKARAREKIKO ETA KULTURAREKIKO KONPROMISOA.

EKINBIDEAK

- 01** — Euskara, gazteen komunikaziorako hizkuntza. Euskara sustatuko dugu gazteriaren funtsezko komunikazio-hizkuntza gisa. Horretarako, EAJk proposatzen du euskararen erabilera sustatzea aisialdi-inguruneetan, zehazki, diru-laguntzen bidez eta EGK (Euskadiko Gazteriaren Kontseilua) bezalako gazte-elkarteen sarbidea erraztuz Euskararen Aholku Batzordera. Era berean, euskal gazteria “Euskaraldia” bezalako ekimenen buru izan dadila bultzatuko dugu.
- Kulturarako sarbidea erraztuko dugu gazteen artean. Baita gazteriaren sormen, produkzio eta kontsumo kulturalaren sustapena ere.

- Kulturarako eta produkzio kulturalerako sarbidearen sustapena. Horretarako, EAJk jarduketa hauek burutuko ditu:
 - 02** ■ Kultura Ondarea Sariak indartu.
 - Teknologia digitalak hedatu kulturarako sarbidea eta horren kontsumoa sustatzeko.
- ■ Gazteen artean irakurketa eta liburutegi publikoen erabilera sustatu.



**GAZTERIA
KIROL
KIROLA**

■ **Jarduera fisikoa eta kirola osasun, ongizate eta bizi-kalitatearen iturri gisa.**

Jarduera fisikoa eta kirola dira gure bizi-kalitatearen eta osasunaren oinarria; beraz, funtsezkoak dira gure banakako zein taldeko ongizatean kota altuak lortzeko. Egungo gizarteak eta, bereziki, horren aurrerapen teknologikoek alde kaltegarria dute jarduera fisikorik ezari eta egoneko bizitzari dagokienez. Gaur egun, mundu mailako laugarren hilkortasun-faktorea dira; hortaz, kontuan hartu behar dira. Covid-19aren osasun-krizialdian zehar eta, bereziki, konfinamendufasean eta zirkulazio- eta mugikortasun-murrizketen fasean, euskal biztanleria osoa are gehiago jabetu egin da ariketa fisikoa egitearen garrantziaz eta ariketa fisikoak osasun fisikoan eta mentalean eragiten dituen abantailaz. EAJren aburuz, gizarte aktibo bat, hau da, jarduera fisikoa egiten duen eta egoneko bizitzatik aldentzen den gizarte bat ezinbestekoa da gure ongizate-maila mantentzeko. Horrek gizarte zoriontsuagoa, produktiboagoa eta osasuntsuagoa ekarriko du, autozainketako ohitura handiagoa duena; aldi berean, horrela, gure osasun-sistemaren jasangarritasuna areagotuko da.

■ **Kirola Euskadiren kanpo-proiektzioariko palanka.**

Egungoa bezalako mundu globalizatu batean, kirola da herrialdeek gehien erabiltzen duten tresnetako bat, bai barne-kohesioa indartzeko, bai bere nazioarteko proiektzioa eta posizionamendua bultzatzeko. Euskadik, estatuturik gabeko nazio gisa, lan egin behar du bere erreferentziazko talde eta kirolak

“Euskadi Basque Country” marka promozionatzeko enbaxadoreak izateko eta munduan bereizten gaituzten balioak eta ezaugarriak posizionatzeko, bai gure kirol autoktonoen eta euskal kirol-federazioen nazioarteko ofizialtasunaren bidez, bai talde eta kirolaririk esanguratsuenen bidez. Halaber, Euskadin goi-mailako kirol-ekitaldiak erakartzea eta ospatzea gure herrialdearen nazioarteko proiektzioarako abagune bat da.

■ **Berdintasuna kirolean.** Jarduera fisikoa eta kirola ezin dira ulertu emakumezkoen presentziarik gabe. Hala eta guztiz ere, emakumezkoek kirolaren eremuan jasaten duten ikusezintasunak erabakitik handiagoa eskatzen du eremu honetan berdintasun erreala eta eraginkorra lortzeko helburuan. Euskal emakume kirolarien emaitzek bermatzen dute haien kalitatea, bai taldeka, bai banakako kirolean. Jarduera fisikoa izan da emakumeak gehien sartu diren eremua. Presentzia eta aintzatespen horiek sustatzen jarraitu behar dugu, bai jarduera fisikoan, bai kirol profesionalan eta elitezko kirolean. Horretarako, erreferentziazko mundu mailako politikak eta jardunbide egoki nabarmenak identifikatu ditu eta Euskadin aplikatu ditu. Gainera, berdintasunean oinarritutako harremanak sustatu behar ditugu kirolaren eta jarduera fisikoaren eremu guztietan, bereziki, haurtzaroan eta gaztaroan.

■ **Jarduera fisikoa eta kirola gizarte- eta bizikidetzaren balio gisa.** Kirola ez da aisialdira mugatutako jarduera fisiko bat,

ezta lehiaketetara mugatutako kirol-ari-keta bat ere. Izan ere, kirolak gizartearen eremu garrantzitsu asko hartzen ditu barne eta gizarte-balio erabat zeharkakoa da. Jarduera fisikoa eta kirola funtsezkoak dira gazteriaren hezkuntzarako. Jarduera fisikoa eta kirola egiten dituen pertsona orok daki zer esan nahi duten diziplinak eta eguneroko lanak, baita taldean jardutearen erantzukizuna edukitzeak ere. Jarduera fisikoa eta kirola gizarteratzerako funtsezko tresnak dira. Horiekin, kanpoko pertsonen aukera ematen zaie talde edo herri baten parte sentitzeko eta, gainera, gizarteratzerako aukera bikaina izan daitezke gure herrialdera heltzen diren pertsona askorentzat.

■ **Jarduera fisikoa eta kirola: euskararen erabilera sustatzeko abagune bat.**

Jarduera fisikoa eta kirola egiten diren uneak eta eremuak euskararen erabilera normalizatzeko espazio egokiak ere badira. Jarduera fisikoa eta kirola, bereziki, talde-modalitateak pertsonen eta taldeen arteko harremanetarako eta elkarrekintzarako leku komunak dira, positiboak, eraikitzaileak eta errealizazio pertsonal eta kolektiborako egokiak. Harremanak sortzeko klima egoki hori baliatu behar dugu euskararen erabilera kirolaren eta jarduera fisikoaren bultzatzeko bide gisa, maila formalean zein informalean eta, bereziki, gazteen artean. Bestalde, euskararen presentzia eta erabilera areagotu behar ditugu kirol profesionalaren eremuan eta kirolaren diziplina desberdinek gizarte ia-ia osoan duten oihartzuna eta eragina baliatu.

- **Etika kirolean.** Jarduera fisikoa eta kirola etika, kidesun eta joko garbiko balioetan oinarritzen dira. Hortaz, gutxieneko etika-oinarri bat partekatu behar dugu, kirolean joko garbia sustatzeko balio duena, herritarren artean kirolaren gizarte-balio positiboak islatzen dituzten jokabideak sustatuz eta ikusaraziz. Konpromisoa hartzen dugu publikoki arbuia-tzeko kirolean gertatzen diren jokabide hezigabeak, arreta berezia jarriz indarkeriarekin eta matxismoarekin lotutako jokabideetan. Guk kirol garbian sinesten dugu eta, beraz, dopinaren aurkako 0 tolerantziako politika bultzatzen dugu. Gure herrialdea dopinaren aurkako borrokaren abangoardian egon behar da, legeria uneoro egokituz Dopinaren kontrako Mundu Agentziaren irizpideetara. Euskadi dopinaren aurkako borrokaren seriotasun-eredu izan behar da eta erreferente bat gure probetan lehiatzera datozen antolatzaile eta kirolarientzat.
- **Jarduera fisiko eta kirol inklusiboak.** Jarduera fisikoaren eta kirolaren barruan, kirol egokituarekin eta kirolarien inklusioarekin lotutako erronka bat daukagu. Maila altuko kirolean inklusio-eredu gisa finkatzeaz gain, erronka hau gainditu behar dugu: dibertsitate funtzionala duten pertsonak jarduera fisikoa eta kirola modurik egokienean eta normalizatue-nean egin ditzaten erraztea. Gure kon-

promisoa da dibertsitate funtzionala duten pertsonak jarduera fisikoa eta kirola egitean ere laguntzea.

- **Maila altuko kirolariak babestea.** Maila altuko kirolaren eremuan hurbileneko ingurunearekin bereizten gaituen zerbait egotekotan, Basque Team Fundazioa da. Tresna hau Euskadiko maila altuko kirolarien zerbitzura dago eta, bere hamar urteotan, funtsezko laguntza bilakatu da eliteko kirolean helbururik onenak lortzeko. Basque Team indartuko dugu, gure herrialdeko maila altuko kirolarien familia gisa.
- **Prestakuntzaren eta trebakuntzaren garrantzia.** Jarduera fisikoaren eta kirolaren promozioan eta hezkuntzan diharduten profesionalen prestakuntza funtsezkoa da horiek euskal herritarren artean sustatzeko bere orientazio desberdinetatik: osasuna, errendimendua, aisialdia eta hezkuntza. Horretarako, beharrezkoa da hezkuntza-sistemaren maila desberdinetan eta enplegurako Lanbide-heziketako Sistemari diharduten administrazio publikoen eta pribatuen esfortzuak eta interesak koordinatzea, sektore desberdinen eskariari erantzuten dien zentro espezializatuen euskal sare publiko-pribatua bermatuz. Kirol arloko Lanbideetan Sartzeari buruzko Legearen onespina eta horren

geroko arauzko garapena funtsezkoak izango dira gure sektorean lan egiten duten eragileen prestakuntzaren kalitate optimoa izan dadin.

- **Legeria egokia eta eguneratua.** Jarduera fisikoaren eta kirolaren errealitate berria eraldatzeko eta egokitzeko erronka daukagu, hurrengo urteetarako gida bilakatzen den esparru aurreratu bat edukitzeko, hain zuzen ere, jarduera fisikoaren eta kirolaren euskal lege berriaren bidez. Uste dugu lege hau aipatutako printzipioekin bat etorri behar dela eta kontuan hartu behar duela jarduera fisikoak honakoari dagokionez duen garrantzia: pertsonen ongizatea; emakumezkoen berdintasun erreala eta eraginkorra eta proiektio handia; kirolaren garrantzia herrialde baten proiektio-tresna gisa eta maila altuko kirola eta dopinaren aurkako borroka. Eraldaketaren erronketako bat izango da federazio-egitura berrantolatzea, baliabideak kirolaren eta kirolarien onurarako optimizatzea lortzeko.

A. JARDUERA FISIKOA BIZITZA OSASUNGARRIAGOA EDUKITZEKO.**1. KONPROMISOA****EUSKAL GIZARTEA EUROPAN JARDUERA FISIKO GEHIEN EGITEN DUENA IZATEA LORTU.****EKINBIDEAK****01**

Kirol-txartel bakarra sortu eta Euskadi osora hedatu, txartelaren erabiltzaileek euskal udalerrri guztietako kirol-instalazio publikoak erabili ahal izateko.

02

Euskal herritarrek bizitza osoan zehar jarduera fisiko osasungarriak eta aisialdi-jarduerak mantentzera eta areagotzera bideratutako programak indartu.

03

Osasun Sailarekin elkarlanean, adinekoei zuzendutako proiektu bat sortu, Osakidetzaren Adinekoen Arreta Planaren eta Mugiment Orientazio-sistemaren artean koordinatuta, zehazki, adinekoen gelditasunari erantzuteko.

04

Eskoletan jarduera fisikoko orduak areagotu eta Kirolak, Osasunak eta Hezkuntzak aitortutako ziurtagiri ofiziala duten eskola-zentro aktiboen sare bat sortu. Hurrei eta nerabeei zuzendutako programetan, arreta berezia jarriko da haur eta neska gazteengan.

05

“Baloreetan BATeskola” Programa abiarazi, euskal emakume eta gizon kirolarien presentzia sustatzeko eskola-zentroetan, gazteriarri norberaren interesetara, aukeretara eta premietara egokitutako kirola egitean lortzen diren onura eta balio positiboak helarazteko.

06

Osasun Sailarekin koordinatuz, “Mugiment Proiektua” indartu euskal gizarte aktiboa lortze aldera. Lan egiten jarraitu Euskadi osoan instalatzeko jarduera fisikoko orientazio-zerbitzuak, pertsonak jarduera fisikoko ohiturak hobetzen laguntzeko eta nolabaiteko erregularatasuna lor dezaten.

07

Hezkuntzak, Osasunak eta Kirolak kudeatutako zerbitzu bat sortu, erakunde publiko eta pribatu desberdinak zuzendu eta koordinatzen dituena, Euskadi Europako gizarterik aktiboena izatea lortzeko.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

B. KIROLA BEREIZGARRI GISA.

2. KONPROMISOA

KIROLA EUSKADI MUNDUAN EZAGUTZERA EMATEKO BEREIZGARRIA IZATEA LORTU.

EKINBIDEAK

- 01** Sare bat sortu, bere ibilbideagatik, hedabide-proiektzioagatik eta garrantziagatik, nazioarteko lehiaketetan parte hartuz eta atzerrian egiten diren jardueren bidez, munduan Euskadi-Basque Country marka eta gure herrialdearen irudia ezagutzera eman ditzaketen kirol-figurekin, bai diziplina desberdinetako kirol-taldeekin (futbola, saskibaloia, eskubaloia, etab.), bai banakako kirolariek.
- 02** Euskal selekzioei zuzendutako babesa indartu eta euskal federazioak nazioarteko federazioetan integratzeko lan egin.
- 03** Gure kirol autoktonoak sustatu eta indartu (pilota, herri kirolak eta arrauna), gure herrialdearen bereizgarrietako bat direlako:
 - Nazioarteko kirol-ekitaldietan parte hartzen duten taldeak eta kirolariak babestu.
 - Nazioarteko ekitaldiak ospatzea bultzatu.
 - Eskola-eremuan kirol autoktonoak sustatu foru aldundiekin elkarlanean.
- 04** “Basque Team Fundazioa” sustatu eta indartu, maila altuko euskal kirolaren erreferente gisa eta kirol olinpikoaren ordezkari gisa, baita kirolarien presentzia areagotu ere nazioarteko lehiaketetan eta olinpiar eta paralinpiar jokoetan. Helburua da “Basque Team Fundazioa” finkatzea, Euskadiko eliteko kirolarien potentziala ahalik eta gehien garatzeko tresna gisa.
- 05** Mailarik altueneko kirol-ekitaldien antolakuntza indartu eta Euskadin ospatzen diren nazioarteko ekitaldien antolakuntzan lagundu: Gizonezkoen Frantziako Tourra eta emakumezkoen Itzulia izango dira ekitaldi horietako batzuk.

C. KIROLA BERDINTASUN ETA GIZARTERATZEKO ELEMENTU GISA.

3. KONPROMISOA

EUSKADIKO KIROLAREN ETA JARDUERA FISIKOAREN PANORAMAN BERDINTASUN ERREAL ETA ERAGINKORRERANTZ AURRERA EGIN.

EKINBIDEAK

01

Emakumezkoen kirol-politiketan Europa mailako erreferentzia den zentro aurreratu bat abian jarri; horren eginkizuna izango da kirolean emakumezkoen berdintasun osoa lortzera zuzendutako ekimenak, planak eta politikak garatzea.

02

Bizitzako etapa guztietan zehar kirol-sistema osatzen duten erakundeetan eta eremuetan emakumezkoen presentzia, praktika eta parte-hartzea aktiboa bultzatzen dituzten neurriak ezarri eta aplikatu, mundu mailako herrialderik aurreratuenen estandarrak lortzeko xedearekin.

03

Emakumezkoen kirolaren presentzia bermatu hedabide publikoetan. Emakumezkoen presentzia eta parte-hartzea bultzatzera zuzendutako ekitaldiak planifikatzea.

04

Ekintza positiborako neurriak txertatu emakumezkoen taldeentzako eta emakume kirolarientzako diru-laguntzetan. Emakumezkoen presentzia eta parte-hartzea bultzatzera zuzendutako ekitaldiak planifikatzea.

05

Emakumeak kirolaren munduko erantzukizun-postuetan eta mailetan eta erabakiak hartzeko eremuetan egotea sustatu.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

4. KONPROMISOA

GIZARTEA KOHESIONATZEN DUEN, PARTE-HARTZEA, ETIKA, EUSKARAREN ERABILERA ETA BERDINTASUNA SUSTATZEN DITUEN ETA BALIOETAN OINARRITZEN DEN KIROL INTEGRATZAILEA LORTU.

EKINBIDEAK

01

Kirola gizarte-kohesioko eta parte-hartzeko elementu gisa bultzatu bere balioak defendatuz: heziketa, berdintasuna, integrazioa, tolerantzia, solidaritatea eta indarkeriarik eza.

02

Euskararen presentzia eta erabilera indartu aisialdi- eta kirol-eremuetan. Kirolariek kirola Euskadiko bi hizkuntza ofizialetan egiteko duten eskubidea zaindu. Euskararen erabilera sustatu Euskadin garatzen diren kirol-ekitaldien emankizunean.

03

Kirol garbia sustatu, dopinaren aurreko 0 tolerantziarekin. Dopinaren kontrako Euskal Agentzia indartu, Euskadiko probetan egin beharreko kontrolen kopurua handituz. Eta Dopinaren kontrako Mundu Agentzian sartzea lortu.

04

Abian jarri ahultasun-egoeran dauden adingabeak kirolaren bidez gizarteratzera bideratutako berariazko programak. Bazterkeria-arriskuan dauden kolektiboen gizarteratzea erraztu kirol- eta kultura-jardueren bidez.

Euskal kirol-sisteman kirol egokitua integratzea babesteko neurri berriak sustatu.

Ondorio horietarako, jarduketa hauek proposatzen dira:

05

■ Pertsona desgaituei edo dibertsitate funtzionala duten pertsonen jarduera fisikorako-kirolerako sarbidea bermatu eremu guztietan.

■ “GaituzSport Programaren” garapena indartu eta horretan lagundu, hain zuzen ere, horretan parte hartu nahi duten desgaituen edo dibertsitate funtzionala duten pertsona guztien jarduera fisikorako sarbidea bermatzeko.

■ Kluben eta federazioen jarduera erraztu kirol egokituaren antolakuntzan eta kudeaketan.

5. KONPROMISOA

EUSKAL KIROL-SISTEMA ETORKIZUNENKO ERRONKETARA EGOKITU KALITATEZKO ETA OREKATUTAKO EREDU BATEN BIDEZ.

EKINBIDEAK

- 01** Euskal Kirol-eredu inklusibo eta jasangarri bat eraiki, eskumenak zehazten dituen eta herritarrek jarduera fisikoa eta kirola egitearekin lotutako promozioan, kudeaketan, komunikazioan, entrenamenduan eta prestakuntzan esku hartzen duten administrazio publiko, erakunde pribatu eta eragileen arteko koordinazioa bultzatzen duena.
- 02** Jarduera fisikoa eta kirolaren lege berri bat onetsi, erreferentea izango dena eta sektorearen oraingo zein etorkizuneko erronkei erantzungo diena.
- 03** Euskal Autonomia Erkidegoan Kirol arloko Lanbideetan Sartzeari eta Jarduteari buruzko Legea onetsi.
- 04** Kiroleko Dopinaren aurkako ekainaren 21eko 12/2012 Legea garatu eta horren aldizkako eguneraketa mantendu, zehazki, Dopinaren kontrako Mundu Agentziak une bakoitzean ezarritako kode eta estandarrekin bat etorri.
- 05** Oinarriko eskola-kirolaren garapena babestu foru aldundiekin elkarlanean. Euskadiko eskola-jokoen bultzada. Errendimendu altuko Euskadiko Eskola-txapelketak antolatu.
- 06** Unibertsitate-kirola indartu euskal unibertsitateekin elkarlanean. Euskal federazioak babestu bere programetan.
- 07** Euskal federazio-sistema berrantolatu baliabideak optimizatuz, eraginkortasuna hobetzeko eta kirol-arloan eragin zuzen handiagoa lortzeko.
- 08** Kirol-sektore publikoan eta pribatuan digitalizazio- eta berrikuntza-prozesuak sustatu, teknologien erabilera txertatuz prestakuntza, eskaintza eta herritarrentzako arreta hobetzeko eta gizartean ariketa fisikoa areagotzeko bitarteko gisa.

GENERO-BERDINTASUNA

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN
ARRETARAKO ETA PREBENTZIORAKO
EUSKO JAURLARITZAREN INBERTSIOA
% 30 HANDITU.



- Berdintasuna gizarte demokratikoen errespetatu eta bultzatu behar duten giza eskubide bat da. Hortaz, EAJk berdintasunaren bultzadan eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko gizarte baten eraikuntzan lan egiten jarraituko du, horrek ekarriko duelako errespetua, ezagutzeta, ongizatea eta demokrazia indartzea.
- Berdintasuna txertatzen denean, gizarte osoak irabazten du. Herritarrek gero eta kontzientziatuago eta sensibilizatuago daude berdintasunarekin lotutako gaiekin. Aurrerapen garrantzitsuak erregistratu egin dira Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea onetsi zenetik eta gizarteak horren ezarpenean lagundu egin du. Hala eta guztiz ere, oraindik daude gainditu beharreko erronka ugari, egungo osasun-krisiak agerrarazi duen bezala; izan ere, bizi izan dugun egoeran, emakumeek pairatu dituzte lan- eta familia-eremuetako ondorioetako asko eta agerian utzi da berriro ere gizartean dagoen berdintasunik eza. Hortaz, EAJk konpromisoa hartzen du Eusko Legebiltzarrean emakumeen eta gizonen berdintasunerako legearen aldaketaren onespena arintzeko, lorpenak finkatze aldera eta benetako berdintasun eraginkorraren eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko gizarte baten lorpenean aurrera egiten jarraitzen laguntzen diguten proposamen berriak sustatzeko.
- Berdintasuna funtsezko elementu bat da Garapen Iraunkorreko 2030 Agenda eta Euskadi Basque Country Estrategia betetzeko. Globalizatutako mundu batean, berdintasuna bereizteko eta hobetzeko aukera bat da, Euskadin dagoen talentu guztia ahalik eta gehien baliatzea dakarrelako. Ezin dugu gure biztanleriaren erdiaren potentziala alferrik galdu. Izan ere, hori funtsezkoa izango da Garapen Iraunkorreko 2030 Agenda eta horren helburuak betetzeko, baita Pekineko Ekintza-plataformaren ondoriozko aginduen betetzean aurrera egiteko ere. Berdintasunik gabe, ez dago garapen jasangarririk. EAJk uste du berdintasuna dela garapen jasangarriaren azeleratzailea.
- Beharrezkoa da genero-ikuspegia txertatzen jarraitzea. Aurrerapenak gorabehera, berdintasunik eza bizitzaren eremu guztietan ematen da; horregatik, beharrezkoa da genero-ikuspegia txertatzea abian jartzen diren ekinbide eta proiektu guztietan. Horrek esan nahi du kontuan hartu behar direla emakumeen eta gizonen berriazko premiak, konponbide hobeak proposatzeko aurkezten zaizkigun erronken aurrean.
- Emakumeen aurkako indarkeria eskubideen urraketa bat da, egiturazko, dimentsio anitzeko eta maila globaleko arazo bat. Alde kulturalak eta antzeman daitezkeen ñabardura desberdinak gorabehera, planeta osoan gertatzen da. Aurpegi ugari dituenek, beharrezkoa da neurriak eremu desberdinetatik hartzea: horrelako egoerak jasaten ari diren emakumei arreta integrala emateko neurriak, baina jatorrian eragiten duten eta beharrezko balio-erlaldaketa sorraraz dezaketen neurriak ere bai. EAJk uste du egiturazko arazo bat dela eta horren oinarrian berdintasunik eza dagoela. Hain zuzen ere, arreta bertan jarri behar da, berdintasunik ezaren zuzenketa, beharrezko erlaldaketak gerta daitezzen. Horretarako, oinarritzkoa da emakumeen aurkako indarkeriaren aurreko erantzunean inplikaturik dauden profesional guztien prestakuntza. Horrez gain, beharrezkoa da emakumeen aurkako indarkeriari erantzun egokia ematea bere adierazpen ugarietan, Istanbulko Hitzarmenean jasotako aginduekin bat etorritik, emakumeen eta gizonen berdintasunerako legearen aldaketan proposatzen den bezala.
- Enpresetan berdintasuna txertatzea bikaintasunaren aldeko apustu bat da. Berdintasunaren aldeko apustu serioa egiten duten enpresek hori egiten dute gizarte-justiziagatik eta jakin badakitelako berdintasuna hertsiki lotuta dagoela bere kudeaketaren eta emaitzen bikaintasunarekin. Bere kudeaketan berdintasuna txertatzen duten enpresak eraginkoragoak dira. Hori islatzen dute Lanaren Nazioarteko Erakundearen txosten desberdinek.

- Haurrei eta gazteei berdintasun-balioak helarazteko konpromisoa. Berdintasuna irakasten ez bada, azkenean, desberdinkeria ikasten da. EAJren aburuz, funtsezkoa da etorkizuneko mundua kudeatuko duten belaunaldi berriekin lan egiten jarraitzea, berdintasunaren balioa txerta dezaten bere eguneroko jarduketan. Egungo munduan, eguneko 24 ordutan jasotzen dugu informazioa; beraz, inoiz baino beharrezkoagoa da berdintzalea zer den eta zer ez den bereizten laguntzen duten tresnak eskaintzea. Berebizikoa da berdintasun-prestakuntza ematea adin goiztiarretatik; horregatik, oso garrantzitsuak dira hezkidetzak eta Berdintasunaren II. Hezkidetzak-plana eta emakumeen aurkako indarkeria errotik kentzea. Zentzu horretan, beharrezkoa da irakasleen prestakuntza bermatzea, berdintasuna zeharka txertatzea ikasgai eta jarduera desberdinetan eta ikasleekin gai hau lantzea ahalbidetzen duten eskola-orduak erreserbatzea.
- Emakumeen ahalduntze-prozesuak bultzatzen jarraitu beharra dago. 2020an, Pekineko Konferentziaren 25. urteurrena ospatzen da; horretan, besteak beste, ondorioztatu egin zen ezin zela berdintasunik lortu nesken eta emakumeen ahalduntzerik gabe. Beraz, EAJK emakumeen autoestimua eta autonomia ekonomikoa, soziala eta politikoa areagotzera zuzendutako prozesuak indartzen jarraituko du, zehazki, emakume anitzen berariazko premiak erantzuten

saiatuz: adinekoak, migratuak, arrazializatuak, gazteak... Horretarako, intersektionalitatearen aplikazioan aurreratu dugu, zehatzago ezagutzeko errealitate desberdinak eta, horrela, ekintza politikoa hobetu ahal izateko. Aldi berean, Istanbulen Hitzarmenak zehazten duen bezala, mutilekin eta gizonekin lan egiten jarraitu behar da berdintasunaren aldeko aldaketa-eragileak izan daitezen.

- Soldata-arraila errealitate bat da. EAJtik, konpromisoa hartzen dugu arraile murrizteko lan egiten jarraitzeko. Jakin badakigu egiturazko arazo bat dela eta zailtasun ugari eragiten dituela; horregatik, ezinbestekoa da soldata-arrailearen aurkako estrategia eta bere ekintza-plana ezartzen jarraitzea, zehazki, enpresen, sindikatuen eta administrazioen esfortzuak uztartzen saiatuz. Ildo horretatik, emakumeak lan-merkatuan sartzea, bertan egotea eta mailaz igoztea errazten duten neurriak azpimarratu behar dira, eta ez emakumeak lan-merkatuan ez egotea. Enpresetan berdintasun-diagnostikoak eta planak bultzatzea funtsezkoa da.
- Zaintzei erantzun egokia emateko erronka gaitzitu behar dugu. EAJK uste du zaintzak erdigunean kokatu behar direla. Zentzu horretan, erantzunkidetasuna funtsezkoa da etxeko lanetan eta zaintza-lanetan. Emakumeak lan-merkatuan nabarmen sartu diren arren, oro har, emakumeak dira etxeko eta zaintzako

lanak egiteaz arduratzen direnak, gizonak ez direlako neurri berean inplikatuta eremu horietan. Beharrezkoa da aldaketa hori errazten duten neurriak lantzen jarraitzea. Horrez gain, beharrezkoa da gizonekin batera lan egitea eta enpresa-eremuan erantzunkidetasuna bultzatzen duten neurriak indartzea, baita zaintza eta bizitza pertsonalaren, familia-bizitzaren eta lanaren kontziliazio erantzunkidetasuna ahalbidetzen dituzten zerbitzu publikoak ematen jarraitzea ere.

01. KONPROMISOA

ERAKUNDE ARTEKO KOORDINAZIOA INDARTU GURE HERRIALDEAN BERDINTASUN ERREALA ETA ERAGINKORRA LORTZEKO BERDINTASUN-PLAN ESTRATEGIKOAN EZARRITAKO IBILBIDE-ORRIAREN BIDEZ.

EAJren xedea da Euskadi Europako lehenengo herrialdeen artean kokatzea genero-berdintasunaren adierazleetan.

EKINBIDEAK

01

Berdintasun-polituketara eta emakumeen aurkako indarkeria errotik kentzera zuzendutako aurrekontu globala haunditu. Beste ekintza batzuen artean, EAJk proposatzen du Emakunde eta Eusko Jaurlaritzako sailetako berdintasun unitateak indartzea.

02

Bultzada berri bat eman egungo erakunde arteko koordinazio-organoei, herrialdeko berdintasun-politika indartze aldera udalen, aldundien eta gobernuaren arteko maila anitzeko lana indartuz.

03

Emakumeen aurkako indarkeriaren eremuan erakunde arteko koordinaziorako espazioak bultzatu, emakumeen aurkako indarkeria-forma guztien aurreko prebentzioa eta erantzuna indartzeko eta, horrela, indarkeria matxistarik gabeko gizarte bat eraikitzeko.

04

Nazioarteko organismoekiko aliantzak indartu Garapen Iraunkorreko 2030 Agendaren helburuak lortzean aurrera egiteko, bereziki, 5. helburua lortzeko: nesken eta emakumeen ahalduntzea eta genero-berdintasuna.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

02. KONPROMISOA

BALIO-ALDAKETA. AURRERA EGIN HAURREI ETA GAZTEEI BERDINTASUN-BALIOAK HE-LARAZTEAN ETA EMAKUMEEN ETA NESKEN AHALDUNTZEAN.

EKINBIDEAK

01

Hezkuntzaren eremuan berdintasunean egiten den lana indartu adin goiztiarretatik, zehazki, II. Hezkidetza-plana ezarriz. EAJk proposatzen du hezkidetza zentro guztietara, hezkuntza-etapa guztietara eta, bereziki, lanbide-heziketara hedatzea, emakumeen presentzia areagotzen laguntzeko gizonezkoak nagusi diren eremuetan.

02

Eskola-zentroetan berdintasuna lantzeko Nahiko hezkidetza-programaren barruan, 2 eta 4 urte bitarteko haurrei zuzendutako material berriak sortu.

03

Emakume eta nesken ahalduntzea babestu berariazko zenbait neurriren bitartez.

04

Interseksionalitatean aurreratu, emakume desberdinek bizi dituzten askotariko errealitateak hobeto ezagutzeko, horrela, bere premiei erantzun hobea emateko.

05

Herritarrei zuzendutako sentsibilizazio- eta kontzientziazio-kanpainak azpimarratu, berdintasunaren aldeko gizarte-konpromisoa indartzea lortze aldera.

06

Hedabideekin eta publizitate-agentziekin elkarlanean jarraitu komunikazio eta publizitate ez-sexistetan aurrera egite aldera.

07

Aliantzak indartu emakumeen elkarte-mugimenduarekin eta mugimendu feministarekin.

03. KONPROMISOA

ZAINKETAK ERDIGUNEAN JARRI. GIZARTE-ANTOLAKUNTZA ERANTZUNKIDEA.

EKINBIDEAK

01

EAJk proposatzen du gurasotasun-baimen pertsonalak, besterenezinak eta ordainduak bultzatzen jarraitzea, eta, gainera, pizgarriak eskaintzea hasierako hilabeteak gainditu ondoren bananduta daudenean, hori guztia erantzunkidetasuna bultzatze aldera.

02

Bermatu 0 eta 3 urte bitarteko haur-hezkuntzaren doako estaldura unibertsala, besteak beste, hartzaindegien sarea indartuz.

03

Mutilei eta gizonei zuzendutako lana indartu berdintasun erreala eta eraginkorra lortzean aktiboki inplika daitezten Gizonduz bezalako programen bidez, hori guztia, besteak beste, erantzunkidetasun handiagoa lortze aldera.

04

Sentsibilizazio-kanpainak egin eta neurriak abiarazi zainketei balioa emateko eta horiek politiken erdigunean kokatzeko.

05

Adingabeei eta menpeko pertsoneri laguntzeko zerbitzuak finkatu eta indartu, bizitza pertsonala, lana eta familia modu erantzunkidean bateratzea errazteko eta emakumeek, zainketez gehien arduratzen direnek, lan-merkatutik aldendu behar ez izateko.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

04. KONPROMISOA

SOLDATA-ARRAILAREN AURKAKO KONPROMISOA. GIZARTE-JUSTIZIAGATIK ETA GURE ENPRESEN KALITATEA ETA EKONOMIA HOBETZEKO.

EKINBIDEAK

01

Soldata-arrailaren aurkako 2030 Estrategia ezarri, Estrategian eta Plan Operatiboan jasotako neurriak sustatuz, hurrengo 4 urteetan, Euskadin, soldata-arraila % 20 murrizteko.

02

Emakumeen autonomia ekonomikoa bultzatu neurri desberdinen bidez, emakumeak, lan-merkatutik kanpo utzi beharrean, lan-merkatuan sartzea, bertan egotea eta mailaz igotzea errazteko. Horrela, emakumeen txirotasun- eta prekarietate-maila handiagoak murriztea lortuko da. Aldi berean, babesak emango zaie ahultasun-egoeran dauden emakumeei: kotizazio gabeko pentsioen edo alargun-pentsioen hartzaileak.

03

Enpresei berdintasun-diagnostikoak eta planak egiteko zuzendutako laguntzak indartu.

04

Enpresa- eta sindikatu-eragileekin batera, enpresa-kultura berri baten aldeko estrategia abiarazi, ordutegi-malguketa eta arrazionalizazioa ahalbidetzen dituen, langileen bizitza pertsonala, lana eta familia bateratzea errazteko, horretarako emakumeak lan-merkatutik aldentu gabe.

05

Helburu honekin konprometitutako enpresak aintzatesten dituen Berdintasunerako Lankidetzaren Enpresaren bereizgarria sustatu eta horien arteko sareak sortu.

06

EAJk proposatzen du Euskadiren presentzia indartzea berdintasunaren aldeko nazioarteko organismoetan, bereziki, NBEk, NBE Emakumeak-ek eta ELGAK zuzendutako berdintasunerako nazioarteko koalizioan (EPIC, Equal Pay International Coalition).

05. KONPROMISOA

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN INOLAKO ADIERAZPENIK GABEKO GIZARTE ASKE BAT ERAIKI.

EKINBIDEAK

01

Legebiltzarrean emakumeen eta gizonen berdintasunerako euskal legearen onespina arindu, beste alderdi batzuen artean, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren adierazpen desberdinen aurreko prebentzioa eta arreta indartzeko.

02

Emakunderen emakumeen aurkako indarkeria errotik kentzeko arloa indartu, koordinazioa hobetze aldera Eusko Jaurlaritzako sail guztien artean, baita aldundien, udalen eta gainerako erakunde eta gizarte-eragileen artean ere. Horrekin, EAJk Istanbuleko Hitzarmenean jasotako emakumeen aurkako indarkeria-forma guztientzako erantzun egokia bultzatzen du.

03

Indarkeriaren biktima diren emakumeentzako arreta hobetzeko erakunde arteko akordioa eguneratu, bere adierazpen anitzetan indarkeria pairatzen duten emakume guztiei ematen zaien erantzun integrala indartzeko, laguntza bateratu pertsonalizaturantz aurrera egitea ahalbidetzen diguten neurriak abiaraziz.

04

Oro har, herritarrei eta, zehazki, gizonei zuzendutako sentsibilizazio-kanpainak abiarazi, indarkeria-forma desberdinen eta horiek berdintasunik ezarekin duten loturaren gaineko kontzientziak azpimarratzen dutenak.

05

Arreta jarri indarkeria matxistaren biktima zuzenak diren adingabeetan, horiei arreta emateko bide desberdinak aztertuz eta berriazko laguntza ekonomikoak ezarriz indarkeria matxistaren hildakoen seme-alaba umezurtzentzat.

06

EAJk proposatzen du berriazko programa bat ezartzea indarkeria desberdinen biktima diren emakumeei arreta eman behar dieten profesional guztien prestakuntza egokia eta espezializatua indartzeko, betiere berdintasunaren, giza eskubideen eta emakumeen ahalduntzearen ikuspegitik. Era berean, indarkeria-egoera desberdinen detekzio goiztiarrerako programak sustatuko dira.

07

Indarkeriaren biktima diren eta bizirik atera diren emakumeen elkarteak ekonomikoki babestu eta horiekiko elkarlanean aurrera egin.

08

Indarkeriaren biktimen erreparaziora zuzendutako neurrien programa bateratua abian jarri, funtsean, haien autonomia ekonomikoa bermatzen saiatuz.

09

Aurrera egin, organismo eskudun desberdinekin batera, arreta erasotzaileengan jartzea ahalbidetzen duten proposamen berrien planteamenduan, indarkeria jasandako emakumeak berriz biktimizatzea saihestuz.

ADINEKOAK

TELELAGUNTZA ZERBITZUAK 80 URTE
BAINO GEHIAGOKO BIZTANLEEN
% 100I HELARAZI.



■ Zahartzea edo, hobeto esanda, biziluzetasuna eta bizi-itxaropenaren eta bizitza osasuntsuaren areagotzea aldi berean dira albiste on bat, erronka bat eta gizartearentzako aukera bat. Adinekoentzako arretan enplegua sortzeko eta jarduera ekonomikoa bultzatzeko ez ezik, nagusiki, 65 eta 80 urte bitarteko adineko autonomoen belaunaldi baten larrialdiagatik. Izan ere, pertsona horiek prestakuntza eta lan- eta bizitza-ibilbide zabala eta anitza dituzte, baita ikuspegi kritikoa eta bizitza aktiboa edukitzeko eta gizartean parte hartzeko itxaropenak ere bai.

Aurrekaririk gabeko gizarte-egitate hau islatzen da ekimen askotan, besteak beste, adinekoen asoziazionismo-forma berrietan, pentsiodunen aldeko mugimenduan edo adinekoek gobernantzan duten parte-hartzean. Erretiro-adinaren eta 80 urteen artean dauden pertsonen “iraultza” bat da, oraindik muga kroniko gutxi dituztenak bere jardueran.

EAJren aburuz, “iraultza” horrek adinekoak bestela begiratzeko eskatzen du; adinekoak herritar aktibo eta bere patuaren protagonista gisa hartu behar ditugu eta pentsatu behar dugu gizarteak behar dituen talentua eta gaitasunak dituztela, baita sustatu eta zaindu beharreko autonomia dutela ere. Begirada berri bat ekintza publikoa eremu guztietan eraldatzeko: gobernantza, talentuaren sustapena, adinekoen gizarte-ekintzailtza eta asoziazionismoa eta haiei zuzendutako jarduerak eta zerbitzuak.

■ Hala, profil, nahi, gaitasun, interes eta itxaropen desberdinak dituzten 65 urte baino nagusiagoen belaunaldi berri baten autonomia pertsonala sustatzearekin eta gizarte parte-hartzea bideratzearekin lotutako erronka kuantitatibo eta, batez ere, kualitatiboegi egiten diegu aurre. Era berean, EAJk egiaztatzen du gaur egun are garrantzitsuagoa dela menpekotasun-egoeran edo arriskuan dauden adinekoei erantzutea, baita bere senideak zaintzea erabakitzen duten pertsonen belaunaldi berriari erantzutea ere. Beraz, beharrezkoa da hori bere bizitza pertsonalaren, familia-bizitzaren eta lanaren arteko oreka mantenduz egin ahal izatea.

■ Adinekoak ahalduzko eta horien gizarte parte-hartzea eta herritartasun aktiboa sustatzeko, beharrezkoa da Nagusi Agenda edo Nagusiekiko Gobernantzarako Euskal Estrategia 2019-2022 bezalako gobernantza parte-hartzaileko ekimenak etengabe bultzatzea. EAJk adinekoak haiei eragiten dizkieten politiken eraikuntzan eta hedapenean inplikatzeko lehenetsiko du, baina gizarte-erlaketarako bestelako funtsezko prozesuetan ere bai.

■ Adinekoen talentua sustatu eta baliatzeke, nahitaezkoa da etengabeko ikaskuntzan berritzea, irakaskuntza-prozesuko edukiak, helburuak eta metodoak eraldatuz eta adinekoak hezitzaile gisa txertatuz prozesu horretan. EAJk uste du beharrezkoa dela ikaskuntza eta ekintzailtza konektatzea, autogestioko eta gizarte-erlaketako proiektuak eta

ekimenak sustatuz eta babestuz, hain zuzen ere, adinekoen premia bereziei erantzuteko, adinekoak aisialdi- edo kultura-eskaintza baten hartzaile eta kontsumitzaile pasibo gisa hartu beharrean.

■ Horrez gain, adinekoen bizitza aktiboa eta gizarte parte-hartzea sustatzeko, adinekoekiko ingurune atseginak sustatzen jarraitu beharra dago, ahalik eta denbora gehienez errazteko eta sustatzeko horien autonomia eta gizarteratzea. Euskadi Lagunkoia Sustraietatik adinekoekiko “hiri” lagunkoien sare handi bat da dagoeneko, udalerririk berritan indartutako duguna eta zeinaren jarduketaren eremuak handituko ditugun: hirigintza eta irisgarritasuna, segurtasuna, zerbitzu publikoak eta hurbileko merkataritza. Era berean, sare honek adinekoen, auzokideen eta auzoaren arteko komunikazioa eta gizarte-harremanak errazten ditu eta, horrela, posible da erkidegoa elkarrekin eraikitzea.

■ Menpekotasun- eta arrisku-egoeren prebentzioa eta arreta lehenetsuna dira Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemarentzat eta Osakidetzaarentzat, adinekoek ahalik eta bizitarik aktiboena eta integratuena garatzen jarrai dezaketela bermatuz bere ingurunean eta bere egoeretara egokitutako babesekin.

EAJk uste du berebizikoa dela lehen mailako arreta (telelaguntza, gizarte-laguntza, etxeko bitak eta laguntza, zaintzaileentzako babesa) indartzea, baita bigarren mailako arreta-zerbitzuak (eguneko zerbitzuak, laguntza-produk-

tuak) eta atseden hartzeko aukerak ere. Aurrera egin behar dugu adinekoen egoitza-ereduan, pertsonan zentratutako egoitza integrarekin, zeinetan erabilitzailearen premiak, bere erosotasuna eta aisialdia lehenetsiko diren. Oreka aurkitu behar dugu etxeko/erkidegoko eta egoitzako zaintzaren artean, iraupen luzeko zaintzen estrategia baten esparruan. Horrek prebentzioa eta errehabilitazioa indartuko ditu; zaintzen kalitatea definitu eta ebaluatuko du eta zaintzaileen presakuntza sustatuko du.

- Lehen mailako zaintza familia eta belaunaldi arteko solidaritate-adierazpen bat ere bada. Aldi berean, zaintza hori nahita eta jakinda burutu behar da eta bizitzaren beste dimentsio batzuekin orekatuta (pertsonala, familia, lana) eta banatuta egon behar da (familiaren barruan eta laguntza-sistema formalekin); aditua izan behar da (prestakuntza), atseden hartzeko aldiekin (arnasa) eta estres eta gainkargako egoerei aurre egiteko beharrezko laguntza psikosozialarekin.

Zaintzaren jasagarritasuna erakundeen erantzukizuna den laguntza formalaren eta nagusiki familiek eskaintzen duten eta gizonezkoak erantzunkide izan behar diren lehen mailako laguntzaren

arteko oreka konplexu honen emaitza da. Lehen mailako zaintza eta zaintza formala babesteak hori aitortzeko eta duin egiteko eskatzen du. EAJren konpromisoa da senide zaintzaileen estatutua garatzea, zaintza-lana bizitza pertsonalarekin, familiarekin eta lanarekin bateratzeko helburuarekin.

- Nahi gabeko bakardade-egoera arazo larri bat da, bereziki, adinekoen kasuan; horietako asko emakumeak dira eta egoera hori are larriagoa da bestelako menpekotasun-, ahultasun- edo pobrezia-egoerekin bat egiten duenean. EAJk uste du, egoera horri erantzuteko, detekzioko eta esku-hartzeko sistemak indartu behar direla, baita konpromiso publikoa eta gizarte-ekimeneko konpromisoa ere, pertsona horiek laguntzeko eta bizitza duin bat bermatzeko, non maitasuna, hurbiltasuna, entzutea, tratu pertsonala, adiskidetasuna eta aisialdia sustatuko diren.

- Erronka demografikoak estrategia integral bat eskatzen du eta, horrez gain, belaunaldi arteko solidaritatea eta ekimen zehatzak behar ditu, erakundeen eremuan eta familia- eta gizarte-inguruneetan. EAJk, erakundeen eremuan, azaltzen du beharrezkoa dela adinekoen

egoerarekin bat datozen erantzunak artikulatzea (pentsioen bermea, zahartze aktiboa, mendekotasun-egoerentzako arreta, gizarte parte-hartzea), baita gazteen egoerekin bat datozenak ere (enplegurako sarbidea eta kalitatezko enplegua, emantzipazioa, gizarte parte-hartzea). Familia- eta gizarte-mailan, esan dezakegu belaunaldi arteko solidaritate-adierazpenetako batzuk direla, adibidez, aitona-amonek seme-alaba eta ilobei ematen dieten zentzuzko babesa edo erretirodunek gazteei ematen dietena.

- Zahartzea aukera bat ere bada adinekoentzako arretarekin lotutako jarduera ekonomikoa bultzatzeko -silver economy edo zilarrezko ekonomia- eta enplegua sortzeko. EAJren aburuz, erretiroak berekin dakarren erronka gainditzeko, eremu honetako jarduera ekonomikoa eta gizarte-berrikuntza bultzatu behar dira, baita egungo adinekoen eta hurrengo hamarkadan zehar adinekoak izango direnen parte-hartzearekin diseinatutako eta lankidetzara publiko-privatu-sozialetik sustatutako estrategia bat ere.

A. GIZARTERATZEA ETA ZAHARTZE AKTIBOA.
01. KONPROMISOA
“EUSKADI LAGUNKOIA SUSTRAIETATIK” SAREARI ETA ZAHARTZE AKTIBOARI BULTZADA ESTRATEGIKOA EMAN.
EKINBIDEAK

- Euskadi osora hedatu “*Euskadi Lagunkoia*” adinekoekiko herri eta hiri lagunkoien sarea eta bere aplikazioak handitu berariazko egoerei erantzuteko; horien artean, EAJk hauek nabarmentzen ditu bereziki:
 - 01** ■ Pertsona bakarreko etxeetan eta familia-laguntzako sarerik gabe bakarrik dauden adinekoak.
 - Adinekoentzako bizi-toki-zerbitzuetan edo egoitza-zentroetan bizi diren pertsonak.
 - ■ Adinekoen profil berriak: 65 -80 urte.

- “*Euskadi Lagunkoia*” esperientzia sistematizatu eta proiektu pilotuak garatu eremu berrietan, gerora hedatzeko. EAJk lau proiektu garatzea proposatzen du:
 - 02** ■ Eraldaketa digitalerako egokitzapena
 - Adinekoen eta gazteen belaunaldi arteko ekintzak
 - Genero-ikuspegia.
 - Aholkularitza interes-eremuetan: banku lagunkoia, jaraunspenak, etxebizitzaren salmenta erabilera-lagapenarekin, bizi-testamentua, gomendio etikoak bizitzaren amaieran.

- Zahartze Aktiboko Euskal Estrategia 2024 berria onetsi eta Zahartze Aktiboko Indizea kalkulatu, Euskadi aipatutako indizean Europako eskualde eta herrialderik onenen artean kokatze aldera. Estrategia berriak honako jarduketa-ardatz hauek indartuko ditu:
 - 03** ■ Gizarte-ekintza eta parte-hartzea
 - ■ Osasunaren eta prebentzioaren sustapena pertsona autonomoentzat, ahulentzat eta menpekoentzat.

- Erretiro-adinetik aurrera bizitza-zikloan gertatzen den aldaketarako prestatzeko 60 eta 65 urte bitarteko pertsonen zuzendutako programa aitzindari berria, etapa berri horretan bizitza betea, zahartze aktiboa eta gizarte parte-hartzea sustatzeko helburuarekin.
 - 04**

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

B. ISOLAMENDUARI ERANTZUN.

02. KONPROMISO

BAKARDADE-EGOERAN DAUDEN ADINEKOAK LAGUNDU.

EKINBIDEAK

01

EAJk proposatzen du bakarrik dauden pertsonei telelaguntzako zerbitzutik arreta profesionala emateko berariazko lerro bat abiaraztea.

—

Nahi gabeko bakardade-egoerak prebenitzeko, detektatzeko eta kudeatzeko erakunde arteko programa, udalekin eta hirugarren gizarte-sektoreko antolakuntzekin eta eremu honetan konprometitutako bestelako erakunde eta gizarte-eragile batzuekin elkarlanean.

Programa honen bidez, EAJk honako jarduketak hauek garatzea proposatzen du:

02

- Gizarte-sentsibilizazioko kanpainak
- Auzokideen inplikazioa egoera hauen detekzioan
- Etxez etxeko bisitak indartu
- Gizarte-laguntza eta koordinazio soziosanitarioa
- Laguntza psikosoziala
- Boluntarioria etxean eta ingurune hurbilean laguntzeko.
- Aisialdiko eta pertsonen arteko harreman-jardueretarako sarbidea sustatzea

03

Bere etxean bakarrik bizi diren adinekoen gizarte-isolamendua pobreziarekin, menpekotasunarekin eta/edo gaixotasunarekin konbinatzen den egoerak detektatzea eta kudeatzea sustatzeko berariazko proiektua, tokiko eremuko gizarte-egiturarekin eta erakundeekin elkarlanean.

C. BIZITZA-SOLDATA.

03. KONPROMISO

GUTXIENeko DIRU-SARRERAK BERMATU PENTSIODUNIK AHULENEI.

EKINBIDEAK

- 01** EAJk proposatzen du pentsiodunentzako hileko 800 euroko diru-sarrerak bermatzea Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren bidez. Bi pertsona edo gehiagoko familia-unitateen kasuan, proposatzen du 1.000 euroko gutxieneko hileko diru-sarrerak bermatzea familia-unitate bakoitzeko, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren bidez.

- 02** Berriz aztertu adinekoen ondarearen egungo muga, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentan ezarritako gutxieneko diru-sarreretara heltzeko.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

D. ARTATUTAKO ETA ZAINDUTAKO ADINEKOAK.

04. KONPROMISOA

OREKA BERRIA SUSTATU ERAKUNDE-MAILAKO ZAINZA FORMALAREN ETA FAMILIA ETA ERKIDEGOKO LEHEN MAILAKO ZAINZAREN ARTEAN.

EKINBIDEAK

— Zaintza formala (erakundeena) indartu, oreka berria lortzeko zaintza formalaren eta familiek edo bestelako laguntza informaleko sareek eskaintzen duten lehen mailako zaintzaren artean.

Ondorio horietarako, EAJk proposatzen du, gizarte-zerbitzuen euskal sistematik, honako jarduketak indartzea:

- 01
- Adinekoentzako arreta etxean bertan.
 - Lehen mailako arreta orokorrean eta bere etxebizitzan bizitzen jarraitzen duten pertsonen zuzendutako bigarren mailako arretaren berezko zenbait zerbitzu eta prestazio (eguneko zerbitzuak, laguntza-produktuak, familia-giroan zaintzeko prestazio ekonomikoa...)
 - Zaintzaileentzako atsedeen eta laguntza programak.
 - Adinekoentzako arreta egoitza-zentroetan; hala, pertsonen zentratutako egoitza-eredu integral bat sustatuko da eta, horretan, erabiltzaileen laguntza-premiak, bere erosotasuna eta aisialdia izango dira lehentasunak.

— *Adinekoei Arreta emateko hiru Bulego* abiarazi, Eusko Jaurlaritzaren bide anitzeko zerbitzu gisa. Hori gai izan beharko da, bai zuzenean, bai beste bitarteko batzuen bidez, informazioa, orientazioa, aholkularitza eta laguntza integral eta espezializatua eskaintzeko adinekoei bere interesen eta premien arabera. Etxebizitzari, bizikidetzeta-akere, zaintzari, osasunari, etxeko segurtasunari, etengabeko ikaskuntzari, prestazioei, ondarearen kudeaketari, testamentuari eta jaraunspenei, aisialdiari eta gizarte parte-hartzeari buruzko arreta, baita adinekoen bizitza-proiektua garatzeko eta ekimen kolektiboak abiarazteko arreta ere.

02

— Ekinbide honek proiektu pilotu esperimentalaren izaera izango du; zuzenean garatuko da hiru lurralde historikoetan eta, positiboki ebaluatzen bada, apurka-apurka hedatu egingo da.

-
- Iraupen luzeko zaintza-sistema integrala abiarazi, EAJk proposatutako jarduketa hauek aurreikusiko dituen:
- Gaixotasun kronikoak dituzten eta menpekotasun-egoeran edo arriskuan dauden pertsonentzako arreta soziala eta sanitarioa indartu.
 - Autonomiaren prebentzio- eta sustapen-ikuspegia indartu.
 - Bere etxebizitzan bizitzen jarraitzen duten pertsonen zuzendutako Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazioak eta zerbitzuak indartu.
 - Etxeko segurtasuna hobetzera bideratutako ekimenak babestu eta neurriak hartu: etxean alarmak erosteko laguntzak, Beti On zerbitzuaren berariazko kontsultak/lerroa, alarma-zentroa guneko polizia-etxearekin elkarlanean...
- 03** ■ Zaintza formala erraztu senide zaintzaileentzako laguntzarekin (prestakuntza, laguntza psikosoziala, atsedena, bizitza pertsonala, familia eta lana bateratzeko neurriak, laguntza ekonomikoak) eta gizonen erantzunkidetasunarekin.
- Gaixotasun kronikoak dituzten eta menpekotasun-egoeran edo arriskuan dauden pertsonentzako arreta.
 - Beti On zerbitzu publikotik zaintzailearentzako Telelaguntza-plana sustatu eta etxean urrutiko arretaren erabilera berriak garatu: gaixotasunen segimendua, larrialdi- edo ahultasun-egoeren detekzioa, alertak eta senide zaintzaileekiko komunikazioa.
 - Foru aldundiekin eta udalekin batera, lehen mailako zaintza-egoerak aldizka ebaluatzeko txosten bat abiarazi, zaintzaileekin, besteak beste, alderdi hauek aztertzeko:
 - Zaintzeko nahia eta gaitasuna duten
 - Zaintzaren karga behar bezala kudeatzeko baliabideak dituzten
 - Zaintzaren eta bizitza pertsonalaren, familiaren eta lanaren arteko oreka egokia dagoen
-
- Ebaluazio-txosten horren arabera, laguntzak eskainiko dira edo arreta-aukera desberdinak kudeatuko dira, baldin eta egoera desegokiak antzematen badira.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

04 — Gizarte Segurantzaren kotizazioaren osagarri diren borondatezko gizarte-aurreikuspenekin lagundu zaintzaileak, aukera emanez erretiro-adinetik aurrera prestazio bat jasotzeko. Zentzu horretan, arreta berezia jarriko da, Gizarte Segurantzaren kotizatu gabe, zaintza-lanak egiten urteak daramatzaten emakumeengan edo, arrazoi desberdinengatik, kotizazioa eten duten emakumeengan. Ekinbide hau hasierako 200.000 euroko partida batekin babestuko da eta Gizarte Segurantzaren sistema babesteko ekintza finkatzeko eskatuko da.

— Menpekotasun-egoeran edo muturreko osasun-larritasunean dauden senideak zaintzea lanarekin bateratzeko programa.

Ondorio horietarako, EAJk jarduketak hauek garatzea proposatzen du:

05 ■ Lan-eszedentzian edo lanaldi-murrizketan dauden langileentzako laguntza ekonomikoak bultzatu.
■ Enpresek lan-malgutasuneko edo lan-orduak murrizteko akordioak edo neurriak hartzea sustatu.
■ Laguntzak garatu bere karrera profesionalarekin jarraitzeko zaintza-orduak murriztu behar dituzten zaintzaileek hori egin ahal izateko. Horretarako, aldi baterako aldatuko dira laguntza ekonomikoak jasotzeko edo zerbitzuak baliatzeko betekizunak edo arretaren intentsitatea eta, horrez gain, arreta berezia jarriko da menpeko senideak dituzten emakume helduengan.

06 — EAJk zaintzaileen euskal Estatutu bat sustatuko du, horien eginkizunak, betebeharrak eta eskubideak artikulatzen dituena eta zaintza aitortu eta duin egiten duena.

07 — Zaintzaileak laguntzeko lehenbiziko euskal estrategia onetsi eta abian jarri.

08 — Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistematik, Emakunderekin elkarlanean, gizonen erantzunkidetasuna sustatu zaintzetan, zehazki, sentsibilizazio-, kontziliazio- eta trebakuntza-neurrien bidez.

E. JARDUERA EKONOMIKOAREN ETA GIZARTE-BERRIKUNTZAREN PROMOZIOA.

05. KONPROMISOA

EREMU PUBLIKOTIK ETA PRIBATUTIK ETA ELKARLANEAN ADINEKOEN PERTSONEN ZERBITZURAKO JARDUERA EKONOMIKOA ETA GIZARTE-BERRIKUNTZA SUSTATU (ZILARREZKO EKONOMIA).

EKINBIDEAK

01

EAJk proposatzen du adinekoekin lotutako jarduera ekonomikoa sustatzeko estrategia bat diseinatzea, orain 65 urte baino gehiago dituzten pertsonen eta hurrengo hamarkadan 65 urte baino nagusiagoak izango direnen parte-hartzearekin.

02

Gizarte-berrikuntza bultzatu zahartzearen erronkari erantzuteko, hiru sektoreen (publikoa, pribatua eta soziala) ekintza eta adinekoen ekimenak konbinatuz.

03

Foru aldundiekin eta udalekin elkarlanean aritu zilarrezko ekonomia garatzeko lurralde-mailako ekimen eta estrategietan, baita adinekoentzako arretaren eremuko berrikuntza-poloen finkapenean ere: Adinberri Gipuzkoan, Nagusi intelligence center Bizkaian eta zahartze aktiboari, autonomia pertsonalari, desgaitasunari eta menpekotasunari buruzko Berrikuntza eta Ikerketa Zentroa Araban.

04

Zientzia, teknologia eta berrikuntzaren euskal planaren esparruan, ikerketa sustatu zahartzearen eremuan, gizarte-berrikuntzako eta ikerketako proiektuak indartuz. EAJk Eusko Jaurlaritzaren, euskal unibertsitateen eta bestelako ikerketa-zentro espezializatuen arteko lankidetzaren eredu baten alde egiten du.

05

Izaera publiko-pribatuko ekimenak sustatu adinekoen premien areagotzeari eta eraldaketari erantzuteko gai diren gizarte-politika publiko berritzaileak diseinatu, hedatu eta ebaluatzeko.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

06

Ideia-laborategi bat abiarazi, adinekoekin batera, sektore publikoak eta/edo hirugarren gizarte-sektoreak sustatzeko moduko negozio-ideiak edo ekimenak edo zerbitzuak izan daitezkeen zerbitzuak eta produktuak diseinatze aldera.

07

Silver economy delakoaren eremuan enpresa- eta berrikuntza-ekimenak bultzatu, lerro hori indartuz egungo deialdietan eta laguntza-programetan.

08

Adinekoek arreta emateko proiektu pilotuak garatu lankidetzan publiko-pribatutik edo pribatu-sozialetik, adibidez, enpresa teknologikoen eta hirugarren gizarte-sektoreko antolakuntzen artean, bi noranzkoko izaerarekin eta elkarrekikotasunarekin.

09

Gizartearen eremuan eskuragarri dagoen informazioa kudeatzea ahalbidetzen duten adimen artifizial aplikatuko proiektuak bultzatu, arreta adinekoen profil, itxaropen, eskari eta premietara egokitzeko eta haien intereseko zerbitzu eta produktu berriak sustatzeko.

10

Oinarri teknologikoko proiektu berritzaileak garatu (aplikazioak, gauzen Internetan), besteak beste, adineko pertsonen bizi-kalitatea eta harreman pertsonalak hobetze aldera, bai etxean, bai egoitza-ingurune batean.

F. ADINEKOEN TALENTUA BALIATU.

06. KONPROMISOA

ADINEKOEN TALENTUA BALIATU ETA SUSTATU, BERE EKIMENAK BABESTUZ ETA POLITIKA PUBLIKOETAN PARTE HARTZEA BULTZATUZ FASE GUZTIETAN, GOBERNANTZAN ETA BELAUNALDI ARTEKO SOLIDARITATEAN SAKONDUZ.

EKINBIDEAK

01

EAJk proposatzen du euskal gobernantzaren estrategia hedatzea eta indartzea adinekoekin (Nagusi Agenda), baita gobernantza parte-hartzaileko esperientzien hedapena babestea ere.

02

Adinekoen gizarte-ekintzailtza bultzatzeko programa bat abiarazi, haien premiei (ikaskuntza, aisialdia, gizarte parte-hartzea...) eta/edo hirugarrenen premiei erantzuteko autogestioko proiektuetan lagunduz.

03

Adinekoek hezitzaile gisa parte hartuz, ikaskuntza-ekintzak bultzatu bizitzaren etapa honetan, eduki, helburu eta metodoak berrituz eta ikaskuntza berezko ekimenen sustapenarekin lotuz.

04

Adinekoen asoziazionismoa eta gizarte-boluntarioritzako antolatutako ekimenetan parte hartzea bultzatu.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

G. BELAUNLDI ARTEKO SOLIDARITATEA.

07. KONPROMISOA

ADINEKOEN ETA GAZTEEN BELAUNLDI ARTEKO HARREMANA, LANKIDETZA ETA SOLIDARITATEA INDARTZEN LAGUNTZEN DUTEN PROGRAMAK ETA JARDUERAK SUSTATU.

EKINBIDEAK

01

Gazteen enplegua sustatzera bideratutako adinekoen ekimenak babestu (gazte ekintzaileentzako laguntza teknikoa, *crowdfunding* eta bestelako inbertsio-aukerak...) eta adinekoen eta gazteen elkarbizitza-aukerak eta bestelako belaunaldi arteko solidaritate-ekimenak bultzatu baterako proiektuak garatzeko.



FAMILIAK ETA HAURRAK

SEME-ALABAK DITUZTEN FAMILIEI LAGUNTZA
EKONOMIKOAK AREAGOTU.

- EAJren xedea da pertsonak bere bizitza "proiektuaren" arabera izan nahi dituzten nahi adina seme-alaba edukitzea, beste barne-faktore batzuek (norberaren eta seme-alaben etorkizunari buruzko itxaropenak, gai sentitzea) edo kanpo-faktoreek (etxebizitzarako sarbidea, enplegu egonkorra, laguntza formala edo lehen-mailakoa seme-alaben zaintzan) hori eragotzi gabe edo seme-alabak edukitzeko adina atzeratu gabe. Jaiotzen sustapena familiak, bereziki, familia gazteak laguntzeko politika integral baten ondorioa da.
- Gizarte gisa, gure erantzukizuna da gazteek etxe eta familiak berriak eratu ahal izatea erraztea. Horretarako, EAJk honako oinarri hauetan ardatzutako estrategia integral bat garatzea proposatzen du:
 - Positiboki bereizi seme/alabak dituzten bikote gazteak etxebizitzarako sarbide-politiketan.
 - Ardurapeko seme/alabengatikoko prestazio ekonomikoak eskaini, bateragarriak egungo zerga-onurekin.
 - Gazteen lan-egonkortasuna sustatu kontratazio mugagaberako laguntzen bidez.
 - Bizitza pertsonala, familia eta lana bateratzeko neurriak indartu eta malgutu.
- Gurasoentzako prestakuntza, informazio, orientazio eta laguntza psikosozialeko baliabideak sustatu: familientzako erreferentziazko zentroak edo gurasotasun positiboko programak.
- Haurrak zaintzeko bestelako aukera formalak eskaini.
- Jakin badakigu beharrezkoa dela familiek burutzen dituzten hezkuntza- eta zaintza-eginkizunak aitortzea eta babestea, hain zuzen ere, laguntza edo prestazio ekonomikoen eta zerbitzuen bidez eta, betiere, emakumezkoen eta gizonezkoen bizitza-proiektuaren maila desberdinen (arlotu pertsonala, lana, familia...) garapenarekin bateratuz eta bizitza-ziklo osorako zaintza bermatuz, bereziki, haurren eta adinekoen kasuan. Horretarako, oreka egokia behar da maila publikoaren eta erakundearen eta familiaren erantzukizunaren artean.
- Bizikidetzaren formen eta familia-ereduen dibertsifikazio-prozesuak politikak eta baliabideak horietara egokitzeko bidean aurrera egiteko eskatzen du; izan ere, argi eduki behar dugu familia guztiak direla lehenengo mailako gizarte-ondasun bat, hezkuntza, elkarrekiko zaintza, solidaritate, maitasun, komunikazio eta hazkunde pertsonalerako espazio gisa. Gizarte-testuinguruak eta horren bila-kaerak eskatzen dute arreta berezia jartzeko familia gazteengan eta adinekoek osatutako familiengan, baita zailtasun sozial eta ekonomiko handiagoak dituzten familiengan ere, adibidez, ama bakarreko familiengan edo pertsona bakarreko etxeengan.
- Europako hegoaldeko beste herrialde batzuetako gizarteetan bezalaxe, familia-babes nabarmena eta erkidego-egitura bizia euskal gizartearen bereizgarri dira; horiei esker, solidaritatea bideratzen da, gizarte-kohesioa errazten da eta, historikoki, krisialdi-egoerak eta gizarte-zein ingurumen-larrialdiak kudeatzea lortu da. Familia-babesa eta gizarte-egitura gure balioen adierazpenak dira eta erakundeok horiek aitortu eta zaindu behar ditugu. EAJk proposatzen duen ongizate-eredua Europako iparraldeko herrialdeetara homologatu behar da babes-mailei dagokienez, familien gizarte-ekarpena, elkarrekiko laguntza eta antolatutako solidaritatea galdu gabe.
- Gizarte-aldaketek nolabaiteko hausturak edo etenak eragin dituzte sozializazio-eragile tradizionalen, familien, eskolen eta haurtzaroren eta nerabezaroren eremuan lan egiten duten elkarrekin arteko elkarriketan eta lankidetzan. Inoiz baino garrantzitsuagoak dira elkarriketa eta lankidetzaren gain, indar handiz

agertu dira sozializazio-eragile eta espazio berriak -internet, sare sozialak eta berritutako bideo-jokoaren industria- eta beharrezkoa da horien gainean hausnartzea eta hezkuntza-planteamendu berria egitea. Zentzu horretan, EAJK uste du beharrezkoa dela hezkuntza-metodologiak, helburuak eta baliabideak eraldaketara digitaleko prozesura egokitzea eta, aldi berean, horrek haurren eta nerabeen sozializazioan dituen ondorioak aztertzea, berekin dakartzan erronkak, zailtasunak eta aukerak kudeatuz.

- Adingabeen babesaren eremuan, erakunde-babesa osatzen duten bestelako aukerak indartu behar dira. Zehazki, familia-harrera indartu behar da eta arreta berezia jarri haurren pobrezian eta indarkeria-jokabideekin lotutako babesgabetasun-egoeretan, baita bakarrik datozen haur eta nerabe migratzaileen egoeretan ere. Funtsezkoa da prebentzioa bultzatzea eta honakoak bezalako arrisku-egoerak nabarmentzea, gutxienez, nerabezaroaurretik: indarkeria matxista, gurasoen aurkako indarkeria edo drogen kontsumoa. Horretarako, EAJtik, konpromisoa hartzen dugu gizarte-hezkuntzako esku-hartzea eta esku-hartze psikosoziala indartzeko gizarte zerbitzuen sistemaren bidez; hezkuntzako esku-hartzea eskolaren eremutik eta haur eta nerabeentzako osasun mentaleko zer-

bitzuak osasun-sistemaren bidez. Hori guztia, hiru sistemen artean koordinatutako erantzun batean eta, hala badagokio, sistema judizialarekin koordinatuz, bizitzaren etapa honetan.

- Globalizazioko eta migrazio-fluxu gero eta handiagoen testuinguru honetan, administrazio publikoen erantzukizuna bakarrik dauden haur migratzaileen harrean eta babesean beharrezko baldintza bat da lehen mailako arreta egokia bermatzeko. Babes-eginkizuna erantzukizunez gauzatzeak esan nahi du haurren gizarteratzea eta bizitza-proiektuaren garapena sustatu behar direla, beharrezkoa izatekotan, arreta hori adin-nagusitasunera heltzen diren egunetik harago zabalduz. Bestalde, horrek herritar guztien konpromiso osagarria ere eskatzen du, horiei harrera emanez eta erkidegoan gizarteratzea ahalbidetuz, familiarik, eskolarik eta elkarteetatik.
- Haurrak eta nerabeak eskubideen subjektuak eta erabakiak hartzeko eta aktiboki gizarteratzeko gaitasuna duten herritarak dira, gizartean parte hartuz eta haiei eragiten dizkieten politika publikoetan esku hartuz. Hiriak proiektu kolektibo bat eraikitzeko, gizarteratzeko eta sozializatzeko espazioak dira eta, beraz, herritar guztien gizarteratzea, ekarpena eta parte-hartzea erraztu behar dituzte,

baita haur eta nerabeenak ere. Ildo horretatik, EAJK proposatzen du Euskadi Lagunkoia Sustraietatik bezalako esperimentziak haur eta nerabeei eta beste kolektibo batzuetara hedatzea.

A. FAMILIA GAZTEAK BABESTU ETA JAIOTZA-TASA HANDITU.
1. KONPROMISOA
0 ETA 6 URTE BITARTEKO SEME-ALABAK DITUZTEN FAMILIAK LAGUNTZEKO ETA JAIOTZA-TASA SUSTATZEKO ESTRATEGIA.

EAJk konpromisoa hartzen du Familiei laguntzeko erakunde arteko Plana indartu eta handitzeko eta Europako aurreratuenetakoa izango den jaiotza-tasa sustatzeko erakunde arteko estrategia integral bat abiarazteko. Gure helburua da, apurka-apurka, 2009ko krisialdi ekonomikoaren aurreko jaiotza-indizeak berreskuratzea.

Konpromiso hori garatzeko, EAJk proposatzen du ekinbide eta jarduketa hauek abian jartzea.

EKINBIDEAK

- Apurka-apurka areagotu ardurapeko seme edo alabengatik ematen diren laguntzak, horiek mantentzeko urte-kopurua handituz, zehazki, honetara heldu arte:
 - 01 ■ Bi urteko kuota lehenengo seme edo alabagatik.
 - Hiru urteko kuota bigarren seme edo alabagatik.
 - Zazpi urteko kuota hirugarren seme edo alabagatik eta hurrengoengatik.

Laguntza horiek bateragarriak izango dira ardurapeko seme edo alabengatik ematen diren zerga-onurekin.
- Kenkari fiskalak. Foru aldundiekin egiaztatu eta elkarlanean aritu ostean, EAJk proposatzen du seme-ala-bengatik eskaintzen diren zerga-kenkariak handitzea, hain zuzen ere, EAEko gutxieneko kenkari hauetan oinarrituta:
 - 02 ■ 600 euro urtean lehenengo seme/alabagatik.
 - 750 euro urtean bigarren seme/alabagatik.
 - 1.250 euro urtean hirugarren seme/alabagatik.
 - 1.500 euro urtean laugarren seme/alabagatik.
 - ■ 2.000 euro urtean bosgarren eta ondorengo seme/alabagatik.
- Aitatasun- eta amatasun-baimen berberak eta besterenezinak. Ereku pribatuan 16 asteko eszedentzia bermatu gurasoen jaiotza- eta zaintza-baimenak berdintzeko, aitatasun- eta amatasun-baimen berberak eta besterenezinak sustatuz.
 - 03 ■ Neurri horrek haurraren eta gurasoen arteko lotura indartzen du, babes handiagoa sortuz adingabearengan.
 - Gainera, aurrerapen bat da enpleguaren eremuan gizonezkoen eta emakumezkoen benetako berdintasuna lortzeko, emakumeak ez duelako bereizkeriarik jasango bere etorkizuneko amatasunagatik.

04

0-3 urte bitarteko haurrentzako arreta eta eskolatzea. EAJk proposatzen du 0 eta 3 urte bitarteko haur guztiek haurrentzako arreta-zerbitzu eskuragarri eta kalitatezkoak jaso ahal izatea bermatzea eta landa-eremuko Haur-eskolen modernizazioa eta egokitzapena sustatzea.

Lana eta familia bateratzea. EAJk proposatzen du lana eta familia bateratzea errazteko programak eta ekimenak garatzea, zehazki, jarduketa hauek bultzatuz:

- Haurrak zaintzeko (arreta berezia jarriz guraso bakarreko familien kasuan edo familia ugarien kasuan) edo menpekotasun-egoeran edo muturreko osasun-larritasuneko egoeran dauden senideak zaintzeko lan-eszedentzian edo lanaldi-murrizketan dauden langileentzako laguntzak hobetu eta malgutu.
- Genero-indarkeriako biktima bat duten familia-unitateek eskatzen dituzten kontziliaziorako laguntzak areagotu.
- Aurreko kasuetan eta gizonezko bat denean eszedentzia edo lanaldi-murrizketa eskatzen duena, laguntzak jasotzeko gehieneko denborak luzatuko dira, aitatasun positiboa sustatze aldera eta aitek zaintza-lanetan duten inplikazioa bultzatze aldera.
- Zaintza-lana egiteko eszedentzia bat edo lanaldi-murrizketa eskatu duten langileak ordezteko enpresentzako laguntzak bultzatu.
- Seme-alaba adingabeak zaintzeko langileak kontratatzeko laguntzak 3 urtetik 6 urtera handitzea; horrela, Etxeko Langileen Sistema Berezian alta emandako pertsonen kontratazioa bultzatzen da eta aukera gehiago sorrarazten dira adingabeak zaintzeko lanetan enplegua sortzeko eta erregularizatzeko.
- Ordutegi-arrazionalizazioa. Eragile ekonomiko eta sozialekin elkarlanean, ordutegi-arrazionalizazioa sustatuko da bizitza pertsonala, familia eta lana hobeto bateratzeko, kultura berri bat eta sektore publiko eta pribatuko lantokietan beharrezko egokitzapenak bultzatuz.
- Bateratzearen aldeko enpresen sarea. Helburu horrekin, abian jarriko da enpresetan bateratzeko neurrien garapena, transferentzia eta orokortzea babesteko laguntzen sistema bat: lan-malgutasuna, etengabeko lana eta telelana. Gainera, Euskalitekin batera, enpresa horiek identifikatzen dituen berariazko ziurtapen simple bat bultzatuko da, hain zuzen ere, Kontzilia 30 esperientziatik abiatuta.

05

- 06** 6 urtera arteko haur-hezkuntza eta zaintzaren laguntza formalaren mapa integrala. EAJk proposatzen du 6 urtera arteko haurren zaintza eta hezkuntza formalki laguntzeko mapa integral bat abian jartzea, familiekin batera eta erakundeen, politiken eta sistemen arteko lankidetzatik: ogasuna, familia eta haurrak, hezkuntza, gizarte zerbitzuak, aisialdi hezitzailea.
- Multzo koordinatu eta koherente batean, sistema honek haur-hezkuntza eta zaintzaren laguntza publiko guztiak islatuko ditu.
- 07** Laguntzak indartu haurdunaldian eta bizitzako lehenengo urtean. Haurdunaldian eta haurraren bizitzako lehenengo urtean emandako laguntzak integratu eta indartu, pertsonak eta familiak lagunduz etapa honen prestakuntzan eta garapenean eta geroko etapetarako trantsizioan. Hain zuzen ere, hori egingo da ikuspegi integral batetik (osasuna, gizarte eta hezkuntza), berariazko baliabide bakoitzetik eta familientzako erreferentziazko zentroetatik, arreta berezia emanez ahultasun bereziko egoerei.
- 08** Bikote gazteei etxebizitza publikorako sarbidea erraztu. EAJk bereizketa positiboko neurriak eta kupoak bultzatuko ditu 0 eta 6 urte bitarteko seme-alabak dituzten bikote gazteen etxebizitzarako sarbidea errazteko.
- 09** Seme-alabak dituzten familia gazteen itzulera eta harrera erraztu. EAJk neurriak proposatzen ditu emigratu zuten eta 0 eta 6 urte bitarteko seme-alabekin Euskadira itzuli nahi duten gazteek osatutako familiak bertara itzultzea erraztea, baita Euskadin lehenbizikoz instalatzen diren eta seme-alabak dituzten familia gazteen harrera ere.
- 10** Gizarte-sentsibilizazio eta balioztapeneko kanpainak. EAJk gurasoei zuzendutako zaintzari eta gurasoen eta seme-alaben arteko loturaren garrantziari buruzko sentsibilizazio-kanpainak egitea sustatuko du.
- 11** Gazte-emantzipazioa erraztu. Gazteria sailarekin elkarlanean, estrategia bat abiarazi lau puntu igotzeko 18 eta 34 urte bitarteko gazteen emantzipazio-tasa, 28 urteko batez besteko emantzipazio-adina lortuz. EAJk bi funtsezko jarduketara proposatzen ditu helburu hori betetzeko:
- Gazteen enplegua sustatu.
 - Etxebizitza eskuragarri bat erraztu.

KONPROMISOAK ETA EKIMENAK

B. FAMILIAK LAGUNDU HEZKUNTZA-, SOZIALIZAZIO- ETA ZAINZA-EGINKIZUNETAN.

2. KONPROMISOA

FAMILIAK BERE EGINKIZUNETAN LAGUNDU ETA HAURREN ETA NERABEEN BABESEAN, PREBENTZIOAN ETA SUSTAPENEAN INPLIKATUTAKO ERAGILEEN LANKIDETZA ETA HEZKUNTZA-EGINKIZUNA SUSTATU.

EKINBIDEAK

01

EAJk Familia eta Haurtzaro Politikako Zuzendaritza bat sortzea sustatuko du.

02

Egungo baliabideekin koordinatuz eta elkarlanean, familientzako erreferentziazko zentroen sare pilotu bat abiarazi, familiak bizitza-ziklo osoan zehar laguntzeko hezkuntza- eta zaintza-eginkizunetan, informazioa eta orientazioaren bidez, izapideekin eta prestakuntzarekin lagunduz, elkarrekiko laguntza eskainiz eta hezkuntza babesa eta babes psikosoziala emanez.

03

Familietan erantzunkidetasuna sustatzeko programak bultzatu, familia osoari zuzendutako sentsibilizazio, prestakuntza eta hezkuntza babes zein babes psikosozialeko ekintzekin eta gizonen zuzendutako ekintzekin (gurasotasun positiboa, gurasoen eta seme-alaben arteko lotura, gizonen inplikazioa menpeko senideen zaintzan). Hori guztia egingo da familietan harremanak eta rolak eraldatzeko, gizonezkoen eta emakumezkoen artean, bikotean eta seme-alabekiko harremanean, berdintasun, ekitate, erantzunkidetasun, elkarrekiko errespetu eta gatazken konponbide positiboko printzipioetan oinarrituz.

04

EAJk proposatzen du gizarte-hezkuntzako lankidetzako bulegoak abiaraztea “hezkuntza-erkidego” osoaren topaketa eta sareko lana errazte aldera, honako guztien parte-hartzearekin: familien elkarteak, hezkuntza-sistema, gizarte zerbitzuen sistema eta haur eta nerabeentzako aisialdi hezitzaileko zerbitzuak. Familiarik ahulenetan eten digitala murrizteko lan egingo da.

C. EGOERA- ETA FAMILIA-DIBERTSITATERAKO LAGUNTZAK EGOKITU ETA FAMILIEN ASOZIAZIONISMOA, ELKARREKIKO LAGUNTZA ETA FAMILIA-HARRERA SUSTATU.

3. KONPROMISOA

FAMILIA-DIBERTSITATERAKO LAGUNTZAK EGOKITU, ARRETA BEREZIA JARRIZ AHULTASUN EDO PREMIA HANDIAGOKO EGOERAK DITUZTENENGAN, ETA FAMILIEN ASOZIAZIONISMOA ETA FAMILIA-HARRERA SUSTATU.

EKINBIDEAK

- 01** EAJk proposatzen du zerbitzu publikoen arreta pertsona bakarreko etxeetara egokitzea, lehen mailako arretako gizarte eta osasun zerbitzuen eta erkidegoaren arteko koordinazioa indartuz. Gainera, bestelako neurriak hartuko dira, osasun-arazoak eta gizarte-isolamenduko edo ahultasuneko egoerak prebenitu, detektatu eta kudeatzeko gaitasuna areagotze aldera.
- 02** Gizarte, osasun eta hezkuntza zerbitzuetatik, premia-egoera berezian dauden familientzako laguntza indartu, arreta berezia jarriz seme-alaba adingabeak dauden ama bakarreko familiengan eta seme/alaben zaintza menpekotasun-egoeran dauden senideen zaintzarekin bateratzen duten familiengan.
- 03** EAJk familien asoziazionismoa eta elkarrekiko laguntza-jarduerak bultzatuko ditu, jardunbide egokiak sistematizatuz, ezagutzera emanez eta transferitzea erraztuz.
- 04** Sentsibilizazio-ekintzak bultzatu herritarrek babes-sareko pertsoneri edo hortik atera berri direnei gizarte-babesa emateko eginkizunetan parte hartzea sustatzeko, hain zuzen ere, familia-harreraren edo beste-lako figura batzuen bidez.

KONPROMISOAK ETA EKIMENAK

D. EUSKADIN INDARKERIA PREBENITZEKO ETA KUDEATZEKO ESTRATEGIA INTEGRAL BAT ONETSI.

4. KONPROMISOA

HAURREKIN LOTUTAKO ARAUDIA ETA BABES-EGINKIZUNA EGOKITU GIZARTE-TES- TUINGURUAREN ALDAKETETARA.

EKINBIDEAK

01 Haurren eta nerabeen eskubideei eta horien berme, prebentzio eta babesari buruzko lege bat onetsi, haurtzaroaren eta nerabezeroaren babes, prebentzio eta sustapeneko sistema arautze eta garatze aldera. Ekinbide honekin, EAJK adingabeen titulartasuneko eskubideak bermatzera zein urratutako eskubideak erreparatzera eta lehengoratzera zuzendutako politika, neurri eta esku-hartzeen eraginkortasuna hobetu nahi du.

02 Haurtzaroaren babes, prebentzio eta sustapenerako sare integral bat abiarazi, haurtzaroaren alde lan egiten duten antolakuntzen lankidetzaz bultzatuz, bai horien artean, bai sektore publikoarekin. Babesaren eremuko zein prebentzio eta sustapenaren eremuko sare bat, aukera-berdintasuna, eskubideak gauzatzeara eta haur eta nerabeen gizarteratzea eta parte-hartzea sustatze aldera.

03 Internet Safer day (Internet seguruaren nazioarteko eguna) eta teknologia eta produktu digitalen hezkuntza- eta gizarte-erabilerari buruzko bestelako ekintza batzuk bultzatu.

04 Haur eta nerabeen aurkako indarkeriaren (gurasoen seme-alaben aurkako indarkeria, parekoen arteko indarkeria, genero-indarkeria) prebentzio, detekzio eta kudeaketa goiztiarreko programak garatu sistema bakoitzetik (hezkuntza, osasuna, gizarte zerbitzuak, justizia) eta lankidetzan, hain zuzen ere, haur eta nerabeen aurkako estrategiaren barruan.

05 Bermatu haur guztiak adin goiztiarretatik sartzan direla irakaskuntza arautuan eta hezkuntza afektibo sexualari eta Interneten erabilerari seguru eta arduratsuari buruzko hezkuntza jasotzen dutela.

5. KONPROMISOA

HAURREN AURKAKO JAZARPENA ETA SEXU-ESPLOTAZIOA PREBENITU. BIKTIMEN BABESA ETA ERREPARAZIOA.

EKINBIDEAK

- EAJk proposatzen du erakunde eta sail arteko protokolo bat ezartzea, haurren jazarpeneko eta sexu-esplotazioko kasuetan esku-hartze eraginkorra ziurtatzeko, kasu guztietan bermatuz biktimaren babesa eta minaren erreparazioa.
Protokoloak Haurtzaroaren eta Nerabezeroaren Behatokiak sustatutako haurren eta nerabeen aurkako indarkeriari buruzko azterlanaren gomendioak jasoko ditu:
- 01** ■ Jazarpenean espezializatutako profesionalek osatutako tratamendu integraleko zerbitzuak abian jarzeko prozesua aztertu.
- Hiru lurralde historikoetan haurren sexu-jazarpeneko erreferentziazko ospitale bat aukeratu. Gainera, ospitale eta talde espezializatu hauetatik, proposatzen da haurtzaroan sexu-jazarpenaren biktima izandako helduentzako arreta terapeutiko espezializatua eskaintzea.
- Elementu berritzaile hauekin eta egun existitzen diren baliabideak berrantolatuz, protokoloak nabarmen lagunduko du haurren aurkako sexu-jazarpeneko kasuak prebenitzen eta horiek defendatzen.
- 02** — Haurren aurkako sexu-jazarpenean espezializatutako arreta-baliabideak sortu, erreferentziaz hartuz haurren etxean (Barnahus) eredu europarra, epaitegiek eta babes-sistemek koordinatzen dituztenak eta sexu-jazarpeneko biktimak diren haurrei arreta integrala ematen dietenak.
- 03** — Haurren aurkako indarkeria-mota guztien prebentzio, detekzio eta salaketan oinarritutako sentsibilizazio-eta prestakuntza-kanpainak egin.

KONPROMISOAK ETA EKIMENAK

6. KONPROMISOA

HAUR ETA NERABEEN GIZARTE PARTE-HARTZEA BULTZATU.

EKINBIDEAK

— "Euskadi Lagunkoia" haurtzarora eta nerabearora hedatu, haurtzaroarekiko hiri lagunkoien ekimenak eta bestelako antzeko ekimenak abiarazten ari diren udalekin elkarlanean arituz eta beste batzuk parte hartzera animatuz.

01

Euskadi Lagunkoia Sustraietatik ekimenaren xedea da adinekoen eta herritar guztien parte-hartzea bultzatzea Euskadiko udalerrietako auzoen eta inguruneen hobekuntzan, zahartzen goazen heinean, gure bizitza modu autonomoan egiten jarrai dezagun. EAJren helburua da "Euskadi Lagunkoia Sustraietatik" ekimeneko udalerrietatik, gutxienez, % 60k haurtzaroa eta nerabearoa laguntzeko ekimenak abian jartzeari, "Euskadi Lagunkoia Hasieratik" haurtzaroarentzako hiri eta udalerrri lagunkoien sarea indartuz.

02

Haurrek eta nerabeek sozializazio-espazio desberdinetan (eskola, familiak, elkarteak, zerbitzuak) eta eragiten dizkieten politketan parte hartzea sustatzeko proiektuak bultzatu.

E. GURASOEN AURKAKO INDARKERIA.

7. KONPROMISOA

GURASOEN AURKAKO INDARKERIA ETETEKO EKINBIDEA.

EKINBIDEAK

- EAJk proposatzen du gurasoen aurkako indarkeria (seme-alaben gurasoen aurkako indarkeria) eteteko erakunde arteko ekinbide bat abiaraztea, gurasoekin eta seme-alabekin esku hartzeko programak bultzatuz. Programa horietan, prebentzio eta esku-hartze goiztiarrak eta egoerarik larrienak aurreikusiko dira, esku-hartze arrakastatsuen estandarizazioa eta transferentzia bultzatuz, baita eremu honetako ikerketa eta profesionalen prestakuntza ere.



KULTURA EUSKARA KULTURA

“EUSKADI SORTZAILE”
EUROPAKO
ERREFERENTZIA
MARKA BIHURTU.

- Kulturaren eremuan honako guztia dago jokoan: erkidego gisa bizirautea; gure hizkuntza suspertzea eta gizarte ireki eta inklusibo bat garatzeko dugun gaitasuna, mundura irekitako berezko nortasun batekin. EAJk uste du kultura funtsezko osagai bat dela gure erkidegoaren bizitzan, bere barne-kohesioan eta mundu globalean izango duen etorkizunean. Kulturaren identitate-balioa, komunitarioa, pertsonala, ekonomikoa eta soziala estimatzen dugu.
 - Kulturak erakundeen arteko erantzunkidetasuna eta lankidetzatza eskatzen ditu, baita erakundeen eta eragile kulturalen artean ere. EAJren konpromisoa da, 2030 horizontean, kultura-garapenerako berezko eredu bat sortzea: Kulturaren Euskal Hiria.
 - Euskaraz sortu eta adierazten den kulturaren aldeko apustuan sakondu, gaztelaniazko kultura babestearekin eta gure gizartean bizi diren eta eragiten duten beste hizkuntza batzuekiko integrazioarekin bat eginez.
 - Berrikuntza berebizikoa da sektore kultural eta sortzailean. EAJk uste du beharrezkoa dela euskal kultur eta sorkuntza sektorean berrikuntza eta nazioartekotzea babesteko politikak indartzea. “Euskadi Sortzailea” kultur eta sorkuntza barrutian artikulatutako sail desberdinen (kultura, ekonomiaren garapena eta berrikuntza), erakundeen eta sektoreen arteko lankidetzatza da Europar erreferen-
 - ztiakoak izatea ahalbidetuko digun eredu berritzailea.
 - Funtsezkoa da sorkuntzaren eta sortzaileen garrantzia aitortzea, kultur politiken erdigunean jarriz horien lana babestea.
 - EAJren ezinbesteko konpromiso bat da emakumeek gure herrialdeko kulturaren egiten duten ekarpena ikustarazten eta bultzatzen laguntzea, kultur bizitzaren eremu guztietan emakumeen protagonismoa ezagutzeko, aitortzeko eta sustatzeko erakunde- zein gizarte-mailako esfortzu baten bidez.
 - Euskal kulturaren nazioartekotzea lehengo mailako erronka bat da. Nazioarteko ikuspegia eta elkarrizketa kulturaren alderdi guztietan inskribatutako errealitatea da. Horretarako, EAJk proposatzen du BASQUE marka eremu guztietan garatzea eta hedatzea, munduan bereizten den berezko kultura paregabe baten aglutinatzaile gisa.
 - Museoetan, arte-zentroetan, jaialdietan eta ekitaldietan nazioarteko irismena duen kultur eskaintza finkatzea elementu giltzarria da Euskadi Basque Country munduan herrialde erakargarri gisa identifikatzeko. Bere trakzio-izae- ran eta arte- eta sorkuntza-egiturarekiko konpromisoan sakontzea oinarritzatza da nazioarteko proiektzioa herrialde-konpromisoarekin orekatzen duen eredu bat eratze aldera.
 - Kultur jardunbideen sozializazio-sareak indartuko ditugu –liburutegi publikoaren sarea, antzokien sarea, etab.-; izan ere, kultur demokratizazioarako eta gizarte-kohesioarako benetako eragileak dira, dibertsitate, eleaniztasun eta kultur aniztasunaren errespetutik.
 - Jauzi kualitatibo bat emango dugu euskal kulturaren eremu digitaleko presentzia eta dinamismoan, hain zuzen ere, Liburutegi Nazionalaren kontzeptutik abiatuta garatutako Euskal Kulturaren Atari Digitala sustatuz ikuspegi integratzaile batekin (besteak beste, literatura, musika, ikus-entzunezko, artxibo eta arte funtsak lotuz). EAJk erakundeekin (foru aldundiak eta udalak) eta espezializatutako kultur ekipamenduekin (Eresbil, Filmoteka, Euskadiko Artxibo Historikoa, Xenpelar, Emsime...) partekatutako proiektu bat proposatzen du, arreta jarriz irisgarritasunean eta erabilgarritasunean eta euskal edukien agregatzaile gisa jardunez Europako Liburutegi Digitalean (Europeana).
 - EAJk ondare ukiezinaren babesarekin eta sozializazioarekin duen konpromisoa adierazten du. Euskadi politika berritzaileen eredugarri izatea nahi dugu, lankidetzatza-logiketan eta ondare horren eramaileak diren erkidegoekiko erantzunkidetasun- eta lankidetzatza-prozesu irekietan oinarrituz.
- Printzipio horietatik abiatuta, EAJren konpromisoa da Euskadiko ekosistema

PRINTZIPIOAK

KULTURA / EUSKARA

kultural eta sortzailea garatzea bost eremu handi hauek: A) Kultur sorkuntza eta produkzioa; B) Kultur eskaintza sortzailea; C) Kultur ondarearen transmisioa; D) Gobernantza partekatua; E) Komunikabide publikoak eta kultura zabaltzeko bide publikoak.

A. Kultur sorkuntzak eta produkzioak politika publikoen arreta berezia behar dute. Kultur edukien sorkuntza eta produkzioa eta ideien eremua funtsezkoak dira munduan berezko nortasun batekin egon nahi duen erkidego batentzat.

B. Bikintasunezko eta nazioarteko proiektuak kultur eskaintza sortzailea garatu. Euskadi herritar guztientzako kulturarekiko sarbidearen demokratazioa eta horren programazioaren bikaintasuna defendatzen dituen herrialde bat da, nazioarteko eremuan erakargarria eta erreferentziazkoa izan dadin. Bi helburu horiek bateratzeko gaitasuna kultur garapenerako euskal ereduaren ezaugarri bat da. Beraz, Euskadi nazioarteko mapan kokatzen duten kultur ekitaldi eta jaialdi handien trakzio-izaera indartu egingo dugu. Aldi berean, horien sorkuntza-egiturarekiko lotura indartuko dugu, kalitate-, aintzatespen- eta proiektio-maila handiagoak lortze aldera.

C. Kultur ondarea helarazi. Gure kultura-memoria eta herrialde-memoria zaintzeko eta babesteko, kultur ondarrerako sarbidea erraztu behar dugu eta horren

birsorkuntza eta berrerabilpena sustatu. Liburutegi Nazionalaren proiektuaren ondorioz sortuko den Euskal Kulturaren Atari Digitala eremu hau garatzeko tresna nagusia izango da. Gure xedea da, 2030 horizontean, ataria erreferente bat izatea Europako liburutegi digital publikoen sarean.

D. Partekatutako gobernantza. Kultura-politikak hiru erakunde-mailek partekatutako erantzukizuna dira: Gobernuak, foru aldundiak eta udalak. Erakundeok eragile kulturalekin batera jorratu behar ditugu gure politikak, euskal kulturaren garapena eta, hortaz, euskal gizartearen garapena proiektu komun bat izateko. EAJk funtsezko bi ardatz hauek oinarritutako gobernantza-eredu partekatu baten alde egiten du: genero-berdintasuna eta euskara:

E. Covid-19aren krisialdia baino lehen, euskal kultura goieneko une batean zegoen. Urrezko une hori azkenengo urteotan arrakastaz funtzionatu duen hiru piezako engranaje baten emaitza izan da: sormen artistikoan, edukien sorkuntzan eta horien produkzioan profesionalki diharduten pertsonen lana; publikoak kulturarekiko duen konpromisoa eta euskal erakundeen babesa. Hiru zutabe horien arteko harmonia funtsezkoa izango da pandemiaren osteko denbora berri honetan, ekosistema kulturala berreraikitzeke erronka itzela daukagulako.

F. Komunikabide publikoak eta kultura zabaltzeko bide publikoak: EITB.

Euskal Irrati Telebista euskal autogobernurako eta berezko identitatea duen gizarte baten garapenerako funtsezko elementuetako bat da. Hala, 5/1982 Legearen bidez sortu zenetik ia-ia lau hamarkada igaro ostean, EITB, zerbitzu publiko gisa, euskal gizartearentzako funtsezko oinarri bat da, informazio, komunikazio eta entretenimenduko berezko espazio bat eta berezko kultura-unibertso bat sortzen dituen tresna gisa. Gainera, EITB gure gizartean euskara normalizatzeke ezinbesteko tresna bat da.

Berrogei urte hauek, ikus-entzunezko eta komunikabideen sektorearen berriratzeko gizarte-ingurunea erabat eraldatu egin da zenbait eremutan: maila teknologikoan; ikus-entzunezko kontsumo-ohituretan eta eskarian; operadore globalen kate anitzeko eskaintza gero eta handiagoan eta antolakuntza-zein administrazio-eremuan.

2024 horizontean, aldaketa horiek are azkarragoak izango dira eta, hortaz, EITB prest egon beharko da etengabe hartzeko aurrea eraldaketei eta horietara egokitzeko. EITBren xedea da euskal gizarteari kalitatezko eta erreferentziazko zerbitzu publiko bat eskaintzen jarraitzea, erakargarria eta lehiakorra, baita jasangarria eta eraginkorra ere kudeaketaren ikuspuntutik.

A. KULTUR SORKUNTZA ETA PRODUKZIOA.
1. KONPROMISOA

KONPROMISOA. KULTUR SORKUNTZA ETA PRODUKZIOA INDARTU, EUSKADI ARO DIGITALEAN BEREZKO KULTUR NORTASUNA DUEN HERRIALDE BAT IZATEA BERMATZEKO.

EKINBIDEAK

- Gure berezko edukien produkzioa bultzatu ikus-entzunezko sektorean, arte eszenikoetan, ikus artean, musikan edo literaturan. Horretarako, EAJk jarduketa hauek proposatzen ditu:
 - Kulturaren sektore guztietan optimizatu sorkuntza, produkzioa eta banaketa hobetzeko laguntza-lerroen multzoa. Deialdiak eguneratuko dira, berrikuntza- eta difusio-irizpideak txertatuz.
 - Kulturaren eremu guztietan garatu emakumeen sorkuntza, horren sozializazioa eta ikusgarritasuna bultzatzeko programak.
 - Hezkuntza-sarearekiko, komunikabideekiko eta herrialdeko elkarteekiko erakunde arteko lankidetzak sustatu, euskara berreskuratzearen aldeko gizarte-mugimenduaren eta euskal kulturaren ikusgarritasunaren eta transmisioaren arteko sinbiosia eta sinergiak indartze aldera.

- Sortzaileen baldintzak hobetu. EAJk helburu hau proposatzen du, foru aldundiekin eta udalekin koordinatuz, neurri hauek ezartzeko:
 - Sortzaileentzat lan-baldintza egokiak bermatzen dituzten mekanismoak adostu erakundeen artean.
 - Erakunde arteko koordinazio-organoen barruan, aldaketak egin sortzaileen zerga-araubidean, bere jardueraren ezaugarriak eta berezitasunak aintzat hartuz.
 - Hezkuntzak eta Lanbideek jarduera artistikoa eta sortzailea aitortzea eta balioztatzea lortu.

- Kulturaren sektore desberdinen gaikuntzan eta antolakuntzan lagundu, bere jardura profesionalaren baldintza aldakorrei hobeto erantzuteko. Horretarako, EAJk hauxe proposatzen du:
 - Kultur sorkuntzaren, produkzioaren, banaketaren, programazioaren, kontserbazioaren eta sozializazioaren profesionalen zuzendutako prestakuntza-sistema iraunkor oso bat garatu eta indartu.
 - Kulturaren sektore desberdinetako elkarte profesionalen egitura berriz diseinatu hori indartzeko.
 - Sektorea babestu bere lan egiteko, sortzeko eta publikoarekin harremanak eta elkarrekintza ezartzeko metodoak digitalizatzeko prozesuan, Covid-19aren krisiak areagotu dituen kontsumo digitaleko forma berriak kontuan hartuz.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

04

Kulturaren eremu guztietan egoitza artistikoen mapa koherente bat eratu: idazketa, musika, antzerkia, dantza, ikus arteak, zinema... EAJren xedea da sorkuntzarako ingurune egoki bat eratzea eta eragile sortzaileen arteko trukea sustatzea nazioarteko elkarrizketa batean.

05

Diziplina arteko sorkuntza-espazioen egitura –“sorkuntza-fabrikak”– finkatu eta handitu, horretara kudeaketa publikoko espazioak gehituz.

06

Genero-ikuspegia zeharka txertatu kultur sorkuntza eta produkzioa sustatzeko politika guztietan, zehazki, genero-klausulak gehituz deialdi, kontratu eta diru-laguntzetan eta berariazko ekintza positiboak bultzatuz.

2. KONPROMISOA

EUSKARAREN ETA EUSKAL KULTURAREN NAZIOARTEKO PRESENTZIA ETA ZABALKUNDEA BERMATU.

EKINBIDEAK

- Etxepare Institutuak sustatutako nazioarteko zabalkunde-programak finkatu eta indartu. Horrela, EAJk jarduketa hauek proposatzen ditu:

 - 01** ■ Handitu euskara eta euskal kulturako katedren eta irakurletzen sarea unibertsitateetan eta euskararen irakaskuntza-sarea Euskara Munduan Programaren esparruan eta irakaskuntza edo parte-hartze presentziala ez-presentzialarekin konbinatzen duten ereduak garatu.
 - Kultur jardueren antolakuntza dinamizatu.
- ■ Sare horietako nazioarteko irakasle zein ikasleentzako lineako irakaskuntza-tresnak osatu eta hobetu.
- **02** Euskadi Basque Country estrategian, bi aldeko kultur programak garatu nabarmendutako eskualdeekin edo herrialdeekin, euskal kultura lehenengo mailako kultur espazioetan eta programazioetan ordeztzen duten diziplina anitzeko programak garatze aldera. Programa hauek urtebetekoak edo bi urtekoak izango dira.
- **03** “Euskal leihoak” produzitu nazioarteko foro eta azoken programazioetan, jaialdietan eta ekitaldietan, euskal egileen, sortzaileen eta produkzioen presentzia nabarmen eta bereizia bermatzeko. Gure helburua da, urtean, 15 euskal leiho produzitzea nazioarteko jaialdietan.
- **04** Euskal artisten mugikortasuna sustatu eta ekonomikoki lagundu, bere nazioarteko proiektzioa errazteko. Halaber, euskal kultura nazioartean zabaltzeko helburua duten euskal eragile kulturalen ekimenak babestuko dira.
- **05** Euskaraz idatzitako literaturaren itzulpena ahalbidetu eta Etxepare Institutuak horretarako ematen dituen laguntzen eta baliabideen nazioarteko zabalkunde-kanpainak egin literatura-jaialdietan eta liburu-azoketan berariazko ekintzak eginez. EAJk proposatzen du berariazko bitartekaritza eta promozioko esku-hartzeak egitea euskal literatura nazioarteko argitaletxei erakusteko.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

- Nazioartean ezagunak diren profesional adituen eta programatzaileen Euskadirako alderantzizko misio-bidaiak antolatu, bertan ezagutu ditzaten euskal sortzaileak eta horien obra. Zentzu horretan, EAJK jarduketa hauek burutzea proposatzen du:
- 06**
- Zabal Programa garatu eta finkatu, batez besteko bienalen zazpi komisarioekin bi urtero.
 - Euskal azokekiko baterako lanarekin jarraitu arte eszenikoetako programatzaileak erakartzeko.
- ■ Diziplina anitzeko bisita bat edo bi antolatu norako estrategiko bakoitzeko.

-
- 07**
- Euskal emakume sortzaile eta artisten presentzia bermatu euskara eta euskal kultura atzerrian sustatzeko ekintzetan, horien nazioarteko proiektzioan eta ikusgarritasunean lagunduz.

- Etxepare Institutua finkatu eta indartu Europar Batasunean Euskadiko Diplomazia Kulturalako Estrategiaren zerbitzura dagoen tresna gisa. EAJK jarduketa-ildo hauek proposatzen ditu:
- 08**
- Euskara eta euskal kultura ordezkatu EUNICen (EBko kulturari buruzko erakunde nazionalen sarea).
 - Aktiboki parte hartu, gutxienez, lau ekitaldi kulturalen urteko antolakuntzan EUNIC Bruselan.
- ■ Euskal kultura hedatu mota guztietako nazioarteko foro eta topaketa profesionaletan.

3. KONPROMISOA

“EUSKADI SORTZAILEA” MARKA SUSTATU ETA KULTURAREN ETA SORKUNTZAREN EUSKAL BARRUTIA BERRIKUNTZA-POLITIKEN ETA INDUSTRIA KULTURALAK ETA SORTZAILEAK BABESTEKO POLITIKEN ERREFERENTE BIHURTU.

EKINBIDEAK

- 01** EAJk Kulturaren eta Sorkuntzaren Euskal Barrutiaren (BDC2, Basque District of Culture and Creativity) garapena proposatzen du, SPRI eta Innobasquekin batera. Xedea da Europan kultura sustatzeko politikak eta ekonomiaren garapeneko politikak artikulatzeko eredu berritzaile bat sortzea, lankidetzeta estua ezarriz Eusko Jaurlaritzako sailen artean eta hiru lurraldeetako erakunde politikoaren artean.
- 02** Industria kultural eta sortzaileen berrikuntza teknologikoa, soziala eta antolakuntza-berrikuntza eta horien nazioartekotzea babesteko politikak sustatu, berariazko programen bidez eta BDC2k sektoreko enpresei eskaintzen dizkien zerbitzuen bidez.
- 03** Sektore kultural eta sortzailean I+G+bren kontzeptualizazioa garatu; jabetza intelektualaren kudeaketa sustatu eta unibertsitatearekiko harreman estuagoa artikulatu, zehazki, unibertsitatea-enpresa harremanean sakontzen duen unibertsitate-polo baten bidez.
- 04** Eragile sortzaileak babestean oinarritutako kulturako ikerketa eta berrikuntza zentroen sare bat artikulatu (Tabakalerak zuzendutakoa); bertan, sektore arteko topaketa, beste jarduera-eremu batzuekiko ongarririketa gurutzatua eta enpresa eta eragile sortzaileen arteko topaketa sustatuko dira.
- 05** Aktiboki parte hartu EIT Institutuak (European Institute of Innovation & Technology) bultzatutako industria kultural eta sortzaileen KIC (Knowledge Innovation Community) bezalako Europako programetan eta Europa mailako ikusgarritasuna eman Kulturaren eta Sorkuntzaren Euskal Barrutiaren ereduari.
- 06** Gizonen eta emakumeen presentzia orekatua bermatu garapen bidean dagoen abaguneko eta etorkizuneko sektore honetan, emakumeek sektore honetan parte hartzen dutela bermatzen duten klausula eta ekintza positiboak txertatuz.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

B. KULTUR ESKAINTZA SORTZAILEAREN GARAPENA.

4. KONPROMISOA

EUSKAL SORKUNTZA-EGITURAREKIN LOTUTAKO KULTURAREN SOZIALIZAZIO-SAREAK INDARTU, PUBLIKOAK ERAKARTZEKO ETA FIDELIZATZEKO PROGRAMAK GARATUZ.

EKINBIDEAK

01

EAJk berrikuntza bultzatuko du Euskadiko liburutegi publikoen sarean, hobeto erantzun ahal izateko gizarteratzearen erronkei, kultur ohituren eraldaketari eta, bereziki, Euskadiko Irakurketa Planari.

02

Irakurketako Euskal Liburutegi Publiko Digitala garatu, euskal zineman eta Euskadiko jaialdietan oinarritutako zinema-eskaintza hobetuz.

03

Euskadiko Antzokien Sarea (Sarea) inplikatu arte eszenikoen belaunaldi-berritzean eta publikoak erakartzeko eta fidelizatzekeko modu berrien garapenean.

04

Euskadiko museoaren araudia garatu. EAJren xedea da museo-sare desberdinak hobetu artikulatu horien tipologiaren arabera, baita baliabide teknikoak, ekonomikoak eta giza baliabideak optimizatu ere.

05

Euskadiko kultur jaialdien eta zirkuituen egitura babestu antzerki, dantza, literatura eta musikaren eremuetan. Helburua da deszentralizatutako eta euskal sorkuntzarekin konprometitutako eskaintza hobetzea. Horrez gain, sektorearekin batera, "hurbiltasuneko" edo dimentsio txikiko jarduketara kulturaren bideragarritasuna aztertu beharko litzateke, ekitaldi handien ordezkotako formatu berri gisa edo formatu osagarri gisa.

06

Emakume sortzaileen eta artisten presentzia eta proiektzioa indartu kulturaren sozializazioarako sareetan, emakumeek kulturaren eta gizaratean egiten duten ekarpenaren garrantzia ikusaraziz.

5. KONPROMISOA

EUSKADIKO MUSEO ETA JAIALDIEN NAZIOARTEKO PROIEKZIOA INDARTU.

EKINBIDEAK

01

EAJk proposatzen du nazioarteko proiektzioa duten museo, arte-zentro eta eragile artistikoen lankidetzan eta osagarritasunean sakontzea, hain zuzen ere, artearen euskal sistema bakar batean antolatuta.

02

Euskal hiriburuekin elkarlanean, egungo literatura-jaialdien nazioartekotzea bultzatu.

03

Euskadiko museo eta arte-zentro guztien emakumeen berdintasunarekiko konpromisoa ezarri eta egikaritu ikus arteen eremuan, zehazki, baterako esparru orokor batean –herrialde-konpromisoa–, museo bakoitzaren izaeraren araberako konpromiso zehatzak definituz erakusketa, bilduma eta programetan.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

C. KULTUR ONDAREA HELARAZI.

6. KONPROMISOA

EUSKAL KULTURAREN LIBURUTEGI NAZIONAL DIGITALA GARATU, HORREN LAN-EREMUAK ZABALDUZ ETA BERE ERABILERA IREKIA SUSTATUZ.

EKINBIDEAK

- Euskal Kulturaren Liburutegi Nazional Digitala garatu errepositorio bakar gisa eta kulturaren alderdi guztietarako sarbide-atari gisa: literatura, dokumentuak, fitxategiak, ondare ukigarria eta ukiezina, artea eta irudiak, arte eszenikoak, musika eta soinu-dokumentuak, ikus-entzunezkoak... EAJK European zenbait alderditan berritzailea izango den proiektu hau proposatzen du:

 - Erakunde politiko eta kulturekin eta eragile pribatuekin partekatutako gobernantza-eredua.
 - Dokumentu eskuragarriak bermatu egile-eskubideak indarrean egon arren, e-liburutegian dagoeneko entseatutako egileei eta argitaletxeei ordaintzeko formulen bidez.
 - Europeanak (Europako Liburutegi Digitala) ezarritako irizpideetara egokitu honako erakundeetan dagoeneko digitalizatutako funtsak: Euskadiko Artxibo Historikoa; Musikaren Euskal Artxiboa (Eresbil); Euskadiko Filmoteka eta foru aldundietako eta udaletako ondare-liburutegiak.
 - Europeanak ezarritako irizpideei jarraiki, oraindik digitalizatu ez diren literatura, musika eta ikus-entzunezko funtsak digitalizatu eta katalogatu, erakunde publikoekin, erakunde espezializatuekin eta eragile pribatuekin elkarlanean.
- Euskadiko erakunde politiko eta kultural guztien arteko lankidetzan eta elkarlanean oinarritutako gobernantza-eredu berritzaile bat garatu. EAJK bateratutako atari digital baten aldeko baterako apustua proposatzen du, hamarkadetan zehar digitalizatzeko egindako lana amaituko duena. Horretarako, egun dauden funtsak erabiltzaileen zerbitzura eta mundu guztiaren eskura jarriko dira Europeanaren (Europako Liburutegi Digitala) bidez.
- Eduki-edizioko programak garatu Interneten eta sare sozialetan eskuragarri egongo diren erakusketa birtual gisa, erakunde kulturekin, unibertsitateekin, eragile kulturekin eta pertsona edo erkidego erabiltzaileekin elkarlanean.
- Europako Liburutegi Digitalean (Europeana) euskal kulturaren eta Euskadiko ondarearen presentzia bermatu, Euskal Kulturaren Liburutegi Digitala Europako atari komuneko edukien hornitzaile gisa izendatzen duen hitzarmenaren bitartez. Horrez gain, nazioarteko eskuragarritasuna bermatze aldera, Euskal Kulturaren Liburutegi Digitala ikerketa eta garapenerako espazio bat izango da, baita itzulpen automatikoko teknologia finkatzeko eta aplikatzeko ere.
- Emakume sortzaileen kultur legatua bermatu, hori lehenetsiz, digitalizatutako funtsetan eta eduki-edizioko proposamenetan.

7. KONPROMISOA

ONDARE UKIEZINA ETA ONDARE INDUSTRIALA BABESTU ETA BULTZATU.

EKINBIDEAK

01

EAJk proposatzen du lankidetzako inbentario- eta katalogazio-eredu bat eta ondare ukiezinaren babeserako laguntza-motak garatzea, arlo hauetatik hasiz: dantza, inauteri herrikoiak, bertsolaritza eta musika.

02

Katalogazio-eredua eta laguntza-deialdien eredua apurka-apurka hedatu ondare ukiezinaren beste alderdietara.

03

Web-tresnak diseinatu eta ezarri Euskadiko ondare ukiezina ikusarazteko.

04

Aurrera egin ondare industrialaren babesean. Horretarako, EAJk jarduketa hauek garatuko ditu:

- Ondare Industrialaren Biltegiaren jarduera bultzatu La Orconeran (Barakaldo).
- Hiru lurraldeetako museo eta leku industrialen arteko sareak sortu.
- Ondare industrialia babesteko plan bat ezarri.
- Bizkaiko burdinaren eta meatzaritzaren historiaren ondare-elementu anitzen arteko lotura ezaguterraza ezarri.

05

Interes bereziarekin jorratu Euskadiko emakumeen bizitzaren eta jardueraren legatu ukigarri eta ukiezinaren babesa eta sozializazioa.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

D. USKAL EKOSISTEMA KULTURAL ETA SORTZAILEAREN GOBERNANTZA PARTEKATUA.

8. KONPROMISOA

POLITIKA KULTURALETAN ERAKUNDE PUBLIKOEN ARTEKO ZEIN SEKTORE KULTURALAREKIKO ERANTZUNKIDETASUNEAN OINARRITUTAKO PARTEKATUTAKO GOBERNANTZA-EREDUAN SAKONDU.

EKINBIDEAK

- Sektorerikulturalaren egituraketa finkatu sakabanatzea saihestuz eta elkarte sektorialen arteko topaketa-eta lankidetzak-eremuak sustatuz. Beste ekintza batzuen artean, EAJk hauxe proposatzen du:
 - Euskadiko kulturaren arloko profesionalen errolda xehea, sailkatua eta eguneratua edukitzea ahalbidetzen duen mekanismo bat artikulatu, horien lan-egoera ezagutzeko eta, horrenbestez, egoera horren aurrean laguntzeko politika publikoak egokitu ahal izateko.
- 01 ■ Musika Bulegoaren (EHMBE) ereduak indartu sektorerikulturalaren organo aglutinatzaile gisa.
- Arte eszenikoaren sektorerikulturalaren arteko elkarte anitzak koordinatzen eta biltzen dituen espaziorikulturalaren arteko bakar bat sortzea sustatu.
- Ikus artearen sektorerikulturalaren antolakuntza egituratzaile eta ordezkagarri bat sortzea babestu.
- Zinema-produkzioerikulturalaren arteko elkarte profesional desberdinak bateratzea sustatu.
- ■ “Sorkuntzaren Mahaia” sortu sektorerikulturalaren arteko desberdinetako eragile sortzaileekin.
- 02 Kulturaren Euskal Kontseilua eta Kultura Auzolanean Programa indartu, erakundearen arteko elkarrizketarako eta partekatutako lanerako espaziorikulturalaren arteko gisa.
- “HAKOBA Kultura” indartu kulturaren eremuko politika publikoaren arteko erakunde arteko koordinaziorako espaziorikulturalaren arteko gisa. EAJk lehentasunezko hiru lan-ildo estrategikorikulturalaren arteko proposatzen ditu organo honen barruan:
 - 03 ■ Genero-berdintasunerako plan nazionala espaziorikulturalaren arteko artistikoetan.
 - Irakurketa sustatzeko plan nazionala.
 - ■ Sortzaileentzako ordainsari duinen plan nazionala.

E. KOMUNIKABIDE PUBLIKOAK ETA KULTURA ZABALTZEKO BIDE PUBLIKOAK: EITB.

9. KONPROMISOA

EITBREN ZERBITZU PUBLIKOAREN IZAERA MANTENDU ETA BERMATU.

EKINBIDEAK

01

EAJk proposatzen du 2030 horizonterako planteamendu estrategiko bat adostea, EITB Taldearen antolakuntza-, teknologia- eta gobernantza-premiei erantzuten diena, zehazki, erakunde publikoa sortu zuen 5/1982 Legean ezarritako eginkizunak bete ditzan.

02

Eusko Jaurlaritzaren eta Euskal Irrati Telebistaren arteko Kontratu Programa berri bat idatzi eta onetsi; horrek administrazio publikoaren eta EITBren arteko harremanen esparru integratzailea ezarriko du epe berri baterako, aginduta daukan telebista, irrati eta interneteko zerbitzu publikoaren emaille gisa.

03

Euskal Herriko herritar guztiei eta atzerriko euskal erkidegoari zuzendutako kalitatezko zerbitzu publikoa izateko misioa bete euskaraz eta gaztelaniaz, zehazki, adin, segmentu eta gizarte-talde guztientzako kalitatezko eta interesezko edukiak eskainiz eta askatasun publikoak, balio zibiko eta demokratikoak, pluralismoa eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna errespetatuz eta defendatuz. Halaber, aukera politiko edo kulturalak baztertzea saihestuko da eta gizarte-aniztasunaren eta kolektibo txikien parte-hartzea eta ikusgarritasuna bultzatuko dira.

04

EITBren izaera erreferentea eta liderra finkatu euskal herritarren informaziorako eskubidearen garapenean eta EITBk euskal gizartearen eta mundu globalaren arteko zubi gisa duen potentziala garatu, munduan gertatzen denaren erreferentziak eta espazioak euskal gizartearentzat interesekoak diren agendarekin eta berezko gaiekin konbinatuz.

05

Bereziki lagundu euskara euskal gizartearen normalizatzen, besteak beste, gazteen publikoari zuzendutako euskarazko eduki digitalen eta telebistarako fikziozko edukien aldeko apustua eginez, bai publiko orokorarentzat, bai haur eta gazteentzat.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

10. KONPROMISOA

AURRERA EGIN EITBREN ANTOLAKUNTZA-ERAGINKORTASUNEAN ETA BIKAINBASUNEAN.

EKINBIDEAK

01

EAJk proposatzen du Euskal Irrati Telebista erakunde publikoaren menpeko sozietate desberdinak sozietate bakar batean integratzeko prozesua amaitzea, zehazki, eredu multimedia baten pean antolakuntza-alderdian eta produkzio-prozesuetan.

02

Bikaintasunean, eraginkortasunean eta kudeaketa aurreratuan oinarritutako antolakuntza- eta finantza-eredu bat garatu, eskuragarri dauden baliabideak optimizatuz eta euskal ikus-entzunezko sektorearekiko lankidetzaren publiko-pribatuko eredu berrietan sakonduz.

03

Langileria sozietate-integratzera doitutako eredura apurka-apurka eta modu naturalean egokitzea bermatu; horrez gain, langileak eraldaketa digitalera eta emanaldi linealaren eta plataforma digitaleko emanaldi ez-linealaren lankidetzarako eta konbergentziarako eredu batera egokitu beharko dira.

04

EiTB osatzen duten profesional guztien profesionaltasun, sormen, lidergo eta talentuaren garapena sustatzen jarraitu, kultura sustatuz eta proiektu komun baten parte direla sentiaraziz, baita antolakuntzaren etengabe hobetzeko misiora eta zerbitzu publiko baten balioetara atxiki izanaren sentimendua indartuz ere.

11. KONPROMISOA

EITBK EUSKAL IKUS-ENTZUNEZKO SEKTOREAREKIKO KULTURA ZABALTZEKO DUEN TRAKZIO-EGINKIZUNA INDARTU.

EKINBIDEAK

01

EAJk proposatzen du bereziki fikziozko formatu eta programa berritzaileak garatzeko aukerak identifikatu, sustatu eta sortzea.

02

Berrikuntzarako eta nazioartekotzerako babesa eskaini ikus-entzunezko edukien ekoiztetxeei.

03

Euskal zinema eta, bereziki, euskarazko zinema eta emakumeek egindako zinema babesten eta sustatzen jarraitu.



**KULTURA
EUSKARA
EUSKARA**

- Baieztapen eta aldarrikapen hau hartzen dugu abiapuntutzat: euskara, berezko kultura duen Euskal Autonomia Erkidegoko bertako hizkuntza izateaz gain, komunikazio-tresna bat da. Ikuspegi soziolinguistiko batetik, beste hizkuntza menderatzailea batzuk dauden erkidego batean suspertzeko prozesu bat bizitzen ari den hizkuntza gutxitu bat da. EAJk nabarmentzen du erakunde- eta gizarte-adostasun zabala lortu egin dela hizkuntzaren ezagutza eta erabilera sustatzeko suspertze-prozesu honetan emandako urratsei dagokienez eta horrek bermatuko duela bere etorkizuna.
- Kontuan hartu behar dugu, EAEn, hizkuntza-politika eta administrazio publikoek eremu honetan burutzen duten jarduketa euskal herritarren hizkuntza-eskubideak aitortzen dituen Euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzko 10/1982 Legean oinarritzen direla. Lege hori eta hori garatzen duten geroko dekretuak betez, administrazioek euskal herritarren hizkuntza-eskubideak zaindu behar dituzte gizartearen eremu desberdinetan, baita bide desberdinetatik jardun ere: arautzearen eta araudiaren bidea; ekonomia eta aurrekontuarena eta gizartearen kontzientziazio- eta sentibilizazio-bidea.
- Euskararen funtzio pragmatikoa bere biziraupen eta garapenerako alderdi gaindiezina da; hortaz, nahitaezkoa da euskal gizarteak euskara ezagutzea. Ezagutza da hizkuntzen arteko elkarbizitzarako lehenbiziko urratsa. Horregatik guztiagatik, EAJrentzat, gazteriarri dago-kionez, funtsezko helburuetako bat izan behar da euskaraz komunikatzeko gaitasun nahikoa bermatzea eta, biztanle helduei dagokienez, euskara ikasteko eta ezagutzeko aukerak eta abaguneak eskaintzea. 2030eko hamarkadan, euskararen ezagutza-maila biztanleriaren erdira hel liteke eta % 20 gehiago ulertzeko gai izan liteke. Aurrerapen handi bat eta abagune itzela.
- Hizkuntza gutxitu baten ezagutzaren faktoreak berekin ekarri behar du gizartearen erabilera normalizatzea. Hizkuntzaren ezagutza beharrezko baldintza bat da, baina ez da nahikoa hizkuntzaren erabilera bermatzeko. Euskarak gainditu behar duen erronka da ezagutza eguneroko erabilera sozial bihurtzea. Jauzi kualitatibo hori emateko, EAJk proposatzen du pertsonen hizkuntza-hautuan eragiten duten bi faktore erabakigarri hauek indartzea: gizarte-ingurunearen ezaugarriak eta pertsonen komunikazio-gaitasuna. Halaber, gaitasun hori hertsiki dago lotuta hizkuntza ikasi den testuinguruarekin. Zentzu horretan, bere garrantziagatik eta izaera estrategikogatik, arreta berezia jarri behar da familia gazteen eta hezkuntza-sistemaren arteko euskararen transmisioan, baita ingurune sozialean, lanean eta eremu digitalean euskara erabiltzeko aukerak edukitzean ere.
- Euskadin, 80ko hamarkadan, hezkuntza-sistemari misio estrategikoa agindu genion hizkuntza-normalizazioan. Izan ere, kalkulaten da 1981etik euskara ikasi duten 300.000 pertsonen % 66k hezkuntza-sistemaren bitartez ikasi dutela. Hezkuntza-sistemak euskarari egindako ekarpena funtsezkoa izan da eta izango da. EAJk adierazten du beharrezkoa dela euskara prestakuntza-prozesu integralean txertatzeko prozesua finkatzea, euskara komunikazio-hizkuntza den hezkuntza-sistema eleaniztun baten bidez. Ondo egin behar da, hizkuntza ikastea ez ezik, helburua bizitza- eta gizarte-ezagutzak eta gaitasunak eskuratzeko tresna menderatzea ere badelako.
- Hezkuntza-sistemaren aldeko lehen-tasunezko apustua berriazko eta zeharkako politika aktiboekin konbinatu behar da estrategikoak diren beste jarduketa-eremu batzuetan: administrazio publikoa, osasun-eremua, eremu sozioekonomikoa eta lan-mundua, kultur sorkuntza eta produkzioa, gizarte-komunikaziorako bideak, kirolaren eremua eta unibertso teknologiko eta digitala.
- Euskarak eta herrialdeko hizkuntza-politika eraginkor batek lankidetzako eta eraikuntzako gobernantza-eredu bat behar dute. EAJk proposatzen duen ereduaren elkarrekiko koordinazioa egongo da honako hauen artean: administrazio-maila desberdinak, euskalgintzako erakunde- eta gizarte-eragileak, elkar-teak, gizarte-taldeak eta lagun-taldeak, familiak eta norbanakoak. Euskarak gizarte osoaren konpromisoa, hautua eta ekintza behar ditu.
- Covid-19aren osasun-krisiaren ondorioz garatu beharreko lehen-tasunezko politiken egoera berri honetan, EAJk konpromisoa hartzen du hizkuntza-politikaren aldeko apustu irmoa mantentzeko eta euskararen normalizazioa eta promozioa indartzen jarraitzeko bere politika sektorial guztien zeharkako ardatz gisa.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

1. KONPROMISOA

EUSKARAREN EZAGUTZA AREAGOTU.

EKINBIDEAK

- Herritarren euskaraz komunikatzeko gaitasuna indartu. Horretarako, EAJk ekintza hauek burutzea proposatzen du:
 - Ikaskuntza-prozesuetan erabiltzen diren material didaktikoen kopurua eta kalitatea areagotu.
 - Komunikazio-gaitasuneko maila altuagoak lortzeko, ikasleek ikaskuntza-prozesuan jarraitzen dutela bermatzeko mekanismoak hobetu, besteak beste, egiaztatutako B2 mailara arteko doakotasun-sistema.
- 01 ■ Matrikulazioaren doakotasuna finkatu helduen euskalduntze-prozesuan, HABEren C1 maila gainditzen duten 16 eta 30 urte bitarteko gazteei legegintzaldian zehar apurka-apurka irekiz, hain zuzen ere, kolektibo honek hezkuntza-sisteman garatu duen komunikazio-gaitasuna eta euskararen erabilera indartze aldera.
- Euskaltegiekin batera, helduentzako euskara-ikastaroen eskaintza areagotu, bere premietara egokitutako prestakuntza bat emanez. Horretarako, ikaskuntza-modalitate erdipresentzialeko ikastaroak eta ikaskuntza-plataforma birtualen erabilera sustatuko dira.
-
- 02 ■ Helduen euskalduntze-sistemaren finantziazioa indartu eta handitu, irakasleen lan-baldintzak hobetzeko euskaltegien finantziarako ohiko deialdien bidez.
-
- 03 ■ Sektore sozioekonomiko publiko eta pribatuan euskarazko komunikazio-gaitasuna hobetzea sustatu. EAJk jarduketa hauek garatzea proposatzen du:
 - Erakunde publikoekiko lankidetzeta-hitzarmenen kopurua areagotu.
 - Erakunde publiko zein pribatuetan euskararen normalizazio-planak hedatu eta orokortu.
 - Euskara txertatu –modu aplikatu batean– enplegua bilatzen ari diren pertsonen prestakuntza-prozesuetan, arreta berezia jarriz migratzaileengan, HABE eta Lanbideren arteko elkarlanaren bidez.
-

-
- 04** Euskararen transmisiorako bideak indartu. EAJk jarduketa hauek proposatzen ditu:
- Seme-alaben zaintzan inplikaturako aitak, amak eta senideak euskalduntzeko sentsibilizazio-kanpainak.
 - Euskararen familia-inguruneko transmisioa hobetzeko berariazko proiektu pilotuak garatu.
-
- Migratzaileak gizarte elebidun batean gizarteratzea sustatu, zehazki, EAJk proposatutako ekintza hauen bidez:
- 05**
- “EUSLE Programa” eta hezkuntza-zentroetan gazte immigranteak azkar euskalduntzeko bestelako programa pilotuak hedatu, Hezkuntza Sailaren eta HABEren arteko lankidetzaren bidez.
 - Derrigorrezko hezkuntzako ikasleentzako eskola-errefortzuko programak indartu eta hedatu irabazteko asmorik gabeko erakundeekin eta udalekin elkarlanean.
 - Migratzaile helduei zuzendutako “AISA Programa” indartu eta kolektibo honentzako programa berriak aztertu.
-

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

2. KONPROMISOA

EUSKARAREN ERABILERA AREAGOTU EREMU FORMAL ZEIN INFORMALEAN.

EKINBIDEAK

— EAJk proposatzen du familian, aisialdian eta eremu informalean euskararen erabilera sustatzeko aukerak sortzea honako ekimen hauen bidez:

01

- Euskaraldia Programa indartu eta zabaldu.
- Euskara Sustatzeko Ekintza Planean (ESEP) aurreikusitako ekintzak garatu.
- Etorbizuneko Euskal Autonomia Erkidegoan Kirol arloko Lanbideetan Sartzeari eta Jarduteari buruzko Legean kirolaren eremuan euskarazko komunikazioa sustatzeko aurreikusitako ekintzak garatu.

— Euskararen presentzia eta erabilera areagotu sektore digitalean eta komunikabideetan. COVID-19aren krisialdiatik ezarritako gizarte-isolamenduko neurriak direla-eta, besteak beste, hezkuntzaren, lanaren edo aisialdiaren eremuetan, nabarmen areagotu egin da bitarteko telematiko eta digitalen erabilera. Horrek indartzen du EAJk ingurune digitalean euskararen presentzia areagotzeko egiten duen apustua. EAJk ekintza hauek proposatzen ditu:

02

- Euskarazko Wikipedia indartu, euskarazko tresnaren erabilera txertatuz eskola-curriculumean.
- Euskarazko komunikabideen ikusle eta entzuleen kopuruak neurtzeko sistema bat diseinatu eta abiarazi.
- Edukiak euskaraz argitaratzen dituzten komunikabideei zuzendutako laguntza-deialdiak indartu.
- EiTbN eta beste plataforma batzuetan, ikus-entzunezko eduki esperimentalak sortu eta hedatu, eremu ez-formalean, euskararen ikaskuntza eta erabilera sustatzeko haurren artean

03

— Ekonomiaren eta enpresen egoera berrira egokitutako Euskara Eremu Sozioekonomikoan Normalizatzeko Plan Estrategikoa 2023 garatu, eremu sozioekonomiko pribatu eta publikoko planak kudeatuz, euskararen presentzia areagotze aldera aipatutako eremu horietan.

04

— Hizkuntzaren Teknologien Sustapenerako Plana garatu eta ezarri, Covid-19aren krisialdian zehar sortutako beharrezko tresna berriak sustatuz, gaur egun existitzen diren tresnen erabilera hobetuz eta hedatuz eta aurrerapen teknologikoaren eta adimen artifizialaren ondoriozko tresna berriak aztertuz: itzultzaile neuronalak, azpigitulu automatikoak, hizketa-ezagutza, estilo-liburuak eta corpusak.

05

— EAJk euskararen aldeko hizkuntza-jardunbideak aldatzeko ekimenak sustatuko ditu, administrazio publikoetatik Euskaraldiaren eta Euskarabenturaren edizio desberdinak babestuz.

06

— Beste erakunde batzuekin elkarlanean, sektoreko profesionalen prestakuntzarako programak indartu. Eremu honetan, nabarmentzekoa da 2020-21 ikasturterako EHUrekin batera antolatutako "Euskararen jabekuntza, kudeaketa eta hizkuntza-praktikak XXI. mendean" izeneko masterra abian jarri dela.

3. KONPROMISOA

HERRITARREN HIZKUNTZA-ESKUBIDEAK BERMATU.

EKINBIDEAK

- Euskara Normalizatzeko VII. Plangintza-aldiaren (2022-2026) esparru-horizontearekin, sektore publikoan aurrera egin, batetik, herritarren hautuaren arabera zerbitzua euskaraz zein gaztelaniaz emango zaiela bermatzeko eta, bestetik, euskararen erabileraren normalizazioa bermatzeko, sektore publikoko lan-hizkuntza gisa. EAJk proposatzen duen helburua hauexek dira:
 - Kasuen % 100ean errespetatu herritarren hizkuntza-eskubideak.
 - Plangintza-aldiaren amaierarako, 15 puntutan handitu euskararen erabilera lan-hizkuntza gisa normalizazio-planetan aurreikusitako adierazle guztietan.Horretarako:
 - Administrazio publikoetan euskararen erabilera sustatzeko dekretua garatu eta ezarriko da.
 - Sozietate publikoentzako normalizazio-plana abiaraziko da.

- **02** Sektore sozioekonomiko pribatuko zerbitzu-enpresek zerbitzua euskaraz ematea sustatzeko programak garatu eta sentsibilizatu.

- **03** Herritarren hizkuntza-eskubideen kontzientzia bultzatu, informazio-kanpainen bidez eta sektore publikoa osatzen duten erakunde guztiekiko koordinazioan, Elebide zerbitzua garatuz eta hobetuz.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

4. KONPROMISOA

ELKARBIZITZA, LANKIDETZA ETA GIZARTE-AKTIBAZIOA BULTZATU.

EKINBIDEAK

- **01** Euskararekiko kohesio politikoa eta soziala eta hizkuntza-bizikidetzak indartu, horren inguruan sortzen diren hitzarmen eta programen bidez. Horretarako, ikerketa soziolinguistikoak balio estrategikoa dauka. Gutxienez, ikerketa hauek egingo dira: genero-eragina erakunde- eta gizarte-mailako hizkuntza-normalizazio eta promozioaren sektorean; kontsumoa; gizarte-aktibaziorako motibazioak eta euskararen erabilerari buruzko hitzaldi sozialak

- Euskararen ezagutza eta erabilera sustatzen dituzten gizarte-aktibaziorako jardunbide egokiak eta programa pilotuak bultzatu. EAJk jarduketak hauek proposatzen ditu:
 - Hizkuntza-ekologiaren ikuspegitik hizkuntza-transmisioa eta kudeaketa sustatzen dituen programa pilotu bat abiarazi.
 - Euskara hizkuntza nagusia eta herritarren hizkuntza den udalerririk babesteko eta nabarmentzeko “Arnasa Gara Proiektua” indartu.
 - Kontsumo-ohiturekin lotutako euskararen erabileraren aldeko gizarte-aktibaziorako proiektu pilotu bat abiarazi.

5. KONPROMISOA

EUSKARAREN LURRALDE GUZTIEKIKO ERAKUNDE ARTEKO LANKIDETZA INDARTU ETA BERE NAZIOARTEKO PROIEKZIOA BULTZATU.

EKINBIDEAK

01

EAJk proposatzen du, 2017an adostutako "HIRUKO ITUNAREN" bidez, euskararen lurraldeekiko lankidetzaren eta harremanak finkatzea eta sustatzen jarraitzea. Ituna Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta Euskararen Erakunde Publikoak sinatu zuten.

02

Nazioartean hizkuntza desberdinen arteko lankidetzaren sustatzea:

- Gobernuaren lankidetzarako programa parte-hartzaileetan eta nazioarteko hizkuntza-ikerketako lanetan parte hartu.
- Aktiboki parte hartu eleaniztasunarekin lotutako foroetan eta hizkuntza gutxituen elkarbizitzaren ekarpenari buruz eztabaidatzen den espazioetan. NPLD-Network to Promote Linguistic Diversity Sarea eta berezko hizkuntza duten Estatuko gobernuen arteko hizkuntza-politikaren alorreko lankidetzaren protokoloa bezalako espazioak.



SEGURTASUNA / JUSTIZIA

SEGURTASUNA

KRIMINALITATE TASA 1.000 BIZTANLEKO 40 ARAU HAUSTE
PENAL BAINO GUTXIAGO, EUROPAKO TXIKIENETAKOA.

Pertsonen zerbitzura dagoen segurtasun publikoaren kontzeptuaren aldekoak gara.

Segurtasun sistema malgu, eskalagarri eta partekatuan sakontzea da EAJren konpromisoa, Euskadin ditugun eta herritarren ongizateari eragiten dioten arrisku guztiei aurre egitea ahalbidetzen duena, delitu-metodo berrietan zentratuz, bereziki.

Gure helburua da kriminalitate tasa % 10 jaitea eta 1.000 biztanleko 40 arau hauste baino gutxiago izatea lortzea, deliturik larrienen eta pertsonen segurtasunari gehien eragiten diotenetan zentratuz, bereziki.

Konpromiso hori betetzeko, EAJk segurtasun prebentiboa, hurbila eta eraginkorra defendatzen du, honako printzipio hauetan oinarritzen dena:

- **Segurtasun osoa.** Ezinbestekoa eta ukaezina iruditzen zaigu segurtasun-alorreko eskumen mapa osatzea, Gernikako Estatutuan ezarrita dauden arloak gehituz, Itsas Salbamendua eta Meteorologia, esate baterako.

Era berean, poliziaren esparrutik segurtasun publikoa bermatzeko, aurrerapausoak eman behar dira Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaaren integrazio- eta koordinazio-arloan, segurtasun pribatuarekin sinergiak sortzeko gai den erakunde bakar gisa jardun dezaten. EAJ segurtasun osoaren aldekoa da eta Ertzaintzak osoko polizia gisa segurtasunaren inguruko erabakiak, etorkizunari zein ohiko jardunari buruzkoak, hartzen diren nazioarteko foroetan parte hartzea nahi du
- **Hurbilekoa den eta pertsonen zerbitzura dagoen segurtasuna.** . 2025era-ko Euskadiko Segurtasun Publikoaren Planaren ardatz nagusia hurbiltasuna eta pertsonen zerbitzua ematea izango dira. Euskal gizarteak segurtasun-alorrean dituen lehentasunak eta desirak zehaztuko dituen gidaliburua izango da plana eta euskal instituzioen organizazioa osatzen duten instituzio guztiak barne hartzen dituen ikusmolde globala izango du oinarri.
- **Segurtasun prebentiboa** Segurtasun eredu prebentiboa garatzea planteatzen dugu, delituei aurrea hartzea bideratutako estrategia batean aktiboki parte hartzen duten pertsonak dituen gizartea bermatzeko, benetako segurtasuna indartuz eta hautemandako segurtasuna areagotuz.
- **Parte hartzeko segurtasuna.** Herritarren parte-hartzea sustatuko da segurtasunaren esparru guztietan, zuzenean boluntario eran parte hartuz edo haien ekarpenak eta iradokizunak bilduz, planak eta lehentasunak zehazteko. Bide segurtasunaren ikuspegitik, eragile, instituzio eta herritar guztien arteko erantzukizun partekatua printzipioa landuko da, gure bideetan bizikidetzaren sustatuz, ezbehar kopurua murriztuz eta iraunkortasuna sustatuz.
- **Segurtasun berritzailea** Berrikuntza eta teknologia berriak segurtasunaren zerbitzura jartzearen aldeko konpromisoa hartu du EAJk, aurreikuspen-ereduak lantzea eta delinkuentzia berria eragozteko ahalbidetu dezaketen sistemak garatuz.
- **Segurtasun gardena.** Gardentasuna eta Kontu-ematea planteatzen ditugu segurtasunari eta gizarteari lotutako elementu gisa, kudeaketa aurreratua egiteko eredu batekin batera, eraginkortasuna areagotzeko.
- **Garapen iraunkorreko helburuekin bat datorren segurtasuna.** Segurtasun politikak Agenda 2030en bildutako garapen iraunkorreko helburu eta xedeak aintzat hartuta garatzea da EAJren konpromisoa.
- **Segurtasun profesionala.** Prestakuntza, sartzeko zein etengabe birziklatzeko izan beharrekoa, eskakizun sozialetara eta arriskuen eta delinkuentziaren bilakaerara egokitzean oinarrituko da, eta baita lidergo eredu bat ezartzean ere, segurtasun-arloko ezbeharrei arrakasta izateko bermearekin aurre egiteko, batakarka zein erakunde mailan.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

1. KONPROMISOA

HERRITARREKIKO HURBILTASUNA, GARDENTASUNA ETA KONTU-EMATEA BEREKIZIKO ARDATZ BIHURTU, SEGURTASUNAREN ETA POLIZIA JARDUERAREN EUSKAL SISTEMA HORIEN INGURUAN EGITURATZEKO.

EKINBIDEAK

01

Gizarte zibilarekiko, herritarren elkarrekeko eta kolektiboekiko harremanen sarea sortzeko lan gehiago egitea planteatzen du EAJk, komunikazio bide egonkorak ezartzeko. Bide horietatik herritarren eskaerak jasoko lirateke eta herritarrei eragin diezaieketen gertakariei buruzko informazioa helaraziko litzateke denbora errealean.

02

“Gezurak eta fake news” ekiditeko bideak ezarri, sare sozialetan zein hedabideetan, segurtasunaren arloko informazio egiaztatua zabaltzeko. Horrela, segurtasunaren pertzepzioari eragin diezaieketen gezurak eta albisteak ezabatuko lirateke.

03

Informazioa eta kontuak emateko mekanismo bat ezarri. Horren bitartez emango dira jakitera segurtasunaren bilakaerarekin erlazionatutako datuak eta unean-unean interes orokorrekoak izan daitezkeen jarduketei buruzko azalpenak emango dira.

04

Biztanleriarekin batzeko sistema egonkor bat finkatzea proposatzen du EAJk, haien segurtasun-alorrean dituzten kezkek ezagutzeko eta haien eskaerei erantzuteko.

2. KONPROMISOA

SEGURTASUN PUBLIKOAREN EREDU OSOA ETA INTERKONEKTATUA INDARTU.

EKINBIDEAK

01

2025erako Euskadiko Segurtasun Publikoaren Plana onestea planteatzen du EAJk, segurtasunean esku hartzen duten guztien (publiko zein pribatu) zerbitzura dagoen gidaliburu bilakatzeko eta bertan koordinaziorako mekanismoak zehazteko.

02

Nazioarteko polizia-estamentuekin datuak baldintza berdinetan trukatzeko aukera sendotu eta zentzu horretan aurrerapausoak eman, Ertzaintzak mugaz gaindi osoko polizia gisa duen kalifikazioa aitortuz.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

3. KONPROMISOA

PERTSONAK GEHIAGO BABESTEKO TRESNA TEKNOLOGIKO BERRIAK EZARRI.

EKINBIDEAK

01

Delitu-egitateak prebenitzera bideratutako irtenbide teknologikoak ezartzea proposatzen du EAJK.

02

OCR (karaktereen ezagupen optikoa) sare bat ezarri komunikazio bide nagusietan, bide zirkulazioan segurtasun handiagoa eta delitugile-banda antolatuen fluxuei egindako jarraipena bermatzeko.

03

Agenteei banakako kamerak eman, haien jarduketan gardentasuna bermatzeko eta delitu-egitateen aurrean proben aurkezpena hobetzeko.

04

Sistema informatikoak eta komunikazio-sistemak eguneratu, agenteei prebentzio-lanetarako autonomia gehiago emateko eta herritarrei Ertzaintzarekin harremanetan egoteko baliabideak hurbiltzeko, Ertzaintxeetaraino joan behar ez dezaten.

4. KONPROMISOA

SEGURTASUN ARRISKUEN AURREAN ZAURGARRIAK DIREN KOLEKTIBO JAKIN BATZUEKIN LAN EGITEKO BERARIAZKO PREBENTZIO PROGRAMAK EZARRI.

EKINBIDEAK

- 01** Drogak eta alkohola kontsumitzeko arriskurik handiena duten kolektiboek (gazteei, batez ere) arreta, prestakuntza eta informazioa emateko berariazko programa, kolektibo horiek delitu-egitateen aurrean duten ahulezia eta jokabide arriskutsuak ekiditea xede duena.
Era berean, jokoarekiko mendekotasuna prebenitzeko plan espezifikoak garatzea planteatzen du EAJk, gazteekin hezkuntza- eta prebentzio-programak gauzatuz, Hezkuntza Sailarekin batera.
- 02** Hezkuntza- eta prestakuntza-arloko jarduera plan bat garatu, gazteen indarkeria imitazio-eredu izatea ekiditeko, gazteen bandeia dagokienez zein borroka edo liskarretan arma zuriekin parte hartzearekin dagokionez.
- 03** Indarkeria islamiko erradikala prebenitzeko programak indartu, ADOS programa esaterako, propaganda yihadistaren aurrean zaurgarrienak diren kolektiboetan sakonduz, Giza Eskubideen eta Bizikidetzaren Idazkaritzarekin koordinatuz.
- 04** Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzio goiztiarra egiteko programak eta haien sexu-esplotazioaren aurkako programak ezarri, Emakunderekin batera eta kaltetutako kolektiboekin koordinatuz.
- 05** Berariazko jarduera programa egin Basque Cybersecurity Center-ekin batera (BCSC), teknologia berriak modu seguruan erabiltzeko, horiek dakartzaten arriskuak saihestuz, iruzurren, ebasketen, lapurreten edo enpresentzako kalteen gorakada eragin baitezakete.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

5. KONPROMISOA

EUSKAL POLIZIAREN (ERTZAINZA ETA UDALZAINGOA) ETA LARRIALDIEI AURRE EGITEKO EUSKAL SISTEMAREN (BABES ZIBILA) ARTEKO KOORDINAZIORAKO ETA LANKIDETZARAKO MEKANISMOAK SENDOTU.

EKINBIDEAK

01

Udaltzaingoa larrialdien aurrean polizia koordinatzeko zentroetara batzea proposatzen du EAJK.

02

Tokiko eta eskualdeko berriazko Segurtasun Plan Osoak garatu, arrisku guztiak kontuan hartuz eta eragiten dioten lurraldearen ezaugarrietara egokituz.

03

Tartean dauden zerbitzu guztien artean informazioa azkarrago trukatzea ahalbidetzen duten garapen teknologikoak partekatu, larrialdi-egoeretan.

04

Egungo koordinazio-zentroak larrialdietan esku hartzen duten zerbitzuei berehalako erantzuna emateko gai den "larrialdietarako inteligentzia zentro" bihurtu.

6. KONPROMISOA

EUSKADIKO SEGURTASUN ZERBITZUAK NAZIOARTEKO BABES ZIBILERA KO
ESPARRU ETA SISTEMETAN DUEN KOKAPENA SENDOTU.

EKINBIDEAK

01

Hondamendietan Laguntzeko Unitateak sortzea proposatzen du EAJk, Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo azkar esku hartzeko ahalmena izango luketenak.

02

Lurralde arteko jarduera taldeak sortu, kaltetutako lurralde bakoitzak erantzuteko duen ahalmena gaitzen duten gertaeren aurrean modu bateratuan jarduteko.

03

Europako erakundeekin batera babes zibilaren inguruko ikerketa proiektuetan parte hartzea planteatzen du EAJk.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

7. KONPROMISOA

EUSKADIN ARRISKUAN EGON DAITEZKEEN AZPIEGITURAK BABESTEKO SISTEMA SORTU, LANKIDETZA PUBLIKO-PRIBATUAREN BIDEZ.

EKINBIDEAK

01

Arriskuan egon daitezkeen azpiegiturak, publikoak zein pribatuak, babesteko plan osoak onetsi.

02

Zibersegurtasunaren inguruko gorabeherak prebenitzeko eta horien aurrean erantzuteko politikak zehaztu. Ertzaintzaren baitan gertaera kritikoak aztertzea xede izango lukeen maila goreneko jarduera talde bat sortzea proposatzen du EAJk, Basque Cybersecurity Center-ekin batera (BCSC).

8. KONPROMISOA

EGUNGO IKERKETA SISTEMA DELITU-ERREALITATE BERRIETARA EGOKITU, AHALIK ETA ARINEN ESKU HARTZEKO ETA BIKTIMAK AHALIK ETA GUTXIEN KALTETZEKO.

EKINBIDEAK

01

Delitu-egitate baten aurrean beharrezkoak diren izapideak arintzea planteatzen du EAJK, ahal den neurrian delitua egin duen pertsona polizia-egoitzetara eramateko beharra saihestuz.

02

Delitu-modalitate berrien aurrean eta ikerketa prozesu berrien aurrean modu egokiagoan erantzuteko aditu taldeak sortu, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademian sartzeko modua eta bertako prestakuntza egokituz.

03

Froga tratamenduan, interneten, trafikko-istripuetan, ingurumeneko istripuetan edo istripu ekonomikoetan espezializatuta dauden erakundeekin lankidetzan aritzeko beharrezkoak diren protokoloak formalizatu, egindako delituak ahalik eta berme handienarekin eta ahalik eta azkarren argitzeko xedez.

04

Berriazko banan-banako planak onetsi delitu-figura berri bakoitzerako eta gehien errepikatzen diren delitu-figuretarako.

05

Polizia-inteligiaren eredu, gaikuntza pertsonala eta laguntza teknologikoa garatzeko plan bat ezartzea proposatzen du EAJK.



SEGURTASUNA / JUSTIZIA
JUSTIZIA

Justizia propioa, berritua eta arina proposatzen dugu, pertsona guztiak eta bereziki zaugarriena ardatz dituen.

Ondorengo printzipioetan oinarritutako Justizia proposatzen du EAJk:

- **Burujabetza.** Oso-osorik Euskaditik kudeatutako Justizia Administrazioa, langile propioekin eta gure gizartearen errealitatera eta gure instituzioetara egokitutako prozedurekin.
- **Berrikuntza. Justizia Administrazioak presazko eraberritze sakona behar duela uste dugu, garai berrietara eta teknologia berrietara egokitzeko.** Horretarako, Justizia Digitalaren Plana onetsiko da eta antolaera, jarduteko modua eta baliabide pertsonal zein materialak landuko dira. Motela den Justizia ez da hain bidezkoa izaten eta horregatik hartu dugu berrikuntzaren aldeko konpromisoa, Justizia Administrazioa propioa, arina, digitala, gardena eta kalitatezkoa izan dadin.
- **Gatazkak konpontzeko ordezkotasunak.** Kalteak konpontzeko eta gizarteratzeko adostasuna bilatzea sustatzen duen Justizia. Gatazken aurreko ordezkotasun eskaintza duen Justizia. Azken finean, pertsonen zentratutako Justizia sustatzen du EAJk, ebazpen metodo gisa elkarrizketa sustatzen duena, adostasuna eta erreparazioa lortzeko xedez.
- **Emakumeen aurkako indarkeria matxista.** Pertsonen zerbitzura dagoen Justizia Administrazioa, herritarren eta bereziki pertsona zaugarriena beneratutako babes judiziala bermatzen dituen, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimena eta haien seme-alabena esaterako, biktimaren babesa eta ongizatea lehentasunezko elementu gisa hartuz, haien berreskurapenari eta erreparazioari mesede egiteko.
- **Justizia elebiduna.** Justizia elebiduna, euskal herritarrek Justizia Administrazioarekiko harremanetan euskara erabiltzeko eskubidea bermatzen duena. Euskararen erabilera sustatzeko eta euskarazko prozedurak bermatuko dituen karrera, prestakuntza eta esparru juridikoa aldatzeko jokabide proaktiboa defendatzen du EAJk.
- **Doako justizia.** Doako justizia, eskubide honen onuradun diren pertsona guztiei doako justizia juridikoa jasotzeko eskubidea bermatzen diona, haien aitortuenerako prozedura azkarrekin eta haien pribatutasuna bermatuz.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

1. KONPROMISOA

EUSKADIN JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAREN KUDEAKETA OSOA LORTZEKO AURRERAPAUISOAK EMAN, BURUJABETZARAKO ESKUMENAK GARATUZ ETA JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAREN KUDEAKETA ERAGINKORRAGOA LORTZEKO OZTOPOAK GAINDITUZ.

EKINBIDEAK

- Gaur egun Justizia Administrazioa kudeatzeko dagoen konplexutasun instituzionala gainditzeko arau-proposamena egin.
- 01** Horretarako, EAJk honako hobekuntza-proposamenak onesteko eskatuko die organo eskudunei:

 - Botere Judizialaren eta Justizia Administrazioaren Gobernu-organoak berriz diseinatu.
 - Karreraren eta prestakuntzaren egitura aldatzea sustatu.
 - Esparru juridikoa aldatzearen alde egin, prozedura azkarrak eta elebidunak bermatzeko.
-
- 02** Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren deszentralizazioa eta Justizia Administrazioko legelarien transferentzia lortzeko aldebiko akordioak eta hitzarmenak bultzatu.
-
- 03** Auzitegi eta Epaitegien Mugape eta Antolaketari buruzko Lege berria onesteko eskatu. Lege berri horren bidez, berriro diseinatu ahalko litzateke Euskadiko mapa judiziala, egungo egoera sozial, ekonomiko eta teknologikoan sortutako beharrian berrietara egokituz.
-
- 04** Zigorrek betearazteko euskal eredia sortzea planteatzen du EAJk, justizia errestitatiboan oinarritua eta benetan gizarteratzera bideratua. Horretarako, gizarteratzeko politika publikoak ezarriko lirateke eta espetxeratze tasa murriztuko litzateke, erregimen irekiko ordezkio neurriak bultzatuz.
-
- 05** Instituzioen arteko koordinazioa indartu, giza eskubideen urraketak berehala konpontzeko, batez ere indarkeria matxistaren kasuan, eta etxebizitzak bortxatzen direnean jabetza eskubidea defendatzeko, etxebizitzaren legezko jabeak legez kontra kaleratu badira.
-
- 06** Etengabeko ebaluazioa egiteko metodologiak ezarri, bulegoen funtzionamendua eta Bulego Judizialaren eredia bera neurtzeko, martxan diren Zerbitzu Erkide Profesionalak berrikusiz.

2. KONPROMISOA

JUSTIZIA ADMINISTRAZIO HURBILA, ARINA ETA MODERNOA ITXURATZEKO AURRERAPAUSSOAK EMAN, ERAGINKORTASUNA ETA KALITATEA BERMATZEKO, TEKNOLOGIKOKI AURRERATUA DEN JUSTIZIA ADMINISTRAZIOA ITXURATZEKO XEDEZ BERRIKUNTZA SUSTATUZ.

EKINBIDEAK

01

Justizia Digitalaren Plana onestea proposatzen du EAJk. Plan horretan Justizia eraldatzearen aldeko apustua egingo litzateke, beharrezko baliabide materialak eta giza baliabideak izango lituzkeen Bulego Judizialaren bidez, Justizia Administrazioaren eta herritarren arteko interkonexio digitala errazteko.

02

Epaitegiak kolapsatzen dituzten “masa-auziei” aurre egiteko beharrezkoak diren auzibide-erreformak bultzatu.

03

Epaitegiak eta auzitegiak guztiz digitalizatzea lortu, espediente judizial elektronikoa lortzeko, eta auzibideen kudeaketa sistemen arteko elkarreragingarritasun mekanismoak ezarri.

04

Bilbon Bulego Judizialaren eredu berri bat ezartzen bukatu. Horrela, amaiera emango zaio Euskadiko epaitegi eta auzitegi guztien egitura eta funtzioak eraberritzeko prozesuari.

05

Bake-epaitegien bitartez hurbileko justizia indartzearen aldekoa da EAJ, epaitegi horietako baliabide pertsonalak areagotuz eta etengabeko prestakuntza eta instalazioak hobetuz.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

3. KONPROMISOA

GATAZKAK KONPONTZEKO ORDEZKO SISTEMAK SUSTATU ETA SENDOTU, TOPAKETAN, ADOSTASUNEAN ETA ERREPARAZIOAN OINARRITUTA DAUDENAK.

EKINBIDEAK

01

Justizia Errestauratiboaren Zerbitzua indartu, haren funtzionamendua bermatuz. Horretarako, Justizia Errestauratiborako Koordinazio Instituzionalerako Protokoloa ezarriko da zigor-arloan, arlo zibilean eta familia-arloan.

02

Zigor-arloan, arlo zibilean eta familia-arloan bitartekaritza-praktika kopurua % 20 areagotu.

03

Justizia Errestauratiboaren printzipioetan eta praktiketean etengabeko prestakuntza koordinatua bultzatu, gizarte osoan eragin handiagoa izateko.

04

Judizioz kanpoko bitartekaritza zerbitzuak beste arlo judizial batzuetara zabaldu, arlo zibilera, merkataritza-arlorra, gizarte-arlorra eta administrazioekiko auzien arlorra, esaterako.

05

Justizia Errestauratiborako aurrekontua % 20 igo, bitartekaritza judizialaren doakotasuna bermatzeaz gain, laguntza ekonomikoarekin bitartekaritza zerbitzu pribatuen bideragarritasuna ere sustatzeko. EAJren helburua epaitegiek desbideratutako auzigaien % 75en kasuan Justizia Errestauratiborako prozesua hastea da, eta horien % 80tan akordio batera iristea.

06

Familien Elkarte Gune kopurua handitzea proposatzen du EAJk. Jaurilaritzak gurasoen eta tutoreen esku jartzen ditu elkartze gune horiek eta segurtasun bermerik handiena eskaintzen dute familia-nukleoa apurtzen denean eta akordiorik ez dagoenean. Era berean, lokalak agertuz doazen beharrianetara egokitu.

07

Familia-epaitegietan “Gurasotasunaren koordinatzailearen” figura gehitu, gurasoei desadostasunak gainditzeko laguntzeko eta haien seme-alaben mesedetan ezarritako gurasotasun plana normaltasunez garatzen laguntzeko. Plan hori xehetasun osoz betetzen dela ikuskatu, harreman seguruak, osasungarriak eta sendoak babesteko eta mantentzeko.

4. KONPROMISOA

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMAK GUZTIZ BABESTEAREN LORTU, INSTITUZIOEN ARTEKO KOORDINAZIO ERAGINKORRA BERMATUZ ETA BEREHALA ETA ERAGINKORTASUNEZ ESKU HARTZEKO ORGANOKU BETERAZLEAK SORTUZ.

EKINBIDEAK

01

Biktimen Arreta Zerbitzuaren baitan emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei arreta emateko berariazko atala sortzearen aldekoa da EAJ, langile eta material nahikorekin.

02

Indarkeria matxistaren biktimei eta haien seme-alabei lehentasunezko arreta osoa, doakoa, irisgarria eta kalitatezkoa bermatu, haien arreta emateko espazio duinak eta berariazkoak prestatuz.

03

Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimek eta haien seme-alabek segurtasun-, ekonomia-, behin-behineko ostatu-, hezkuntza- eta gizarte- arloan dituzten beharrezko eskaintza beharrezko arreta indartu.

04

Operadore juridikoentzako eta orientazio juridikorako zerbitzuetarako prestakuntza eskaintza, giza eskubideen defentsa, emakumeen ahalgintza eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna batzen dituen ikuspegi batetik, genero-indarkeriarik gabeko bizitza lortzeko premisa gisa.

05

Prozedura judizialen malgutasuna sustatu, emakume talde jakin batzuen ahulezia-egoera murrizteko (jatorri desberdineko emakume atzeritarrak eta dibertsitate funtzionala duten emakumeak), komunikazio bideak eta informazio juridikoa kontsultatzeko bideak egokituz.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

5. KONPROMISOA

EUSKAL HERRITARREI JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAREKIKO HARREMANETAN EUSKARA ERABILTZeko ESKUBIDEA BERMATU.

EKINBIDEAK

01

Justizia Administrazioako Hizkuntza-normalizaziorako Plana egin eta onestea planteatzen du EAJk, 2021-2025erako izango litzatekeena, Justizia Administrazioaren 2020ko Hizkuntza-normalizaziorako Plan orokorraren ebaluazioa egin ondoren identifikatu diren hobekuntza-eremuak oinarri hartuta.

02

Epailen, fiskalen eta legelarien artean euskararen ikasketa eta erabilera sustatzeko laguntzak areagotu, beharrezkoak diren ikasketa aldiak eskainiz.

03

Euskarazko testu juridikoen, doktrina-testuen eta jurisprudentzia-testuen ekoizpena bultzatzeko diru kopurua areagotu, haien ekoizpen publiko-pribatua identifikatuz eta babestuz.

04

Auzia Euskaraz proiektua bultzatzea proposatzen du EAJk. Epailiek, fiskalek eta legegileek euskara hizkuntza judizial gisa normalizatzeko prozesuan parte hartzen dutela bermatzeko eta Bulego Judiziala euskaraz lan egiteko moduan itxuratzeko proiektua da.

6. KONPROMISOA

FINANTZA- ETA KREDITU-ARLOAN ZAURGARRIAK DIREN PERTSONEI ERANTZUTEKO ZERBITZU PROFESIONALIZATUA ETA BEHAR BEZALA HORNITUTAKOA DISEINATZEN ETA EZARTZEN BUKATU.

EKINBIDEAK

01

Doako Laguntza Juridikoaren Batzordeei baliabide egokiak eskaintzea planteatzen du EAJk, doako laguntza juridikoa jasotzeko eskubidea aitortzea xede duten kide anitzeko organoak baitira. Horrela, eskubide hori aitortzeko edo ukatzeko prozesua arinduko litzateke.

02

Gizarte zerbitzuen arloan eskudunak diren administrazio publikoen arteko koordinaziorako mekanismoak itxuratu, ematen diren laguntzen eraginkortasuna bermatzeko.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

7. KONPROMISOA

GAZTE JUSTIZIAREN V. PLANA MARTXAN JARRI, NEURRI JUDIZIALAK BETE ONDOREN GAZTEAK GIZARTERATZEKO ETA LANERATZEKO NEURRIAK BARNE HARTZEN DITUENA.

EKINBIDEAK

01

Gazte Justiziaren Euskal Legea itxuratzea eta onestea proposatzen du EAJk. Lege horretan gazte justiziaren euskal eredia jasoko litzateke, ikuspegi eta printzipio programatikoen aldetik zein prestazio-jardueraren aldetik.

02

Gazte Justizia Zerbitzuaren euskal eredia garatu, gatazkak konpontzeko bitartekaritza maila areagotuz (adiskidetzea eta erreparazioa), gazteen berrerortze tasa % 15era jaitea lortu arte.

03

Gazteek neurri judizialak ingurune irekian betetzeko baliabide ekonomikoak bikoiztea planteatzen du EAJk, 2,5 milioi euroraino.

04

Instituzio publikoekin eta erakunde pribatuekin komunitateari mesede egiteko prestazio kopurua areagotzeko hitzarmenak sinatu, gizarteratzeko neurri gisa.

8. KONPROMISOA

FISKALTZAREN ETA POLIZIA JUDIZIALAREN JARDUERA UNITATEA SENDOTU
DESAGERTUTAKO ADINGABEEN ARLORAKO.

EKINBIDEAK

01

Desagertutako pertsonen familiei laguntzeko jarduera protokolo bat egitea proposatzen du EAJk.

02

2018ko ekainaren 1ean sinatutako Atxikimendu Protokoloaren esparruan, Justizia Ministerioak eta Gurutze Gorriak arlo humanitariorako eta gorpuk identifikatzeko sinatutako hitzarmenerako laguntza eman.

BIZIKIDETZA ETA GIZA ESKUBIDEAK

HEZKUNTZAREN ETA GIZA ESKUBIDEEN
PRESTAKUNTZA PROGRAMA 15 ETA 20
URTE BITARTEKO 50.000
IKASLERI HELARAZI.



Azken urteotan bakea, bizikidetzeta eta giza eskubideak EAJren proiektuaren lehentasun nagusia izan dira. Hala izaten jarraituko dute 2020-2030era begira. Ireki dugun bidean aurrera egiten jarraitzea da hauteskunde-programa honetan islatzen den berariazko konpromisoa. Giza eskubideen euskal agenda giza eskubideen agenda globala da, hots, agenda 2030. Euskal agenda, agenda etikoa da.

Covid-19aren pandemiak pertsona eta sektore kalteberenetan izandako eragina ikusita, elkartasunaren, berdintasunaren eta giza eskubideen balioak defendatu behar dira, orain inoiz baino gehiago.

EAJren programa Giza Eskubideetan Oinarritutako Ikuspegiaren oinarritzen da oso-osorik zein sailen artean, Eusko Jaurlaritzaren jardute osorako. EAJren bake, bizikidetzeta eta giza eskubideen proiektua gauzatzeko, 2021 bizikidetzeta plan estrategikoa itxuratu eta onetsiko da, bi esparru handiren inguruan egituratuko dena: (A) Gizarte Topaketarako Politikak - "Euskal adiskidetzeta agenda" eta (B) Giza eskubideen politiken koordinazioa - "Giza eskubideen agenda globala".

Euskal adiskidetzeta agendak indarkeriaren amaierarekin du zerikusia; giza eskubideen agenda, aldiz, bizikidetzeta proiektuan oinarritzen da. Nolanahi ere, zeharkako printzipio gidari baten inguruan egituratuta daude agenda biak, haien ardatz guztietan: giza eskubideak. Giza duintasunaren eta giza eskubideen errespetuaren, sustapenaren eta defentsaren aldeko konpromisoa, hierarkian edozein kausa politiko, alderdikari, erlijioso edo ideologikoren gainetik dagoen printzipio prepolitiko gisa.

A. GIZARTE TOPAKETARAKO POLITIKAK: "EUSKAL ADISKIDETZETA AGENDA"

Arlo honetan, ETAren amaieraren ostean betetzeko geratu diren helburuetara bideratuta dauden jarduketak kokatu ditu EAJk. Funtsean, hiru ardatzetan sailka daitezke: - Biktimen eta bizikidetzaren alorreko politika publikoak; - Memoria historikoaren eta hurbileko historiaren oroimenaren alorreko politikak; - Espe-txe eta gizarteratze politika.

2018an ETA behin betiko desagertu zenetik, Euskadik atzean utzi du terrorismoa, indarkeriaz eta zatiketaz betetako iragana. Testuinguru berri honetan, indarkeriaren amaieraren ostean betetzeko geratu zen agendaren kasuan, Gizarte Topaketa da EAJren lehentasuna eta hiru printzipio ditu oinarri:

- Biktimak. Biktimen egia jakiteko, justiziarako eta erreparaziorako eskubideen, haiei bidegabekeriak egindako mina aitortzearen eta etorkizuna eta bizikidetzeta itxuratzeko izan behar duten parte-hartzearen aldeko konpromisoa.
- Memoria. Iraganeko terrorismoaren eta indarkeriaren deslegitimazioan oinarritutako memoria kritikoaren aldeko eta Gizarte Topaketarako zein etorkizunerako bizikidetzeta proiektu bat sozialki eta politikoki partekatuz bideratutako politika publikoen aldeko konpromisoa.
- Espetxe politika. Preso dauden pertsonak haien familia-ingurutik hurbil dauden espetxeetara hurbiltzean

eta indibidualizazioaren, gizatasunaren, egindako mina aitortzearen eta presoak berriz gizarteratzearen printzipioetan oinarritutako espetxe politiken aldeko konpromisoa.

B. GIZA ESKUBIDEAK ARDATZ DITUZTEN POLITIKEN KOORDINAZIOA: "GIZA ESKUBIDEEN AGENDA GLOBALA"

Bigarren esparru honetan, euskal agendaren eta mundu mailako agenda globalaren bat-egitea islatzen da, giza eskubideak oinarri hartuta. EAJren jarduera planaren bigarren esparru hau sei ardatzetan egituratuta dago:

- Giza eskubideen arloko hezkuntza eta kultura.
- Babesa, migrazio zaurgarriak eta giza eskubideak.
- Erligio eta kultur aniztasunaren kudeaketa positiboa.
- Indarkeriazko erradikalizazioaren prebentzioa.
- Nazioartean bakearen alde egindako ekarpenak.
- Lankidetzeta-politiken koherentzia.

2020-2030era begira, planetaren erronkek markatuko dute giza eskubideen euskal agenda. Guztiz bateragarria da Nazio Batuen Agenda 2030ekin eta giza garapen iraunkorraren ereduarekin. EAJk planteatzen duen giza eskubideen euskal agenda bat dator giza eskubideen agenda globalarekin eta ondorengo printzipioetan oinarritzen da:

• Elkartasuna. Elkartasunaren eta gizarte kohesioaren printzipioarekiko lotura, berdintasunik ezaren eta bidegabekeriaren aurrean erantzuteko, eta herrialde barruko zein nazioarteko bizikidetzeta proiektu unibertsal baten oinarri gisa.

• Pluralismoa. Gizarte anitzaren defentsari erreferentzia egiten dion printzipioa. Horrelako gizarteak desberdinen arteko elkarrizketa eta lankidetzeta eskatzen ditu, aniztasuna modu positiboan kudeatzeko. Era berean, arrazakeriaren, xenofobiaren eta kolektiboren bantenganako beste edozein diskriminazio moduren aurrean zorrotasunez jardutea eskatzen du.

• Koherentzia. Giza eskubideetan, berdintasunean eta garapen politiken koherentzian oinarritutako ikuspegi baten koordinazioari eta zeharkako hedapenari erreferentzia egiten dion printzipioa, Eusko Jaurlaritzaren politika publiko guztiei eta sailen arteko politika guztiei eragiten diena.

• Sinergia. Instituzioen, indar politikoen eta gizarte zibileko eragileen arteko lankidetzeta-espazioak sortzeari lehentasuna ematen dion printzipioa, giza eskubideen agenda globalaren erronkei eta mehatxuei hobeto erantzuteko.

• Hezkuntza. Bizikidetzaren kultura eta giza eskubideen arloko hezkuntza zabaltzearen aldeko konpromisoa islatzen duen printzipioa, indarkeriazko erradikalizazioa prebenitzeko, bakearen eta demokraziaren balioak babesteko eta giza garapen iraunkorra sendotzen laguntzeko.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

A. GIZARTE TOPAKETA - ADISKIDETZEA

1. KONPROMISOA

BIKTIMEN ETA BIZIKIDETZAREN ALORREKO POLITIKA PUBLIKOAK.

Biktimen eskubideen aldeko eta etorkizuna eta bizikidetza eraikitzeko orduan izan behar duten parte-hartzearen aldeko konpromisoa berresten du EAJk.

EKINBIDEAK

01

4/2008 Legea garatu, Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egitekoa.

02

“Batera proiektua” eguneratu, bizikidetzarako eta etorkizunerako biktimak eta gizartea batzea xede dituen.

03

12/2016 Legea garatu, botere-abusuak eragindako giza eskubideen urraketen biktimei aitorpena eta erreparazioa egitekoa.

2. KONPROMISOA

MEMORIA HISTORIKOAREN ETA HURBILEKO HISTORIAREN OROIMENAREN ALORREKO POLITIKAK.

Memoria kritikoarekiko konpromisoa, giza eskubideetan oinarritutako bizikidetza-proiektu bat partekatzera bideratua.

EKINBIDEAK

- 01** Gogoraren 2021-2024rako jarduera plana onestea eta garatzea proposatzen du EAJk, memoriaren arloko politikak adostasunik handienarekin gauza daitezen, Gogoraren Zuzendaritza Kontseiluaren bidez eta dibulgaziorako, ikerketarako eta kudeaketarako dituen baliabideen bidez. Gogoraren egoitzako, Gernikako Bonbardaketaren Museoko eta Gasteizko martxoaren 3ko erakusketa-proiektu berriak bultzatuko ditu EAJk.
- 02** Euskadiko Memoria Historiko eta Demokratikoaren Legea onetsi eta garatu, gai horren inguruan garatutako politika publiko guztiei arauzko estaldura emateko xedez.
- 03** Iragana argitzeko txostenen programa osatu, memoria historikoaren alorrean zein hurbileko historiaren oroimenaren alorrean.
- 04** Hurbileko historiaren oroimenari buruzko erakunde arteko ekintza bat antolatzeko akordio anitza bultzatuko du EAJk, etapa berri bati hasiera ematera bideratua.
- 05** Memoriarako testigantzak biltzeko programa bat abiarazi, Covid-19aren pandemiak suposatu duenaren inguruan.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

3. KONPROMISOA

ESPETXE ETA GIZARTERATZE POLITIKA.

Preso dauden pertsonak haien familia-ingurutik hurbil dauden espetxeetara hurbiltzearen aldeko eta indibidualizazioaren, gizatasunaren, egindako mina aitortzearen eta presoak berriz gizarteratzearen printzipioen aldeko konpromisoa.

EKINBIDEAK

—
01
— Eusko Jaurlaritzak espetxe politikaren eta presoan hurbilketaren inguruan egindako proposamena eguneratzea eta hura aplikatzeko beharrezkoa den adostasuna lortzen saiatzea proposatzen du EAJk. Proposamen honek kontuan izango du Covid-19ari aurrea hartzeko neurrien harira presoak aldentzeak osasun publikoan duen eragina, txerto bat edo tratamendu eraginkor bat aurkitu bitartean.

—
02
— Presoak berriz gizarteratzeko politika eraginkor bat garatzeko akordio-prozesu bat sustatu.

B. GIZA ESKUBIDEAK ARDATZ DITUZTEN POLITIKA PUBLIKOEN KOORDINAZIOA**4. KONPROMISOA****GIZA ESKUBIDEEN ARLOKO HEZKUNTZA ETA KULTURA.**

Bizikidetzaren kultura eta giza eskubideetan eta bakean oinarritutako hezkuntza zabaltzearen aldeko konpromisoa. Konpromiso honek eta bere garapenak kontuan izango dute Covid-19aren ondorioek politikaren arteko borroka sakona eragin dutela. Hain zuzen ere, politika batzuek giza eskubideen balioa mespretxatzen dute eta beste politika batzuk elkartasunaren, berdintasunaren eta giza eskubideen balioei eustearen aldekoak dira, orain inoiz baino gehiago.

EKINBIDEAK**01**

“Hezkuntzaren eta Giza Eskubideen Plana” egitea planteatzen du EAJk, aurreko legegintzaldiko esperientzia positiboak sakondu eta indartzeko.

02

“Enpresaren eta Giza Eskubideen Plana” egin eta bultzatu, Garapen Lankidetzarako Euskal Agentziarekin batera.

03

Giza eskubideak dibulgatzeko urteroko programa bultzatu, Zinexit, René Cassin Saria, Giza Eskubideen Nazioarteko Egunaren ospakizuna eta beste ekintza batzuk sustatuz.

04

“Eskura” sendotu eta indartu, hots, Aieteko giza eskubideen aldeko pedagogia-baliabideen zentroa.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

5. KONPROMISOA

ERREFUXIATUAK, MIGRAZIO ZAURGARRIAK ETA GIZA ESKUBIDEAK.

Harrera- eta gizarteratze-politiken aldeko konpromisoa migrazioen erronkaren aurrean, haren adierazpide guztietan, giza eskubideekiko errespetua, bertan zein nazioartean arauz ditugun obligazioak eta elkartasunaren printzipioa oinarri hartuta. EAJk proposatutako harrera-politika hau Enplegu eta Gizarte Politika Sailarekin lankidetzaz estua mantenduz garatuko da, sailen arteko, erakundeen arteko eta gizarteko lan-ikuspegiarekin, ahulezia egoeretan batez ere. Bereziki, kontuan izango du Covid-19aren pandemiak errefuxiatuengan eta migratzaile kalteberengan izan dezakeen eragina.

EKINBIDEAK

- Migratzaileak hartzeko eta haiei arreta emateko estrategia bat garatu, Giza Eskubideen eta Bizikidetzaren Idazkaritza Nagusiarekin eta Enplegu eta Gizarte Politika Sailarekin koordinatuz. EAJk proposatutako estrategiak honako jarduketak hauek barne hartuko ditu:
 - “Share proposamena”, errefuxiatuak hartzeari buruzkoa.
 - “Migraziorako Euskal Itun Soziala”.
Iragaitzazko migratzaileei laguntza humanitarioa emateko kontingentzia-plana.
 - “Euskarri Estrategia”, ahulezia egoeran dauden adingabeak eta gazteak gizarteratzeko eta laneratzeko dena.
 - Erabilera anitzeko azpiegituren euskal plana sortu, migrazio-arloko errealitate desberdinen ondorio diren harrera-beharrizanei erantzuteko.
- ■ Arlo horretan Erakundeen Arteko Mahai Soziala finkatu.

02

Errefuxiatuak hartzeko eta gizarteratzeko eskumena gure gain hartu.

6. KONPROMISOA

ERLIJIO ANIZTASUNAREN KUDEAKETA POSITIBOA.

Pluralismoaren eta desberdinen arteko lankidetzaren aldeko konpromisoa, aniztasuna modu positiboan kudeatzeko, eta kolektiboren batenganako edozein diskriminazio moduren aurrean zorrotasunez jardun.

EKINBIDEAK

01

Kultu-zentroi buruzko Legea garatzea planteatzen du EAJk.

02

Erljio Arteko Euskal Kontseilua sortu eta haren jarduera plana garatu.

03

Legegintzaldirako Jarduera Programa itxuratu eta onetsi "ADOS" batzordearentzat, Euskadiko komunitate islamikoekiko bizikidetza sustatzeko.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

7. KONPROMISOA

INDARKERIAZKO ERRADIKALIZAZIOAREN PREBENTZIOA.

Gizarte- eta hezkuntza-arloko prebentzioaren aldeko konpromisoa, terrorismo eta indarkeria modu berrien aurrean, Gizalegez Akordioaren filosofia oinarri hartuta. Giza duintasunarekiko begirunearen balio gorenaren inguruko kontzientziazioan oinarrituta dago Gizalegez Akordioa.

EKINBIDEAK

01

“Uztartu proiektua” garatzea eta zabaltzea planteatzen du EAJK, hots, indarkeriazko erradikalizazioa prebenitzeko gizarte- eta hezkuntza-arloko proiektua.

02

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluarekin batera “Etikasi programa” bultzatu. Programa horren baitan gazteentzako bisitak antolatzen dira gerrek eta oro har indarkeriazko esperientzia traumatikoek markatutako hiri europarretara.

03

“Gazteak eta Balio Partekatuak” Sarea sortzea proposatzen du EAJK, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluarekin batera.

8. KONPROMISOA

NAZIOARTEAN BAKEAREN ALDE EGINDAKO EKARPENAK.

Nazioartean bakearen eta giza eskubideen defentsaren alde jarduteko konpromisoa, euskal kasuan ikasitakoa eta izandako esperientziak oinarri hartuta.

EKINBIDEAK

01

Nazioartean bakearen aldeko ekarpenak egiteko euskal programa onestea proposatzen du EAJk, “Euskal kasutik indarkeria prebenitzeko eta bakea babesteko ikasitakoa” dokumentua oinarri hartuta, eta baita bakearen aldeko ekarpenak egiteko euskal foroa sortzea ere, nazioartean bakearen aldeko ekarpenak egiteko euskal programa garatzeko.

02

Euskadin bakea eta giza eskubideak sustatzearen inguruko nazioarteko ekitaldi bat bultzatu.

03

Giza eskubideak defendatzen dituzten pertsonen programak babesteko ekinbideak mantendu, eta baita munduko bake-prozesuak eta gatatzak ebazteko prozesuak babestekoak ere, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziarekin batera.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

9. KONPROMISOA

LANKIDETZA-POLITIKEN KOHERENTZIA.

EKINBIDEAK

01

Garapenerako lankidetza-politiken koherentzia mantentzeko sail arteko eta erakunde arteko programa bat egituratzea proposatzen du EAJk, Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiarekin eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziarekin batera. Programa horren helburua izango da euskal instituzioek modu koherentean eta Nazio Batuek 2030era begira ezarritako Garapen Iraunkorreko Helburuak aintzat hartuta gauzatutako jarduera eta ekinbide guztien ikuspegi globala eskaintzea. Covid-19aren pandemiak izandako eraginaren ostean, mundu mailako zein tokiko testuinguruak izandako eraldaketaren eta errealitate berriak lankidetzaren mundurako dakartzan erronken inguruko analisi batean oinarrituko da programa hau. Erantzun berriak behar dira galdera berrietarako.

IMMIGRAZIOA / ANIZTASUNA

UDAL ETA ESKUALDE ZERBITZUETAN
POPULAZIO IMMIGRANTEAREN
GUTXIENEZ % 60RI HARRERA
BERMATU.



- Diskriminazio-egoerek hainbat pertsonari eragiten diote, haien jatorria, sexua, sexu-orientazioa, identitatea edo genero-adierazpena, etnia edo egoera ekonomikoa (aporofobia) direla eta. Diskriminazioak pertsona horien askatasuna mugatzen du eta arriskuan jartzen ditu berdintasuna eta eskubideen benetako erabilera, ekintzaz edo omisioz. EAJren iritziz, diskriminazioaren aurkako borrokan, sentsibilizazioa eta salaketa bultzatzeaz gain, zaintza aktiboa egin behar da eta modu proaktiboan jardun behar da, diskriminazioa prebenitzeko eta hura jasaten duten pertsonen eskubideak benetan erabili ahal izateko.
- Azken urteotan diskurtso, jarrera eta jokabide sexistak, xenofoboak, arrazistak eta lgtfoboak agertu dira Europa osoan. Horiei aurre egiteko, jokabide-eta bizikidetzara-erakundeak sortu behar dira, printzipio etikoetan eta pertsona orok pertsona izatearen baldintza hutsagatik izan beharreko duintasunean oinarrituta daudenak.
- Gizarteratzea defendatu behar da, diskriminazioaren aurrean. Horretarako, erantzukizun publikoaz gain, gizarte zibilaren parte-hartze aktiboa ere behar da. Gauza ez da banakako eskubideak eta betebeharrak gauzatzea soilik, eta ez da nahikoa horiek errespetatu eta toleratzea. Elkarrekin bizitzea eta gizarte anitza eta askotarikoa izatea da gauza. Zoru etiko partekatua duen gizarte-proiektua defendatzen du EAJK, non pertsona guztien gaitasunek, bizi-proiektuek, balioek, itxaropenek eta interesek tokia izango baitute. Horiek guztiak askotari-koak dira, baina zilegi dira guztiak.
- Diskriminazioaren aurka borrokatzeko, espazio publikoa berreskuratu eta espazio komun bihurtu behar dugu. Horretarako, diskriminazio- eta estigmatizazio-egoerak, mekanismoak eta prozesuak ikusgarri egin eta hauteman behar dira, aurre egin ahal izateko. Pertsona guztien gaitasunak eta potentzialtasunak aitortuz, haien eskubide eta betebeharrak benetan betetzea sustatuz eta entzutea, enpatia eta harrera bultzatuz egin behar da hori guztia. Azken finean, EAJren ustez, inklusioan, errukian eta gizatasun handiagoan oinarritutako gizarteak erakitzen lagundu behar dugu.
- Berdintasuna eta ekitatea egoteko, herritar guztiek eskubide eta betebeharrak berdina izan behar dituzte eta pertsona guztien balioa aitortu behar da, haien aniztasuna gorabehera, eta guztion gizatasuna kontuan hartuta. Baliabideetara sarbidea izateko orduan aukera-berdintasuna eta ekitatea egoteko, pertsona guztiengan eta haien aniztasunean pentsatu beharra dago arauak, politikak eta zerbitzuak diseinatzeko orduan, diskriminazio positiboa egiteko neurriak sustatuz, hala behar denean, benetan unibertsala den sarbidea bermatzeko.
- Integrazio soziala herritarrek eskubide eta obligazioak erabiltzearen emaitza da, eta baita bizikidetzara zeregin kolektibo gisa ikustearen emaitza ere, ohitura, tradizio eta arau jakin batzuetara egokitze hutsaren emaitza baino. EAJren aburuz, harrera eta bizikidetzara gauzatze, tolerantzia eta errespetua egoteaz gain, elkartze, elkarri eragiteko eta elkar ezagutzeko bizi-esperientziak ere egon behar dira. Horrela, denbora, espazio, sare eta proiektu komunak sortuko liraketeke.
- Diskriminazioaren aurkako borrokan, diskriminazio-egoerak edo giza eskubideen urraketak jasan dituzten eta eskubide horiek defendatzen dituzten pertsonen, familiek edo kolektiboek osatutako erakundeen eta instituzioen arteko lankidetzara berebizikoa dela defendatzen du EAJK.
- Migrazioaren erronkaren aurrean, euskal gizarteak eta bertoko instituzioek harrera- eta integrazio-politiken alde hartutako konpromisoak migrazio-politiken manipulazioa ekiditeko eta gizartearen konpromisoa indartzeko akordio sozial eta politikoa behar du izan. Gizartearen eta instituzioen arteko itun sozialaren adierazpide izan behar du, harrera egiten duenaren eta harrera egiten zaionaren arteko ituna. Bizikidetzaren eta eskubideak eta betebeharrak gauzatzearen aldeko ituna, egoera sozial eta ekonomikoaz haratago, etorkinen bizi-proiektua posible egiteko eta haiek euskal gizartearen integrazteko. Bidaiderik gabeko adingabe migratzaileei harrera egiteko erantzunkidetasuna eta haien babesa eta integrazio soziala defendatuko ditu EAJK. Jokabide hori Euskadiko, Estatu-ko eta Europar Batasuneko instituzioen jardunaren ezaugarria izan behar da eta bidezko banaketa-irizpideak ezarri behar dira, hartutako pertsonen behar bezalako arreta emateko eta haiek gizarteratzea eta laneratzea posible izateko.

KONPROMISOAK ETA PROPOSAMENAK

A. DISKRIMINAZIOAREN AURKAKO BORROKA

01. KONPROMISOA

DISKRIMINAZIO-EGOEREI AURRE EGIN BEHAR DIETEN PERTSONA ETA KOLEKTIBOEN ESKUBIDEEN BENETAKO ERABILERA BULTZATU, DISKRIMINAZIO ANIZKUNARI ARRETA BEREZIA ESKAINIZ.

EKINBIDEAK

01

Aniztasunean berdintasuna bultzatzeko eta diskriminazioaren aurka borrokatzeko lege oso bat sustatuko du EAJk.

02

Diskriminazioaren Behatokia martxan jarri, diskriminazio-egoerak hautemateko, aldi behin inkesta bat eginez eta analisirako beste tresna batzuk erabiliz, eta diskriminazioaren aurkako eta eskubideak benetan erabiltzearen aldeko politikak diseinatu.

03

Hirugarren sektore sozialarekin batera “Eraberean Sarea” bultzatu, eskubideen benetako erabilera sustatzeko, horren inguruan sentsibilizatzeko eta urraketak salatzeko.

04

Hirugarren sektore sozialak (Plena Inclusión, EAPN...) diskriminazio-egoerak hautemateko eta eskubideen benetako erabilera sustatzeko abiarazten dituen ekinbideak babestu.

05

“Berdindu” programa indartu, diskriminazioaren biktima diren LGTBI pertsonen informazioa, orientazioa eta laguntza emateko zerbitzuak zabaltzeko.

06

Estereotipoen eta diskriminazioaren inguruan sentsibilizatzeko, haien prebenitzeko eta haien aurka borrokatzeko ekinbideak babestuko ditu EAJK, komunitate mailan eta sare sozialetan. Bereziki, zurrumurruen aurkako sareak eta bullying-aren aurkako kanpainak indartuko dira.

07

Emakumeei eragiten dien eta ondorioz genero-diskriminazioa larriagotzen duen diskriminazio anizkuna hauteman eta arazoari heldu: bakarrik bizi diren adineko emakumeak, pobrezia eta bakardadea pairatzen dituztenak; egoera irregularrean dauden emakume migratzaileak; emakume lesbianak eta/edo transexualak; emakume desgaituak edo buruko gaixotasuna dutenak; edo etxerik ez duten eta indarkeriaren biktima diren emakumeak.

08

Diskriminazioaren aurka borrokatzeko eta eskubideen benetako erabilera sustatzeko estrategia osoa bultzatu (sentsibilizazioa, eragileen prestakuntza, salaketa, araudian aldaketak sustatzea), aurreko tresnak kontuan hartuta eta beste administrazio publiko eta instituzio batzuen (Arartekoa eta Emakunde, esaterako), hirugarren sektore sozialaren, enpresen eta beste eragile sozial batzuen laguntzarekin.

09

Pertsona transexualei (helduak zein adingabeak) babesa emateko ekinbideak bultzatzen jarraituko du EAJK, pertsona horiek ordezkatzen dituzten elkarteekin batera.

10

Sexu-orientazioa edo genero-identitatea dela-eta, lanean jasandako diskriminazioaren aurka egiteko berariazko ekintzak sustatu eta babestu, eta ikuspegi hori lan-arloko enpresekin batera bultzatutako beste ekintza batzuetan eta bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzeko neurrietan txertatu.

KONPROMISOAK ETA PROPOSAMENAK

B. ANIZTASUNA AITORTU ETA BIZIKIDETZA SUSTATU

02. KONPROMISOA

ANIZTASUNA AITORTU ETA BIZIKIDETZA SUSTATU.

EKINBIDEAK

01

EAJk sentsibilizaziorako estrategia bat abiaraziko du, ekimen sozialarekin eta hedabideekin batera, aniztasuna maila desberdinetan identifikatu eta azpimarratzeko.

02

Familia-eredu desberdinen garapenerako oztopoak identifikatu eta desagerrarazi, eredu desberdinak eta haien guztien ekarpena ikusgarri eginez.

03

Hiriaren eta aniztasunaren inguruko hausnarketa estrategikoa sustatu, Euskadi Lagunkoiaren esperientzia sistematizatu eta Euskadi Lagunkoia esparru berrietara proiektatu, haurtzaroaren edo desgaitasunaren esparrura, esaterako.

04

“Hiri errukiorren” esperientziak bultzatu, laguntza soziala, zaintza, enpatia eta abar sustatzeko direnak, normalean erantzun gisa estigmatizazioa, errefusa eta/edo isolamendua jasotzen dituzten egoeren aurrean, gaixotasunen edo heriotzaren aurrean, esaterako.

05

Belaunaldi arteko bizikidetza eta elkartasuna bultzatzeko programa bat ezartzea planteatzen du EAJk, adineko pertsonen eta gazteen arteko lankidetzan edo elkarri laguntzean oinarritutako proiektuak babestuz.

C. MIGRATZAILEAK HARTU ETA GIZARTERATU

03. KONPROMISOA

MIGRATZAILEEN HARRERA ETA GIZARTERATZEA BULTZATU, BATEZ ERE HAUR ETA GAZTE MIGRATZAILEEN KASUAN.

EKINBIDEAK

- 01** Migrazioarako Euskal Itun Sozialaren edukiak garatu, ebaluatu eta sustatu, instituzioen eta gizarte zibilaren arteko lanaren zubi gisa. EAJren helburua atzeritik etorritako biztanleek haien integrazioaren inguruan duten pertzepzioa eta atzerriko biztanleekiko tolerantzia indizea bost puntu igotzea da, Euskadi Europako herrialde eta eskualde tolerantteen artean kokatu arte.
- 02** Euskadira heltzen diren migratzaileak hartzeko euskal eredia onetsi eta ezarri, populazio immigrantearen gutxienez % 60ri udal zerbitzuetan edo eskualdeko zerbitzuetan harrera bermatzeko.
- 03** Aniztasunaren eta immigrazioaren zuzendaritza sortu.
- 04** EAJk Share Proposamena bultzatuko du Euskadin, Estatuan eta Europan, Europar Batasunean migrazio-ertronkari erantzuteko erantzunkidetasunaren printzipioa sustatzeko.
- 05** Herritartasunaren, Kulturartekotasunaren eta Immigrazioaren esparruan jarduteko VI. Plana bultzatu, instituzioen eta esparru horretan ari diren eragile sozialen lankidetzaren oinarri hartuta, Euskadiko Herritar Etorkinen Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroaren bitartez.
- 06** Topaketarako eta bizikidetzarako ekinbideak eta migratzaileen eta bertokoen arteko proiektuak babestu.
- 07** Bakarrik datozen haur migratzaileei adingabe orori eman beharreko babesaren ematen zaiela bermatu, gizarteratzeko ibilbideak burutu ahal izateko.

KONPROMISOAK ETA PROPOSAMENAK

08

Haur migratzaileek heldutasunera igarotzeko bidean izan dezaketen babesgabetasunari aurre egin, haien behar bezalako emantzipazioa lortzeko laguntza-bideak bermatuz. Horretarako, EAJK Euskarri programa bultzatuko du. Instituzio arteko programa bat da, babes-saretik datozen eta zaugarriak diren gazteak gizarteratzea eta laneratzea xede duena.

09

Iragaitzako migratzaileei laguntza humanitarioa emateko urteko Kontingentzia Plana egin.

10

Migratzaileek gure lan-merkatuari egiten dioten ekarpena eta Euskadin aberastasuna sortzeko orduan duten zeregina ikusgarri egin, aitortu eta gailendu, kultur aniztasunari dakarkioten aberastasuna gailentzeaz gain.

11

Euskal gizartean integratu nahi diren migratzaileei zein iragaitzaz dauden migratzaileei arreta emateko, haiek hartzeko eta kasua bada haiek gizarteratzeko ekimen publiko eta soziala behar bezala egituratzeko lana sustatuko du EAJK.

12

Sasoi araberako migrazio-fluxuak aurreikustea ahalbidetzen duten tresnak garatzeko aurrerapausoak eman eta baliabideak fluxu horiek izandako bilakaeraren arabera egokitu.

13

Migratzaileen jatorrizko herrialdeetan bi bulego pilotu ireki, migrazio-fluxuak kudeatzeko orduan lankidetzan aritzeko, pertsonen eta familien migrazio-proiektuak (egonkorak zein behin-behinekoak) Euskadiren eta migratzaileen jatorrizko herrialdeen garapenerako beharrian sozioekonomikoekin konektatuz, instituzioen arteko eta enpresen arteko aldebiko proiektuak barne hartuta.

14

Espainiako Gobernuari gazte migratzaileei laneratzen laguntzeko proposamen zehatz bat egitea planteatzen du EAJK. Hala, adingabeak 16 urte betetzen dituenean, gainerako nerabeen aukera berberekin automatikoki lan egin ahal izateko baimena ematea proposatuko dio.

GARAPENERAKO LANKIDETZA

EUSKADI LANKIDETZAN GEHIEN INBERTITZEN DUTEN
EUROPAKO 10 KOMUNITATEEN ARTEAN KOKATU,
BIZTANLEKA DESZENTRALIZATUTA.



- Mundua asko aldatu da euskal lankidetzaren sortu zenetik. 30 urtetik gorako tartean gauza asko aldatu dira, nazioartean zein gurean, garapeneraren erronken inguruan dugun ulermenari dagokionez. Lehen geneuzkan arazoez gain, COVID-19aren pandemiak ekarritako ondorioak ere baditugu orain. Krisi honek garapenerako lankidetzaren arloan planteatzen dituen erronkei aurre egiteko, mundu mailako zein tokiko testuinguruaren eraldaketari buruzko analisia egin beharko da. Garapen Iraunkorrerako Helburuak biltzen dituen Agenda 2030era begira, ezin dugu lankidetzaren ekintza-arloa espezializatu soil gisa ulertu, garapenerako estrategia global eta oso baten parte gisa baizik, giza eskubideak eta garapenerako politiken koherentzia oinarri hartuta Eusko Jaurlaritzaren jardueraren guztietan aplikatzen dena.
- EAJren aburuz, egungo egoerari eta Euskal Administrazioak bere garapen politikak bultzatzeko duen moduari erantzun dion lege-esparru berri bat behar dugu, ezinbestean.
- Garapenerako lankidetzaren jada ez da arlo horretako “adituen” kontua soilik. Gizarte osoaren kontua da eta erakunde eta instituzio ugari inplikatu behar dira, nolabait garapeneraren erronken aurrean erantzun dezaketenak eta hala egin behar dutenak, aliantzatik eta berrikuntzatik abiatuz. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziarekin eta lankidetzaren arloan bide luzea egindakoak diren GKEekin batera, eragile gehiagok parte hartzea planteatzen du EAJk.
- Beste herrialde batzuetan martxan jarritako lankidetzaren proiektu solidarioen osagarri gisa, nazioarteko elkartasun sare horizontalak landu behar ditugu eta beste ikuspegi batzuk onartu behar ditugu, testuinguru desberdinen artean konexioak sortzeko eta haietatik ikasteko. Ezinbestekoa da Iparralde-Hegoalde dikotomia gainditzea eta gizartearen eraldatzeko hezkuntzan sakontzen jarraitzea, herritarren izaera kritikoa, aktiboa, arduratsua eta etikoki solidarioa sustatzeko xedez.
- Garapenerako euskal lankidetzak bultzatzen duen giza garapen iraunkorrak erabakimenez giza eskubideen alde egiten jarraitzea eta gure jarduketaren guztietan ikuspegi hori txertatzea eskatzen du. Giza duintasuna egoteko, eskubide guztiak asebate behar dira, banakakoak zein kolektiboak.
- Berdintasunetik ezak eta dimentsio anitzeko pobreziaaren analisi-datuek erakusten dute euskal lankidetzaren politiketan Afrikari lehentasuna ematea komeni dela. Jauzi kualitatiboa zein kuantitatiboa egin beharra dago Afrikan egin beharreko lanetan, bai ekintza humanitarioan eta lankidetzan eta bai hezkuntza-eremuetan, Afrikako errealitatea ezagutzera emateko. Era berean, beharrezkoa da eragile afrikarrekiko trukeak eta haiekin batera egindako ekintzak indartzea.
- Ekintza humanitario zuzenaren arloan, 2016ko Munduko Goi Bilera Humanitarioarekin bat eginez, EAJk tokiko eragileen lana bultzatuko du esku-hartzeko humanitarioetan eta herritarrei zein laguntza jasotzen ari diren populazioei kontuak ematen zaizkiela bermatuko du.
- Egungo lankidetzaren erronkei modu eguneratua erantzuteko, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia behar dugu, eragile desberdinen arteko jarduketara eta ekinbideetan bitartekari- eta sustatzaile-lana egin dezan. Ildo horretatik, Agentziaren ahalmena indartzen jarraitzeko konpromisoa berretsi du EAJk.
- Lankidetzaren “deszentralizatuak” edo tokiko edo eskualdeetako erakundeetatik egiten den garapenerako lankidetzak ezaugarri positiboak ditu eta gero eta aitorpen handiagoa dute mundu mailan. Euskal lankidetzak, bere osotasunean, haren eredu propioan sakonduz, haren gain hartzen du lankidetzaren deszentralizatuari garrantzia emateko zeregin garrantzitsua ere, batez ere Europar Batasunaren esparruan.
- Euskaditik bultzatutako lankidetzaren deszentralizatuari aitortu izan zaion ezaugarri bat genero- eta garapen-ikuspegiaren aldeko konpromisoa izan da beti eta azkenean lankidetzaren mota horren ezaugarri nagusietako bat bilakatu da. EAJren iritziz, ibilbide hori indartu beharra dago genero-zeharkotasunerako eta emakumeak ahalduzko estrategiaren bidez, ekintza positibo gisa. Era berean, garapenerako lankidetzaren sexu- eta genero-aniztasunaren ikuspegia beregatatuz joan da eta hori indartzen jarraitu beharra dago.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

1. KONPROMISOA

GARAPENERAKO POLITIKEN KOHERENTZIA. GIZA ESKUBIDEETAN, BERDINTASUNEAN ETA EUSKO JAURLARITZAREN GARAPENERAKO LANKIDETZA POLITIKEN KOHERENTZIAN OINARRITUTAKO ZEHARKAKO IKUSPEGIAREN ALDEKO KONPROMISOA.

EKINBIDEAK

01

Garapenerako Lankidetzari buruzko Euskal Lege berria itxuratu eta onestea planteatzen du EAJK. Giza eskubideetan, genero-ekitatean, Garapenerako Politiken Koherentziaren aplikazioan, lankidetz-eragile berrien bilaketan eta Nazio Batuen Garapen Iraunkorrerako Helburuak biltzen dituen Agenda 2030ek eskainitako ikuspuntuan oinarrituko litzateke lege berri hori.

02

Garapenerako Lankidetzaren V. Plan Zuzentzailea itxuratu eta onetsi, Afrikari lehentasun handiagoa emanaz eta Garapenerako Lankidetzari buruzko Euskal Lege berriaren ildoak indartuz.

03

Giza Eskubideen eta Bizikidetzaren Idazkaritzarekin batera, Eusko Jaurlaritzaren baitan lankidetz-politiken koherentzia bultzatu eta Eusko Jaurlaritzaren sailak haien jarduera-eremuekin zerikusia duten lankidetzarako ekinbideetara batzeko ekintza zehatzak sustatu.

04

Euskadiko gainerako lankidetzarako instituzioekiko koordinazioa eta egituraketa indartzea proposatzen du EAJK, aldi berean “Euskal Fondoarekiko” aliantza estrategikoan sakonduz, hots, Euskal Toki Erakundeen Lankidetzarako Elkartarekiko aliantza estrategikoan.

05

Garapen Iraunkorrerako Helburuak biltzen dituen Agenda 2030en erronkei aurre egiteko berrikuntza eta aliantzen sorrera ardatz dituen garapenerako lankidetz bultzatu, jada martxan dauden ekinbide enblematikoak (auzolankide) erreferentzia gisa hartuta.

2. KONPROMISOA

HERRITARREN IZAERA KRITIKOA, AKTIBOA, ARDURATSUA ETA ETIKOKI SOLIDARIOA SUSTATU. GIZARTE ERALDAKETARAKO HEZKUNTZAREN ALDEKO KONPROMISOA.

EKINBIDEAK

01

“HABIAN 2030” Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren Euskal Estrategia sendotuko du EAJK, sentsibilizatorako, eragina izateko, komunikatorako eta hezkuntzarako ekinbideekin. Azken horiek Hezkuntza Sailarekin batera eta Eusko Jaurlaritzaren baitan hezkuntza- eta sentsibilizazio-arloan dauden gainerako planekiko koordinazioa mantenduz gauzatuko lirateke.

02

Lankidetz-politiken oinarri soziala zabaldu eta Euskadiko pertsonen, erakundeen eta instituzioen elkartasuna eta inplikazioa sustatu, eragileak indartzeari garrantzia emanez eta lankidetzarako beka-programen ildo desberdinak sendotuz.

03

Garapenaren aldeko erakundeak, kolektiboak eta pertsonak aitortzeko “Ignacio Ellacuria” Sariari eta Euskadiko Gazteak Lankidetzan Programari garrantzia handiagoa eman, Eusko Jaurlaritzako Gazteria Sailarekin batera.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

3. KONPROMISOA

GIZA ESKUBIDEEN IKUSPEGIAN SAKONDU: “LANKIDETZA-ARLOKO GIZA ESKUBIDEEN ALDE”.

EKINBIDEAK

01

Giza eskubideen ikuspegia sakondu, Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubideen Defendatzaileak Aldi Batez Babesteko Euskal Programari lehentasuna emanaz. Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza dago programa horren buruan.

02

“Enpresaren eta giza eskubideen euskal plana” diseinatu eta ezartzea planteatzen du EAJK, Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzarekin eta Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuekin batera.

4. KONPROMISOA

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN POLITIKA OSOAN GENERO-BERDINTASUNA ETA EMAKUMEEN AHALDUNTZEA BULTZATU.

EKINBIDEAK

01

Emakumeak ahalduzko eta elkarrekin laguntzeko ekinbide eta proiektuei lehentasuna emango die EAJk. Era berean, lankidetzaren sexu- eta genero-aniztasunaren ikuspegia txertatzeko aurrerapausoak eman.

02

Lankidetzarako erakundeei generoaren aldeko antolara-aldaketa sustatzeko emandako laguntzak mantendu eta genero-arloko garapenerako estrategia positiboari buruzko jardunaldiak eta mintegiak antolatzea sustatu.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

5. KONPROMISOA

LANKIDETZARAKO GARAPENEAN ETA NAZIOARTEKO ELKARTASUNEAN GEHIAGO INBERTITU.

EKINBIDEAK

01

Garapenerako laguntza-programak indartzen eta hobetzen jarraitzearen aldekoa da EAJ.

02

Lankidetzarako tresnak (deialdiak eta programak) berrikusi, teknikoki eta praktikoki hobetzeko eta euskal lankidetzaren plan, estrategia eta lehentasunekin bateratzeko.

03

Euskal lankidetzaren lehentasunak zentratu: Afrika, emakumeen ahalduntzea, giza eskubideen defendatzaileen babesak, gatazkak eta indarkeriazko egoerak, eta Euskadin tokiko zein mundu mailako ikuspegia duten ekintzak.

04

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren 2023rako Ekintza Humanitarioko Estrategia sendotzea planteatzen du EAJK, gerretan edo indarkeriaz beteriko beste egoera batzuetan ekintza humanitarioak lehenetsiz, GKEentzako deialdien eta Agentziak berak bultzatutako ekinbideen bitartez.

6. KONPROMISOA

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIAREN BETEKIZUN AKTIBOA INDARTU, ESFORTZU ETA AHALMEN PUBLIKO ETA PRIVATU GUZTIAK KONEKTATZEKO, EGITURATZEKO, MOBILIZATZEKO ETA HAIEN ARTEKO BITARTEKARITZA-LANA EGITEKO, OSTEAN GARAPEN-BIDEAN DAUDEN HERRIALDEETAN ALDAKETA-ESTRATEGIEN ZERBITZURA JAR DAITEZEN.

EKINBIDEAK

- Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren ahalmena indartu, EAJK proposatutako ekintza hauek garatuz:
 - Langile taldea eta haien etengabeko prestakuntza sendotu.
- 01** ■ Ezagutzaren, ikasketaren eta berrikuntzaren kudeaketa ezarri, lagundutako eta bisitatutako proiektuen analisiaren bidez.
 - Jardunbide egokiak, ebaluazioa, sistematizazioa eta jarduera-ildo berriak identifikatu.
- ■ Agentzia barruan genero-ekitatearen alde egiteko plana garatu.

- Hiru helburu izango dituen Komunikazio eta Sentsibilizazio Plana martxan jarri:
 - Lankidetzaren balioak sustatu eta gizartea eraldatzen lagundu.
 - Lankidetzaren Agentziaren beraren kudeaketaren eta kontu-ematearen gardentasuna zabaldu.
- ■ Europa mailan lankidetzaren deszentralizatua egiteko eredu propioa balioetsi.



ESTRATEGIA ENERGETIKOA

ENERGIA BERRIZTAGARRIAK AZKEN ENERGIA
KONTSUMOAREN % 20 IZAN DAITEZEN LORTU, 2025 EAN.

- **Sektore energetikoa hazkunde, lehiakortasun eta garapenaren oinarrietako bat da ekonomia modernoentzat.** Euskadi, Europar Batasuna bezalaxe, neurri handi batean, oraindik ere, erregai fosilen menpe dago eta energia irisgarri, seguru eta jasangarria hornitzeko zenbait erronka ditu. EAJk uste du energia-eraginkortasunaren onurak maximizatu behar direla eta guztizko kontsumoa murriztu, herritar guztiei energia irisgarriarako sarbidea, horniduraren segurtasuna eta lehiakortasuna bermatuz. Horiek dira Euskadik, Europar Batasunarekin batera, Garapen Iraunkorreko 7. Helburua lortzen laguntzeko dituen bideetako batzuk. Hain zuzen ere, helburu hori pertsona guztiek energia eskuragarria, fidagarria, jasangarria eta modernoa dutela bermatzea da.
- **Klimari eta Energiari buruzko Europako 2030 Esparruarekin eta 2030 Euskadiko Estrategia Energetikoarekin bat eginez, EAJk energia-eraginkortasuna areagotzeko eta energia berriztagarriak sustatzeko beharrezko tresnak sustatuko ditu.** Gure energia-matrizeak jatorri fosileko erregaien menpekotasun nabaria dauka; izan ere, gure kontsumo energetikoan ia-ia % 80ra heltzen dira. Energia-sistemaren jasangarritasun eta deskarbonizaziorantz hurbiltzeko erabaki irmoa mantentzen dugu, energia-eskuragarritasunarekin eta horren kostuarekin lotutako ingurumen-, gizarte- eta ekonomia-alderdiei dagokienez.
- **Nahitaezkoa da, apurka-apurka, kontsumo baxuagoko energia-eredu baterantz joatea, energia berriztagarriak txertatuz eta energia elektrikoaren energia-bektore nagusi gisa hartuz.** Sistema honek erregai fosiletatik guztiz aldentzearen eta berotegi-efektuko gasen emisio garbiak zerora murriztearen alde egiten du. EAJk isurpen horiek nabarmen murrizten dituzten neurriak hartzearen alde egiten du, zehazki, isurpenen beharrezko murrizketa energia berriztagarriaren hornidurarekin konbinatzen duen energia-politika baten bidez.
- **Gure energia-kontsumo nagusia garraioaren eremuan ematen da.** EAJren lehentasunetako bat izango da mugikortasun garbi, seguru eta konektatu baterantz aurrera egitea, zehazki, apurka-apurka txertatuz mugikortasun elektrikoaren.
- **EAJren konpromisoa da Euskadi Europako erreferente bat bihurtzea industriaren arloko energia-eraginkortasunarekin.** Lehiakorragoak eta jasangarriagoak izateko, energia gutxiago erabiliz produktzioa mantentzea lortu behar dugu. Helburu honetan aurrera egiteko bi jarduketako nagusiak dira kogenerazioa oinarri berriztagarriarekin eta hondar-beroaren aprobetxamendu termikoa.
- **Gainera, eraikinetan aprobetxamendu berriztagarria eta aurrezpena areagotu behar dira.** Horretarako, Euskadiko etxebizitza-parke zaharra modernizatu egingo dugu energia-eraginkortasuneko irizpideekin eta autokontsumoa bultzatu egingo dugu teknologia berriztagarrien ezarpenarekin.
- **Energia elektriko berriztagarriaren merkaturak oso azkar aldatzen ari da.** Euskadik biogasaren potentziala ahalik eta gehien aprobetxatzeko ekimenak behar ditu (arazketako lohiak, zabortegiak, elikadura-, industria- eta basogintza-hondakinak, berariazko hazkuntzak...). Tokiko biomasaren erabilera maximizatu behar dugu. Ildo horretatik, basogintzako bioekonomiak funtsezko papera dauka, bai industria- eta egoitza-sektorearentzat energia sortzeko terminoetan, bai CO₂ko hustulekuen terminoetan.
- **Beharrezkoa da kontsumitzaileek merkatuan jardutea eta energia-kosten eta kontsumoaren inguruko informazioa edukitzea bere kontsumoa erregulatzeko.** Horretarako, EAJk enpresa banatzaileekiko erakunde-lana erraztuko du, kontsumitzaileen esku jartzeko kontsumo-datuetaarako sarbide simple eta librekoa. Horrez gain, kontsumitzen duen eta produzitzen duen energia kudeatzeko gai izango den kontsumitzaile aktiboaren figura sortzera bideratutako eredu berrien garapena bultzatuko du eta energia-erkidegoak sortzea bultzatuko du energiaren kudeaketa partekatuz.
- **Energiari dagokionez, gure printzipioetako bat da industria teknologia berrien ikerketa eta garapenean laguntzea.** Abangoardia teknologikoan egoteak esan nahi du, a priori, egungo merkaturak ez dauden teknologiak ikerketa eta garatzean inbertitu behar dela. Eusko Jaurlaritzak lan horretan lagunduko du, euskal industria ondo posizionatuta egon dadin Europan.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

1. KONPROMISOA

ENERGIA-ERAGINKORTASUNA ETA AUTOKONTSUMOA SUSTATU INGURUMEN-ERAGINA ARINTZEKO, ENERGIAREN FAKTURA MURRIZTEKO ETA ENPRESEN LEHIAKORTASUNA INDARTZEKO.

EKINBIDEAK

01

Sorkuntza banatu berriztagarriko eta kogenerazioko proiektuak bultzatu, laguntza-lerroak indartuz eta bereziki sustatuz banakako autokontsumoa eta autokontsumo kolektiboa.

02

Poligonoetan eta parke teknologikoetan zerbitzu energetikoak sortu bi alderdi hauetan: eskari elektrikoaren eta sorkuntza zentralizatuaren agregazioa eta bero- eta elektrizitate-salmenta. Produkzio-prozesuen hondar-beroaren erabilera sustatuko da.

03

EAJk laguntza- eta prestakuntza-programak bultzatuko ditu, eraikinetan, energia elektrikoa erosi beharrean, autokontsumorako elektrizitatearen sorkuntza sustatzeko, hain zuzen ere, teknologia fotovoltaikoa, eolikoa eta biomasa bezalako teknologien bidez.

04

Hirigintza-garapen berriek hornidura termikoko sistema zentralizatuak aukeratzea sustatu.

05

ETEen artean energia-eraginkortasuneko autodiagnostikoak eta kanpo-ikuskaritzak egitea sustatu, kontsumo energetikoa murrizteko eta iturri berriztagarrien erabilera sustatzeko.

06

Hondakin industrialen kudeaketa eraginkorreko ziurtapen bat diseinatu eta abian jarri Euskal ETEetan. Karbono-aztarna murrizten duten ekonomia zirkularreko ekinbideen sustapena. Helburua: Zero Zaborra.

2. KONPROMISOA

SORKUNTZA ENERGETIKOKO PARKEA HANDITU INSTALAZIO BERRIZTAGARRIEN BIDEZ; BERO-AUKERA BERRIZTAGARRIAK GARATU ETA SEKTOREAN GARAPEN INDUSTRIALA SUTATU.

EKINBIDEAK

01

Energia berriztagarrien sorkuntza- eta kontsumo-gaitasuna areagotu, jasangarritasun-irizpideekin eta eskuragarri dauden baliabideak ahalik eta gehien aprobetxatuz. EAJk proposatutako xedea da 2024rako energia berriztagarrien erabilera bikoiztea, hain zuzen ere, erreferentziazat 2015 oinarri-urtea hartuz.

02

Lurreko eta itsasoko parke eolikoek ezarpena bultzatu. Parke fotovoltaikoak. Erkidego sareetan biomasako, sorkuntza elektriko berriztagarriko eta geotermiako erkidego-proiektuak. 2024rako, gure xedea da energia fotovoltaikoa 100 MW handitzea eta gaur egun instalatuta dagoen energia eolikoa bikoiztea, hau da, 150 MW-tik 300 MW-ra.

03

EAJk ikerketa aplikatua eta biomaterialak eta nekazaritzako, uretako edo basogintzako produktuak aprobetxatzearen ondoriozko balio erantsi altuko enpresa-jarduera sustatzearen alde egiten du. Gure konpromisoa da Euskadin Bioekonomia Zirkularraren Aliantza sortzea eta sustatzea.

04

Etxe hondakin organikoetatik, nekazaritzako edo abeltzaintzako hondakinetatik, araztegi-lohietatik edo nekazaritzako elikagaien industriako hondakinetatik biogasa hartu eta sortzeko plantak sustatu. Baliabidearen tokiko aprobetxamendurako planta txikiak abiaraztea bultzatuko da, baita gas-sarean injektatzeko proiektuak ere, baliabide berriztagarri hau gas naturalaren kontsumitzaile guztiengana hel dadin.

05

Biomasatik beroa sortzeko proiektuak sustatu, hondar-biomasaren aprobetxamendua lehenetsiz.

06

EAJk District heating proiektu pilotuak bultzatuko ditu Euskadin (barruti deszentralizatuko hiri-berokuntza), berokuntza eta ur beroko zerbitzuak emateko energia berriztagarriekin, bereziki, biomasa eta geotermia erabiliz.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

3. KONPROMISOA

GARRAIO ETA MUGIKORTASUN JASANGARRIETARANTZ AURRERA EGIN ERABILERA ZENTZUDUNAGO BATEN BIDEZ; GARRAIOBIDE PUBLIKOEN ERABILERA SUSTATU ETA PETROLIOAREN ORDEZKO ERREGAIK ERABILTZEN DITUZTEN ETA BERARIAZKO KONTSUMO TXIKIAGOA DUTEN IBILGAILUAK TXERTATU.

EKINBIDEAK

- 01** EAJk ordezko energiak erabiltzen dituzten ibilgailuak (elektrikoak, gas edo bioerregaikoak) eta horien birkarga-sareak sustatzeko laguntzen programa indartzearen alde egiten du, ibilgailuak berritzea eta modernizatzea, isurketak murriztea eta txatar-betekizuna indartuz. Gure helburua da egungo ibilgailuen kopurua hirukoiztea, hau da, 2024rako ordezko energiak erabiltzen dituzten 10.000 ibilgailuetara heltzea.
- 02** Ibilgailu elektrikoak edo gasezko ibilgailuak azkar kargatzeko guneen instalazioa bultzatzeko programak indartu, 2024rako azkar birkargatzeko 100 guneetara heltzeko helburuarekin.
- 03** Autoa partekatzeko *Car-sharing* lankidetzak-ekimenak garatu, partekatutako autoa eta eskariaren araberako garraio publikoa ahalbidetzen dituen doako plataforma bat abiaraziz. Halaber, okupazio altuko ibilgailuak sustatzen dituzten neurriak garatuko dira.

4. KONPROMISOA

ITURRI BERRIZTAGARRIEKIN PRODUZITUTAKO ENERGIA ELEKTRIKOAREN ESKARIA SUSTATU.

EKINBIDEAK

01

EAJk “bonu jasangarrien” programa bat abian jartzea proposatzen du, herritarren artean iturri berriztagarriek, hau da, ziurtagiri energetiko berdearekin produzitutako energia elektrikoaren kontsumoa bultzatzeko eta saritzeko.

02

Sentsibilizazio-kanpainak egin industriaren eremuan energia elektriko berdearen eskaria bultzatzeko. Kontsumo elektriko eraginkor eta jasangarriarekin konprometitutako enpresen sarea. Kontsumo energetikoko kanpoko ikuskaritzen promozioa.

03

Mugikortasun elektrikoaren eta garraioaren sektorean energia elektriko berdearen dibulgazioa eta erabilera sustatu, jatorri berriztagarriko ziurtagiria ikusaraziz ibilgailu elektrikoentzako kargaguneetan eta karga azkarreko guneetan. Era berean, Euskadiko ibilgailu elektrikoentzako kargaguneen inguruko informazio-plataforma bat abiaraziko da, etengabe eguneratuko dena.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

5. KONPROMISOA

EUSKAL ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN KARBONO-AZTARNA NEUTROA SUSTATU, HERRITAR, ENPRESA ETA ERAKUNDE GUZTIENTZAT EREDUGARRIA ETA ERANTZUN-KIDETASUN-ADIBIDEA IZAN DADIN.

EKINBIDEAK

01

EAJk proposatzen du udal mugikortasun-planetan aurreikusitako ekimenak ezartzea kaleen oinezko erabilera bultzatuz eta bizikletaren eta garraiobide publikoen erabilera sustatuz.

02

Apurka-apurka ordeztu Euskadiko administrazio publikoaren egungo ibilgailuak, 2024an ibilgailu publiko guztiek erabil ditzaten ordeztu erregaiak.

03

Energia-jasangarritasuna bultzatu administrazio publikoaren eraikinetan eta promozio publikoko etxebizitzetan. Gure xedea da instalazio berriztagarriak dituzten eraikin publikoak % 25era igotzea 2024an.

04

EAJk uste du energiaren erosketan erakunde arteko lankidetzak bultzatu behar dela, eraginkortasunak eta sinergiak areagotzea lortzeko.

05

Euskal administrazio guztien kontsumo elektrikoaren % 100ek energia-ziurtapen berde edukitzea lortu, hau da, jatorri gisa iturri berriztagarriak edukitzea.

6. KONPROMISOA

ENERGIAREN ARLOKO GARAPEN TEKNOLOGIKO-INDUSTRIALAREN EUSKAL ESTRATEGIAN SAKONDU (ENERGIBASQUE 2.0), INBERTSIOA AREAGOTUZ ENERGIAREN ARLOKO TEKNOLOGIA BERRIEN IKERKETAN ETA GARAPENEAN.

EKINBIDEAK

01

Energiaren sektoreko enpesen sarearen eta euskal eragile zientifiko-teknologikoen lehiakortasuna bultzatu, energiaren eremuan ikerketako eta garapen teknologiko zein industrialeko lehentasunezko arloak bultzatuz, zehazki, Euskadiko espezializazio adimentsuko RIS3 estrategiarekin bat eginez.

02

Abian jarri euskal balio-katea olatuen energiako demostrazio-proiektuetan posizionatzea errazten duten ekimenak, baita BIMEP babestu ere proiektu eoliko flotagarrietan eta Harsh Laben bigarren fasean.

03

EAJk proposatzen du trantsizio energetikoko lege bat onestea.

04

Euskadi hidrogenoaren produkzioaren eta kontsumoaren eremuan erreferente bilakatzeko prozesua hasi, euskal sektore industrialean garapen teknologiko berriak bultzatzeko helburuarekin.



KLIMAREN ALDEKO EKINTZA

ZUHAIZTI AZALERARI
10.000 HEKTAREA GEHITU
ETA URTEAN 25.000 TONA
CO² XURGATU.

PRINTZIOAK

- Berotze globala errealitate eztabaidaezina da. Klimaren krisiak, aho batez, gure garaiko desafiorik handienak, beha daitezkeen ondorioak ditu dagoeneko, airearen eta ozeanoen tenperaturaren igoera globalak, prezipitazio patroietako aldaketek, itsas mailaren gorakadak eta muturreko meteorologia gertakarien intentsitate eta maiztasunak agertzen dutenez, besteak beste. Ekosistema asko, eta ematen dituzten zerbitzuetako batzuk, aldatu dira dagoeneko Lurraren berotzeagatik.
- Euskadi nazioartean hitzartutako garapen iraunkorarekin eta klimarekiko helburuekin konpromisoa hartua duen lurralde bat da, erantzukizun printzipiotik, elkartasunetik eta ekonomia eta gizarte osasuntsu eta oparoan oinarritutako ongizate eredu propio baten ikuspenarekin. EAJk klimarekiko ekintza aldeztzen du funtsezkoa delako ingurumenaren desafio askori aurre egiteko, hots, airearen kutsadurari, biodibertsitateari, baliabide urria den urari edo espezie inbasoreei aurre egiteko. Alderantziz, zenbait ingurumen arlotan neurriak hartzeak zuzeneko onura du kliman.
- Euskadik klima aldaketari egiten dion ekarpena txikia da kantitateari bagagozkio. Hala ere, "Think global, Act local" premisari jarraituz, lehentasun global honi erantzuteko irtenbide eta erantzun lokalak bilatzeari ekiten diogu. Euskadik, Parisko Hitzarmenaren ildotik, industria aurreko mailen aldean batez besteko tenperatura globala 2°C igotzea saihesten laguntzea da EAJren hautu sendoa.
- Europak klimarekiko ekintza globala gidatzeko egin duen hautuan ardurakide gara, eta berotegi gasak murriztea eta egokitzeko ahaleginak areagotzea bultzatzea du helburu. Indarrak batuz eta lankidetzan jardunez erronka berriei aurre egin ahal izango diegu eta agertzen diren aukerak aprobetxatu ahalko ditugu.

- Euskal herritarrek klimaren krisiaren aurrean duten kezka handia gure egiten dugu, eta berehalako ekintza irmo baten eskakizuna ere bai. Klima aldaketa borrokatzeko, EAJren hautua energia berriztagarriak, esaterako, eolikoa eta eguzkiarena, garatzea, garraio publikoa bultzatzea eta ibilgailuteria antzinakoen eta kutsagarriena berritzea sustatzen jarraitzea da, eta argindarrezko ibilgailua garatzea ere bai. Bai ekonomiaren lehiakortasuna bai berotegi gasen murrizketa mesedetzen duten ildo hauek bultzatuko ditugu.
- 2050erako Klima Aldaketarako Estrategiak, 2030erako Ekintza Plan berrian, EAJren ekintza konpromisoak jasoko ditu. Euskadik desafio hau gidatu dezake, eta ekonomia lehiakorrago eta klimarekiko neutroago baterantz eraldatzeko palanka bihurtu. Euskadi 2050erako karbonoan neutroa den lurraldea izatea lortu behar dugu. Horretarako, EAJk klima aldaketaren aurka borrokatzeko erakunde maila guztietako ekintzak integrazteko behar diren konpromiso politiko guztiak bultzatuko ditu.
- Euskal lurraldearen erresilientzia ziurtatu behar dugu. Egindako proiektioek erakusten dutenez, mende amaierarako batez besteko tenperatura 1,5°C eta 5°C artean igoko da, eta beroaldien intentsitatea eta iraupena areagotu egingo dira. Klima aldaketaren ondorioak areagotu egingo dira datozen hamarkadetan iraganekoaren efektu atzeratuengatik eta BGen oraingo emisioengatik. Aurrea hartzeko neurriak aplikatu behar ditugu klimaren ezinbesteko mehatxu eta efektuei aurre egiteko, besteak beste, itsas mailaren igoera, prezipitazioen aldaketa eta tenperatura.
- Euskadi Eusko Jaurlaritzaren Klima Larrialdiaren Deklarazioarekin erreferentziako erkidego gisa finkatu da klimaren mundu mailako larrialdiaren aurkako jarduera irmoan. Deklarazio horrek gizartea eraldatzea eskatzen du klima al-

KLIMAREN ALDEKO EKINTZA

- daketak sortu duen mehatxu gero eta handiagoa borrokatzeko, eta baliabide gehiago inbertitu behar dela adierazten du, bereziki hezkuntzan eta ikerketan.
- EAJren iritziz klimarekiko ekintzan zehar ekintza irmo bultzatu behar da. Hau da, klima aldaketa politika sektorialetan integrazte, Administrazioaren ekintza eredu-emalea, nazioarteko lankidetzeta eta herritarren partaidetza eta informazioa. Elkarlana bultzatuko dugu klimarekiko ekintzaren funtsezko eragingarria delako.
- EAJren konpromisoa 2050ean Euskadin klima neutraltasuna lortzea helburu jarriko duen Klima Aldaketaren Euskal Estrategiaren 2030erako Ekintza Plan berri bat landu eta betearaztea da. Trantsizio sozialki zuzen eta ekitatezko baten bidez, modu errentagarrian, berotegi gasen zero igorpen positibo lortzea Herrialdearen helburu jartzea da kontua.
- 2024rako ahaleginak bilduko dituzten ildo estrategikoak energia berriztagarriak sortzeari bultzada ematea eta gure ekonomia karbonogabetzerantz aurrera egitea dira. Horretarako, EAJk bultzatu beharreko politika eta tresna nagusiak hauek dira: garraio eta mugikortasun iraunkorra, izadian oinarrituriko irtenbideak, ikerketa eta ezagutzaren transferentzia, hondakin gutxiago sortzea, eraikinen azterketa teknikoak, herritarren partaidetza eta sentsibilizazioa eta klima aldaketaz nazioartean posizioa hartzea. Alabaina, hori ondo kudeatzeak ingurumeneko eta pertsonen osasunerako elkarrentzako onurak ere badakartza. Horrek hazkuntza ekonomiko iraunkorrago baterako aukerak sortzea, jarduera sektore berriak garatzea eta kalitate hobeko enplegua sortzea sustatu behar dugu.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

1. KONPROMISOA

KARBONO GUTXIKO ENERGIA TRANTSIZIO BATERANTZ IRMO EGIN, GARAPEN EKONOMIKORAKO ETA ENPLEGUA SORTZEKO ERRONKA ETA AUKERA DELAKO EUSKADIN.

EKINBIDEAK

01

EAJk Itun soziala bultzatuko du, Euskadirako eredu iraunkorrago eta karbono gutxiko baterantz trantsizio energetikoa egiteko.

02

Energia berriztagarrien ekoizpena eta erabilera bultzatu, ekonomiaren eta ingurumenaren iraunkortasun irizpideekin. Helburua berriztagarrien instalazioen bidez energia sortzeko ahalmena handitzea da.

03

EAJk aurrezpen eta efizientzia energetikoa sustatzeko programak indartuko ditu, batez ere industrian efizientzia energetikoa maximizatzeko inbertsio proiektuen bidez, tresna eta instalazioak hobetuz, zero igorpeneko eraikinetarantz eginez, egokituz eta berokuntza eta hozte sistema berriztagarrietara aldatuz. Helburua iraunkortasun ziurtagiria duten bizitegi eraikinen 100 proiektura iristea da (BREEAM edo LEED).

04

Ekoizten den eraikin edo industria berean sortutako argindarraren autokontsumoa bultzatu.

05

Eraikin publikoetako aurrezpen eta efizientzia energetikoaren plana indartu, erosketa publiko berritzailearen printzipioak aplikatuz.

2. KONPROMISOA

GARRAIOAREN KARBONOGABETZE PROGRESIBOAN SAKONDU, OINARRITZAT HARTUZ IBILGAILUEN EFIZIENTZIA, ENERGIA GARBIAGOA, SAREAK HOBETO ERABILTzea ETA INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO SISTEMEN BIDEZ SEGURUAGO FUNTZIONATZEA.

EKINBIDEAK

01

EAJren hautua bidaiariak eta salgaiak garraiatzeko Euskal Herriko Burdinbide Sare berria bultzatzea da.

02

Garraiobide iraunkorrenak sustatzeko eta ibilgailu efiziente eta emisio gutxikoetan inbertitzeko laguntza programa indartu. Helburua 2024rako pertsonen mugikortasun iraunkorra (oinez edo bizikletaz) % 20 areagotzea da.

03

Mugikortasun iraunkorreko planak lurraldean, udalerrian eta jarduera zentroetan garatzea sustatu. Plan horiek hirigintza antolamenduan txertatuko dira, garapen berriko eremuetara eta aldiriko aparkalekuetara errazago iristeko, bizikleta aparkalekuak jartzeko eta argindarrezko ibilgailuetarako birkarga puntuak ipintzeko. Helburua da Euskadiko eskualde guztiek 2024rako mugikortasun iraunkorreko plan bana edukitzea.

04

Bizikletaren erabilera bultzatu, herritarren garraiobide iraunkorrena delako, hiriko eta hirialdeko ibilbideetan. Konpromisoa hartzen dugu hirigintzako plangintzarako tresnek lekuen antolamendua bultzatu dezaten bizikletak erabili eta aparkatzea errazteko.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

3. KONPROMISOA

LURRALDE ETA HIRIGINTZA PLANGINTZAREKIN, EKOSISTEMEN BIZIBERRITZE ETA NATURALIZAZIOAREKIN ETA ANTZEKO POLITIKA PUBLIKOekin KLIMA ALDAKETA EZTITZEA ETA HARTARA EGOKITZEA BARNE HARTZEN DUEN LURRALDE ERRESILIENTZIA HANDIAGO BATERANTZ.

EKINBIDEAK

01

EAJk azpiegitura berdeak eta izadian oinarritutako irtenbideak bultzatuko ditu tokiko mailan klima aldaketara egokitzeko.

02

Klima aldaketara egokitzea lurralde antolamenduko dokumentuetan (LPP eta LPS) eta Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean bertan sartu.

03

EAJk udal esparruarekin elkarlanean jardutea proposatzen du, klima aldaketara egokitzeko politikak eta neurriak ezartzeko, 2030erako Udalsarearen esparruan. Helburua 2024rako gutxienez 50 udalerrik, berariazko egokitzapen planak, ekintza planak eta klima aldaketaren eraginaren azterketak edukitzea da.

04

Kostaldean olatuek jotzearen eta itsas maila igotzearen inpaktua aztertzen eta ingurunearen babesa hobetzen aurreratu.

4. KONPROMISOA

KLIMAREKIKO EKINTZAN BERRIKUNTZA ETA ZEHAR-GARAPEN TEKNOLOGIKOA SEKTORE GUZTIETARA BULTZATU, ARRETA BEREZIA JARRIZ SEKTORE LAUSOEI, JARDUERA EKONOMIKOA ETA ENPLEGUA SORTZEKO AUKERAK APROBETXATUZ KARBONO GUTXIKO HAZKUNTZA EKONOMIKOA MESEDETZEKO.

EKINBIDEAK

01

EAJk “Klimatek” Foroa (Unibertsitatea – Teknologia Zentroak – Administrazioa – Enpresa) bultzatzearen hautua egiten du ezagutza aurreratua transferitzeko eta erakuste proiektuak aurkezteko. 2024 arte urtean 10 Klimatek proiektu garatzea da helburua.

02

Klima aldaketak ur baliabideetan, lurreko, itsasoko eta kostaldeko ekosistemetan, lehen sektorean (nekazaritzan eta arrantzan), hiri ingurunean eta osasunean dituen efektuei buruzko lanak egiteko laguntza programa bat ezarri.

03

EAJk klimarekiko ekintzarekin eta ekonomia zirkularrarekin erlazionatutako Ekoberrikuntza Proiektuak indartzea planteatzen du. 2024ko mugarako helburua klimari eta ekonomia zirkularrari lotutako arloei ekiten dieten ekoberrikuntza proiektuen kopurua bikoiztea da 2024rako.

04

Karbono gutxiko teknologiak sustatu, zerga kenketak dituzten Teknologia Garbien Euskal Zerrendaren zabalkunde masiboa eginez eta klima aldaketarekin, osasunerako elkarrentzako onurekin edo ekintzaitzarekin zerikusia duten balioespen sozioekonomikoak bultzatuz.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

5. KONPROMISOA

2050ERA KO BEROTEGI GASEN ZERO IGORPEN POSITIBO LORTZEKO KLIMAREN GOBERNANTZA BULTZATU, MODU ERRENTAGARRIAN EGINDAKO TRANTSIZIO SOZIALKI ZUZEN BATEN BIDEZ.

EKINBIDEAK

01 EAJk Euskadiko klima aldaketaren legea onartu eta aplikatzea proposatzen du. Esparru honetan politika eta estrategia sektorialak garatuko dituen arau esparru bat egiteko konpromisoa hartzen dugu, sektore eta lurralde plangintzako ekintza guztietan klima aldaketa ezitzea eta klima aldaketara egokitzea jasoko dituen klima aldaketaren euskal lege baten bidez. Ildo horretan, Eusko Legebiltzarrean urtean gai bakarreko osoko bilkura bat egingo da egin diren aurrerapenen berri emateko.

02 EAJk 2050ean klimarekiko neutraltasuna lortzeko estrategia bat bultzatuko du.

03 Klima aldaketarako erakundearteko batzordea sortu, Eusko Jaurlaritzako sailen eta foru aldundien artean koordinatzeko eta elkarlanerako. Gutxienez sail hauek izango dira batzordekide: ingurumena, energia, lurraldea, garraio eta mugikortasuna, turismoa, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza, larrialdiak eta eraikingintza.

04 Klima Aldaketarako Ekinbideen Euskal Erregistroa sortu eta bultzatu, antolakunde, erakunde eta enpresek, berotegi gasen emisioak gutxitzeko eta klima adaketara egokitzeko helburuz, erabakitzen dituzten ekintzen inguruan hartzen dituzten konpromisoak jendaurrean jasota gera daitezen. Helburua da karbono marka, konpentsazioa eta karbono dioxidoa xurgatzeko proiektuak erregistratuta dituzten 100 antolakunde izatea 2024rako.

05 EAJk tokiko eta lurraldeko energia eta klimarekiko ekintza programa eta plan integratuak bultzatuko ditu 2030erako Udalsarea baliatuz, "Karbono igorpen txikiko udalerrria/eskualdea" kalifikazioa sortuko ditu eta Global Covenant of Mayors for Climate and Energy bultzatuko du. Helburua 2024rako 50 udalerrri Global Covenant of Mayors for Climate and Energy itunean sartzea da.

06

EAJk Euskadin zuhaitzak landatzearen hautua egiten du, 2018an 391.000 ha zuhaitzi izatetik 2024an 400.000 ha izatera aldatuz.

07

Gure gazteen partaidetza bultzatu klimarekiko ekintzarako nazioarteko programetan, bekak sortuz eta klima aldaketarekin zerikusia duten nazioarteko antolakundeetarako mugikortasun, truke eta egonaldi programak abian jarritz.



INGURUMEN ESTRATEGIA / BIODIBERTSITATEA

GURE IBAIETAKO URAREN % 70 KALITATE ONEKOA
EDO ONARGARRIKOA IZATEA LORTU 2025EAN.

- 80ko hamarkadan Euskadik aurre egin behar izan zien herritarren osasuna eta ingurumenaren egoera orokorra mehatxatzen zuten kutsadura arazo larriei. Harrezkero ingurumena babesteko politikak aplikatzen izan dira, arauak, estrategiak eta planak ezarriz, Europako politiken il-dotik. Ahalegin horri esker, hobekuntza progresiboa egon da ingurumenaren adierazle nagusietan, Europako ingurumen politikaren abangoardian egotea lortzeraino. EAJren iritziz airearen, uraren eta lurzorua kalitatean lortutako hobekuntzez harro egon gaitzke.
- Euskadi ingurumenean egindako lanak nabarmentzen du, eta horren isla da Ingurumen Errendimenduaren Nazioarteko Indizean duen posizio ona, Estatu-ko autonomia erkidegoen artean Garapen Iraunkorreko Helburuen ingurumen iraunkortasunaren ebaluazioan duena, eta euskal ekonomia eta ingurumen aldagai nagusiak zeharo berezita egotea, hauek bereziki: berotegi gasak, materialen kontsumoa, partikulak edo zaborte-girako hiri hondakinak.
- EAJren iritziz ingurumen erronka batzuk gaur egun duten ezaugarria konplexutasun eta ziurgabetasun handiko eta izaera interdependenteko arazoak izatea da, hala nola biodibertsitatea eta klima aldaketa. Testuinguru berri honetan, 2030era begira desafio berriei ekin behar diegu kritikoak diren arloetan, adibidez, mugikortasuna eta elikadura; eta sinplifikazio, ezagutza eta ardurakidetasun tresnak bultzatu behar ditugu.
- Euskadin ingurumen politika berri baterantz irmo aurreratu behar dugula deritzogu. Egindako aurrerapen garrantzi-ak aitortuta, EAJren iritziz ingurumen politika oparotasun eta lehiakortasun faktore funtsezko moduan eransteke garaia heldu da, eta politika sektorialetan modu eraginkorrean integratuz goraka datozen erronka berriei ekin behar zaiela.
- EAJk ingurumen politika oso, koordinatu eta elkarlanean hautua egiten du. Ingurumena Euskadin araubidezko esku-hartze espezifikoez ingurumenaren dimentsioa beste politika sektorialetan integratzera pasatu da, iraunkortasun ikuspegi zabalagoa eman zaio, adibidez, ekonomia zirkularra, klima eta energia, osasunaren baldintzatzaileak, elikadura edo finantzaketa iraunkorra.
- Ingurumen politikaren eraginkortasuna areagotzea helburu hartuta, EAJk kontsumo eredia ekoizpen ereduari ekiten zaion intentsitate berarekin tratatzea proposatzen du. Inoiz baino beharrezkoagoa da epe luzeko helburu erabakigarriak lortzen zentratzea eta erakunde maila guztien erantzukizun esparruen artean elkarlanean gobernantza bultzatzea.
- Iraunkortasunerako hezkuntza funtsezko eraldaketa-eragingarri bat da. 2030eko Agendako 4. Garapen Iraunkorreko Helburuak ezartzen du beharrezkoa dela "Inklusiozko, ekitatezko eta kalitatezko hezkuntza bermatzea eta bizitza guztirako pertsona guztientzat ikaskuntza aukerak sustatzea". Helburu hori 2030eko Euskadiren Iraunkortasunerako Hezkuntza Estrategian sartu da, eta azpimarratu egin da kalitatezko hezkuntza pertsonen bizimodua hobetzeko oinarria eta aldarrikatzen dugun giza garapenaren erdia dela.
- Globaletik lokalera eta lokaletik globalera. Lurralde iraunkorra bizi kalitatearen sinonimoa da. Euskal udalerriak errealitate honetaz jabetuta daude, eta 2030erako Udalsarea, Iraunkortasuneranzko Udalerrien Euskal Sarea, tokiko iraunkortasuna koordinatu, dinamizatu eta bultzatzeko foroa da. EAJren iritziz, erakunde arteko elkarlan esparru hori trakzio elementu erabakigarria da, eta ahalegin guztiak norabide berean biltzen ditu, euskal udalerrietan garapen iraunkor oso eta eraginkorra lortzeko.
- Ingurumen politika gizartearekiko konpromiso bat da. Iraunkortasunerantz jotzeak aldaketa bultzatuko duen lidergo politikoa eskatzen du, bai eta jarrera erdugarria ere Administrazioaren aldetik, gardentasuna, partaidetza, emaitzeterako orientazioa, kontu ematea eta sinplifikazioa oinarri hartuta.
- EAJk 2030erako Basque Country Agenda lortzen lagunduko du. Gure baliabide naturalak babestuz eta errespetatuz baino ezin da gizarte oparo, moderno eta aurreratu bat egituratu. Euskadi bikaintasuneko lurraldea izatea nahi dugu bizitzeko, enpresen lehiakortasunerako eta gizartearen bizitza kalitaterako berrikuntza funtsezko faktore izango duten hiri eta herri iraunkorrek osatua. Horrela, ingurumen iraunkortasuna 2030erako Basque Country Agendan txertatzen da osorik.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

01. KONPROMISOA

EUSKADIKO IZADIAREN HOBEKUNTZA BULTZATU, EKOSISTEMEN HONDAMENA GELDIARAZIZ, ETA LURREKO ETA ITSASOKO HABITAT NAGUSIEN EGOERAREN HOBEKUNTZA SUSTATU.

EKINBIDEAK

01

EAJk Natura 2000 Sareko zonaldeen kudeaketa eraginkorra egitea proposatzen du, eragileen arteko komunikazioa sustatuz eta biodibertsitateari dagozkionak beste politika batzuetan txertatuz, bereziki, nekazaritza, arrantza, lurralde antolamendua, azpiegiturak eta turismo iraunkorra jorratzen dituztenetan.

02

Unibertsitatearekin batera, "Izadiari buruzko herritarren zientzia" eta ekosistema zerbitzuen balioztapen sozioekonomikoa bultzatu.

03

Izadian oinarritutako irtenbideen tresnan sakondu. Tresna horrek ekosistemetan eta horiek ematen dituzten zerbitzuetan oinarritzen diren ekintzak bultzatzen ditu, klima aldaketa, elikaduraren segurtasuna edo hondamendi arriskua bezalako desfioei erantzuteko. EAJren helburua 2024rako izadian oinarritutako irtenbideen 10 proiektu lortzea da.

04

Lurzorua Babesteko Euskal Estrategia onartu, eta lurzorua funtsezko baliabidetzat hartzen aurrera egin. EAJren helburua lurzoruko ekosistemek uraren kalitatea erregulatzeko prozesuan, klimaren prozesu globaletan eta antzekoetan ematen dituzten zerbitzuei garrantzia ematea da. Helburua 2024rako lurzoru kutsatuen 400 hektarea berreskuratzea da.

05

EAJk itsas ingurumenaren esparruan Euskadiko eta Estatuko Administrazio publikoen arteko lankidetzak bultzatzea proposatzen du, itsas ekosistemen eta populazioen ikerketa eta ezagutza sustatze aldera.

02. KONPROMISOA

INGURUMENAREN KALITATEAREN HOBEKUNTZA SUSTATU, AIRE ETA UR GARBIAK, ELIKAGAIAK EKOIZTEKO LUR EMANKORRA ETA ENERGIA ETA MATERIALEN SARGAIK KONTUAN HARTUZ, PERTSONEN OSASUNA ETA ONGIZATEA BERMATZEKO FUNTSEZKOAK BAITIRA.

EKINBIDEAK

01

EAJk kutsadura atmosferikoa kontrolatzeko programa bat garatzea proposatzen du, igorpen iturri nagusiak murrizteko, batez ere garraioko nitrogeno dioxidoaren (NO₂) emisioak eta partikulen emisio eta kontzentrazioa (PM 2,5 eta PM 10). Horretarako, lurralde antolamenduko politiketan, hirigintzako plangintzan eta trafikoaren kudeaketan airearen kalitatea sartuko da.

02

EAJk oraindik egin gabe dauden saneamenduko eta ur hornidura eta arazketako oinarriko azpiegiturak osatzea, biztanlegune txikietan saneamenduaren arazoari ekitea eta kutsadura jatorrian murriztea bultzatzea planteatzen du. Saneamenduan Oria, Oka, Deba eta Zadorra ibaien arroetan ekintzak egitea planteatzen da. Horniduran, obrak Urdaibain, Baia garaian eta Subila-Langraizen. Urpean gera daitezkeen lurri buruz, uholdeen aurkako defentsak Galindon, Basaurin, Laudion, Balmasedan, Urumean, Mungian, Gasteizen, Tolosan edo Azpeitian.

03

Zarata kudeatzeko ekintza planak egitea bultzatu udalerrri edo eskualde mailan. Plan horiek herritarrak gehiegizko zarataren mende egotearen prebentziorako lehentasunezko ekintzak jasoko dituzte.

04

Pertsonen osasunaren eta airearen, uraren, zarataren, klima aldaketaren eta berdeguneen kalitatearen artean dagoen erlazio estuaren ezagutzan sakondu.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

03. KONPROMISOA

INGURUMENEAN APLIKATZEKO TRESNA BERRIAK BULTZATU, EUSKAL INGURUMEN POLITIKAREN EMAITZAK, ERAGINA ETA EFIZIENTZIA HOBETZEKO.

EKINBIDEAK

01

EAJk ingurumena ikuskatzeko plan bat bultzatzea proposatzen du, ingurumen eta osasun arloen eta Ertzaintzaren ingurumen unitatearen artean.

02

Foru aldundiekin elkarlanean zerga politika berde oso bat egin behar da. Europar Batasunarekin lerrokatuta. Zerga bilketa areagotzearen jomuga, Europar Batasunaren orientazioen arabera, kutsadura eta hondakinak gutxitzeko inbertsio publikoak egitea izan beharko litzateke, eta klima aldaketaren aurka borrokatzea ere bai.

03

Erosketa publikoen % 40 ingurumen irizpideekin egitea lortu, batez ere azpiegituren, eraikingintzaren eta ekipamenduen plangintza eta garapenean, ibilgailuetan eta mugikortasunean eta energiaren eta horniduren erabileran.

04

Finantza mugimenduak berrikuntza eraldatzaile eta iraunkorretarantz berrorientatzea bultzatu, iraunkortasunera orientatutako ikerketako inbertsioak handituz, batez ere energia, mugikortasun eta elikadura sektoreetan.

05

EAJk finantza sektorearekin elkarlan esparru bat bultzatzea proposatzen du, Europako Inbertsio Bankuan daudenak bezalako inbertsio iraunkorretan finantzaketa lortzea, batez ere ETEei, errazteko.

06

Herritarren gaitzuntasun eta prestakuntza bultzatu, "ingurumen marka" tresna erabiliz kontsumo produktuetan, batez ere nekazaritzako elikaduraren sektorean.

04. KONPROMISOA

INGURUMEN POLITIKA AURRERATUA BULTZATU, “2030ERAKO EUSKADIKO INGURUMENERAKO ESPARRU PROGRAMA” BERRI BAT ONARTUZ, BIODIBERTSITATEA BABESTU ETA BALIOZTATUKO DUEN EKONOMIA BERRITZAILEA, KARBONO GUTXIKOA ETA ZIRKULARRA SUSTATZEKO.

EKINBIDEAK

01

EAJk 2030erako Euskadiko V. Ingurumen Esparru Programa onartu eta abian jartzea proposatzen du, 2030erako Europako Ingurumenerako VIII. Ekintza Programa berriaren ildotik, ingurumen politika garapen-eragile eta planeta osasungarri baten eragile bihurtzeko.

02

“2030erako Ekintzailatza Iraunkorra” programa sortu, foru aldundiekin elkarlanean, enpresa berriak sortzeko eta lanpostu berriak sortzeko aukera iturri delako. Helburua iraunkortasunarekin erlazionaturako ekoizkina edo zerbitzua ematen duten 100 enpresa berriren sorkuntza sustatzea da.

03

EAJk Ingurumen Administrazioaren Lege berri bat proposatzen du Ingurumen Administrazioaren prozedura administratiboa bizkortu eta sinplifikatzeko. Helburua ingurumena modu eraginkorrean babestea lortzea da, ekonomia jarduerak euren ingurunearekin elkargarri eginez.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

05. KONPROMISOA

ARDURAKIDETASUNEAN OINARRITUTAKO INGURUMEN GOBERNANTZA INDARTU, ADMINISTRAZIO GUZTIA BERE EKINTZA GUZTIETAN INGURUMENAREN KUDEAKETA EREDUGARRI ETA ARDURATSUAN LOTZEKO.

EKINBIDEAK

01

EAJk ingurumen politikaren eraginkortasunaz bi urtean behingo ebaluazio txosten bat egitea proposatzen du, tresnen eta inbertsioen balioa eta horien benetako eragina balioesteko.

02

EAJk Euskadik Europako eta nazioarteko ingurumen foroetan parte hartzea indartzea planteatzen du, batez ere ekonomia zirkularren, klima aldaketaren eta tokiko iraunkortasunaren arloetan.

03

2024an 120 "Euskadiko Iraunkortasunerako Eskola" ziurtagirira heltzea, horrela aitortzen baitira ikastetxeko lanak, esperientziak eta kalitatea hezkuntza berrikuntzaz, partaidetzaz eta iraunkortasunaz.

04

"Lanbide Heziketarako 2030erako Agenda Programa" garatu LH arloan berritzaileak diren ikerketa zentroekin eta elkarteekin elkarlanean, heziketa ziklo batzuetan iraunkortasuna berrikuntzarako tresna gisa sar dezaten. EAJren helburua Lanbide Heziketako heziketa arautu eta partzialeko ikasleen % 30ek 2023-2024 ikasturtean programa honetan parte hartzea da.

05

EAJk ingurumen politikaren jarraipena egiteko koordinazio teknikoko mahaia sortzea planteatzen du Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailaren eta foru aldundien artean, bereziki eragonez kudeaketa koordinatuan 2030erako Agenda lokalari, klima aldaketari, hondakinei eta ondare naturalari dagokienez.

06. KONPROMISOA

INGURUMEN ALDAGAIA LURRALDE ANTOLAMENDUAN TXERTATU.

EKINBIDEAK

01

EAJk lurraldearen erabilera iraunkorra bermatzea proposatzen du baliabide turistikoen arloan, horien erabilera eta baliabide naturalen eta ingurumenaren babesa eta antolamendua elkargarri eginez.

02

Landa eremuaren iraunkortasuna bermatu, nekazaritzaren eta ingurumenaren oreka bultzatuz. Lurraldearen antolamendutik nekazaritzarako lurzorua babestuko da, nekazaritza ustiatzearen jarraipenari lagunduko zaio, landa eremuan ekipamenduak eta komunikazioak hobetu eta gizartearen aitortza bultzatuko da, janari-hornitzaile eta lurralde-zaintzaile izateagatik.

03

Lurraldearen kudeaketa iraunkorreko irizpideak plangintzan modu eraginkorrean aplikatzen direla bermatu, ingurumenerako efektu global positiboa sortuz. EAJk hiru urtean behingo jarraipen txosten bat egitea planteatzen du: "Lurralde Antolamendua eta Ingurumena Euskadin", ingurumenaren aldagaiak aztertzeko, hots, klima aldaketa, lurzorua, ur baliabideak, ondare naturala, baliabide estetiko-kulturalak (paisaia eta kultura ondarea), hondakinak eta kutsadura, arrisku naturalak eta giza habitata.



EKONOMIA ZIRKULARRA

HONDAKINEN % 60 BAINO
GEHIAGO BIRZIKLATZEA.

- Mundua erritmo izugarrian aldatzen ari da. Laugarren iraultza industrialak deitzen zaiona da, eta garapen teknologikoan egindako jauzi kualitatibo bat izateaz gain behar bat planteatzen du, alegia, hazkunde ekonomikoa eta baliabide materialen kontsumoa desakoplatzea. EAJ-ren ustez, horrek negozio-eredu berriak sortzeko aukerak eskainiko ditu, baita kalitatezko enpleguak sortzeko aukerak ere, kontuan hartuta, gainera, 2050erako espero dela munduak 9.000 milioi biztanle izatea.
- EAJk aurrera egin nahi du eredu zirkular berri baterantz. Ekonomia zirkularrean, produktu eta materialen bizi-zikloa ahalik eta denbora luzeenez mantentzen da; hondakinak ahalik eta gehien murrizten dira; eta baliabideak behin eta berriz sartzen dira ekoizpen-zikloan. “Erauzi, ekoiztu, erabili eta bota” eredutik “murriztu, berrerabili eta birziklatu” eredura pasatzea da, prebentzioa eta berrerabilpena hitz funtsezkoenak izanik.
- Ekonomia zirkularra zeharkakoa da, eta funtsezkoa da Europa eta Euskadiren lehiakortasunerako. Ekonomia zirkularreko eredu batean ez da ezer ere alferrik galtzen, eta, hortaz, positiboa da ekonomia, ingurumen eta negozioentzat. Europak estrategia hori gidatzen du, Europar Batasunaren Ekonomia Zirkularreko Ekintza Planaren bidez eta Ekonomia Zirkularreko Paketearen bitartez; aldi berean, bioekonomia, elikagaien xahuketaren murrizketa eta plastikoen estrategia ere bultzatzen ditu.
- Europako Batzordeak garatu dituen metodoek -produktuaren ingurumen-aztarna (PEF) eta erakundearen ingurumen-aztarna (OEF)- ingurumen-adierazpen fidagarri, errepikagarri eta alderagarriak egitea ahalbidetzen diete enpresei. EAJ-PNVk planteatzen du Euskadik jarraitu dezala metodo horien ezarpena sakontzen.
- EAJk proposatzen du ekonomia zirkularrera zuzendutako trantsizio hori Europan gidatzea. Euskadik bere materialen % 70 inportatzen du, eta gure kontsumoaren % 13 hondakin gisa amaitzen da. Gure sektore industrialak 21 milioi tona lehengai kontsumitzen ditu urtean, eta horietatik % 77 inportatuak dira. Lehengaiak enpresen osoko kostuen % 61 dira. Horrenbestez, ekonomia zirkularrera zuzendutako trantsizio irmoak zuzeneko igoerak ekartzen dizkio enpresen lehiakortasunari. Uste dugu ekonomia zirkularra behar bat dela, baina batez ere aukera bat.
- Euskadi jadanik ari da desakoplatzen hazkunde ekonomikoa materialen kontsumotik. 2000. urteaz geroztik, euskal ekonomia % 26 hazi da; garai berean, materialen kontsumoa % 25 jaitsi da, eta zabortegetan amaitzen diren hiri-hondakinen bolumena % 56 murriztu da. Gure ekonomia materialen kontsumotik desakoplatzen ari da, ekonomia zirkularreko neurriak bultzatzearen bitartez. Hori da bidea, eta EAJk abiadura azkartzea planteatzen du.
- 240 euskal enpresa baino gehiago jadanik aplikatzen ari dira praktika edo eredu zirkularrak. Sektore industrialak ekonomia zirkularrago eraldaketaren zutabea, zeren bera baita material gehien kontsumitzen dituen eta hobe-kuntzarako aukera nabariak dituen, praktika hauei lotuta: ekodiseinua, birmanufaktura eta konponketa aurreratua, serbituzioa eta metal eta plastikoen berreskurapena.
- Nekazaritzako elikagaien sektoreak, bioekonomiak eta eraikuntza sektoreak ere badute potentzial handia Euskadiko ekonomia zirkularrari laguntzeko, batez ere elikagaien alferrikako galera murrizteari eta lehengai berriztagarriak txertatzeari dagokionez.
- Halaber, ekonomia zirkularreko eredu-daraman trantsizioak funtsezko rola jokatzen du Parisko Akordioan –“Klimarako Ekintza”- ezarritako helburuak lortzeko. Eredu zirkularrago bat, batez ere metal, plastiko, biomasa eta zementuaren moduko materialetan kasuan, funtsezkoa da berotegi-efektuko gasen emisioak murrizteko. EAJren ustez, ekodiseinua modurik onenetako bat da hornidura energetikoa bermatzeko eta, aldi berean, berotegi-efektuko gasen emisioak murrizteko.
- EAJk proposatzen du Euskadiko Ekonomia Zirkularreko 2030erako Estrategian jasotako helburuak bultzatzea. Ezarritako helburuak handinahiak dira, baina oso beharrezkoak ere bai. Produktibitate materiala % 30 handitzea, material zirkularreko erabilera-tasa % 30 igotzea eta BPGaren unitate bakoitzeko sortzen diren hondakinen tasa % 30 murriztea. Gainera, elikagaien alferrikako galera erdira murrizteko konpromisoa ezartzen da, eta, halaber, plastikozko ontzien % 100 birziklagarriak izatea lortzea.
- EAJren ikuspuntutik, eragileen arteko lankidetzak (Administrazioa, enpresak, Ikerketa eta Teknologia zentroak, Unibertsitatea) palanka nagusietako bat da ekonomia zirkularreko erronkei heltzeko eta haren aukera mardulak aprobetxatzeko.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

1. KONPROMISOA

GAZTE ETA PROFESIOALEN PRESTAKUNTZA BULTZATZEA EKONOMIA ZIRKULARRAREN ALORREAN, PRESTAKUNTZA ARAUTURA ZUZENDUTAKO NEURRIAK TXERTATUZ, BAI UNIBERTSITATEAN ETA BAI LANBIDE HEZIKETAN, ETA BAITA JARDUNEAN DAUDEN PROFESIOALEN PRESTAKUNTZA EZ-ARAUTURA ZUZENDUTAKO NEURRIAK ERE TXERTATUZ.

EKINBIDEAK

01

EAJK proposatzen du Enplegu Programa bat abiatzea Ekonomia Zirkularraren alorrean, Europakoarekin bat etorritik. Gure helburua da ekonomia zirkularrari lotutako 1.000 lanpostu berri sortzea 2024. urterako.

02

Euskadiko Ekonomia Zirkularraren Huba abiatzea (ekonomia zirkularrari buruzko ezagutza, prestakuntza eta ekintzaziletza Zentroa) 100 ikaslerentzat urtean.

03

EAJK planteatzen du ekonomia zirkularrari buruzko prestakuntza-programa bat ezartzea, Unibertsitatearekin eta LHko zentroekin batera, gazteen enplegagarritasuna bultzatzeko. Gure konpromisoa da 2024an 3 Unibertsitatek eta Lanbide Heziketako 10 ikastetxek parte hartzea programa honetan.

04

Ekonomia zirkularraren hedapena eskualde mailan bultzatzea, Garapen Agentziekin batera. EAJren helburua da hedapena eskualdeen % 50ean bultzatzea, diagnostiko batez eta ekintza-plan batez.

2. KONPROMISOA

BERRIKUNTZA ZIRKULARRA EKIMEN PUBLIKOTIK SUSTATZEA EUSKADIN, LEHIAKORTASUNAREN MOTOR GISA, BAITA HAZKUNDE JASANGARRIA ERE, DISEINUA ETA EKOIZPEN-PROZESU ZIRKULARRAK SUSTATUZ.

EKINBIDEAK

01

EAJk proposatzen du ekonomia zirkularra integratzea zientzia, teknologia eta berrikuntzaren 2030erako Planaren fabrikazio aurreratuaren eta energiaren lehentasunezko arloetan, baliabide naturalen erabilera optimizatzeko eta ingurumen-inpaktuak murrizteko, produktu edo zerbitzuen berrikuntzaren bitartez.

02

Euskadiko Bioekonomiaren 2030rako Estrategia abiatzea, sailen eta instituzioen arteko elkarlanaren bitartez, material berriztagarriak ekoizpen-prozesuetan txertatzen laguntzeko.

03

Euskal enpresen eskaintza bultzatzea teknologia garbien eta produktu berriztaileen alorrean. EAJren helburua da teknologia garbien zerrendaren eskaintzaren gutxienez % 50 euskal enpresetatik etortzea.

04

Ekoberrikuntzaren aldeko programa bat garatzea euskal enpresan, produktuen ekodiseinua eta materialen erabileraren efizientzia sustatuz. EAJren helburua da enpresa-berrikuntzako gutxienez 250 proiektu finantzatzea 2024an, eta etiketa ekologikoa duten produktuen fakturazioa 10.000 milioitik gorakoa izatea 2024an.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

3. KONPROMISOA

KONTSUMO ZIRKULARRAGOAREN ALDE EGITEA, HONDAKINAK MURRIZTEKO ETA HAIEN BIRZIKLAPEN ETA BALORIZAZIOA HANDITZEKO.

EKINBIDEAK

01

EAJk planteatzen du elikagai-hondakinen sorrera % 30 murriztera zuzendutako proiektuak bultzatzea; hondakin horiek nekazaritzako elikagaien katetik kanpo uzten dira, baina giza kontsumorako egokiak izaten jarraitzen dute, eta, erabilera alternatiborik ez dutenez, azkenean hondakin gisa ezabatzen dira.

02

Bigarren eskuko produktuen bilketa eta konponketa udalerrri eta eskualde mailan sustatzea, produktuaren bizitza luzatzeko xedez.

03

Borondatezko akordio bat abiatzea sektore pribatuarekin, ekonomia zirkularreko irizpideak haren erosketa eta kontratazioan integratzeko. Helburua da akordio hori gutxienez 20 enpresarekin lortzea.

04

Europak ezarritako helburuekin bat etorritik, EAJk proposatzen du eragile nagusiak integratzen dituzten ekintzak bultzatzea 2024an helburu hau lortzeko: kontsumitzen diren plastikozko ontzien % 75 birziklagarria izatea.

4. KONPROMISOA

ENPRESEN MATERIALEN EFIZIENTZIA % 30 HANDITZEA, PROZESUEN HOBEKUNTZA ETA EKOIZPEN-EREDU BERRIEN GARAPENA (DIGITALIZAZIOA ETA AUTOMATIZAZIOA) BULTZATUZ ETA ZERBITZUETAN OINARRITUTAKO EKONOMIAK SORTUZ.

EKINBIDEAK

01

EAJk planteatzen du produktu industrialen, nekazaritzako elikagaien eta eraikuntzako produktuen ekodiseinua indartzea, produktuen ingurumen-inpaktua bizi-ziklo osoan ebaluatzeko irizpideak diseinuaren fasean txertatuz. Gure helburua da produktu eta erakundeen 100 ingurumen-aztarnara iristea.

02

Basque Ecodesign Center bultzatzea enpresa nagusiak eta enpresa-klusterrak biltzen dituen erakunde gisa, Europako erreferentziazko Zentro gisa posizionatu dadin balio-katearen trakzioaren alorrean.

03

“ETE zirkularra” izeneko sostengu-programa bat abiatzea, ekodiseinuko ikuspegi berritzaileak sustatzeko eta enpresa horiei aukerak eskaintzeko, baliabideak efizientziaz erabiltzen dituzten produktuetan espezializatutako hornitzaile gisa. Gure helburua da 100 ETE mobilizatzea 2020. urterako.

04

EAJk proposatzen du birmanufaktura euskal industrian bultzatzea, batez ere energia eta berriztagarrien sektorean, automobilgintzan, ekipoetan eta makina-erremintan, erabilitako produktu edo osagai bati beraren jatorrizko funtzio eta ezaugarriak itzuli dakizkion. Helburua da lortzea gutxienez 70 euskal enpresak negozio-ildo hori bultzatu dezatela.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

5. KONPROMISOA

HONDAKINEN KUDAKETA ETA MATERIALEN BERRERABILPENA HOBETZEA.

EKINBIDEAK

— EAJk proposatzen du kudeaketa publikoko Zentro bat abiatzea hondakin industrial ez-arriskutsuen (material sekundarioak) biltegiatze, egiaztapen eta balorizaziorako.

Zentro honek kudeaketa publikoa izango du, eta ingurumen sailak eta industria sailak kudeatuko dute modu koordinatuan.

Zentro horretan hondakin industrialen kudeaketa-katearen fase guztiak gauzatuko dira:

01

- Gaikako bilketa eta aurretiko oinarrizko karakterizazioa
- Deskontaminazioaren kontrola
- Birziklatu edo balorizatu daitezkeen hondakinak sailkatzea eta bereiztea.
- Balorizatu daitezkeen hondakinak –Europako hondakin zerrendaren arabera (LER)- baimendutako enpresa kudeatzaileen esku uztea, haien balorizaziorako.

Ikerketa-proiektuak garatuko dira euskal zentro teknologikoekin, hondakin industrialen aprobetxamendua hobetzeko eta balorizatu daitezkeen hondakin europar zerrenda handitzeko.

Ekonomia zirkularra euskal enprekin bultzatzeko programak sustatuko dira, hondakin sorrera ahalik eta gehien murrizteko.

02

— EAJk planteatzen du “hondakin industrialen isurketaren gaineko kanon” bat ezartzea. Kanonak izaera finalista izango luke, eta ikerketa-programa eta –proiektutara zuzenduko litzateke, hondakin industrialen kudeaketa optimizatzeko eta ekonomia zirkularra, ekodiseinua eta ekoberrikuntza enpresetan bultzatzeko xedez, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren 2030erako Planarekin bat etorritz.

Isurketen gaineko kanon edo tasaren ezarpenak 2 urteko moratoria izango du, enpresei errazteko hondakin gutxiago sortzen dituen ekoizpen-eredu baterako trantsizioa. Ekonomia zirkularreko eredu ezarpena egiaztatzen duten enpresek diru-laguntza jaso ahal izango dute isurketen gaineko tasa osoa edo zati bat ordaintzeko, baldin eta eredu horiek hondakinak murrizteko helburu konkretu eta kuantifikagarriak ezartzen badituzte.

03

— EAJk proposatzen du birziklapenaren sektorea sostengatzea, Foru Aldundien lankidetzarekin, Euskadiko Hondakin Planaren helburuak betetzeko. Gure helburua da Eraikuntza eta Eraispenerako Hondakin (EEH) birziklagarritasuna % 75eraino igotzea 2024. urterako.

04

Aurreko tratamendurik gabeko hiri-hondakin primarioen zero isurketarantz aurrera egitea eskualde mailan.

05

Erabilera bakarreko plastikozko poltsa ez-birziklagarri guztiak ezabatzea. EAJren helburua da Euskadin ekoizten diren plastikozko ontzi guztiak birziklagarriak izatea.

06

Materia organikoa jasotzeko “bosgarren edukiontzia” orokortzea, eta horri lotuta materia horren tratamendurako gune espezifikoak abiatzea.

07

Ekoizlearen erantzukizun hedatua (EEH) ehungintza eta prentsako produktuetara hedatzea, Europar Batasuneko hondakinen Esparru-zuzentarauarekin bat etorritz eta hondakinen berrerabilpen, birziklapen eta balorizazioa hedatzeko xedez.

08

EAJk proposatzen du erosketara publiko berdea sustatzea. Horri begira, gutxieneko erabilera maila bat ezarriko da material birziklaturako, obra publikoan.

09

Lankidetzara publiko-pribatuko proiektuak garatzea balorizatzeko aukera handiagoak dituzten produktuen tratamendu integralerako azpiegituren kudeaketarako, batez ere plastikoaren tratamendu integralerako eta galdaketako hondarren balorizaziorako.



EUSKAL EUROESKUALDEA

150 LANKIDETZA-PROIEKTU BULTZATZEA
EUSKADI-NAFARROA-AKITANIAREN EREMUAN.

- Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa, Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa konpartitutako errealitate historiko baten partaideak dira, hots, Euskal Herriaren partaideak. Gaur egun, errealitate konpartitu hori hiru errealitate politiko-administratibotan dago egituratuta. EAJK planteatzen du, errealitate instituzional horren errespetutik, Euskal Herriko Lurraldeen arteko harremanak indartzea.
 - Mugaz gaindiko esparruko herritarrek izan behar dute lankidetzaren onuradun nagusiak; horretarako, EAJK herritarrengandik gertuen dauden alderdiak bultzatu nahi ditu, hala nola kultura, elea-niztasuna eta euskara, prestakuntza, enplegua edo mugikortasuna.
 - EAJK maila anitzeko gobernantza-eskema bat inplementatzearen alde egin nahi du, mugaz gaindiko lurralde hurbiletako instituzioek parte hartu dezaten. Horri dagokionez, formula berriak garatzeko konpromisoa hartzen dugu Lurralde Historikoetako instituzioak, tokiko erakundeak eta mugaz gaindiko eragileak Euroeskualdearen gobernantzari atxikitzeko.
 - Mugaz gaindiko esparruan, Iparraldearekiko harremanak sendotu eta sakontzeaz gain, EAJK uste du beharrezkoa dela Euskadi-Nafarroa-Akitania Berria Euroeskualdearen aldeko apustua indartzea.
 - Nafarroa 2016an atxiki zitzaion Euroeskualdeari, Akitania Berriarekin eta Euskadirekin bat eginez, eta atxikimendu horrek oso tresna baliagarria eskaintzen digu Euroeskualdeko esparruaren eta euskal lurraldeen kohesio ekonomiko eta sozialean sakontzeko.
 - Euskadi-Nafarroa-Akitania Berria Euroeskualdeak masa kritiko, potentzial eta anbizio nahikoak ditu lidergo rol bat bereganatzeko Europar Batasuneko esparru atlantikoan.
 - Euroeskualdearen 2020rako Plan estrategikoaren inplementazioa emaitzak hasi da ematen, eta gero eta eragile gehiago daude inplikaturik mugaz gaindiko lankidetzaren proiektuetan, besteak beste alor hauetan: gazteria, kultura, lehiakortasuna eta enplegua. EAJren ustez, egokia da dinamika hori indartzea eta bertara hainbat sektoretako eragile publiko eta pribatuak ekartzen jarraitzea.
- EAJK indartu nahi du Iparraldearen eta Hegoaldearen artean gaur egun dagoen harremana, eta horri begira aprobetxatu nahi du Eusko Jaurkitzak eta Iparraldeko Euskal Hirigune Elkargoak 2019ko urriaren 7an sinatu zuten Memorandumaren garapena lankidetzaren esparru horretan sakontzeko.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

1. KONPROMISOA

MUGAZ GAINDIKO LANKIDETZA IREKIAGOA ETA PARTE-HARTZAILEAGOA BULTZATZEA.

EKINBIDEAK

01

EAJk planteatzen du urteko Topaketa-foro bat antolatzea mugaz gaindiko lankidetzan inplikaturako instituzio eta eragileen parte-hartzearekin, garrantzi berezia emanez Iparraldeko Mankomunitateari eta Gipuzkoako Foru Aldundiari.

02

Lankidetzeta-foro bat bultzatzea Euroeskualdeko hiri nagusien parte-hartzearekin.

2. KONPROMISOA

PRESTAKUNTZA ETA ENPLEGUA MUGAZ GAINDIKO EREMUAN INDARTZEA.

EKINBIDEAK

01

EAJk proposatzen du mugaz gaindiko lanbide-heziketa, prestakuntza eta praktikak bultzatzea gazteentzat, bai unibertsitate mailan eta bai lanbide-heziketa mailan, ikasleen mugikortasuna sustatzeko truke eta beken bitartez.

02

Euroeskualdeko hizkuntzak –batez ere euskara- modu gradualean ikasteko plan bat abiatzea, gazteei zuzenduta.

03

EAJk planteatzen du lankidetzaren hitzarmenak sustatzea Euroeskualdeko unibertsitateen artean, eta batez ere Iparraldekoekin.

04

Erreferente komun bat ezartzea konpetentziak hezkuntzaren munduan ebaluatzeko.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

3. KONPROMISOA

NAFARROA ETA IPARRALDEAREKIKO LANKIDETZA KULTURAREN ALORREAN INDARTZEA.

EKINBIDEAK

01

EAJk proposatzen du euskarazko jarduera kulturalak bultzatzeko programa berri bat garatzea.

02

Mugaren alde banatan euskaraz arduratzen diren instituzio eta erakundeen arteko lankidetzaz sustatzea.

03

Mugaz gaindiko kirol jarduera berrien antolakuntza bultzatzea.

04

Ikuskizun artistiko eta kulturalen ipar-hego koprodukzioa sustatzea.

4. KONPROMISOA

MUGAZ GAINDIKO ETA EUROESKUALDEKO LEHIAKORTASUNA ETA BERRIKUNTZA SOSTENGATZEA.

EKINBIDEAK

01

EAJk proposatzen du mugaz gaindiko jarduera industrial eta berritzailea dinamizatzen duten eragileen arteko lankidetzak estrategikoak indartzea.

02

Mugaz gaindiko proiektu berritzaileak sostengatzea Euroeskualdeko espezializazio adimendunaren estrategien espezializazio-eremu komunetan, arreta berezia zuzenduz Iparraldeko eragileei.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

5. KONPROMISOA

EUSKAL EUROESKUALDEAREN LURRALDE ANTOLAMENDURAKO POLITIKA INTEGRATU BAT GARATZEA.

EKINBIDEAK

01

EAJk Iparraldearekin modu aktiboan kolaboratzeko ildo bat planteatzen du, Natura 2000 sarearen perimetroa mugan zehar hedatzeko.

02

Oraingo ondare geologikoa segurtatzea, lankidetzaproiektuen bitartez.

6. KONPROMISOA

EUSKADIREN ETA EUROESKUALDEAREN PARTE-HARTZE AKTIBOA INDARTZEA PIRINIOETAKO LAN ELKARTEAN.

Konpromiso hau garatzeko, EAJk honako ekinbide hauek planteatzen ditu:

EKINBIDEAK

01

Bermatzea Euskadik parte hartuko duela Espainia-Frantzia-Andorra Lankidetzarako Programa Eragilean (POCTEFA).

02

Pirinioetako Estrategia abiatzearen alde egitea.



EUSKADI- BASQUE COUNTRY

2.500 EUSKADI BASQUE COUNTRY
NAZIOARTEKOTZE EKINTZA EGIN.

- Euskadi Basque Country atzerrian posizionatzea eta proiektatzea herrialde-erronka bat da oraindik ere. EAJren aburuz, posizionamendu egoki batek enpresa-, kultura- eta erakunde-mailako nazioartekotze-proiektuak hedatzea errazten du eta Europako zein nazioarteko eremuan erakartzeko eta eragiteko aukerak gaitasuna zehazten du. Ziurtasun, tradizio eta erantzukizunagatik, Euskadi eragile globala bihurtu nahi dugu, nazioarteko agendaren erronkekin eta integrazio-prozesu europarrarekin konprometuta dagoena.
- Euskadi Basque Country atzerrian posizionatu eta proiektatzeko, estrategia argia eta xehea behar da, gaitasun eta esfortzu publiko eta pribatuak uztartu –auzolana– eta berezko balio eta indarguneetan oinarritutako marka-herrialde bat. Koherentzia indartzeko eta gure atzerriko proiektuak eragin handiago emateko, beharrezkoa da Euskadi Basque Country nazioartekotzeko esparru-estrategiaren ezarpenean aurrera egitea; hori zeharkakoa eta sektore anitzekoa izango da eta lehentasuneko herrialdeen inguruan zentratuko da. Hala, horren inguruan elkartu behar dira herrialdeko erakunde nagusiak eta eragile publiko zein pribatuak.
Nation branding herrialde baten nazioartekotzerako lehen mailako tresna bat da; zentzu horretan, Euskadi Basque Country markaren aldeko apustua berresten dugu, kanpoaldera begira aurkezpen-gutun eraginkorra eta ezaguna izan dadin.
- Euskadi atzerrian proiektatzeko, aliantzak ehundu behar dira ad-intra, hau da, euskal eragileen artean eta, ad-extra, hau da, nazioarteko eragileekin. Mundu mailako erabakiguneekin, pentsamendu-gune nagusiekin eta berrikuntza-nodoekin konektatuta egon behar gara. Horregatik, EAJK uste du beharrezkoa dela alde biko harremanak eta aliantzak indartzea eta handitzea Euskadirentzat estrategikoak diren Europar Batasuneko zein batasunetik kanpoko bazkideekin eta, noski, hertsiki lan egiten jarraitzea kanpoan bizi den euskal erkidegoarekin.
- Euskal kanpo-agenda hertsiki lotuta egon behar da konpromiso globalekin eta, bereziki, Nazio Batuen 2030 Agendarekin; izan ere, guztiz ados gaude horrek giza garapen jasangarri baterantz aurrera egiteko adierazten duen proposamenarekin. Jarrera erakitzailea, proposatzailea eta aktiboa ezinbestekoa da gure ahotsa eztabaida globaletan entzun dezaten: 2030 Agenda, klima-aldaketa, migrazioak, gizonen eta emakumeen berdintasuna, giza eskubideak, etab.
- EAJ Europar Batasunaren eraketa-tratatuetan jasotako “Europako herrialdeen arteko batasun gero eta estuago baterantz” aurrera egitearen alde dago. Integratutako Europaren zilegitasuna lortzeko, eskumen politikoak eta lege-gileak dituzten estaturik gabeko nazioak eta estatuaren azpiko erakundeak Europaren gobernantzan txertatu behar dira. Hortaz, Euskadiren eta estaturik gabeko gainerako nazioen parte-hartzea defendatzen dugu EBren gobernantzan “elkartutako eskualdeen” estatusarekin, ahotsa izango dutenak funtsezko erabakietan, beti jokatzuz erantzukidetasun-ikuspegi batetik.
- Europar Batasun oparo eta lehiakor baten alde egiten dugu, gizarte-osagai argia duena, mundura irekita dagoena, multilateralitatearen defendatzailea eta solidarioa dena eta bere dibertsitateaz harro dagoena. EAJK uste du beharrezkoa dela aurrera egitea Europako espazio atlantikoaren integrazio ekonomikoan eta gizarte-integrazioan, sinergiak baliatzeko eta periferia-efektua arintzeko, Brexitarekin hori areagotu daitekeelako.
- Euskadi herri migratzailea izan da eta da gaur egun. Euskal Etxeen sare handia daukagu 25 herrialde desberdinetan, egungo migrazio-mugimenduak beste norako batzuetara doazen eta atzerriko euskal erkidegoa erakitzeke modu berriak eratzen dituzten bitartean. EAJren konpromisoa da Euskadik atzerriko euskal erkidegoarekiko duen lotura estutzen jarraitzea eta benetako euskal erkidego global bat artikulatzea, diaspora tradizionala eta berria lotzen dituen.
- Kanpo-ekintza eraginkorrak, nabarmenagoak eta zehatzagoak tresna bereziak behar ditu. Ildo horretatik, EAJK proposatzen du Euskadiren atzerriko Delegazioen erakunde-sarea handitzea, lehentasuneko herrialdeetan zuzeneko presentzia edukitzeke.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

1. KONPROMISOA

EUSKADI BASQUE COUNTRY MARKAREN PROIEKZIOA ATZERRIAN.

EKINBIDEAK

- Euskadi Basque Country nazioartekotzerako esparru-estrategiaren berebiziko papera indartu. Ekinbide honi erantzuteko, EAJk jarduketa hauek garatzea proposatzen du:
- 01**
- “Euskadi Basque Country 2025” Estrategia definitu, sektore anitzeko ikuspegi parte-hartzaile batekin.
 - “Euskadi Basque Country 2025” Estrategiaren inguruko koordinazioa eta lankidetzeta indartu, bai Eusko Jaurlaritzaren barruan, bai nazioartekotzerako erakundeekin eta euskal ekosistemako eragileekin, funtsean, foro hauen bitartez: Sail arteko batzordea; erakunde arteko batzordea eta Kanpo Harremanetarako Aholku Batzordea.
- Euskadi Basque Country markaren kanpo-posizionamendua indartu. Ekinbide honi erantzuteko, EAJk jarduketa hauek garatzea proposatzen du:
- 02**
- Nazioartekotzerako esparru-estrategiarekin lerrokatutako “Euskadi Basque Country” marka-herrialdearen kanpoko sustapenerako plan operatibo bat diseinatu. Kontua da beharrezko giza baliabideak eta baliabide materialak egokitzea hori ezartzeko eta horren abiaraztea nazioartekotzerako euskal sistemarekin batera koordinatzea.
 - Euskadi Basque Country ekonomia-funtsa eratzea, sektore anitzeko eta eragineko jarduketak finantzatzeko marka herrialdearen kanpoko sustapenerako.
 - Euskadi Basque Country (EBC) markarekin lotutako EBC Eguna, EBC laguna edo EBC webgunea bezalako ekimenen arteko sinergiak indartu. Proposatzen da ekimen horiek marka-herrialdea posizionamendu-plan operatiboarekin konektatzea. Gainera, Basque Global Network Sarearen potentziala baliatu.
 - Foru aldundiek eta udalek Euskadi Basque Country marka atzerrian sustatzeko esfortzuarekin bat egitea sustatu.
- Euskadiren atzerriko delegazioen erakunde-sarea indartu eta handitu. Nazioartekotzerako esparru-estrategiaren lehentasun geografikoekin bat eginez, EAJk proposatzen du Euskadiren atzerriko delegazioen sarea handitzea, arreta berezia jarritz Europan.
- 03**

2. KONPROMISOA

MUNDUAN EUSKAL INTERESAK SUSTATU ETA BULTZATU.

EKINBIDEAK

- Gure interesak atzerrian sustatzeko aliantzak finkatu eta handitu.
Ekinbide honi erantzuteko, EAJk jarduketa hauek garatzea proposatzen du:
 - Bazkide estrategikoen sarea indartu, kide berriak sartuz eta alde biko zein alde anitzeko lankidetzak-proiektuak garatuz.
- 01 ■ Lehentasunezko herrialde eta eskualdeetako erakundeekiko eta agintariekiko harremanak indartu, baita Estatuan dituzten ordezkariak diplomatikoez harremanak ere.
 - Harremanak areagotu nazioarteko erakunderik eta lankidetzak-sarerik garrantzitsuenekin, euskal eragile publiko eta pribatuak posizionatzeko eta gure aktibo bereizgarriak ezagutzera emateko.
- ■ Erreferentziarako Think tanks-ekiko eta iritzi-guneekiko harreman egonkorak sustatu.
- Nazioartekotzerako euskal ekosistemaren kanpo-proiektzioa
Ekinbide honi erantzuteko, EAJk jarduketa hauek garatzea proposatzen du:
 - Euskal eragileek nazioarteko ekitaldi eta foro nagusietan parte hartzea eta presentzia aktiboa edukitzea sustatu.
- 02 ■ Aukerak identifikatu, funtsean, honela: Euskadiren delegazio-sarearen bidez, hirugarrenekiko aliantzen bidez (herrialdeak, eskualdeak, nazioarteko erakundeak eta *Think Tanks*) eta nazioarteko sare eta foroetan parte hartuz.
 - Euskal eragile publiko eta pribatuak aholkatu eta lagundu haien nazioartekotze-proiektuen hedapenean.
-

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

— Euskal erkidego globala eratu. Ekinbide honi erantzuteko, EAJk jarduketa hauek garatzea proposatzen du:

03

- Euskal Etxeen sarea indartu laguntza-programa desberdinen eta ekimen zehatzen bidez. Gazteriarekin lan egiteko berariazko plana, belaunaldi-erreleboa eta kultur transmisioa bermatzeko.
- Gaur egun existitzen den Euskal Etxeen egituraren osagarri gisa, Basque Global Network sare birtuala indartu, elkarrekintza bultzatzeko orain arte sakabanatuta eta deskonektatuta egon diren atzerriko euskal erkidegoko gazte eta pertsonekin.
- Atzerriko euskal erkidego desberdinen hitzordu eta ekitaldirik garrantzitsuenak babestu, gure kulturaren, nortasunaren eta irudi-herrialdearen erakusleihoa direlako atzerrian.
- Euskal emigrazio berriaren mapa bat ezarri “euskal diaspora berrira” egokitutako arreta-politikak diseinatzeko.

— **Arreta eman atzerriko euskal erkidegoan ahultasun-egoeran dauden pertsonei.**
EAJk proposatzen du ekinbide honi jarduketa hauen bidez erantzutea:

04

- Atzerriko euskal erkidegoan ahultasun-egoeran dauden pertsonei arreta emateko planak eta jarduketak garatu.
- Itzultzea erabakitzen duten atzerriko euskal erkidegoko pertsonak aholkatu, eskuragarri dituzten programen eta ekimenen berri emanez.

— **Euskal migrazio-errealitatea hedatu.**
Ekinbide honi erantzuteko, EAJk jarduketa hauek garatzea proposatzen du:

05

- Euskal Diasporaren Artxiboa finkatu eta aberastu eta diasporaren eta migrazio-esperientziaren ezagutza hobean sakontzen duten azterlanak eta jarduerak sustatu.
- Euskal Diasporaren Eguna ezarri euskal gizartearen eta atzerriko erkidegoen arteko lotura indartzeko erreferentziazko data gisa.

3. KONPROMISOA

GARAPEN IRAUNKORRERAKO ERRONKA GLOBALAK GAINDITZEN LAGUNDU. 2030 AGENDA.

EKINBIDEAK

- “Euskadi Basque Country 2030 Agendaren” bidez, 2030 Agendarekiko eta Garapen Iraunkorreko 17 Helburuekiko lerrokatze estrategikoa finkatu.
EAJk proposatzen du ekinbide honi jarduketa hauek garatuz erantzutea:
 - Nazio Batuen 2030 Agendaren inguruko difusioa, sentsibilizazioa eta prestakuntza zabaldu, arreta berezia jarriz gazterian eta hezkuntza- eta enpresa-eremuetan.
 - Aliantzak eta lankidetzak ehundu nazioarteko erakunde eta eragileekin, oro har, 2030 Agenda eta, zehazki, Euskadi Basque Country 2030 Agenda ezartzeko esperientzien inguruan.
 - Euskadi Basque Country 2030 Agendaren nazioarteko sustapena hedatu, arreta berezia jarriz Nazio Batuek antolatutako topaketa-foreetan.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

4. KONPROMISOA

EUSKADIK PROIEKTU EUROPARREAN LAGUNDU.

EKINBIDEAK

- Parte-hartze aktiboa Europaren gobernantzan.
Ekinbide honi erantzuteko, EAJk jarduketa hauek garatzea proposatzen du:
 - 01 ■ Eskumen legegileak dituzten eskualde eta nazioen sare bat eratu, Europaren gobernantzan “elkartutako eskualdearen” berariazko aitortpena lortzeko helburua duena.
 - ■ Euskadiren zuzeneko parte-hartzea eskatu, Espainiako Gobernuarekiko harremanen esparruan, euskal autogobernuari eragiten dioten Europar Batasunaren kontseilu guztietan.

- Euskal parte-hartzea maximizatu EBren ekimenetan.
Ekinbide honi erantzuteko, EAJk jarduketa hauek garatzea proposatzen du:
 - 02 ■ Euskal eragileak informatu, aholkatu eta lagundu, EBko programa eta ekimenetan parte har dezaten bultzatzeko, bereziki, eraldaketa demografiko-sozial, teknologiko-digital eta energetiko-ekologikoarekin lotutakoetan.
 - ■ Ezagutzera eman Euskadin politika publikoen arloan dauden jardunbide egokiak (lehiakortasuna, lanbide-heziketa, lankidetzaren deszentralizatua, berdintasuna...) eta Europar Batasunean euskal autogobernuaren eremuetan garatutako jardunbide egokiak identifikatu.

- Makro eskualde atlantiko baterantz igarotzea bultzatu.
 - 03 ■ Europar Batasuneko estatuetakoa eta lurralde atlantikoetako gobernuen borondateak bildu makro-eskualde atlantikoaren estrategia baten onospena bultzatzeko, eragile publiko eta pribatuen arteko lankidetzaren eta horren integrazio ekonomikoa eta gizarte-integrazioa indartuko dituen.

— Hurrengo hamarkadarako plan estrategiko europarren lanketan eta garapenean lagundu. Ekinbide honi erantzuteko, EAJk jarduketa hauek garatzea proposatzen du:

04

■ Europa 2021-2028 Horizontea programa berriaren diseinuan eta ezarpenean parte hartu, arreta berezia jarritz Europar Batasunaren Berrikuntza Kontseiluan eta garatu beharreko berrikuntzako lankidetzaz hitzarmen berrietan.

— ■ Jasangarritasunerako eta trantsizio energetikorako lankidetzaz hitzarmenak berritu eta eguneratu, gizarte zibilaren parte-hartze aktiboa bultzatuz.

— Brexitak Euskadin duen eragina gutxitu.

Ekinbide honi erantzuteko, EAJk jarduketa hauek garatzea proposatzen du:

05

■ Brexitarren Segimendu-batzordearen lana indartu, uneoro aztertze eta ezartzeko jarduketa egokiak, Brexitarren eragina gutxitzeko eta euskal interesak defendatzeko.

— ■ Erresuma Batuko nazioekiko erakunde-harremanak indartu, lankidetzaz aukerak bilatzeko eta Brexitarren efektuak arintzeko bitarteko gisa.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

5. KONPROMISOA

NAZIOARTEKO EZAGUTZA-SAREAK ERAKARRI ETA HORIETARA ATXIKI.

EKINBIDEAK

- Nazioartekotzerako talentua sustatu eta lotu.
Ekinbide honi erantzuteko, EAJk jarduketa hauek garatzea proposatzen du:
 - 01 ■ Kanpo harremanen eta nazioarteko harremanen eremuan gazteen prestakuntza-programak sustatu.
 - Nazioarteko foroetan Euskadi Basque Country proiektua aurkeztuko duten sare eta pertsona giltzarrien estrategia bat ezarri.
- ■ Nazioarteko mugikortasuna sustatu adituen eta funtzionarioen trukearen bidez.

KUDEAKETA GARDEN ETA ARDURATSUA

“EUSKO JAURLARITZA DIGITALA”
ESTRATEGIA ABIARAZI.



I. KUDEAKETA GARDEN ETA ERAGINKORRA.

EAJk berrikuntza digitalak bultzatutako ekonomiaren garapenarekin konprometitutako euskal gizarte batean oinarritutako eredia sustatuko du, guztien ongia lortzeko lan egiten duen gobernu batekin, herritarren parte-hartzea sustatzen duena eta horien premia desberdin eta aldakorrei erantzuten diena.

Euskal administrazio publikoak aldatu behar du, aktiboa izan behar da eta aurrea hartu behar die herritarren eskariei. Hortaz, etapa berri honetan, beharrezkoa da euskal administrazioa “berriz diseinatzea”.

“Berriz diseinatzea” adierazpena aukeratzean, EAJk autoexijentzia areagotzea proposatzen du, hau da, “modernizazio”, “berrikuntza” edo “eraginkortasunaren hobekuntza” soiletatik harago doan konpromiso handiago bat. EAJren konpromisoa da berriz diseinatzeko prozesu hau printzipio gidari hauen inguruan jorratzea: a) hurbiltasuna eta sinpletasuna; b) arintasuna eta eraginkortasuna; c) irekitasuna eta gardentasuna; d) Berritzea eta digitalizazioa eta e) kontu-ematea.

■ **A. Administrazio hurbila eta sinplea**

Gaur egungo euskal gizarteak inoiz baino prestakuntza eta informazio gehiago ditu. Herritarrek hobeto funtzionatzen duten zerbitzu publiko gehiago eskatzen dituzte. Administrazioarekiko harremanetan, hurbiltasuna, malgutasuna, sinpletasuna eta tratua onak eskatzen dituzte. Hizkera argia eta ulergarria erabiltzen duen administrazioa nahi dute. EAJk uste du, oraindik ere, administrazioaren erronka dela herritarrei haien hizkeran hitz egitea, hau da, hizkera argi eta sinplea batean.

■ **B. Administrazio arina eta eraginkorra**

Beharrezkoa da leihatila bakarreko administrazio baterantz aurrera egitea. EAJk proposatzen du erakundeen arteko lankidetzan sakontzea, zuzenean edo digitalki ematen den informazio- eta arreta-puntu bakoitzean, euskal herritarrek zerbitzu publiko guztien gaineko informazioa eduki ahal izateko, zerbitzuak nork ematen dituen gorabehera. Beharrezkoa da herritarren eta administra-

zioaren arteko harremana sinplifikatzea eta etengabeko dokumentazio-izapideak eta eskaerak aurrezte; izan ere, batzuetan, horiek ez dira beharrezkoak administrazioak badituelako eskatutako dokumentuak.

■ **C. Administrazio ireki eta gardena**

Eusko Jaurilaritzak abian jarritako gobernu irekiko prozesuak –Open Government– bultzada berria behar du, herritarrentzako ekintza eraginkorra eta erabilgarria bihurtzeko. EAJk uste du gardentasun-estrategia finkatu behar dela eta herritarren parte-hartzeko eta entzute aktiboko politika baterantz aurrera egin behar dela. Gardentasuna eta parte-hartzea dira herritarrei konfiantza ematen dien administrazio baten gakoak.

■ **D. Administrazio berritu eta digitala**

Sektore publikoaren digitalizazioan aurreratzen jarraitzea prozesu estrategiko bat da euskal herritarrei erantzun arina eta eraginkorragoa emateko. Adimen artifizialaren erabilera, pribatutasun-bermea eta berehalako erantzuna elementu

giltzarriak izango dira herritarren zerbitzura egongo den digitalizazio-prozesu honetan.

Kontua da administrazio digitala pertsonen zerbitzura jartzea, administrazio gizatiarragoa eraikitzeko. Pertsonak datu anonimo bihurtu behar diren, zerbitzu gero eta pertsonalizatuagoak eta bereziagoak eman behar dira. Digitalizazioari eta egikaritzen ari den langileria berritzeko eta gaztetzeko prozesuari esker, euskal administrazioak ordeztzen duen euskal gizartearekin bat datorren gero eta zerbitzu eraginkorragoa eman ahal izango du.

■ **E. “Kontuak ematen dituen” administrazioa**

EAJk uste du gardentasunaren eta erantzukizunaren gakoak dela denbora errealean erantzutea herritarren aurrean gobernu-programan onartutako konpromisoei. Kontuak modu argi, sinple, eskuragarri eta garden batean ematea da tresnarik onena gizarteak konfiantza eman dion gobernuaren sinesgarritasun-maila ebaluatu ahal izateko.

II. KUDEAKETA ARDURATSUA

Eraginkortasun eta gardentasunaz gain, gobernu behartuta dago baliabide publikoen kudeaketan arduratsua izatera. EAJren aburuz, beharrezkoa da kalitatezko zerbitzu publikoak eta gizarte-politika aurreratuak bermatzea, baliabide berriak sortzeko eta kontu orekatuak mantentzeko gaitasuna arriskuan jarri gabe.

Familiek bere baliabideak kudeatzen eta bere gastuak diru-sarreraren arabera lehenesten dakiten bezala, administrazioa behartuta dago erantzukizun-maila berarekin edo handiagoarekin jardutera, kontuan hartuz herritarrek eta enpresek zergen bidez bere esku jartzen dituzten baliabideak kudeatzen ari dela.

Laburbilduz, gardentasuna, eraginkortasuna eta erantzukizuna dira EAJk euskal administrazioa berriz diseinatzeko prozesuan aurrera egiteko proposatzen dituen hiru oinarriak.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

I. KUDEAKETA GARDEN ETA ERAGINKORRA.

1. KONPROMISOA

ADMINISTRAZIO HURBILAGOA ETA SINPLEAGOA.

EKINBIDEAK

— EAJk proposatzen du administrazioaren harreman-eredua berriz diseinatzea herritarrekin batera. “Sinplifikatzeko berritu”. Administrazio-sinplifikazioa printzipio hauen pean: sinpleagoa, errazagoa, hurbilagoa.

01 Hauek dira proposatutako jarduketak:

- Sail bakoitzaren zerbitzu eta prozeduren mapa egin.
- Teknologia digital berriak erabili kontratuetan burokrasia eta erredundantzia murrizteko.
- Herritarrei zerbitzu publikoen inguruko asebetetze-inkestak egin.
- ■ Herritarrei ematen zaien arretaren kanpoko kalitate-kontrola abiarazi.

02 Administrazioa modernizatu eta sinplifikatzeko plana. EAJk proposatzen duen helburua da, legegintzaldian zehar, administrazio-prozedurak % 20 murriztea eta sinplifikatzea. Prozedura gutxiago, seguruagoak eta arinagoak herritarrei arinago erantzuteko.

03 Gobernuaren eta bere sailen informazio-webgune guztietan hizkera sinplea erabili, bereziki, korporazio-webgunean eta herritarrek parte hartzeko prozesuarekin lotutako informazioan.

2. KONPROMISOA

ADMINISTRAZIO ARINAGOA ETA ERAGINKORRAGOA.

EKINBIDEAK

- Herritarrekiko harremanetarako leihatila bakarrentz aurrera egin.

Hauek dira EAJk proposatutako jarduketak:

01

- Euskal administrazioen arteko lankidetzaren protokolo bat garatu, herritarrek administrazioek dagoeneko duten informazioa ez aurkezteko duten eskubidearen pean.
- Administrazioen arteko datu-elkarreragingarritasuna bermatu, pertsona bakoitzaren datuak modu seguru, anonimo eta pribatu batean kudeatuz.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

3. KONPROMISOA ADMINISTRAZIO IREKIAGOA ETA GARDENAGOA.

EKINBIDEAK

- **Open data eta Open Government estrategia bultzatu, herritarrei ematen zaien zerbitzua hobetzen duten aplikazioak garatzeko.**

01

Hauek dira EAJk ekinbide hau garatzeko proposatutako jarduketak:

- Datu anonimoak jaso eta herritarren eskura jartzen dituen plataforma ireki bat ezarri.
- Eskaintako datuetan oinarritutako zerbitzu zehatz berrien aplikazioak bultzatzeko programa bat garatu.
- ■ Legegintzaldian zehar, gutxienez, 25 zerbitzu berri abiarazi modu aktibo batean.

- **Gardentasun-estrategia finkatu eta Eusko Jaurlaritza nazioarteko gardentasunaren aurrealdean kokatu.**

02

EAJk proposatutako jarduketak:

- Gardentasunari buruzko sail arteko lantalde bat sortu.
- ■ Eskaintako informazioa egokitu modu argiago, sinpleago eta erabilgarriago batean.

03

Administrazioan kargu publikoak dituzten zuzendaritza-kideen kode etikoarekiko eta gobernu onarekiko konpromisoa berritu eta eguneratu. Etika- eta gardentasun-erreferente bat izan sektore pribatuarentzat ere bai.

- **Herritarrek parte hartzeko eta haien iritzia aktiboki entzuteko prozesua handitu.**

Hauek dira EAJk proposatutako jarduketak:

- Herritarren parte-hartzea planifikatu zuzeneko formatuetan eta online plataformen bidez.
- Legegintzaldian zehar garatzeko prozesu parte-hartzaileen sail arteko plan bat onetsi (planak, legeak, dekretuak, ekimenak...).
- Apurka-apurka, herritarren iritzia aktiboki entzutea txertatu gobernuaren planen eta araudi-proiektuen prozesu parte-hartzaileetan.
- 04 ■ Entzute aktibo irekiaren eta herritarren auditoretza-prozesuen arteko konexioa bermatu, politika publikoen ebaluazioa hobetzeko.
- Proiektu esperimental gisa abiarazi entzute aktiboko plataforma bat, sare sozialen bidez herritarren proposamenak jasotzeko eta horiek interpelatutako sailetara bideratzeko.
- Sail desberdinek kudeatuko dituzten gaien araberako herritarrentzako postontziak ireki.
- Herritarren legegintzako ekimeneko prozesuaren bidez herritarren parte-hartze formala bermatzen duen web-plataforma bat artikulatu, atxikipenen prozesua bermatuz eta parte-hartzaileen identitatea egiaztatuz.

4. KONPROMISOA

ADMINISTRAZIO DIGITALAGO ETA BERRITUAGO BATERANTZ.

EKINBIDEAK

— **“Eusko Jaurlaritza Digitala” estrategia abiarazi Digitalizazioa bultzatu eraginkortasuna hobetzeko.**
EAJk jarduketa hauek proposatzen ditu:

01

- Paperik gabeko administrazioa eta administrazioen eta sektore pribatuaren arteko elkarreragingarritasuna egikaritu, herritarren karpeta bateratu bat sortuz.
- Euskadi konektatu administrazioaren eraldaketa digitalean eta zerbitzu digitaletan puntakoak diren Europako herrialde eta ekimenekin.
- Emandako zerbitzu digitalen kalitatea ebaluatzeko eredu bat sortu, konparazioa eta eboluzio-analisia ahalbidetzen dituen.

— **Euskadi “erakarpen digitaleko polo” bihurtu, antolakuntza publiko eta pribatuen ekosistema digital bat sortuz.**

EAJk proposatutako jarduketak:

02

- Zibersegurtasuneko euskal sektorea sustatu eskaintza eta eskaria garatzeko ekintzen bitartez.
- Eusko Jaurlaritzak eta foru aldundiek garatutako berrikuntza digitaleko ekimen publikoak partekatu.
- Unibertsitate, enpresa eta parke teknologikoekiko lankidetzaren indartu gobernaren zerbitzu digitalak hobetzeko.

— **Berriz diseinatu pertsonen premietara bideratutako zerbitzu digital aktiboak.**

Hauek dira EAJk proposatutako jarduketak:

03

- Erabiltzaileengan zentratutako zerbitzu digitalak diseinatzeko bikaintasun-zentro bat eratu.
- Herritarren berebiziko uneetan oinarritutako zerbitzu digital aktiboak garatu.
- Bitarteko digitalen bidez dokumentazio eskuragarriaren erabilera ezarri.
- Funtzionarioentzako administrazio digitalen inguruko prestakuntza-programa bat abiarazi.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

04 — **Teknologia berriak eta berrikuntza teknologikoa baliatu gobernuaren ekintza eta herritarrei ematen zaien zerbitzua hobetze aldera.**

EAJk proposatutako jarduketak:

- *Blockchain*-ean oinarritutako administrazioen arteko erregistro bateratu eta federatuko sistema bat sortu.
- Prozesuen automatizazio robotikoa aplikatu, aplikazioen erabileran gizakiek esku hartzeko beharra eta akatsen arriskua murrizteko.
- Euskal sektore teknologikoarekiko lankidetzaren indartzea, bereziki, adimen artifizialaren ingurunean.
- Herritarrentzako zerbitzu publikoen eta programen inguruko informazioa hobetzen duten adimen artifizialeko aplikazioak garatu.

05 — **Aurrera egin euskal nortasun-eredu digital batean.**

EAJk proposatutako jarduketak:

- Hauxe ahalbidetzen duen euskal nortasun-eredu digitaleko proiektu pilotu bat garatu:
 - Datuen segurtasuna eta horien analisia.
 - Administrazioarekin harremanetan jartzeko eta zerbitzuak emateko leihatila bakarraren erabilera.

06 — **Euskadiri gobernuaren eta euskal gizartearen garapen digitalerako azpiegiturak hornitu.**

Hauek dira EAJk proposatutako jarduketak:

- Foru aldundiekiko lankidetzaren areagotzea, banda zabal ultra azkarra hedatzeko.
- "Smart territory" estrategia bultzatzen duten plataforma digital berrien erabilera zehaztu eta areagotu.
- Zerbitzu digitalak diseinatu euskal sektore publiko osoarekin elkarlanean, bereziki, mugikortasunaren, hondakinen bilketaren eta bestelako zerbitzu publikoen arloetarako.
- Eredu egokia ezarri 5G sareak eta azpiegiturak eraginkortasunez hedatzeko.
- Lurralde osoan banda zabaleko sareak hedatzeko laguntzen programa garatu.
- Azpiegituren segurtasun- eta zibersegurtasun-mekanismoak hobetu, arreta berezia jarriz kritikoenetan.

07 — **Langileria berritzen jarraitu.**

Kalkulatzen da, hurrengo hamarkadan, 40.000 funtzionario inguru helduko direla erretiro-adinera.

- EAJren konpromisoa da aurreko legegintzaldian abian jarritako langileria berritzeko prozesuarekin jarraitzea.

Helburu hori betetzeko, 2021-2024 horizontean, gutxienez, 13.000 plaza onartuko dira langileria berritzeko enplegu-eskaintza publiko berrietan.

5. KONPROMISOA

KONTUAK DENBORA ERREALEAN EMAN.

EKINBIDEAK

01

Gobernuak garatutako jarduketak denbora errealean eguneratu eta hedatu, parlamentuari eta gizarteari aurkeztutako gobernu-programaren betetze-mailaren berri emateko.

Herritarren inplikazioa politika publikoen ebaluazioan eta kontu-ematean.

Hauek dira EAJk proposatutako jarduketak:

02

- Herritarren auditoretza bat egin gobernu-programaren betetze-mailari eta kontu-emateari buruz, eraginkorragoa izateko.
- Programak garatu kexak aurkezteko ariketa askea ekarpen positibo bihurtzeko eta, horrela, eskainitako zerbitzuak, prozesuak eta politikak hobetzeko.

Berriz diseinatu adierazle-sistema, herritarren konfiantza eta etika digitala bultzatuz.

EAJk proposatutako jarduketak:

03

- Sailek partekatutako adierazleen dibulgazio-plan bat abiarazi.
- Berriz diseinatu informazioa biltzeko sistema, datuetan oinarritutako erabakiak hartze aldera.
- Erlazio-eredu berriaren ondoriozko adierazleak gehitu “administrazio-adimeneko” sistemara.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

II. KUDEAKETA ARDURATSUA.

6. KONPROMISOA

BALIABIDE PUBLIKOEN KUDEAKETA ARDURATSUA GARATU.

EKINBIDEAK

01

EAJk proposatzen du herrialde-erronka handiei aurre egiteko plangintza estrategikoa garatzea (demografikoa eta giza kapitalaren erronka; teknologikoa eta digitala; trantsizio energetiko eta ekologikoaren erronka eta berdintasunaren eta gizarte-kohesioaren erronka), baita politika publikoen ebaluazioa egitea ere.

02

Egonkortasun-helburuak bete eta zerga-finkapenarekin jarraitu egoera eta ziklo ekonomikora egokitzeko esparru malgu baten barruan, zehazki, Ekonomiaren Itunaren Batzorde Mistoaren esparruan hartutako erabakien bidez.

03

EAJk gardentasunezko eta kontuak emateko eredu bat proposatzen du, bai euskal arlo ekonomiko-finantzarioan, bai kontratazio publikoan.

04

Gastu arrunta eusteko eta inbertsioa sustatzeko politika, inbertsio publikoen epe ertainerako programazio baten bidez.

7. KONPROMISOA

FINANTZA- ETA ZERGA-POLITIKA ERABILI EKONOMIAREN GARAPEN, ENPRESA-ERROTZE ETA BERRIKUNTZAREN ALDE.

EKINBIDEAK

01

EAJk proposatzen du Finkatuz funts publikoa ezartzea eta, hala badagokio, handitzea, euskal enpresa handien errotzea eta egitura ekonomikoan duten trakzio-efektua bermatze aldera.

02

ETEen finantziakzioa indartu, arrisku-kapitalaren eta kredituaren bitartez, bai funts publikoekin, bai funts pribatuekin baterako inbertsio-estrategietan. Era berean, finantziakzio publikoaren berrantolaketa bukatuko da Finantzen Euskal Institutuaren inguruan.

03

Erosketa publiko berritzaileko programak sustatu, bereziki, 2030 horizonterako Euskadiko Espezializazio Adimentsuko Estrategian (RIS3 Euskadi) ezarritako lehentasunezko sektore eta jardueretan.

04

Finantziakzio jasagarria bultzatzen jarraitu, bonuak eta maileguak igorritik, hain zuzen ere, Garapen Iraunkorreko Helburuak eta Europako esparrua jarraituz.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

8. KONPROMISOA

OGASUNAREN ETA ARAUKETA EKONOMIKO-FINANTZARIOAREN EREMUAN ANTOLAMENDU JURIDIKOA EGUNERATU ETA GARATU.

EKINBIDEAK

— Estatuarekin daukagun harreman ekonomikoa eguneratu eta egokitu, gure zerga-harremanak (Ekonomia Itunaren eguneraketa zerga berriak itunduz) eta finantza-harremanak (hurrengo bosturtekorako Kupoaren Legearen eguneraketa) hobetzen dituzten tresnen gainean jardunez.

01

Ondorio horietarako, EAJK jarduketa hauek proposatzen ditu:

- Berrikusi behar diren ogasunaren berezko gaien arauketa eguneratu (aurrekontu-araubidea, laguntza eta diru-laguntza publikoak, finantza-tresnak eta politika, etab.).
- Zerga berriak ituntzea aurreikusiz, Ekonomiaren Itunaren Legearen eta hurrengo bosturtekorako Kupoaren Legearen eguneraketa egin.

02

— Eusko Jaurlaritzaren eta foru aldundien arteko ekarpenen lege berria adostu, baita hori Eusko Legebiltzarrean lege-proiektu gisa izapidetzea ere.

03

— Euskadin borondatezko gizarte-aurreikuspen osagarriaren orokortzea sustatu, arreta berezia jarritz errenta ertain eta baxuetan eta dagozkien zerga-pizgarriak ezarritz.

04

— Aurrera egin informazio estatistiko publikoaren koordinazioan eta zentralizazioan, baita 2023-2026 Euskal Estatistika Plana onetsi ere.

9. KONPROMISOA

ZERGA-IRUZURRAREN AURKA BORROKATU.

EKINBIDEAK

01

EAJk zerga-iruzurraren aurka borrokatzeko urteko plan integral bat egitea proposatzen du, foru aldundiekin elkarlanean.

02

Zerga-iruzurraren aurkako jarduketan eraginkortasuna areagotu, administrazioen artean informazioa trukatzeko sistemak hobetuz eta horietan sakonduz.

KONPROMISOAK ETA EKINBIDEAK

10. KONPROMISOA

KONTRATAZIO PUBLIKOA GIZARTE-ERANTZUKIZUNAREN ETA KALITATEZKO ENPLEGUAREN ZERBITZURA.

EKINBIDEAK

01

EAJk proposatzen du kontratazio publikoan gizarte-klausulen txertaketa eguneratzea, zehazki, pertsonarik ahulenen kalitatezko enplegua, gizarteratzea eta laneratzea sustatzeko, baita enplegu eta gizarteratzeko zentro bereziei bultzada emateko ere.

02

Kontratazio publikoan ingurumen-klausulei buruzko gomendioak aplikatu.

03

% 100ean iturri berriztagarriek sortutako energia elektrikoaren kontratazio zentralizatua bermatu gobernuaren aldetik.

04

EAJk proposatzen du kontratazio publikoan ordainsari-berdintasunaren aldeko eta soldata-arrakalaren aurkako klausulak garatzea eta gauzatzea.

KUDEAKETA GARDEN ETA ARDURATSUA



AUTOGOBERNUA

GERNIKAKO ESTATUTUAN AITORTUTAKO
BURUJABETZA OSATU ETA ESTATUTU POLITIKO
BERRIA ONARTU EUSKADIRENTZAT.

A. ESTATUTU POLITIKO BERRIA

- Azkenengo bi legegintzaldietan, Eusko Legebiltzarrak euskal autogobernuaren eguneraketan aurrera egin du, Euskal Herriaren borondate demokratikoaren adierazpen juridikoa izango den estatus berri bat eraikitzeke oinarriak artikulatuz. Izan ere, gure herriak berretsi egin du bere burua gobernatu nahi duela, herritar guztiarentzat ongizate handiagoa lortzen duen proiektu baten bilaketan.
- EAJrentzat, euskal autogobernuaren eguneraketaren oinarritzko printzipioa honakoa onartzea eta aitortzea izan da: Euskal Herriak berezko nortasuna du; historian zehar biziraun duen hizkuntza eta kultur ondare zein ondare juridiko-instituzionalaren gordailuzaina da eta geografikoki zazpi lurraldetan kokatuta dago, politikoki Europako bi estatu desberdinetan –Espainia eta Frantzia– eta hiru erakunde-eremu bereizietan artikulatutakoak. Zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lurraldeak hartzen ditu; Nafarroako Foru Erkidegoa eta Lapurdik, Zuberoak eta Behe Nafarroak osatutako Iparraldeko Mankomunitatearen lurraldea.
- Horregatik, hurrengo legegintzaldian ezarri nahi dugun esparru juridiko-politiko berriak ezarri behar du Euskal Erkidegoak autogobernua lortzen duela Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako lurraldeetako herritarren borondate demokratikoaren eta nazio nortasunaren adierazpen gisa. Horren ondorioz, Euskal Herria –horrela aitortzen dute herritar gehienek– erakunde-subjektu politikoa bihurtzen da, Nafarroako Foru Erkidegoarekin eta Frantziako Estatuan dauden euskal lurraldeekin harremanak ezartzera irekita

egongo dena, horiekin, besteak beste, hizkuntza, kultura eta/edo interes sozial eta ekonomikoak partekatzen baititu. Hori guztia egingo da erakundeen borondatea errespetatuz eta betiere Europar Batasunaren aitopenearekin.

BURUJABETZAREN EGUNERAKETA ETA ERABAKITZEKO ESKUBIDE

- Estatu politiko berri batean –oinarritzko erakunde-araua– jasotako euskal autogobernuaren eguneraketa eskubide historikoen garapenean eta eguneraketan oinarritu eta egituratu egingo da eta, zentzu horretan, Espainiako Konstituzioaren 1. xedapen gehigarriaren eta Gernikako Estatuaren xedapen gehigarriaren potentzialaren garapenean ere bai.
- Estatu horrek Euskal Herriaren eta Espainiako Estatuaren arteko harremana artikulatuko du, berdintasun politikoko, erakunde-errespetuko eta elkarrekiko aitopeneke eredu baten bidez; horrez gain, izaera konfederala izango du. Autogobernua materiala eta politikoa blindatzen dituen alde biko berme-sistema bat jorratuko du, gerta daitezkeen gatazkak konponduz leialtasun- eta lankidetzaren bidez eta horien judizializazioa saihestuz.
- Euskal herritarren borondatea ulertzeko moduaren ondorio gisa, EAJK uste du Euskal Herriaren eskubide historikoak, bere autogobernuaren erakunde-adierazpen gisa, erabat gauzatzeko direla bertako herritarrek askatasunez eta demokratikoki adierazitako erabakitzeke eskubidearen bidez; eskubide horren erabilera Estatuarekin itundu beharko da. Horrela, erabakitzeke eskubidea ez

da euskal abertzaleen ondare den hautu bat. Herritarren oinarritzko eskubidea da. Eskubide demokratiko hau aitortu behar da eta bere erabilera zehatza legez arautu eta itundu behar da.

- Euskal herritarrek bere etorkizunaren inguruan erabakitzeke eskubidea, kontsultatuak izateke eskubidea eta demokratikoki adierazten duten borondatea errespetatua izateke eskubidea erabili behar dituzte, printzipio demokratikorik oinarritzkoenak herritarren gehiengo borondateari balio arauemaile nabarmena emateko eskatzen baitu. Hortaz, inplikaturako eragile politikoeke eta erakunde-eragileek beharrezko doikuntzak negoziatu beharko dituzte araudi-esparruetan borondate horren adierazpen argiari erantzuteko.

BOTERE MUINA. ESKUBIDE HISTORIKOEN LOTUNEA

- Adierazpen juridiko-politiko berriaren eskumen-eremuan, EAJK uste du beharrezkoa dela euskal autogobernuaren botere muina sakonki eraldatzea, estatus berria errotze sakonago batekin lotuz eskubide historikoetan.
- Estatu politiko berriak txertatuko duen eskumen-mugaketa Euskal Herriaren eta Estatuaren arteko alde biko harreman-eredu berrira egokitu egingo da, parekoen artekoa, errespetuzkoa, elkarrekiko aitopeneke eta izaera konfederala izango dena. Elkarbizitza- eta harreman-estatus berri eta berezi bat artikulatuko da, XXI. mendean munduan eta Europar suertatuko diren inguruabar ekonomiko, sozial eta politikoen arabera antolakuntza politikoko forma berrietara

egokitutakoa. Eskumen-esparru berriak barne hartu behar ditu bere lurralde-eremuan egikaritu beharreko eskumenak eta Estatuaren eta Europar Batasunaren eremuan eta atzerriko edo nazioarteko ekintzari dagokionean erabakitzeko zenbait ahalmen eta gaitasun ere bai.

■ Euskal autogobernuaren eguneraketak euskal gizarteak gaur egun gure eskumen-gaitasunari buruz egiten dituen eskari eta premien berritzea eta egokitzapena hartu behar ditu barne, euskal autogobernua mugatzen duten eskumen-oinarriak berraztertuz, hain zuzen ere, hauxe lortzeko: egungo Estatutua amaitu; erkidego-esperientzian zehar murriztutako autogobernua berreskuratu eta eskumen-quantuma handitu indarreko Estatutuan aurreikusitako eskumen guztiei dagokienez, berezko eskumen-katalogora gehituz euskal herritarren eskubide politikoak, ekonomikoak, sozialak, linguistikoak eta kulturalak bermatzeko beharrezko eskumen guztiak.

■ EAJrentzat, Euskadiren eta Estatuaren arteko harremanak printzipio hauetatik abiatuta kudeatu beharko dira: elkarrekiko aitortpena; leialtasuna; erakunde-errespetua; lankidetzak; koordinazioa; lehiakortasuna eta berezko foru gaien berezitasunak babesteko alde biko mekanismoak eta tresnak, Estatuak, bere eskumenak erabiltzean, horietan eragiten duenean edo horiek uki ditzakeenean. Horrela, Estatuari emaitza bat inposatu beharrean edo alderantziz, artikulatuko den ereduak aukera emango du bere artikulazio eraginkorra alde biko batzorde baten menpe jartzeko: Politika eta Lankidetzak Itunaren Batzorde berria. Horrez gain, Ekonomia Itunaren ereduaren ezartzen denaren antzera, EAJK

jurisdikzio-bidearen aurretiazko Arbitraje Batzorde bat sortzea proposatuko du, eskumena izango duena Estatuaren eta Euskadiren arteko eskumen-gatazkak konpontzeko berezko botere muina eraginpean dagoenean.

■ EAJK babesten duen autogobernua eguneratzeko proposamenak Euskadiren parte-hartzea aurreikusten du Europar Batasunaren esparruan, besteak beste, alderdi hauetan: eratzeko tratatuen erreforma; Estatuaren posizioaren eraketa; Europako erakunde eta organismoetan esku hartzea; subsidiariotasun eta proportzionaltasun printzipioen erreferentzia; batasuneko zuzenbidearen garapena eta egikaritzapena edo ordezkaritza eta defentsa Justizia Auzitegiaren aurrean eta delegazio iraunkorra Europar Batasunaren aurrean.

EUSKAL HERRITARREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK HANDITU.

■ EAJK printzipio gisa hartzen du ez da goela oparotasun jasangarririk eta onargarririk baldin eta aukera-berdintasunean eta gizarte-justizian oinarritzen ez bada. Hala, uste du oinarri horiek gizarte-, ekonomia- eta kultura-eskubideen aitortpen formalean objektibatu behar direla.

■ Horrenbestez, itun politiko eta sozial berri bat proposatzen dugu hobeto bultzeko eta elkarbizitza hobea edukitzeko, hau da, topagune bat bere orainari eta etorkizunari buruzko erabakiak berdintasunean hartzen dituzten emakume eta gizon askeek osatutako euskal gizarte moderno, anitz, berdintasunezko eta kohesionatu baten eraikuntzan aurrera egitea ahalbidetzen diguna. Funtsezko eskubide eta betebeharrekin konpro-

metitutako Euskadi bat, XXI. mendeko munduan eta Europar moldatzea ahalbidetzen diguna.

■ Ildo horretatik, EAJK bere egiten du autogobernu ponentziaren barruan pertsonen eskubideen zerrenda oso bat txertatzeko lortutako akordio zabala; izan ere, horrek aurrerapen nabarmena dakar egungo Estatutuarekin alderatuta, eskubide horien onuradun gisa hartzen dituelako administrazio-egoitza lurraldeko edozein udalerritan duten pertsonak eta, aldi berean, prestazio-eskubideetan, legeek ezartzen dutenaren arabera, galdagarritasuna bermatzen duelako. Halaber, ados gaude eskubide horien babesa Arbitraje eta Estatutu Bermeen Batzordeari esleitzeko behararekin, testu artikulatu berriaren erreferentzia berezia eginez generoen arteko berdintasunari eta emakumeak bereizteko kausak deuseztatzeari.

Hurrengo legegintzaldirako, EAJk konpromisoa hartzen du Eusko Legebiltzarrean ponentzia bat sustatzeko, Euskadiko autogobernua eguneratzeko ponentziak legegintzaldi honetan burututako lanekin jarraituko duena, lan horiek bukatzeko eta ahalik eta adostasunik handienarekin ezartzeko testu artikulatu bat. Horrek, ezarritako eta aurreikusitako lege-bideei jarraituz, Estaturua aldatzeko lege-proiektuaren forma hartuko du. Gasteizko Ganberaren gehiengoak adostu eta onetsi ostean eta euskal herritarrek gaikuntza-kontsulta burutu aurretik, lege-proiektu hori, antolamendu juridikoak ezartzen duen bezala, Gorte Nagusiei bidaliko zaie, lege gisa promulgatzeko eta, gero, euskal herritarrek berresteko.

Zentzu horretan, programa-konpromiso honek hauxe aurreikusi beharko du:

1.-Legebiltzarraren oinarritzko barne-akordio bat, Eusko Legebiltzarrean ordezkariak hautetsiaren ahalik eta adostasunik handiena duena.

2.-Hartutako akordioak **legezkotasun-eta demokrazia-printzipioetan** oinarritutako **araudi-proiektu artikulatu bat** aurkeztuko du eta, hori Estatuarekin negoziatu aurretik, euskal herritarrekin kontsultatu ahalko da.

Euskal autogobernua eguneratzeko prozesua legezkotasun-printzipioa errespetatuz garatu beharko da, hau da, Konstituzioaren lehenengo xedapen gehigarriaren eta egungo Estatuaren xedapen bakarraren aranerara. Edonola ere, uneoro bilatu beharko da herriaren borondatearen errespetua aplikatzeko eta antolamendu juridikoan lotzeko bide bat. Printzipio demokratikoak eskatzen du lehen mailako balio nabarmena emateko euskal herritarren erabakiari; hortaz, Estatuak bere gain hartu behar du euskal herritarrek adierazitako nahari erantzuteko beharrezko lege-doikuntzak negoziatzeko eta erabakitzeko betebeharra, hain zuzen ere, aldebakartasun-printzipioa baztertuz:

Estatus berriaren proposamenak elementu berezi eta nagusi gisa aurreikusi beharko ditu hauek:

1. Euskadiren nazio aitortzea

Proposatzen dugu euskal autogobernua eguneratzeko etorkizuneko akordioak euskal herriaren identitate nazionala aitortzea. Hala, aitorten horrek euskal gizartean herritar askok partekatzen duten nazio bateko kide-sentimendua jasoko du.

2. Aniztasunaren errespetua

Euskadi errealitate nazional ireki eta anitz bat da, XXI. mendeko nazioen bereizgarria. Horrenbestez, bere instituzionalizazioa kide-sentimendu desberdinen errespetuan eta aitortzean oinarritu behar da eta helburua da lortzea, heterogenotasunaren onarpenetik, inork ez dezala bereganatu behar bestearen identitate-atxikipena.

3. Erabakitzeko eskubidea

EAJk uste du Euskal Herriaren eskubide historikoak, bere autogobernuaren erakunde-adierazpen gisa, erabat gauzatzeko direla bertako herritarrek askatasunez eta demokratikoki adierazitako erabakitzeko eskubidearen bidez; eskubide horren erabilera zehatza Estatuarekin itundu beharko da.

4. Aldebikotasuna Euskadi-Estatua harremanak

Euskadiren eta Estatuaren arteko harremanak alde bikoak izan beharko dira eta printzipio hauetan oinarrituko dira: elkarrekiko aintzatespena, lankidetzak, koordinazioa, lehiakortasuna eta berezko gaiak babesteko tresnak. Zentzu horretan, alde biko topaketarako bi tresna gaituko dira: Politika eta Lankidetzak Itunaren Batzorde Misto eta Arbitraje Batzordea, jurisdikzio-bidearen aurretiazko instantzia, eskumena izango duena Estatuaren eta Euskadiren arteko eskumen-gatazkak kudeatzeko.

KONPROMISOA ETA EKINBIDEAK

B. GERNIKAKO ESTATUTUAN AITORTUTAKO AUTOGOBERNUA OSATU.

1. KONPROMISOA

GERNIKAKO ESTATUTUAN AITORTUTAKO AUTOGOBERNUA OSATU.

EKINBIDEAK

01

Oraindik transferitu ez diren Gernikako Estatutuko eskumen guztiak gauzatu, Eusko Legebiltzarraren adierazpenen arabera eta Espainiako Gobernuak 2020ko otsailaren 20an ofizialki formalizatutako negoziazio-kronograman aitortutako konpromisoari jarraiki.

Egiteke dauden transferentzien zerrenda:

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO GOBERNUAK ESKATUTAKO TRANSFERENTZIEI BURUZKO BALIZKO NEGOZIAZIOETARAKO KRONOGRAMA-PROPOSAMEN ORIENTAGARRIA (2020ko otsaila)			
LOKEAK ETA GAIAK	MINISTERIO ESKUDUNAK	HASIERA	AMAIERA
I. BLOKEA			
1. Farmazia-produktuak	Osasuna(*)	2020ko otsaila	2020ko martxoa
2. Eskola-asegurua	Hezkuntza eta Lanbide-heziketa Lana eta Gizarte-ekonomia(*)		
3. Enplegu-erregulazioko espedienteek ukitutako langileen ohiko erretiroaren aurretiazko laguntzak	Lana eta Gizarte-ekonomia(*)		
2. BLOKEA			
4. Aseguruak	Gai Ekonomikoak eta Eraldaketa Digitala	2020ko ekaina	2020ko abendua
5. Segurtasun-zerbitzu pribatuak	Barnealdea		
6. Meteorologia	Trantsizio Ekologikoa eta Erronka Demografikoa		
7. Nekazaritza-asegurua	Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura		
8. Errepidez garraiatzea	Garraioa, Mugikortasuna eta Hiri-agenda		
9. Zinematografia babesteko funtsa	Kultura eta kirolak		
10. Arrainkien eta itsas hazkuntzen merkatua	Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura		
11. Turismo-paradoreak	Industria, Merkataritza eta Turismoa		
12. ISBN eta ISSN zenbakien esleipena	Kultura eta kirolak		
13. Kostalde-antolamendua eta kudeaketa	Trantsizio Ekologikoa eta Erronka Demografikoa		
14. Espetxeen kudeaketa	Barnealdea		

* 2020ko ekainaren 25eko Transferentzien Batzorde Mistoak eskualdatu beharreko gaiak.

3. BLOKEA			
15. Kreditu ofiziala 16. Kreditua eta Banka 17. Balore-merkatua	Gai Ekonomikoak eta Eraldaketa Digitala	2021eko urtarrila	2021eko ekaina
18. Ikerketa eta laguntza teknikoko zentroak	Lana eta Gizarte-ekonomia		
19. Hidrokarburoak	Trantsizio Ekologikoa eta Erronka Demografikoa		
20. Itsas-salbamendua	Garraioa, Mugikortasuna eta Hiri-agenda		
21. Estatuko sektore publikoa	Ogasuna		
22. Erakunde-administrazioa eta berrikuntza teknologikoa (IMPI eta IDAE zaharrak)	Industria, Merkataritza eta Turismoa Trantsizio Ekologikoa eta Erronka Demografikoa		
23. Trenbide-garraioko eginkizunak FEVE zaharraren zenbait lineatan eta aldiriko lineatan	Garraioa, Mugikortasuna eta Hiri-agenda		
24. Aireportuak	Garraioa, Mugikortasuna eta Hiri-agenda		
25. Interes orokorreko portuak	Garraioa, Mugikortasuna eta Hiri-agenda		
26. Immigrazioa	Gizarteratzea, Gizarte Segurantzaren eta Migrazioak.		
27. Atzerriko tituluak eta ikasketak unibertsitate-ikasketetan	Hezkuntza eta Lanbide-heziketa		
28. Ibilgailuen matrikulaziorako eta zirkulaziorako baimenak	Barnealdea		
29. Udal hauteskunde-araubidea	Barnealdea		
30. Arrantza-ikuskapena	Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura		
31. Obra publikoen Ikasketa eta Esperimintazio Zentroa	Garraioa, Mugikortasuna eta Hiri-agenda		
4. BLOKEA			
32. Gizarte Segurantzaren kudeaketa ekonomikoarekin lotutako gaien inguruko azterlanak abiarazi	Gizarteratzea, Gizarte Segurantzaren eta Migrazioak	2021eko ekaina	2021eko abendua

KONPROMISOA ETA EKINBIDEAK

C. BURUJABETZA BARRURANTZ HOBETU.

2. KONPROMISOA

BURUJABETZA BARRURANTZ AREAGOTU ETA HOBETU, GERO PARLAMENTUARI BIDALIKO ZAIZKION LEGE-PROIEKTUAK ETA, HALA BADAGOKIO, PROPOSAMENAK ONETSIZ, BERTAN EZTABAIDATZEKO ETA EUSKO LEGEBILTZARRAK DAGOZKION LEGEAK ONESTEKO.

EKINBIDEAK

01

XII. legegintzaldian parlamentuari bidaliko zaizkion lege-proiektu eta proposamen hauen onespena. Hasierako zerrenda hau ez da zehatza, legegintzaldiaren hasieran parlamentuari bidaliko zaion legegintzaldi-programa batean baieztatuko delako.

ZENBAKIA	LEGE-PROIEKTUAK-PROPOSAMENAK
1	Kirol arloko Lanbideetan Sartzea (*)
2	Zehatzeko ahalaren legearen aldaketa (*)
3	Xedapen orokorren lanketa (*)
4	Euskal Enplegu Publikoa (*)
5	Gurtza-zentroak (*)
6	Ondare naturalaren kontserbazioa (*)
7	Ingurumen-administrazioa (*)
8	Mugikortasun jasangarria (*)
9	Berdintasun-legearen aldaketa (*)
10	Gazteria (*)
11	Kidegoak eta Eskalak (*)
12	Diru-sarrerak bermatzeko errenta aldaketa(*)
13	Euskal Autonomia Erkidegoko diru-laguntzen araubidea.
14	Klima-aldaketa
15	Landa-garapena
16	Euskal Autonomia Erkidegoko Jarduera Fisikoa eta Kirola.
17	Euskadiko Dokumentu Ondarea eta Artxibo Sistema
18	Haur eta nerabeen eskubideak
19	Hezkuntza
20	Euskal Enplegu Sistema
21	Kasazio-errekurtso zibila
22	Osasun publikoa
23	Kontsumitzaileen Estatutua
24	Memoria historikoa
25	Trantsizio energetikoa
26	Euskal ganberak
27	Merkataritza-jarduera
28	Dibertsitate-berdintasunari eta bereizkeriaren aurka borrokatzeari buruzko integrala

(*) Erreferentziatzen hartuko da XI. legegintzaldian proiektu hauetan garatutako lan



EAJ-PNV.EUS

